



LC teknika desberdinen erabilera  
Sindrome metabolikoaren aurkako terapian  
erabiltzen diren farmakoen determinaziorako

Gorka Iriarte Saenz de Ojer  
2011ko ekaina







**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA  
KIMIKA ANALITIKOA SAILA**

**LC teknika desberdinen erabilera Sindrome metabolikoaren  
aurkako terapian erabiltzen diren farmakoen  
determinaziorako**

**Izena duen Txostena  
Zientzia Kimikotan Doktore-Maila eskuratzeko**

**GORKA IRIARTE SAENZ DE OJER**

**Zuzendariak:**  
MIREN ITXASO MAGUREGUI OLABARRIA  
ROSA MARIA ALONSO ROJAS

Leioa, 2011.



# Esker onak

Bidea zaila eta luzea izan da, bai, baina azkenean zikloa ixtera doa. Asko zarete atal honetan agertu beharko zinateketenak. Gehiegi akaso. Oroitzapen asko, momentu onak eta une txarrak. Azken hauetan ere, tesia lagun. Edo hobeto esanda, tesiaren atzetik, lagunak. Elkartasuna eta kidesasuna nagusi. Esker oneko hitzak baino ez ditut zuentzat guztientzat.

Orokortasunetik zehaztasunera jauzia egiterakoan, ordea, protokolutik eskapo egin behar dut. Duintasunak hala agintzen didalako. Eskerrak bihotzak berak idazten dituelako.

Urtea baino ez da dispertsio politika kriminalak behartuta, Valdemoro edo Murcia-ko espetxeetan elkar ikusi ginenetik. Milaka kilometro, lau kristal, 40 minutu eta elkartasuna. Zuen irriparrak, animoak eta besarkadak. Eta azkeneko bi minutuetan, tesia. Joder, une horietan ere atzetik segika. Itxaso, Oskar, Enara, Alaznikov eta Urdax, jasotakoa eskertuko duen hitzik ez dut. Rosa "A" eta Rosa "B", Juan, "Fräulein" Nerea, Nerea "Castro", Estitxu, Mari Luz, Itxaso Junior, Sion, mintegiko lagunak, frutakideak . . . zuen gutunetako lerro bakoitza lau paretetako bero itogarri hura freskatzeko modurik eraginkorrena izan zela aitortu behar dizuet. Zuek gomendaturiko liburuak, gordeta dudan altxorra. Jasotako elkartasuna, betiko gordeko dudana.

Esan dudan bezala, tesia une zailenetan ere ondoan izan dut. Bidelagun. Zuk Itxaso eta zuk Rosa, hala nahi izan zenutelako. Jon Irazusta euskara errektoreordea zenaren (egun irakalseen errektoreordea) laguntzarekin, espetxeetako muruak gainditu zenituzten. Espetxeko segurtasun zuzendariordea aztoratuz, Madrilgo *Instituciones Penitenciarias*-eko burokratak presionatuz, tesia nire ziegara iritsi zen. Moduluko eskolan, ziegaren bakardadean eta isolamenduan, nire itzala bilakatu arte. Zuei esker. Edo zuen erruz. Zeinek daki.

Tesia, zutik jarraitzeko arrazoi bilakatu zen. Duintasuna berriz, makulua. Eta hori, zuei esker, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK) osatzen duzuen emakume eta gizonei esker. Unerik zailenetan, momenturik latzenetan, egunez egun duintasun hitza dimentsio berri batera eramaten duzuen guztioi esker. Bereziki zuek hiru, Pifo, Erraize eta Iratxe gogora ekarri nahi zaituztet. Duzuen onena emateko prest, duintasuna edukiz betetzeko irrikan. Duintasunaren eredu. Joxe Mari, Ruben, Andoni, Marín, Zola, Araguas, Casanova . . . eta gainerako guztiak, nire bihotzean zaudete. Eskubidez eskubide, urratsez urrats, zuek barrutik eta gu kanpotik, berandu baino lehen askatasunean elkartuko gara. Emandako guztia ez da bidean geratuko. Eutsi lagunak !!

Egin dezagun salto Unibertsitatera. Orain bai, tesiko zuzendariak zareten Itxaso eta Rosa, eskerrik zintzoenak. Denbora ez da alferrik pasatzen, bikote. Zuzentzen geroz eta *blanditagoak* zarete, kaxkagorrangoak. Ainhoak eta Maddik izango dute errua, ala adina ote? Eta honen harira, Rosa Jimenez, garai onean hartu duzu zuk erretreta. Aizu, tesia bukatutakoan jubilatze-ko aukerarik izango ote dut nik?

Goazen Leioako zulora, laborategiko unibertsora, azken batean hemen gorpuztu baita egun honetan eskertzen ari naizena. Moskard, zure excel amaigabeek guztion existentzia erraztu dute. Pazientzia eta konstantzia. Doktore jauna, Jimenezen bulego eskura daukazu. Emaiok

egurre!! Animo eta suerte!! Juan, hi haiz hi elementua: zure dantza-saioek laborategiko egonaldi luzeak arindu zituzten. Zu eta Unscrambler. Besteak laguntzeko beti prest. Zortetik onena Suitza aldean. "Fräulein", elkarrekin aspaldi hasi ginen, eta honezkero kromatografiaren eredu bilakatu zara, mina eragiten dituen mekanismoetan murgilduta. Mina ala herrimina, *that is the question*. Egun batean, BMW batean akaso, bueltatuko zarete. Oporretan sikiera, baina hiru bat gutxienez etor zaitzete.

Señorita Castrourdiales, mal que te pese, la burra no es de donde nace, sino de donde paca. Bizkaitarra de adopción, acabarás dándote cuenta de que aquí también hay zapaterías de nivel. Todas las que quieras. Ha sido un placer coincidir contigo. Una pasada diña. Mari Luz, nos ha costado, algo más a unos que a otras, pero aquí estamos, en el final de esta etapa. En globo o a pie, seguiremos nuevos caminos, pues aquí no acaba nada, sino que empieza. Cuida mucho ese terremoto que tienes por esposo. Itxaso Junior, contigo me guarda algo especial. Algo que pudo ser, pero que no llegó a ocurrir. ¿Todavía crees que lo del pepino con yogur era broma? Lo de las hamacas igual era exagerado, pero lo del yogur, no. Suerte con tus bolígrafos. Ánimo muchacha. Estitxu, un ejemplo como persona. Cada día nos demuestras que la química no lo es todo. Solidaridad ante todo, compañera. Un besazo, o mejor, unos cuantos. Itxaso III, con este nombre pareces pelotari. Hemos coincidido poco, pero suficiente para ver que alguno de los dos tenemos el termostato jodido. En mi humilde opinión, vas a ser tú. Sion, tú tampoco te libras. Tú el termostato lo llevas bien, pero las agujas del segundero, amiga, háztelas ver. Eso no son uñas, sino antologías. Si la analítica no da más de sí, siempre podrás hacerte un huequillo en el mundo del *tunning*. Una artista. Detallista a más no poder, y gran grabadora de vídeos. Algún día me tienes que enseñar tu filmoteca.

Mintegiko eta fruta-taldeko lagunak, pluralean, inor bidean ez ahazteko: eskerrik asko. Beti prest edozein arazori irtenbide bat emateko. Eta arazoak aipatuta, irakasleen txanda dator. Olatz, *you are the milk* (google-traductor-en laguntzarik gabe). Ez dut hitzik zure laguntza eskertzeko. Eskoletatik hasita, ikerkuntza-lanarekin erlazionatuta dagoen edozein gauzetaraino. Olatz-term, gauza asko, baina asko asko, batera egin daitezkeela erakutsi didazu (oraindik ez dut argi lo egiten duzun ala ez ...). Nestor, a zelako enbajadan sartu nintzen zure eta Luis Ángel Fernández-en aholkuz LyX-ekin hasi nintzenean. Ustez Latex hor nonbait geratu behar zen, izkutuan. Baina Latex atejoka hasi denean zuekin biokin ederki asko gogoratu naiz. Kimetriarekin eskainitako laguntzarekin enpate geratuko zara. Gorrotorik ez, beraz.

Rokero zaharrak: Christian (Ros.), Izaskun (Ros.), Sole (Ros.), Jagoba (Mint.), Pati (Mint.), Joana (Mint.), Asier (Mint.), Maitanga (Mint.), Mikel (Mint.), Urdax, Etxe, Matx, Oiana ... zuek ere, nola ez, gogoan beti.

Artisten unea iritsita, ezin ahaztu Pintura saileko lagun koadrila. Guztien buru, Doña Itxaso. Alaznikov, Marta, Bea, Pilar eta nola ez, Enara eta Lezuri gaztea. Berotasun handiarekin egin zenidaten harrera, gazta saltzailea ematen nuen arren. Oso gustora egon naiz zuen artean. Koadro mixerable bat oparitu ez didazuen arren. Malditas!!

Unibertsitatetik lagun koadrilara egingo dut salto. Harro nago zuetaz. Unerik gogorrenetan ere gertu egon zaretelako. Usi-ren memoria gogoan, Guru, Bonba, Dan, Txonan, Poli, Pelos, Txino, Jou, Olartens, Borinquen, Amaia, Esti, Olaia eta konpainia, biba zuek!! Por zierto, Bonba, ezertan lagundu ez badidazu ere, eskerrak eman nahi dizkizut. Pozik?

Eta familia, nola ez, "la familia". Amona Benita, Isabel eta Mari Tere (3!!), aitona Tomas, osaba izeba zareten Jose, Miguel, Morito, Maitena, Susi, Michel, Maribel, Josetxo, Juan eta Jose. Lehengusuak eta lehengusinak. Ez da normala esker onetan hainbeste zehaztea, baina tesi-lan bakarra egingo dudanez, idatzita eta ondo idatzita gera dadila: zuen berotasuna etengabekoa izan da. Zuekiko nire aitortza, miresmena eta eskertza, betiko.

Lide, Peldo, Imanol komandantea, Astibi anderea, Garbiñe, Iñaki, Ibon, Iñaxi, Urritze, Oihan, Ainhoa eta Imanol-Eskorbuto ("anti-todo"). Donibaneko piratak eta Estefani, eta nola ez, gure Muntter eta Txori. Zuek ere gogoan zaituztet, jakina.

Jara, ama eta aita, zuena apartekoa da. Beti ondoan egon zaretelako, une zailenetan ere. Tesiarekin ere, jakina. Zuen ere bada meritua, Murcia-ko pakete nazkagarri haietan tesilanak ordenagailura pasatzen ibili baitzineten, beti aurrera egiteko animatzen. Azkenean, kapitulu bat bukatzera doa. Guztiontzat. Eta nire liburuaren parte zaretenez, hurrengo kapituluetan ere agertuko zarete. Elkarrekin arituko gara. Muxu, muxu eta muxu.

Kapitulu hau bukatzera goaz, Intza. Azkenean, hainbeste urte eta sufrimenduren ondoren, egun hau iritsiko ez zela askotan pentsatu genuenean. Zuri esker, zure pazientzia amaigabeari esker. Ezinbestean, zu ni bezain doktore. Hauek dira trabesia luze baten hondarrak. Momentua gozatzeko unea beraz. Eta liburuetan gertatzen den bezala, kapitulu honekin bukatu eta segituan, hurrengo kapitulua ate joka dugu. Gure kasuan Olaritz izango dena. Elkarrekin idatziko duguna. Esaldi berri bakoitzaren dastamenean astirotu gaitezen. Sikiera behingoagatik. Idazten, hirurok elkarrekin.

Abisatu dut *Esker On* hauek ez dutela parametro estandarrak betetzen. Bada, azken aipamen batekin borobildu nahiko nuke honako atala: anti-esker onekin. Laborategira iritsi nintzenetik, Valsartana, ondoan izan zaitut. Begirale. Zelatan. Batzuetan laborategian, besteetan bulegoan. Bai, zu ere, Valsartan Garzón jauna, Espainiako Auzitegi Nazionaleko 5. zigor arloko auzitegi zentralaren buru izan zinena. Madarikatua. Torturatzaillea. Eskerrak aginte katedra horretatik bidali zizutela, eskerrak bai. Ez zuri jakina. Baina eskerrak horri, beste gauza askoren artean, doktorego-tesi hau bukatu ahal izan da.

Eskerrak, beraz, ia guztioi.





# Laburpena

*Sindrome metabolikoa hipertentsioa, dislipemia, diabetesa eta gizentasuna bezalako arrisku-faktoreen ondorioz ematen den asaldura da. Gaixotasun hau dutenen artean, eritasun kardiobaskularrak eta 2 motako diabetesa izateko probalbiltatea nabarmen areagotzen denez, Sindrome metabolikoa hilkortasun-tasa handiarekin zuzenean erlazionatzen da.*

*Asaldura honen aurka erabiltzen den terapia farmakologikoa, konplexutasun handikoa da, arrisku-faktore desberdinei aurre egin behar baitie. Terapia kardiobaskular konbinatua deiturikoaren barruan, era desberdinetako farmako-familiak erabiltzen dira. Tratamenduaren egokitasunaren inguruan hausnartu eta ondorioak atera ahal izateko (dosia igo/jaisteko, tratamendu aldaketa egiteko, konbinaketan sinergia aztertzeke, tratamendu jakin baten eraginkortasun eza eragiten duten arazoak ulertzeke, . . .), farmako-familia hauen kontzentrazio plasmaticoen monitorizazioa bermatu beharra dago. Ezaugarri fisiko-kimiko oso desberdineko konposatuak matrize biologikoetan kontzentrazio terapeutikoetan determinatzeko, selektibitate eta sentikortasun handiko metodo analitikoak garatzea behar beharrezkoa da.*

*Ikuspuntu analitiko batetik ikusita, arrisku-faktore nagusi hauek, bakoitza bere kabuz, modu sakon batean ikertuak izan direla kontsidera daiteke. Harritzekoa da ordea, arrisku-faktore hauen aurka erabilitako farmako familia desberdinen aldi bereko analisi metodorik apenas garatu ez izana.*

*Ikerkuntza-lan honek asaldura metabolikoak duen hutsuneari irtenbide analitikoak proposatzera dator. Erakusten duen sinergia altuagatik AHA-II, diuretiko eta estatinen arteko terapia konbinatuari erantzungo dioten determinazio metodo sendoak diseinatuko dira. Horretarako, teknika kromatografiko likido desberdinak garatu dira (optimizatu aurrena, eta balidatu hurrena). Kromatografia likidoaren unibertsoa irauli duen UHPLC prozedurari arreta berezia ere jarriko zaio, hamarkada erdiren buruan munduko laborategi analitikoetan horren ekarpen emankorrek ekarri dituenak. HPLC tradizionala UHPLCarekin konparatzeko aukera ere emango du lan honek.*



*“En el mundo social todo tiene o bien un precio o bien dignidad. Lo que tiene precio puede ser reemplazado por algo equivalente. Lo que está por encima del precio, y por tanto no tiene equivalente, tiene dignidad”, Inmanuel Kant, Fundamentacion de la metafisica de las costumbres, p.40 (1785).*

*Pifo eta Erraizeri, duintasunari eusten diozuen guztioi.*



# Akronimoak eta Laburdurak

AEB Amerikako Estatu Batuak

AHA/NHLBI American Heart Association/National Heart, Lung and Blood Institute

AEBI Angiotensinaren entzima bihurtzailearen inhibitzaileak

AI Angiotensina-I

AII Angiotensina-II

AHA-II Angiotensina-II hartzailaren antagonistak

ANOVA Analysis of variance

AZN Azetonitriloa

BE Barne estandarra

BEH Bridged ethyl hybrid particles

BGMA Barauean glukosa maila aldatua

CAD Charged aerosol detector

CCC Countercurrent chromatography

CVD Cardiovascular disease

CZE Capillary zone electrophoresis

DFO Diseinu faktorial osoa

DFZ Diseinu faktorial zatikatua

DILC Direct-injection liquid chromatography

DKZ Diseinu konposatu zentrala

DM Diabetes mellitusa

DOLLC Direct on-line liquid chromatography

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

ELISA Enzyme-linked immunosorbent assay

ELS Evaporative light scattering detector

ESH/ESC European Society of Hypertension/European Society of Cardiology

EB Europar Batasuna

FDA Food and Drug Administration

FID Flame ionization detector

FLR Fluoreszentzia detektagailua

GI Glukosarekiko intolerantzia

GLC Gas liquid chromatography

GMI Gorputz masaren indizea

HDL High-density lipoproteins

HDL-K HDL kolesterola

HFDILC High-flow direct-injection liquid chromatography

HIC Hydrophobic interaction chromatography

HMGCoA Hidroxi-metil-glutaril-A koenzima

HILIC Hydrophilic interaction liquid chromatography

HPLC High performance liquid chromatography

HTA Hipertentsio arteriala

HTFLC High-turbulence flow liquid chromatography

HTLC High temperature liquid chromatography

HTLC High turbulence liquid chromatography

HT-UHPLC High temperature-ultra high pressure liquid chromatography

HTWC High temperature water chromatography

ICH	International Conference on Harmonisation
ICP-AES	Inductively coupled plasma atomic emission spectrometry
IDF	International Diabetes Federation
ID	Internal diameter
IEC	Ion-exchange chromatography
I+G	Ikerketa eta garapen departamentua
IMS	Ion mobility spectrometer
IPA	Isopropanola
ISB	Intsulinarekiko sentikortasun baxua
JNC	Joint National Committee on Prevention, Detection, Evaluation, and Treatment of High Blood Pressure
LDL	Low-density lipoproteins
LIF	Laser-induced fluorescence
LLC	Liquid-liquid chromatography
LLE	Liquid/liquid extraction
LLME	Liquid-liquid micro extraction
LoC	Lab-on-a-chip
LOD	Limit of detection
LOQ	Limit of quantification
MALDI	Matrix-assisted laser desorption/Ionization
MECK	Micellar electrokinetic capillary chromatography
MeOH	Metanola
MIA	Miokardioko infartu akutua
MIP	Molecularly imprinted synthetic polymers
MLR	Multiple linear regression



MRL	Maximum residue levels
MS	Masa-espektrometria detektagailua
NCP (ATP-III)	National Cholesterol Education Program (Adult Treatment Panel III)
NMR	Nuclear magnetic resonance
NP-LC	Normal-phase liquid chromatography
OFAT	One factor at a time
OME	Osasunaren Munduko Erakundea
PAD	Presio arterial diastolikoa
PA	Presio arteriala
PAS	Presio arterial sistolikoa
PCR	Principal component regression
PDA	Photodiode array detector
PPAR	Peroxisome proliferator-activated receptors
PLOT	Porous layer open tubular columns
PLS	Partial least squares regression
PPT	Protein precipitation
ppt	Parts per trillion
PWLC	Pressurized hot water liquid chromatography
QC	Quality control sample
RAM	Restricted access media
RI	Refractive index detector
RP-LC	Reversed-phase liquid chromatography
RP-NPS	Reversed phase nonporous support
S/N	Signal/Noise relation

SBWC Subcritical water chromatography

SDME Single-drop microextraction

SEC Size exclusion chromatography

SFC Supercritical fluid chromatography

SIM Selected ion monitoring

SLC Superheated liquid chromatography

SMet Sindrome Metabolikoa

SPE Solid-phase extraction

SPME Solid-phase micro extraction

SPP Superficially porous particles

sqMS Single quadrupole MS detector

SSA Specific surface area

SWC Superheadted water chromatography

T2DM Type 2 diabetes mellitus

TFC Turbulent flow liquid chromatography

TG Triglizeridoak

TLC Thin layer chromatography

TLFC Turbulent-laminar flow chromatography

ToF-MS Time-of-flight mass spectrometry

tqMS Triple quadrupole MS detector

UFHTLC Ultra-fast high temperature liquid chromatography

UHFRLC Ultra-high flow rate liquid chromatography

UHPLC Ultra high-pressure liquid chromatography

UPLC	Ultra performance liquid chromatography
UV/ikus.	Detektagailu ultramore/ikuskorra
VHFRLC	Very high flow rate liquid chromatography
VHPLC	Very high pressure liquid chromatography
VLDL	Very low-density lipoproteins
WADA	World anti-doping agency
WWTPs	Wastewater treatment plants
$\%BK$	Bariazio koefizientea
$C_{max}$	Kontzentrazio plasmatiko maximoa
$d_c$	Zutabearen barne diametroa
$\%DEE$	Desbiazio estandar erlatiboa
$d_p$	Partikularen diametroa
$\%ER$	Errore erlatiboa
$H$	Plater teorikoaren altuera baliokidea
$h$	Plater altuera murriztua
$HETP$	Height equivalent of theoretical plate
$H_{min}$	Plater altuera minimoa
$k$	Erretentzio-faktorea
$\lambda$	Paketaturiko zutabearen bero konduktibitate erradiala
$\mu-TAS$	Micro total-analysis systems
$N$	Theoretical plate number
$P_c$	Peak capacity
$\Delta P$	Presio erorketa
$q$	Bero-fluxua

$R_c$	Zutabearen erradioa
$\sigma_{col}^2$	Zutabe kromatografikoaren bariantza
$\sigma_{det}^2$	Detektagailuaren bariantza
$\sigma_{ext}^2$	Extra-column bolumenaren bariantza
$\sigma_{inj}^2$	Injektorearen bariantza
$\sigma_{tot}^2$	Gailurren bariantza orokorra
$\sigma_{tub}^2$	Tubing-aren bariantza
$\tau$	Detektagailuaren denbora-konstantea
$\Delta T$	Temperatura gradiente erradialaren anplitude maximoa
$t_{grad}$	Gradientearen iraupena
$t_d$	Sistemaren atzerapen-denbora
$t_r$	Erretentzio-denbora
$t_0$	Zutabearen denbora-hila edo atzerapen-denbora
$u$	Fase mugikorraren abiadura lineala
$v$	Fase mugikorraren abiadura lineal murriztua
$V_{cell}$	Detekzio-zelularen bolumena
$V_d$	Sistemaren bolumen-hila
$V_r$	Solutuaren erretentzio-bolumena
$V_0$	Zutabearen bolumen-hila
$w_b$	Pikuaren zabaleraren balioa oinlerroan



# Gaien Aurkibidea

<b>1</b>	<b>Eritasun Kardiobaskularrak eta Sindrome Metabolikoa</b>	<b>3</b>
1.1	Eritasun kardiobaskularrak . . . . .	3
1.2	Sindrome metabolikoa . . . . .	4
1.2.1	Hipertentsioa . . . . .	5
1.2.2	Dislipemia . . . . .	8
1.2.3	Diabetesa . . . . .	10
1.2.4	Gizentasuna . . . . .	11
1.3	Sindrome metabolikoaren tratamendua . . . . .	11
1.3.1	Neurri ez-farmakologikoak . . . . .	11
1.3.2	Neurri farmakologikoak . . . . .	13
1.3.2.1	Farmako antihipertentsiboak . . . . .	14
1.3.2.2	Farmako hipolipemiatzaileak . . . . .	17
1.3.2.3	Diabetesaren aurkako farmakoak . . . . .	20
1.4	Metodo analitikoak eta matrize biologikoak . . . . .	20
1.5	Metodo analitikoen optimizazioa . . . . .	22
1.6	Metodo bioanalitikoen balidazioa . . . . .	26
1.7	Aztertuko diren farmakoak eta bere ezugarri kimikoak eta farmakologikoak . . . . .	33
1.7.1	Valsartana eta bere metabolitoa . . . . .	34
1.7.2	Fluvastatina . . . . .	36
1.7.3	Klortalidona . . . . .	38
1.8	Aurrekari bibliografikoak . . . . .	40
1.8.1	Valsartana eta bere metabolitoa . . . . .	40
1.8.2	Fluvastatina . . . . .	43
1.8.3	Klortalidona . . . . .	45
1.9	Erreferentzia bibliografikoak . . . . .	49
<b>2</b>	<b>Ikerkuntza-lanaren helburuak</b>	<b>65</b>
<b>3</b>	<b>Farmako Antihipertentsiboak. HPLC-UV/FLR Optimizazioa</b>	<b>69</b>
3.1	Atalaren helburua . . . . .	69
3.2	Argitaraturiko lana . . . . .	71
	Artikulu Zientifikoa . . . . .	73
	Introduction . . . . .	73
	Experimental . . . . .	74
	Instrumentation . . . . .	74
	Materials and reagents . . . . .	74
	Preparation of standard solutions and spiked plasma samples . . . . .	75
	Chromatographic conditions . . . . .	75

Plasma sample collection . . . . .	75
Extraction procedure for plasma samples . . . . .	75
Efficiency and repeatability of the extraction procedure . . . . .	76
Selectivity of the extraction procedure . . . . .	76
Results and discussion . . . . .	76
Optimization of the chromatographic separation . . . . .	76
OVAT methodology . . . . .	76
Screening phase: FFD . . . . .	77
Optimization phase: CCD . . . . .	78
Extraction procedure: Experimental design . . . . .	80
OVAT methodology . . . . .	80
Screening phase: FFD . . . . .	83
Optimization phase: CCD . . . . .	84
Analytical application . . . . .	85
Concluding remarks . . . . .	87
References . . . . .	90
<b>4 Farmako Antihipertentsiboak. HPLC-UV/FLR Balidazioa</b>	<b>95</b>
4.1 Atalaren helburua . . . . .	95
4.2 Argitaraturiko lana . . . . .	97
Artikulu Zientifikoa . . . . .	99
Introduction . . . . .	99
Experimental . . . . .	100
Instrumentation . . . . .	100
Chemicals and reagents . . . . .	100
Standards, calibration curves and quality control samples . . . . .	100
Plasma sample collection . . . . .	101
Extraction procedure . . . . .	101
Chromatographic conditions . . . . .	101
Measurements and calculations . . . . .	101
Assay validation . . . . .	101
Results and discussion . . . . .	102
Assay validation . . . . .	102
Selectivity . . . . .	102
Recovery and reproducibility of the extraction procedure . . . . .	102
Linearity, quantitation limits (LLOQ) and working range . . . . .	102
Precision and accuracy . . . . .	105
Stability . . . . .	105
Application to real samples . . . . .	107
Concluding remarks . . . . .	107
References . . . . .	108
<b>5 Terapia Kardiobaskularra. HPLC-PDA/FLR Aplikazioa</b>	<b>111</b>
5.1 Atalaren helburua . . . . .	111
5.2 Argitaraturiko lana . . . . .	113
Artikulu Zientifikoa . . . . .	115
Introduction . . . . .	115

Experimental . . . . .	116
Instrumentation . . . . .	116
Chemical and reagents . . . . .	116
Standard solutions and spiked plasma samples . . . . .	117
Plasma sample collection . . . . .	117
Chromatographic conditions . . . . .	117
Solid-phase extraction procedure . . . . .	117
OVAT optimization . . . . .	117
Chemometrical optimization . . . . .	117
Optimized extraction procedure . . . . .	118
Assay validation . . . . .	118
Results . . . . .	118
Chromatographic separation . . . . .	118
Solid-phase extraction procedure . . . . .	119
OVAT optimization . . . . .	119
Chemometrical optimization . . . . .	119
Screening phase: FFD . . . . .	119
Optimization phase: CCD . . . . .	120
Assay validation . . . . .	121
Selectivity . . . . .	121
Recovery . . . . .	121
Linearity, LOQ and working range . . . . .	121
Precision and accuracy . . . . .	122
Stability . . . . .	122
Application to real samples . . . . .	123
Discussion . . . . .	123
References . . . . .	124
<b>6 Kromatografia Likido ultra-azkarra</b> . . . . .	<b>127</b>
6.1 Atalaren helburua . . . . .	127
6.2 Kromatografiaren bilakaera. Azken urteetako garapena . . . . .	129
6.3 Gaur egungo joera nagusia: analisi azkarrak . . . . .	131
6.4 Analisi kromatografiko azkarrak osatzeko partikula txikien eragina . . . . .	133
6.5 Partikula txikien kimika . . . . .	135
Zutabearen efizientzia eta partikularen tamaina . . . . .	136
Gailur-edukiera eta partikularen tamaina . . . . .	140
Sentikortasuna eta partikularen tamaina . . . . .	143
Presio-erorketa eta partikularen tamaina . . . . .	143
Marruskadura-beroa eta partikularen tamaina . . . . .	145
6.6 Analisi kromatografiko azkarrak osatzeko estrategia nagusiak . . . . .	147
6.6.1 Zutabe laburren eta fluxu-abiadura zein gradiente azkarren aldi bereko erabilera . . . . .	148
6.6.2 Zutabe monolitikoak . . . . .	149
6.6.3 Perfusio-kromatografia . . . . .	151
6.6.4 2 mikra-azpiko partikuladun betegarriak . . . . .	152
HTLC . . . . .	153
UHPLC . . . . .	158



HT-UHPLC . . . . .	161
Zorro poroduneko betegarriak (SPP) . . . . .	164
6.6.5 On-line SPE . . . . .	168
6.6.6 RAM euskarriak . . . . .	171
6.6.7 Fluxu-abiadura ultra-handiko kromatografia likidoa . . . . .	173
6.7 LC modu ezberdinen arteko konparaketa laburra . . . . .	179
6.8 LC teknika azkarren arrakasta praktikoa. Publikazio-indizeak . . . . .	187
6.9 UHPLC zutabe paketatzeen garapena . . . . .	195
6.9.1 2 mikra-azpiko partikula ez-porodunak . . . . .	196
6.9.2 2 mikra-azpiko partikula porodunak . . . . .	198
6.10 UHPLC instrumentazioaren eraldaketa teknologikoa . . . . .	204
(a) Ponpa sistemak eta sistema fluidikoaren moldakuntzak . . . . .	205
(b) Laginaren barneraketarako sistemak . . . . .	209
(d) Detektagailuak . . . . .	215
6.11 UHPLC sistema komertzialak. Espezifikazioak . . . . .	220
6.12 HPLCtik UHPLCrako metodo transferentzia . . . . .	223
1. Metodo isokratikoen transferentzia . . . . .	224
2. Metodo gradienteen transferentzia . . . . .	228
6.13 UHPLCren erabilera egokirako orientabide praktikoa . . . . .	232
6.14 UHPLCren aplikazio eremuak . . . . .	235
6.15 UHPLC: etorkizunean eta etorkizuna . . . . .	244
6.16 Erreferentzia bibliografikoak . . . . .	255
<b>7 Kromatografia Likido Ultra-Azkarra. Aplikazioa</b> . . . . .	<b>285</b>
7.1 Atalaren helburua . . . . .	285
7.2 Argitaraturiko lana . . . . .	287
Artikulu Zientifikoa . . . . .	289
Introduction . . . . .	289
Experimental . . . . .	290
Instrumentation . . . . .	290
Chemical and reagents . . . . .	290
Standard solutions and spiked plasma samples . . . . .	291
Plasma sample collection . . . . .	291
Chromatographic conditions . . . . .	291
Solid-phase extraction procedure . . . . .	291
Assay validation . . . . .	291
Results and discussion . . . . .	292
Chromatographic separation . . . . .	292
Assay validation . . . . .	292
Selectivity . . . . .	292
Recovery . . . . .	292
Linearity, LLOQ and working range . . . . .	292
Precision and accuracy . . . . .	293
Stability . . . . .	293
Application to real samples . . . . .	293
Conclusions . . . . .	296
References . . . . .	296

<b>8 Ondorioak</b>	<b>301</b>
8.1 Ondorioak . . . . .	301
8.2 Etorkizuneko perspektibak. Iradokizunak . . . . .	305
<b>9 Eranskinak</b>	<b>308</b>
1 Eranskina . . . . .	311
2 Eranskina . . . . .	319
3 Eranskina . . . . .	329



---

# SARRERA

ERITASUN KARDIOBASKULARRAK ETA SINDROME METABOLIKOA





# 1 Eritasun Kardiobaskularrak eta Sindrome Metabolikoa

## 1.1 Eritasun kardiobaskularrak

**B**ihotzak, bizirik mantentzen gaituen motor txikiak, minutu bakoitzean 5–30 litro odol bidaltzen ditu arterietarantz. Bihotza 70 bat aldiz uzkurtzen da minuturo, 100.000 aldiz egunean, 36 milioi aldiz urtean eta 70 urte egin dituen pertsonarengan bere bihotza 2.500 milioi aldiz uzkurtzera hel daiteke [1]. Lan karga ikaragarri honen aurrean, bihotzari, zainei zein arteriei zuzen eragiten dieten patologia desberdinek berebiziko garrantzia hartzen dute. Izan ere, sistema kardiobaskularrarekin erlazionaturiko gaixotasunak (arteria koronarioekin erlazionatuta dauden bularreko angina eta miokardioko infartua edota bihotzeko balbulekin zer ikusirik dituzten beheko gorputz-adarretako arteriopatiak, aortaren gaixotasunak eta garuneko gaitz baskularrak, tronbosiak eta garuneko odoljarioak) gizarte garatu askotako heriotzen lehen kausa dira.

Herrialde aurreratuetan gertatzen diren heriotzen erdia, gutxi gora-behera, eritasun kardiobaskularrei (*cardiovascular disease*, CVD) zor zaie. Urtero, gaitz hauek Europar Batasunean (EB) 2 milioi hildako uzten dituzte (heriotz guztien %42), eta Europa osoan, 4.3 milioi (heriotz guztien %48) [2]. Gure artean ere, ospitaleratzeen kausa nagusia eta egonaldi-kopuru handiena eragiten duten gaixotasunak dira. 2009an Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) zirkulazio-sistemako gaixotasunen ondorioz 5.799 pertsona hil ziren bitartean (heriotz guztien %29.5) [3], Nafarroa Garaian eritasun kardiobaskularrek heriotz guztien %27 eragin zituzten.

CVDak pairatzeko aukera hainbat arrisku-faktoreren menpekkoa da: hipertentsioa, kolesterola, diabetesa, gizentasuna . . . Nolanahi ere, arrisku-faktore hauek ez dira normalean banaka agertzen. Elkarrekin batera agertu ohi direnez, CVDak garatzeko arriskua areagotu baino ez da egiten [4].

## 1.2 Sindrome metabolikoa

Arrisku-faktore hauen guztien arteko konbinaketa ez da gaitz desberdinen gehiketa soila, izan ere, elkarketa honek Sindrome Metabolikoa (SMet) bezala ezaguna den anomalia metabolikoa eragiten baitu. Jatorrian, SMet-a bi arrisku-faktore nagusien ondorioa da: arrisku-faktore metabolikoak (dislipidemia, odol presio altua eta plasman glukosa maila altua) eta azpiko arrisku-faktoreak (gizentasun abdominala, jarduera fisko eza, adina eta desoreka hormonalak). Maiz, sindromea bera beste faktore batzurekin ere erlazionatu izan da, esaterako, gantz askoko gibelekin, kolesterolezko behazun-harriekin, loadia oztopatzen duen apnearekin, hezueriarekin, depresioarekin, eritasun muskulu-eskeletikoekin edota obarioetako eritasun polikistikoarekin [5, 6].

Anomalia honen identifikazioa garrantzia handikoa da, azken batean, SMet-a arrisku-faktore desberdinen konstelazioa izanik, 2 motako diabetesa (*type 2 diabetes mellitus*, T2DM) eta CVDak izateko arriskua nabarmen areagotzen baitu (CVDa:  $\times 2$  eta T2DMA:  $\times 5$ ) [5, 7]. Ikerketa desberdinen arabera, munduan populazio helduaren %20–30ak SMet-a jasaten duela kontutan izanik, populazio horren artean CVDak eta T2DMA pairatzeko arriskua handia dela kontsideratu behar da [8]. Hortaz, SMet-aren identifikazio klinikoaren xedea, T2DMA eta CVDak pairatzeko arriskua duten pazienteen identifikazioan datza. Funtsezkoa da gaitza nork jasaten duen jakitea, gaixotasun horren aurreko neurri aproposak hartzeko eta heriotza kardiobaskularrari (bihotzeko edo garuneko infartuari edo bularraldeko anginari) saihestu egiteko [9]. SMet-aren diagnostiko goiztiarra egitea, beraz, funtsezkoa da.

SMet-aren existentziaren berri izan ez arren, asaldura honen lehenengo deskribapenak 1920ko hamarkadan egin ziren Kylin mediku suediarren eskutik. Kylinek hipertentsioaren, hipergluzemiaren eta hezueriaren arteko erlazioa deskribatu zuen. Edonola ere, 1980ko hamarkadara arte itxaron egin behar izan zen sindromearen garrantzi klinikoaren berri izateko. Gaitza gaur ezagutzen den eran definitzen lehena Reaven medikua izan zen; X sindromea deitu zion. Harrezkero, izen desberdinak erabili izan dira gaitz honi erreferentzia egiteko (X-sindromea, intsulina-erresistentzia sindromea, aurre-diabetesa, sindrome metabolikoa, sindrome plurimetabolikoa, sindrome dismetabolikoa, sindrome kardiometabolikoa, hipertentsio dislipidemikoa, etab.) [7].

1988an Reaven doktoreak asaldura metaboliko hau eragiten duten faktoreak zehaztu zituenetik, SMet-a identifikatzeko definizio desberdinak plazaratu izan dira (ikusi 1.1 Taula) [5, 10–12]. 1999ean Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) SMet-aren definizioa proposatu bazuen ere [13], beste osasun-erakunde

batzuk ere bere proposamenak egin izan dituzte (gutxienez 6 irizpide desberdin aurki daitezke). Definizioaren arabera, pazienteak hainbat arrisku-faktore erakusten dituenean, SMet-a nozitzen duela kontsideratzen da.

Ñabardurak ñabardua, adituek SMet-a identifikatzeko definizio bateraturik ez dute adostu, batetik bestera alde oso handirik ez dagoen arren. Nolanahi ere, literaturan irakurri daitekeen moduan, AHA/NHLBIk emandako definizioa CVDak diagnostikatzeko aukerarik egokiena dirudien bitartean, intsulinarekiko erresistentzia (eta beraz, diabetes mellitusa) antzemateko, IDfK proposaturiko definizioa aproposena dela ematen du [10].

1.1 Taulan ikus daitekeen moduan, orokorrean SMet-a diagnostikatzeko nagusiki 5 aldagai kontuan hartzen dira: gizentasuna, hipertentsioa, TGAak, HDL-K eta glukosa maila. Komenigarria da, beraz, SMet-a eragin dezaketen faktore hauek arretaz aztertzea.

## 1.2.1 Hipertentsioa

**Presio Arteriala** Odolak gure gorputzeko odol-hodietan zirkulatzen duen indarrari presio edo tentsio arteriala (PA) deritzo. Indar hori gehiegizkoa denean, eta pasatzen deneko organoak erasaten direnean, hipertentsioa gertatzen da [4].

PAren kuantifikazioa bi parametroen neurketaren bidez egiten da. Presio sistolikoa edo altua (PAS) ezkerreko bentrikuluaaren uzkurdurari dagokio. Zifra horrek odola arteria zanpatuan zehar pasatzen hasten deneko unea adierazten du. Presio diastolikoa edo baxua (PAD), berriz, bihotzaren atsedendialdiari dagokio. Tentsioa hartzeko aparatua hustean arteria bere egoera normalera bueltatzen da eta odola normal zirkulatzen hasten da, inolako hotsik ez entzuteraino. Une horri dagokio, hain zuzen, zifra diastolikoa [1]. Bi balio hauen arteko diferentziari presio diferentziala edo pultsuzko presioa deritzo. Neurketa honek dilatazioaren aurrean arteriek duten erresistentzia neurtzen du.

CVD erako ezbeharrak izateko arriskua eta PAren arteko erlazioa estua izateaz gain, beste arrisku-faktoreekiko independentea da. Horrela, zenbat eta PA altuagoa izan, miokardio infartua, bihotz-gutxiegitasuna, iktusa eta giltzurruneko eritasunen bat izateko arriskua handiagoa da. Izan ere, 40 eta 70 urte bitarteko gizabanakoentzat, PASEan ematen den 20 mmHg-ko hazkundeak (edo PADean ematen dena 10 mmHg-koa baino handiagoa denean), 115/75–185/115 mmHg-ko PA tartean CVDak izateko arriskua  $\times 2$  biderkatzen du [14].



Taula 1.1: Sindrome metabolikoaren diagnostiko klinikoa egiteko erabiltzen diren irizpide nagusiak (definizio gehiago ere existitzen dira) [5, 10–12].

Aldagai klinikoa	OME (1998)	NCP (ATP III) <sup>1</sup> (2001)	IDF <sup>2</sup> (2005)	AHA/NHLBI <sup>3</sup> (2005)
Intsulinarekiko intolerantzia	GI <sup>4</sup> , BGMA <sup>5</sup> , T2DM edo ISB <sup>6</sup> <b>+ beste bi</b>	bakar bat ere <b>+ beste 3</b>	GI <sup>4</sup> edo BGMA <sup>5</sup>	bakar bat ere <b>+ beste 3</b>
Gizentasun abdominala	gerria-aldaka perimetroaren ratioa: $\sigma > 0.90$ $\varphi > 0.85$ edota $GMI^7 > 30 \text{ Kg/m}^2$	gerriaren zirkunferentzia: $\sigma \geq 102 \text{ cm}$ $\varphi \geq 88 \text{ cm}$	gerriaren zirkunferentzia $\uparrow$ (populazioarekiko espezifikoa) <b>+ beste 2</b>	gerriaren zirkunferentzia: $\sigma \geq 102 \text{ cm}$ $\varphi \geq 88 \text{ cm}$
Trigliceridoak (TG)	$\geq 150 \text{ mg/dL}$	$\geq 150 \text{ mg/dL}$	$\geq 150 \text{ mg/dL}$ edo TG medikaziopean	$\geq 150 \text{ mg/dL}$ edo TG medikaziopean
HDL kolesterola (HDL-K)	$\sigma < 35 \text{ mg/dL}$ $\varphi < 39 \text{ mg/dL}$	$\sigma < 40 \text{ mg/dL}$ $\varphi < 50 \text{ mg/dL}$	$\sigma < 40 \text{ mg/dL}$ $\varphi < 50 \text{ mg/dL}$ edo HDL-K medikaziopean	$\sigma < 40 \text{ mg/dL}$ $\varphi < 50 \text{ mg/dL}$ edo HDL-K medikaziopean
Odol presioa	$\geq 140/90 \text{ mmHg}$	$\geq 130/85 \text{ mmHg}$	$\geq 130/85 \text{ mmHg}$ edo HTA <sup>8</sup> medikaziopean	$\geq 130/85 \text{ mmHg}$ edo HTA <sup>8</sup> medikaziopean
Glukosa	GI, BGMA edo T2DM	$> 110 \text{ mg/dL}$ , diabetes metlitusa barne	$> 100 \text{ mg/dL}$ , diabetes metlitusa barne	$> 100 \text{ mg/dL}$ , diabetes metlitusa barne edo glukosa maila altua
Besteak	albuminaren irazpena gerruan: $< 20 \mu\text{g/min}$ (mikroalbuminuria)	-	-	-

<sup>1</sup> NCEP (ATP III): National Cholesterol Education Program (Adult Treatment Panel III)  
<sup>2</sup> IDF: International Diabetes Federation  
<sup>3</sup> AHA/NHLBI: American Heart Association/National Heart, Lung and Blood Institute  
<sup>4</sup> GI: glukosarekiko intolerantzia  
<sup>5</sup> BGMA: baraucen glukosa maila alteratua  
<sup>6</sup> ISB: insulinarekiko sentikortasun baxua  
<sup>7</sup> GMI: gorputz masaren indizea  
<sup>8</sup> HTA: hipertentsio arteriala

1999an OMEk Hipertentsiorako Tratamenduaren Gidan plazaraturikoaren arabera, PA normala era honetan definitzen da: pertsona heldu batentzat, PASa <140 mmHg eta PADA <90 mmHg denean. 140/90 mmHg balioetatik gorako kasuetan (muga hauek barne), hipertentsioaz hitz egin behar da. Antzerako balioak dira 2003an odol presio altuko hezkuntza programa nazionalaren barruan, Amerikako Estatu Batuetako (AEB) Hipertentsio Arterialaren Prebentzio, Detekzio, Ebaluazio eta Tratamendurako Komite Nazional Bateratuak (*the Joint National Committee on Prevention, Detection, Evaluation, and Treatment of High Blood Pressure*, JNC) aurkezturiko VII. txostenean berretsitako balioak [15, 16]. Balio hauek ere Hipertentsioaren Europako Elkarteak eta Europako Kardiologia Elkarteak (*European Society of Hypertension and European Society of Cardiology*, ESH/ESC) 2007ean erreferentzizatutako hartutako balioak direla esan beharra dago [17, 18]. Erreferentziazko erakunde hauek hipertentsioa diagnostikatzeko erabiltzen dituzten irizpi-deak 1.2 Taulan jaso dira.

Taula 1.2: Hipertentsio arteriala sailkatzeko irizpide desberdinak PA balioen arabera [15-17].

<b>PAS/PAD</b> (mmHg)	<b>JNC-VI</b>	<b>JNC-VII</b>	<b>ESH/ESC</b>
<120/80	Optimoa	Normala	Optimoa
120-129/80-84	Normala	Prehipertentsioa	Normala
130-139/85-89	Mugakoa		Normal-altua
≥140/90	Hipertentsioa	Hipertentsioa	Hipertentsio sistoliko isolatua
140-159/90-99	1 Maila	1 Maila	1 Maila
160-179/100-109	2 Maila	2 Maila	2 Maila
≥180/110	3 Maila		3 Maila

**Hipertentsioa** Hipertentsio arteriala (HTA) fisiopatologia ezaguneko aldakuntza hemodinamikoa da. Egoera patologiko ezberdinen ondorioa izan daitekeenez, gaixotasun baten ezaugarri klinikotzat har daiteke. Hipertentsioak ondoeza baskularraren (nerbio-sistema zentrala eta bihotzeko gaixotasun iskemikoak nagusiki) ondorioz sortzen diren eritasunak pairatzeko arriskua potentziatzen du, hots, arrisku faktore nabarmena da. Badaude hipertentsioa eragiten duten hainbat faktore, hala nola pisua, sexua, sedentarismoa, estresa, gatz-kontsumoa, alkohola . . . orokorrean bizi ohiturak aldatzearekin zuzenduko liratekeenak.

Hipertentsioaren efektu hilgarriak hiru mekanismo nagusiren bidez gertatzen dira. Bihotzaren gehiegizko lan kargak, gutxiegitasun kardiakoaren garapen goiztiar bat ekar lezake, bihotzekoak jota herioa askotan dakarrelarik. Bestetik, gehiegizko presioak burmuineko odol kapilar baten haustura ekar lezake (garun-infartua hain zuzen ere), burmuinean eragindakako zonaldearen araberakoa litzatekeelarik eragozpenen tamaina. Azkenik, presio altuak giltzurrunetan odoljariora ere eragin lezake (giltzurrun-gutxiegitasunaren aukerari bide emanez) [19].

Hipertentsioa kontrolatzea erraza izan daitekeen arren, gaitz honek bere baitan arrisku inplizitua dakar: apenas ematen du sintomarik. Hori dela eta, kezka nagusia ez da hipertentsio arterial zorrotza duten pertsonen kopuru erlatiboki baxua, baizik eta tentsio arteriala arinki altua duen gizarteko espektro zabala. Populazioaren %15–19 hipertentsioa da, joera hori adinarekin handitzen delarik odol hodiekin jasaten duten endekapena eta aldaketa hormonalen ondorioz. Hala ere, bost pertsonetatik batek tentsioa altua duen arren, horietatik %40k baino ez daki hipertentsioa dela. Gainera, hipertentsioak direla dakiten %60 horietatik erdia ez da medikuarenera joaten. Beraz, ez du medikazio edo tratamendurik hartzen. Eta azkenik, medikuarenera doazenetatik erdiak baino ez du behar bezala ondo jasotzen tratamendua [1].

## 1.2.2 Dislipemia

Dislipemia (dislipidemia edo hiperlipidemia bezala ere ezaguna) edozein lipido plasmatikoren kontzentrazioa bere balio normaletik urruntzen denean gertatzen da. CVDen ikuspuntutik, kolesterolean edo TGetan gertatzen diren aldaketak dira interesgarriak, hauek baitira gaitz askoren erantzule.

Taula 1.3: Kolesteroliarekin erlazioatutako lipidoen kontzentrazio arruntak eta limiteak [21, 22].

	<b>Kolesterol totala</b>	<b>LDL</b>	<b>HDL</b>	<b>Triglizeridoak</b>
<b>Optimoa</b>		< 100 mg/dL	> 60 mg/dL	
<b>Gomendagarria</b>	< 200 mg/dL	100 – 129 mg/dL	40 – 60 mg/dL	< 150 mg/dL
<b>Mugakoa edota altua</b>	200 – 239 mg/dL	130 – 159 mg/dL	< 40 mg/dL	150 – 199 mg/dL
<b>Altua</b>	≥ 240 mg/dL	160 – 189 mg/dL		200 mg/dL
<b>Kontzentrazio oso altua</b>		≥ 190 mg/dL		500 mg/dL

Kolesterola, organismoaren mintzak osatzeko ezinbestekoa den lipidoa, sistema zirkulatorioaren zehar garraiatzen da, lipidoz eta proteinez osaturiko lipoproteinei esker [20]. Hiru lipoproteina mota bereiz daitezke bere dentsitatearen arabera, bakoitzak betebeharrak izanik:

- Dentsitate baxuko lipoproteinak (*low-density lipoprotein*, LDL): kolesterola-ren %70 daramate, kolesterola gibelatik garraiatzen dute eta arterietan sedimenta daitezke ateroma izeneko lipido metaketak eratuz. Pilaketa hauek arteriak butxatzen dituztenean sortzen dira miokardio infartuak eta tronboziak. Bere ondorio kaltegarriengatik “kolesterol txarra” bezala ezagutzen dira, zenbat eta LDL gutxiago egon orduan eta eritasun kardiobaskular arrisku gutxiago dago.
- Dentsitate altuko lipoproteinak (*high-density lipoprotein*, HDL): kolesterola-ren %20 daramate eta bere betebeharrak gantzak gibelara eramatea da. Ateromen eraketa oztopatzen dutenez, “kolesterol ona” bezala ezagunak dira.
- Dentsitate oso baxuko lipoproteinak (*very low-density lipoprotein*, VLDL): kolesterola-ren %10 daramate, gehien bat TGz osatuta daude eta hauen kontzentrazioekin estuki erlazioatzen dira. LDLak bezala, gantzak arterietan pilatu daitezkeenez, “kolesterol txarraren” multzoan sartzen dira.

Dislipemia, TG edota LDL mugaz kanpoko kontzentrazioekin lotzen bada ere (ikusi 1.3 Taula), ainzat hartu beharra dago lipoproteina hauen kontzentrazioak altuak

direnean, normalean, HDLen kontzentrazioen murrizketa ere ematen dela [23]. Beraz, alde batetik “kolesterol txarraren” eragin kaltegarria areagotzen da eta bestetik “kolesterol onaren” ekarpen onuragarria txikitzen da. Baldintza hauetan CVDa izateko aukerak nabarmen areagotzen dira.

### 1.2.3 Diabetesa

Diabetes mellitusa (DM) zenbait asaldura metabolikoen multzoa izanik, organo zein ehun desberdinei eragiten die. Bizi artekoa den eritasun kroniko honek odolean glukosa maila altuak eragiten ditu (hipergluzemia). DMA eragiten duten asaldura desberdinen artean, intsulina hormonaren ekoizpen maila baxua edo intsulinarekiko zelulek garaturiko erresistentzia nabarmendu behar dira. Modu honetan DMak karbohidrato, lipido eta proteinen metabolismoen gainean eragin zuzena du. OMEk hiru DM mota desberdintzen ditu: 1 motakoa, 2 motakoa eta haurdunaldi arokoa. SMet-a garatzeko arriskuari begira, nagusiki 2 motako DMari erreparatu behar zaio (T2DM).

T2DMA izateko aurrekari genetikoek zeresan handia duten arren, bizimoduak ere eragin zuzena dauka. Dieta egokia jarraitzeak eta kirola egiteak gaixotasuna saihesten laguntzen du, izan ere, diabetikoen %55 inguruk gizentasuna pairatzen dutela estimatzen da. T2DMaren intzidentzi-tasa ikaragarria da: 2000ean, munduan 171 milioi diabetiko zirela estimatu zen bitartean, 2030ean 370 milioi diabetiko izango direla jotzen da [24, 25].

Batazbestez, T2DMren hilkortasun-tasa 100.000 biztanleko 12.75–30.37 artekoa da estatu espainiarrean, eta diabetikoen %75 CVD baten ondorioz hiltzen da (nagusiki eritasun koronarioak jota) [26]. 2002an egindako ikerketa batek ondorioztatu zuen espainiar estatuan bertan, osasungintza-gastuaren %6.3–7.4 diabetesarekin erlazionatuta zegoela [27]. Pazienteko ematen den gastua, diabetikoen kasuan bi-koitza dela ondorioztatu zen.

SMet-a eragin dezaketen arrisku-faktoreren artean, diabetesa da eztabaida gehien sortu duena. OMEk emandako definizioaren arabera DMA edo intsulinari erresistentzia izatea beharrezko baldintza zen SMet-a diagnostikatzeko. Hurrengo definizio batzuetan ordea, beste arrisku-faktoreekin parekatu izan da (ikusi 1.1 Taula). Desadostasunak desadostasun, argi dago diabetesak eta SMet-ak harreman estua gordetzen dutela [28, 29]. Izan ere, SMet-a duten eta diabetikoak ez diren gaixoen artean, diabetesa garatzeko aukerak  $\times 5$  areagotzen dira. Gainera, bi asaldura hauek batera pairatzen dituzten gaixoek gaitz kardiobaskularrak izateko arrisku handiagoa dute [8].

## 1.2.4 Gizentasuna

SMet-ak gerri-bueltarekin neurtzen den obesitate zentralarekin harreman estua gordetzen du. Izan ere, sabel inguruan metatzen den gantz-ehuna larriagoa da, arrisku kardiobaskularraren ikuspegitik. Obesitate zentral (sagar itxurakoa) hori gizonezkoek nozitzen dute, batik bat. Gantza ipurmasail eta izterretan metatzen denean, hots, udare formako obesitatea, aldiz, emakumeetan ohikoagoa da eta CVDen ikuspegitik, ez da bestea bezain arriskutsua [9, 30].

Horregatik, sendagileak pazientearen gerriaren perimetroa neur dezan aholkatu dute hainbat elkarte zientifikok. Bibliografian GMIaren arabera gizentasunaren definizio desberdinak aurki badaitezke ere, gizonezkoen gerri buelta 102 cm baino gehiagokoa denean eta emakumeena, berriz, 88 cm-koa denean, obesitate zentrala ematen dela kontsideratzen da [5, 7, 10, 30, 31]. Hortik gorako neurriak dituzten pertsonak erraien inguruan gantz edo koipea daukatela kontsideratzen da, eta ondorioz, arrisku kardiobaskularra izateko arriskua handiagoa dutela [9].

OMEk plazaraturiko datuen arabera, mundu mailan obesitatea 1980z geroztik bikoiztu egin da. 2008an, 20 urtetik gorako 1.5 bilioi pertsonak gainpisua zuten, eta hauetako asko obesoak ziren (200 milioi gizon eta 300 milioi emakume). 2010ean 5 urte azpiko 43 milioi hurrek gainpisua erakutsi zuten. Gainpisuak eta obesitateak eritasun koronarioak izateko arriskuarekin lotzen direla aintzat hartuta, honako datuak beldurgarriak dira [21, 32]. Nolanahi honek guztiak erremediorik badauka: obesitatea prebenitu liteke.

## 1.3 Sindrome metabolikoaren tratamendua

SMet-aren tratamendua, asaldura bera eragin duten faktore guztiak banan-banan aztertzetik hasten da. SMet-aren aurkako lehenengo neurria bizimoduaren aldaketa izan beharko litzateke. Mekanismo fisiologikoen efektibotasuna galtzerakoan bakarrik, tratamendu farmakologikoari heldu beharko litzaiokie.

### 1.3.1 Neurri ez-farmakologikoak

Aipatu berri diren arrisku-faktoreak, gehienbat, gizakion bizi-aztura negatiboen ondorioz agertzen dira. Arrisku-faktore hauen erantzuleak dira besteak beste, bizimodu urbanoak eta bizimolde zein elikabideetan gertaturiko aldaketak. Barazki,

zereal eta fruta ugariko dieta tradizionalak alboratuz, otordu lasterreko dieta men-debaldarrarekiko joera (gantz zein kaloria ugarikoa eta zuntz gutxikoa: hanburgesa, patata frijituak, pizza eta edari koladunak) indartu izanak arrisku-faktore hauen eragina izugarri areagotu da.

Hortaz, SMet-a kontrolatzeko eguneroko bizimoduan garrantzitsuak diren aldaketa txikiak ezarri behar dira. Ikerketa batzuen arabera pisu galtze txikiak (%5–10) sindromearen hainbat arrisku faktoreren hobekunza dakar [33]: hipertentsioa, dislipemia eta glukosa maila. Beraz dieta eta ariketa fisikoa ezinbestekoak dira gaixotasunari aurre egiteko. Esku-hartze dietetikoari dagokionez, koipe saturatu gutxiko eta zuntz-kontsumo handiagoko dietak gomendatzen dira [21]. Hainbat kasutan, pertsonen osasun kardiobaskularra hobetzeko omega-3 gantz-azidoak, fitosterolak (landare-jatorriko esterol begetalak) eta soja-proteinak bezalako osagarrien kontsumoa ere gomendatu ohi da. Modu berean, “dieta mediterraneo”-ren onura gogora ekarri beharra dago (zerealen, lekaleen, fruten, barazkien eta fruitu lehorren kontsumo handia; oliba-olioa koipe-iturri nagusia; oilaskoa, arraina, esnea eta esnekien neurriko kontsumoa; haragiaren kontsumo apala; ardoaren kontsumo apala; eta jarduera fisikoaren ugaritasuna). Horrela, fruta eta barazkien kontsumoa gehituz gero, gertakari kardiobaskularren intzidentzia gutxitu egiten dela ikusi da [34, 35]. Ardo edo garagardo kontsumoaren eta CVDen jaitsiera-aren artean erlazio zuzena ere badela ikusi da. Gizonezkoen kasuan, eguneko 25 g alkohol (2 unitate/egun), eta emakumezkoen artean, berriz, 10 g alkohol (1 unitate/egun) onuragarriak direla ondorioztatu izan da [36, 37].

Nolanahi ere, neurri ez-farmakologikoek, patroi dietetiko jakin bati erreferentzia egiteaz gain, jarduera edo ariketa fisikoari ere aipua egiten diote. Izan ere, ondo frogatua dago bizitzeko estiloaren aldaketa horrek miokardioko infartu akutuen (MIA) intzidentzia gutxitzearekin batera, aurretik MIAren bat izandako pertsonetan ere hilkortasun koronarioa murrizten duela [38].

Ariketa fisikoak, pisua galtzera laguntzeaz gain, SMet-aren faktore guztiak kontrolatzera laguntzen du, horregatik gomendatzen da egunero gutxienez 30 minutu ariketa fisiko aerobikoa egitea eta posible bada ordu bat baino gehiago. Kontrolatu behar diren beste ohitura txarrak tabakoa, alkohola, kafeina eta gatzaren kontsumoa dira, hauek PA igotzen baitute.

Lehen mailako prebentzioan, zenbat eta jarduera fisiko gehiago egin, orduan eta txikiagoa da hilkortasun globala eta gutxiago dira gertakari koronarioak [21, 39]. Bigarren mailako prebentzioan, bihotzeko errehabilitazioak heriotza-tasak gutxitzea lortzen du, bai tasa orokorra eta baita bihotzeko heriotza-tasa ere [21, 39]. Izan ere, jarduera fisikoa, besteak beste, pisu-galerarekin zuzenki erlazionatuta

dago. Esaterako, pertsona heldu obesoaren kasuan, 10 kg galtzeak kolesterol totala  $9.6 \text{ mg/dL}$  jaitea eragiteaz gain, PAdA  $3.6 \text{ mmHg}$ -tan ere jaisten laguntzen du. Halaber, HDL-K-k  $0.35 \text{ mg/dL}$  egiten du gora pisuan galdutako kilo bakoitzeko. Onura horiek nabarmenagoak dira arrisku kardiobaskular altuko biztanlerian [40]. Edonola ere, pertsona heldu obesoetan pisua galtzeko eraginkorragoa da esku-hartze isolatuak baino, esku-hartze konbinatuak egitea (dieta, jarduera fisikoa eta jokatibide edo portaera aldatzeko teknikak) [21].

Pisu murrizketarik lortzen ez bada, apetitu depresoretara jo daiteke. Hauek gose sentazioa murrizten dutenez SMet-a tratatzeko erabili daitezke farmako espezifikoagoen beharrik izan gabe. Dena den, terapia farmakologikoa erabiltzeak ez du esan nahi dietarik eta ariketarik egin behar ez denik, izan ere hauek tratamendu farmakologikoa arrakasta izateko nahitaezkoak dira.

### 1.3.2 Neurri farmakologikoak

Tratamendu farmakologikoaren eraginkortasuna bi faktoreren menpekkoa da: agindutako tratamenduaren efikazia eta tratamendu horrekiko gaixoaren betetze gradua. Maiz, botika bat erabilitakoan bilatzen den efektua ez da lortzen berau era egoki batean ez delako erabiltzen [41].

Jardute klinikoaren arazoetarik larrienetarikoa tratamendua ez betetzea da. Estimazioen arabera, AEBn sarrera ospitalarioen %10 gutxienez tratamenduen betetze ezaren ondorio dira [42]. Askok dira arazo hau kuantifikatzen saiatu diren ikerketak, epe luzerako tratamenduen kasuan portzentaia hau %50aren inguru kokatzen dutelarik (HTA, gutxiagitasun kardiakoa, diabetesa edota dislipemia sufritzen duten gaixoen %45–55-ek baino ez omen dute betetzen ezarritako tratamendua) [43,44]. Tamalez, medikamentu eraginkorrak garatzeko denbora eta diru asko inbertitzen den bitartean, farmako horiei pazienteek emango dioten erabilerrari arreta eskasa jartzen zaio. Tratamenduaren betetze ezak, inplizituki bestelako ondorio batzuk ere eragiten ditu, hala nola, tratamenduaren eraginkortasunaren murrizketa, pazientearen nahigabea, medikua-pazientea erlazioaren narriadura, ospitale-baliabideen areagotzea . . . [45]. Hain zuzen ere, arrazoi hau dela eta, tratamendu terapeutikoaren betetzea edozein eskuhartze sanitarioaren lehen helburua izan beharko litzateke, eta bereziki, gaixotasun kronikoak dituzten gaixoen kasuetan.

**Terapia monodosikoa** SMet-aren aurkako tratamendu farmakologikoa bizitza guztirakoa denez, pazienteak erraz gogoratzeko modukoa izan beharko litzateke.



Tratamendu hau gehien bat pilulen bitartez administratzen da, eta hau era monodosikoan ala polidosikoan administratu daiteke.

Bi dosi ala dosi bakarraren hautua ez dago oraindik oso garbi. Batetik, egia da tratamendu monodosikoetan beharrezkoa den dosi kopurua txikiagoa dela, kostu ekonomikoa arintzen delarik. Bestetik, industria farmazeutikoak bere botiken sustapena egiterakoan argudio interesatuak erabiltzen dituela kontutan hartu behar da. Hauen esanetan tratamendu terapeutikoaren betetzea erregimen monodosikoekin erabat osatzen da. Haatik, honako baieztapena kolokan jarri beharko litzateke, egindako ikerketetan puntu hau ez baita horren garbi ikusten [42,46]. Erregimen terapeutikoaren sinplifikatzea desiragarria bada ere, ikerketa ugari erakutsi dute tratamendua betetzerakoan ez dagoela alde handiegirik eguneko 1 edota 2 administrazioen artean [41, 47]. Gainera, dosi bakarreko tratamenduetan, *drug holiday* delako medikazio gabeko pasarteak maiztasun handiagoz gertatzen direla gogora ekarri beharra dago. Tratamendu polidosikoetan, dosi baten administrazioan egindako hutsegite bat eman arren, efektu terapeutikoa maila plasmatiko onargarrietan mantendu daiteke. Aitzitik, administrazio monodosikoaren kasuan farmakoaren aktibitatea 24 ordu ingurukoa denez, dosi baten galerak hurrengo 24 ordutan plasman maila azpiterapeutikoak eragingo ditu.

Esandakoaren arabera eguneko dosi bakarraren administrazioa ezin daiteke tratamendua betetzeko konponbide orokor gisa hartu. 1-2 dosiren arteko hautua egiterakoan botikaren eragite iraupena, administrazio eraren efektua eta dosi baten edo batzuen utzikeriak lekarzkeen ondorioak ebaluatzea litzateke jokaerarik zentzuzkoena.

**Terapia konbinatua** SMet-a arrisku-faktore desberdinez osatuta dagoenez, asaldura bakoitzak bere tratamendu propioa eskatzen du. Ondorioz, ezinezkoa egiten da medikamentu bakarrarekin SMet-a tratatzea. Hori dela eta, farmako desberdinez osaturiko **terapia konbinatua** erabiltzea beharrezkoa da. Orokorrean, terapia konbinatuan hipolipemiatzaile bat erabiltzen da dislipemia zuzentzeko eta antihipertentsibo bat PA gutxitzeko [33]. Gluzemia edo diabetes arazorik agertzekotan, intsulina edo farmako antidiabetikoak gaineratu ohi dira [48]. Hau guztiaz gain aspirina bezalako agente antiplaketarioak zabalki erabiltzen dira arterien butxadura ekiditzeko [49].


### 1.3.2.1 Farmako antihipertentsiboak

Terapia antihipertentsiboaren azken helburua, gehiegizko PAK sistema baskular

mailan eragin ditzakeen konplikazioak (hilkortasun eta morbiditate-tasa) murriztea da. Horretarako, farmako hauek egunean zehar PA egonkor mantentzea dute helburu, pazientea arrisku tartetik kanpo mantenduz (PA ziklikoki aldatzen da, lotan gaudenean minimoa izanik eta esnatzerakoan igoz) [50]. PA kontrolatzeko terapia bizi artekoa denez, tratamenduari betiko eutsi behar zaio. Hortaz, egunerokotasunean tratamenduaren jarraipen egokia izan dadin, pazientearen betetzea errazten duten tratamenduak erabili behar dira.

Farmako antihipertentsiboak terapia kardiobaskularrean aspaldi erabiltzen hasi zirenez, sakonki ezagutzen diren farmakoak dira [51]. Elkarrekintza-mekanismoaren arabera, hipertentsioaren aurkako farmakoak talde desberdinetan sailkatzen dira [52]. HTAren aurkako terapiari hasiera eta jarraipena emateko, ESH/ESC Elkarteak monoterapien edota elkarrekin konbinatuta erabili daitezkeen agente antihipertentsiboak 5 talde nagusitan desberdintzen ditu [17]. Terapia konbinatuan erabiltzen diren konbinazio ohikoena 1.1 Irudian jaso dira:

1. Diuretikoak: eragite-mekanismoa odol-bolumenaren murrizketan oinarritzen da. Farmako antihipertentsiboen artean, merkatuan denbora gehien daramatena dira, eta hala ere, gehien erabiltzen direnak dira. Eraginkorrak, merkeak eta dosi baxuetan orokorrean toleratzen dira. Farmako antihipertentsibo desberdinen arteko konbinaketak egiterakoan, hots, terapia konbinatuan, diuretikoak lehen aukerako farmakoak dira euren efektu hipotentsorea gehigarria baita [53]. Familia honen barnean azpitalde ezberdinak daude: tiazidak (adib. Klortalidona edo Hidroklorotiazida), lakiokoak (adib. Furosemida . . . ), potasio aurrezleak (adib. Amilorida) . . .
2. Angiotensina-II Hartzailaren Antagonistak (AHA-II) edo “sartanak”:  $AT_1$ -erzeptorearen blokatze espezifiko-selektiboaren bidez Angiotensina- IIren (AII) ekintzak inhibitzen dute, PAaren igoeraren arduraduna nagusia dena. AHA-II gehienek itzulezina edo ez lehiakorra den blokatzea eragiten dute, AII maila igo arren blokatze hau itzulgarri bihurtzen ez delarik [54–56]. Monoterapien erabiltzeaz gain, terapia konbinatuan ere erabili ohi dira. Adibide moduan Valsartana, Telmisartana, Kandesartana . . . aipa daitezke.
3. Angiotensinaren Entzima Bihurtzailearen Inhibitzaileak (AEBI) edo “priloak”: Angiotensina-I (AI) AIIIn bihurtarazten duen entzima lehiakorki blokeatzen dute, honen sintesia oztopatuz [57]. Diuretikoekin (dosi baxutan) asoziatuta oso emaitza onak aurkezten dituzte. Farmako hauen adibide gisa Enalapril, Ramipril . . . aipa daitezke.
4. Kaltzioaren antagonistak: mintz zelularraren zehar  $Ca^{+2}$  iragatea galarazten dute. Efektu antihipertentsibo printzipala potentziazten duen efektu natriu-



**Irudia 1.1:** Terapia konbinatuen familia desberdinetako farmako antihipertentsiboen artean ematen diren konbinazio ohikoenak [18]. Marra lodien bitartez ohiko konbinaketak irudikatu dira. Marratxo-etenen bitartez, berriz, kontrolaturiko saiakuntza desberdinetan onurak erakutsi dituzten konbinaketak irudikatu dira.

retikoa eragiteko ahalmena dute. Adibide moduan Amlodipinoa, Lerkandipinoa, Lazidipinoa . . . aipa daitezke.

5.  $\beta$ -blokeatzaileak: PA murrizten dute bihotzaren uzkurdura-maiztasuna motelduz (gastu kardiakoaren murrizpena). Efektu antihipertentsiboa ere duen renina-angiotensina-aldosterona ardatzaren inhibizio partzialean eragiteaz gain, kolesterolaren metabolismoan efektu positibo bat eragiten dute. Bai monoterapiari bai terapia konbinatuan erabili ohi dira. Gehien erabiltzen diren  $\beta$ -blokeatzaileak Bisoprolola eta Atenolola dira.

- Familia hauetaz gain beste farmako batzuk ere daude, baina ez dira normalean erabiltzen, hauen artean alfablokeatzaileak eta nerbio zentralean eragina dutenak.

Monoterapiaren bitartez kasuen %30–50 baino ezin denez kontrolatu, askotan terapia eraginkorra izateko farmakoen konbinazioa beharrezkoa egiten da. Osakide-

tzak kaleraturiko HTAren aurkako Gidan irakurri daitekeen bezala, dosiak bikoiztu eta monoterapiari jarraitzea baino egokiagoa omen da farmakoen arteko konbinazioak egitea (diuretikoak,  $\beta$ -blokeatzaileak edota kaltzio-antagonistak dosi erdian, eta AHA-IIak edota AEBI-ak ohiko dosietan) [51].

Zenbait ikerlanek baldintza jakin batzuetan hasierako tratamendu monodosiko bezala edota konbinazio gisa farmako batzuren egokitasun maila altuagoa dela erakutsi duten arren, ikertuak izan diren asoziazioen artean botika antihipertentsiboen konbinaziorik egokiena aukeratzeko, botika horien ezaugarri farmakologikoak eta albo-ondorioak kontuan hartuko dituen profesional bakoitzaren irizpidea da nagusitu beharko litzatekeena [51]. Hortaz, lehen mailako farmakoen identifikazioan enfasia egitea alferrikakoa da. Nolanahi ere, aitortu beharra dago terapia konbinatuan diuretikoaren garrantzia, beste antihipertentsiboekin erabilia efektu sinergikoa lortzen baita. Izan ere, terapia antihipertentsibo konbinatuan diuretiko bat erabili ohi da beste antihipertentsibo batekin, konbinaziorik arruntena tiazidek eta AHA-IIek (edo AEBI) osatutakoa delarik [58].

Konbinazio batzuekiko nolabaiteko joera egon daitekeen arren, gomendagarriak ez diren konbinazioak ere egon badira. Horrela, HTAren aurka Osakidetzak prestatu-riko Gida honetan PA jaisteko AEBI+AHA-II-en arteko konbinaziorik ez erabiltzea gomendatzen den bitartean, ESH/ESC Elkartearen aholkuen arabera, SMet-a edo diabetes intzidenterako arrisku altua duten pazienteetan  $\beta$ -blokeatzaileen erabilera ekidin beharko litzateke (bereziki diuretiko tiazidikoekin batera proposaturiko konbinazioak) [17].

### 1.3.2.2 Farmako hipolipemiatzaileak

CVDak eta kolesterolaren arteko harremanaren berri aspaldi izan arren, farmako hipolipemiatzaileen erabilera ez zen zabaldu lehen mailako prebentzio neurri gisa onartu ez ziren arte. 90eko hamarkadan Estatu espainiarrean farmako hauen erabilera hedatu zenetik, farmako hipolipemiatzaileek kontsumo maila altua ezagutu dute [59]. Plazaratu ziren aurreneko medikamentu hipolipemiatzaileak fibratoak izan ziren (60ko hamarkadan), eta denborarekin beste agente hipolipemiatzaile batzuk plazaratuz joan ziren arren (azido nikotinkoaren deribatuak, behazun-azidoen bahitzaileak ...), urte luzez kontsumituenak izan ziren. Fibratoen nagusitasuna estatinen agerrerarekin bukatuko zen, farmako berri hauek tratamendu hipolipemiatzailearen merkaturia erabat irauli baitzuten. Gaur egun, erabiltzen diren farmako hipolipemiatzaileen %90 estatinak dira.

Estatinek farmako kontsumituenak izaten jarraitzen badute ere, 2003an farmako hipolipemiatzaile iraultzaile berri bat plazaratu zen: kolesterolaren absortzioa galerazten duen Ezetimiba [60]. Estatinekin batera har daitekeenez, estatinen kontsumoa bere horretan mantendu dela esan daiteke. Edonola ere, ez da hau errezetatzen den hipolipemiatzaileen konbinazio bakarra. Eragite mekanismo desberdineko hipolipemiatzaileak konbinatuz, lipidoen kontrola modu errazagoan burutzen baita. Jarraian, hipolipemiatzaile familia desberdinen ezaugarri nagusiak bildu dira [61]:

1. Fibratoak: lipoproteinen metabolismoa kontrolatzen duten geneen kodeketa-  
ren transkripzioan eragiten dute. PPAR- $\alpha$  (*peroxisome proliferator-activated  
receptors*, PPAR) errezeptore familia nuklearraren transkripzioa aktibatuz,  
plasman TGen murrizketa esanguratsua eragiteaz gain, VLDL eta LDLren  
murrizketa moderatua eta HDLren hazkundearekin erlazionatzen dira. Far-  
mako hauen artean Gemfibroziloa da kontsumituen [62].
2. Truke anionikozko erretxinak (edo behazun azidoen bahitzaileak): heste meha-  
rrean behazun azidoekin bat egiten dute eta konposatu hauspeakorrak era-  
tuz, gorotzen bidez iraitzen dira. Behazun azidoen zirkulazio enterohepatikoa  
geldiaraziz, LDL errezeptoreen eraketa estimulatu dute. Ondorioz, LDLren  
eliminazioa eragiteaz gain, HDLren hazkunde moderatua faboratzen dute.  
TGen maila ere areagotu ohi da farmako hauekin [63]. Erretxina ohikoenak  
Kolestiramina eta Kolestipol dira [64].
3. Azido nikotinkoaren deribatua: VLDLren sintesia inhibitzen dute eta gibe-  
larako TGen garraioa oztopatzen dute. Modu honetan TG eta LDL mailak  
jaisten dira eta HDLrenak igo. Emaizta oso onak lortu arren efektu sekun-  
darioak direla eta estatu mailan bere erabilera kasu zehatzetara mugatuta  
dago, Nizeritrola da lortu daitekeen farmako bakarra [65].
4. Estatinak (edo hidroxi-metil-glutaril-Akoentzimaren -HMGCoA- inhibitzaileak): kolesterolaren sintesia funtsezkoa den HMGCoA erreduktasa inhibi-  
tzen dute. Honen ondorioz LDL eta TG mailen murrizketarekin batera, HDL-  
ren igoera eragiten dute (gg. LDL: %30–40 ↓; TG: %10 ↓; HDL: %5–10 ↑) [66].  
LDL maila murrizteko, estatinak lehen aukerako farmakoak dira. Dislipo-  
mia arazoak zuzentzeko oso estimatuak izateaz gain, estatinak obesitatea,  
T2DMA eta nola ez, SMet-ari aurre egiteko funtsezkoak dira [67]. Halaber,  
saiakuntza kliniko desberdinek agerian utzi dute estatinekin kolesterola murrizteaz gain, bestelako eragin onuragarri batzuk ere eragiten dituztela (plaka aterosklerotikoak orekatzen dituzte, funtzio endotelialarra hobetzen dute, inflamazio maila jaisten dute, tronbosi arriskua murrizten dute, erantzun in-

munitarioa modula dezakete, etab.) [67]. Hori dela eta, estatinak HIESA, Alzehimer eta minbiziaren aurkako tratamenduetan zer nolako ekarpena egin dezaketen aztertzen ari da. Gaur egun merkatuan dauden estatinak Atorvastatina, Fluvastatina, Lovastatina, Pravastatina, Rosuvastatina eta Sinvastatina dira. 2001ean Zerivastatina merkatutik baztertu zen albo-ondorio arriskutsuak eragiten zituelako. Hala ere, ez dirudi beste estatinek inongo arazo larrikerik eragiten dutenik kasu batzuetan miopatiak (min muskularrak) kausatu eta transaminasak igo ditzatekeen arren [68]. Egun Atorvastatina eta Sinvastatina dira oraindik gehien kontsumitzen diren estatinak [69].

5. Ezetimiba: fibrato, erretxina eta estatinen eragite mekanismoekin alderatuz, Ezetimibarena oso bestelakoa da. Heste meharraren mikro-biloetan eragiten du, hesteetan ematen den kolesterolaren eta landare-jatorriko beste esterol batzuren absortzioa selektiboki inhibituz. Azken batean kolesterola heste meharraretik gibelera pasatzen oztopatzen du. LDL mailak murrizten baditu ere, zenbait ikerketa klinikotan erakutsi izan da Ezetimibak TGen absortzioa ez duela oztopatzen. Estatinekiko jasanezintasuna dagoenean Ezetimiba errezetatzeaz gain, oso normala da estatineik batera koadministratzea. Medikamentu nahiko berria denez, bere albo-ondorioei buruzko informazio gutxi dago [70].
- Beste hipolipemiatzaile batzuk: badaude oso gutxi erabiltzen edo frogetan dauden beste hipolipemiatzaile batzuk, esaterako arritmiak kausatzen dituen eta merkatutik at dagoen Probukol antioxidatzailea, arrainen gantz azido asegabeak, heparinak . . .

Hainbat ikerketek frogatu dute estatinak direla farmako hipolipemiatzaileen artean hilkortasun-tasa gehien murrizten dutenak, seguru asko LDL maila besteak baino gehiago murrizteaz gain, PAean ere eragin handiagoa dutelako. Edonola ere, farmako antihipertentsiboekin gertatzen den bezala, askotan terapia hipolipemiatzailea eraginkorra izateko farmakoen konbinazioa beharrezkoa egiten da. 2008an Osakidetza kaleraturiko Lipidoen erabilerari buruzko Praktika Klinikoko Gidaliburuan irakurri daitekeen bezala, zenbait farmakoen arteko konbinazioak proposatzeaz gain (estatina+fibratoa, estatina+erretxina, estatina+Ezetimiba, Ezetimiba+fibratoa), oinarrizko hainbat gomendio plazaratzen ditu [21]. Esaterako, 2 farmakoren konbinazioa beharrezkoa den pazienteetan, dosi baxuetan estatinak eta ioien elkartrukeko erretxinak konbina daitezke. Hauekiko intolerantzia gertatzekotan, Ezetimiba erabili liteke. Halaber, estatinarenekin bat fibratoekin konbinatzea beharrezkoa denean, Fenofibratoa erabiltzea gomendatzen da.

### 1.3.2.3 Diabetesaren aurkako farmakoak

Diabetesaren aurka gehien erabiltzen den tratamendua Intsulinan oinarrituta dago. T2DMaren kasuan erabiltzen diren ahozko antidiabetikoak hiru talde nagusitan sailka daitezke: (a) Intsulina endogenoaren sekrezioa estimulatzeko dituzten farmakoak (sulfonilureak eta metiglinidak); (b) ehunetan Intsulinarekin erabilera hobetzen duten farmakoak (biguanidak eta tiazolidindionak); eta (d) zenbait karbohidratoren absorzioa atzeratzen duten farmakoak (hesteetako  $\alpha$ -glukosidasen inhibitzaileak).

Ikerkuntza-lan honen ikuspuntutik diabetesaren aurkako farmakoak zein gizentasunari aurre egiteko terapiak interes gutxikoak izango direnez, tratamendu hauen inguruko nabardura sakonagoetan ez sartzea deliberatu da. Gai honen inguruko informazioa nonahi aurki badaiteke ere, Estatu espainarreko Osasun Sistema Nazionalak 2 motako diabetesaren inguruan kaleraturiko Praktika Klinikorako Gida irakurtzea gomendagarria izan daiteke [26].

## 1.4 Metodo analitikoak eta matrize biologikoak

Osasungintzan, matrize biologikoetan egiten diren farmakoen determinazio kualitatiboak zein kuantitatiboak funtsezkoak dira tratamendu farmakologikoaren egokitasuna ebaluatu eta bere garapena jarraitu ahal izateko. Era honetan, printzipio aktiboen eraginkortasun maila, balizko metabolitoen eragina, substantzia toxikoen presentzia, azterketa farmakozinetiko eta farmakodinamikoaren osaketa, ezezagunak diren erreakzio fisiologikoak ulertzeko beharrezkoak diren molekula tartekarien identifikazioa eta kuantifikazioa . . . metodo analitikoak erabilia burutu daitezke.

Esparru klinikoan konplexutasun handiko matrizeak kudeatu behar direnez (adib. odola, plasma, seruma edota gernua), era honetako analisiek aurretratamendu bat eskatzen dute, ezinezkoa baita era honetako laginak zuzenean determinaziorako tresneria analitikoetan analizatu. Matrize konplexu hauetan lagin analito-anitzak aztertu nahi direnean, erauzketa metodo egoki bat aurkitzea zaila izaten da. Zenbaitetan, analito baten berreskurapena handitzea lortzerakoan, ondokoarena txikiagotzen da. Honela, matrizeatik aztertu beharreko analito gehien isolatzen duen metodoa ontzat emanez, konpromisozko egoera batera heldu behar izaten da.

Laginarekin tratamenduak bere biziko garrantzia du, erauzketaren berreskurapen mailak analisiaren emaitzak baldintzatu baiditzaizake. Analisi-denbora gehien har-

tzen duen urratsa izateaz gain, azkeneko emaitzetan aurkituko den zehaztasun edota prezisio ezaren erantzulea da. Etapa kritikoa da beraz, aurretratamendua-rena.

Erauzketa metodo desberdinak existitzen dira [71, 72]. Alabaina, bioanalisian gehien erabiltzen diren teknikak adsortzio erauzketetan oinarritzen dira, eta guztien artean, gehien erabiltzen dena fase solidoan eginiko erauzketa da (*solid-phase extraction*, SPE) [73, 74]. Azken hamarkadan ordea, lagin kantitate gutxiago xahutze aldera, miniaturizazioarekiko interesa areagotuz joan da. Modu honetan, adsortzio mikroerauzketa teknika berriak garatu dira, esaterako, likido-likido edo fase solidoan eginiko mikroerauzketak (*liquid-liquid micro extraction*, LLME; *single-drop microextraction*, SDME; edota *solid-phase micro extraction*, SPME) [75–81], eta garapen berriagoko beste teknika eraberritzaile batzuk: *hollow-fiber*, *pipette tip extraction*, *stir bar sorptive extraction* . . . [82–88].

Interferentzien *clean-up*-a egin eta matrize biologikotik gure analitoak erauzi ondoren, analitoen jarraipen kualitatiboa nahiz kuantitatiboa egiteko erabiliko den metodo analitikoa zehaztu beharra dago.

Metodo espektrofotometrikoak oso erabiliak izan dira formulazio farmazeutikoen printzipio aktiboen kuantifikazioetan, egonkortasun frogetan eta purutasun analisietan [89]. Dena den, teknika honetan inolako banaketarik ematen ez denez, selektibitate eskasa eskuratzen da, matrizean egon daitezkeen gainerako substantziek analitoaren seinalearekin interferitzen baitute. Metodo elektroanalitikoak ere baliagarriak izan daitezke hainbat kasutan. Teknika voltamperometrikoak, esaterako, konposatu elektroaktiboen determinazioan erabili daitezke [90]. Metodo immunologikoak ere sinpleak eta erabiltzen errazak dira baina garestiak izateaz gain, agertzen duten espezifikotasun altuagatik, aldibereko analisi konposatuanizetan analito guztien jarraipena egiteko arazoak erakutsi litzakete.

Nolanahi ere, analisi metodo guztien artean erabilienak teknika kromatografikoak dira. Lan-eremu klinikoan analizatu ohi diren analitoen izaeragatik (askotan pisu molekular ertain-handikoak, hegazkortasun txikikoak, polarrak edo ionizagarriak eta termolabilak), gehien erabiltzen diren teknikak, kromatografia likido era-koak dira (*high performance liquid chromatography*, HPLC). Bioanalisian kromatografia likido modalitate desberdinak erabiltzen badira ere (*reversed-phase LC*, RP-LC; *hydrophilic interaction LC*, HILIC; *ion-exchange chromatography*, IEC; *normal-phase LC*, NP-LC, etab.), RP-LC da hedatuena dagoen teknika. Bereizketa teknika mota honi era desberdinetako detektagailuak akoplatu ahal zaizkio: ultramorea/ikuskorra (UV/ikus.), fluoreszentea (FLR), lerroturiko fotodiodoak (*photodiode array detector*, PDA), lurruntze osteko argi-sakabanaketa bidezkoak (*evaporative light scattering*, ELS), errefrakzio indizean oinarriturikoak (*refractive index*, RI)



eta jakina, masa espektrometroak (MS). Azken hauek dira azken urteetan garapen handiena ezagutu dutenak. Izan ere, LC-MS erako teknika analisi azkarrak eta oso sentikorrek eskaintzeaz gain, metabolitoen *in-vitro* eta *in-vivo* ikerkuntzetarako, analisi kiralerako eta ezpurutasunen eta degradazio produktuen identifikaziorako oso erabilgarria da [91, 92]. Honakoa ahalmen handiko teknika izan arren, oso garestia denez, teknika hau ez dago edozein laborategiren esku. MS detektagailuak ez bezala, PDA edota FLR bezalako detektagailuak edozein laborategi analitikoren esku daude. Hauen bitartez analisi klinikoen jarraipena inolako arazorik gabe osatu daitezke, selektibotasun eta sentikortasun maila handikoak baitira bata zein bestea.

Edonola ere, kromatografia likidoaren garapena etengabekoa da, eta aipagarriak dira azken hamarkadan egindako aurrerapenak. Helburua, erresoluziorik handienarekin eta denbora tarterik laburrenean sentikortasun handieneko instrumentazioa erdiestea izanik, nabarmendu beharra dago 2004ean aurreneko aldiz plaza-ratu zen LC sistema berria: ultra presio-handiko kromatografia likidoa (*ultra high-pressure liquid chromatography*, UHPLC). Partikula tamaina txikiak (<2.0  $\mu\text{m}$ ) eta presio ultra handiak (>6.000 psi edo >400 bar) uztartuz, kromatografia likidoak di-mentsio berri batera jauzia egin du. Analisi askoz azkarragoak, sentikortasun eta erresoluzio handiagoiarekin. Eta zentzu honetan, analisi klinikoak ere, bide berri honi ekin dio [93–95].

## 1.5 Metodo analitikoaren optimizazioa

Prozesu analitikoa optimizatzeko, sisteman eragina izan dezaketen aldagaien azterketa egin beharra dago. Tradizionalki, aldagai ezberdinen optimizazioa lortzeko prozesua OFAT (*one factor at a time*, OFAT) metodologiaren bidez egin izan da [96]. Honen arabera optimizazioa aldagaiz aldagai egiten da, hau da, aldagai bakarra aldatzen den bitartean gainontzeko guztiak konstante mantentzen dira. Prozesu hau, optimizatu beharreko aldagai kopuru adina aldiz errepikatu beharko litza-teke. Metodologia honen erabilera kimika analitikoaren munduan oso hedatua badago ere, desabantaila nabariak aurkezten ditu, esate baterako:

- Aldagaien arteko menpekotasunak edota interakzioen ikerketik ez da egiten.
- Optimizazioa egiteko saio kopuru itzela behar da.

Optimizatu beharreko aldagai kopurua altua denean edota aldagaien eragina kon-plexua denean, metodologia hau metodo analitiko bat doitzeko gogaikagarria eta

luzea bihurtu daiteke. Gainera, ikertzailearen eskarmentua balio handikoa izatearekin batera, aldagai desberdinen arteko efektu sinergikoak ez dira kontutan hartzen.

Badira desabantaila hauek gainditzen dituzten bestelako metodologiak [97]. Diseinu experimentalaren erabilerak aldagai anitzeko erregresio metodo ezberdinen erabilerarekin uztartuta, aipaturiko desabantailak gainditzen ditu. Hau dela eta, metodo analitikoaren garapenari begira, lehen ordenako lanabesa bilakatu da [98–100].

Diseinu experimental eredu desberdinak bi talde nagusitan sailkatzen dira: (a) *screening* diseinuak: eredua eraiki aurretik sistemaren inguruko informazioa ematen dutenak (aldagaien kopurua txikia denean: diseinu faktorial zatikatuak/osoak; eta aldagaien kopurua altua denean: Plackett-Burman erako diseinuak); eta (b), optimizazio diseinuak: eskuraturiko informazioarekin baldintza optimoen berri ematen dutenak (diseinu konposatu zentralak, Box Behnken diseinuak, nahasketa diseinuak, Taguchi-ren diseinuak, karratu latinoen diseinuak . . .).

Diseinu experimentalaren bitartez, saio kopuru murriztu batetik, sistema optimizatzeko informazio baliagarria eskuratu da. Prozesu kromatografikoan eragina duten aldagaiak identifikatu, eta aldagai horiek optimizatu nahi diren erantzuntan (azalera, intentsitatea, denbora, erretentzio-denbora . . .) zer nolako eragina duten ebaluatu ahal izango da. Eragin hau aztertu ondoren, diseinu esperimentalekin batera erabiltzen diren aldagai anitzeko erregresio metodo ezberdinek, erantzunaren balio maximoak zein baldintzetan lortzen diren jakitea ahalbidetzen dute.

**Screening diseinuak** Optimizazio prozesuarekin hasterakoan, askotan aldagai ugariarekin topo egin ohi da. Diseinu esperimentalean burutu beharreko saiakuntza kopurua, aldagai kopurua eta hauek aztertzen dituzten mailen arabera denez, OFAT metodologiaren bitartez optimizatu beharreko aldagaien kopurua murrizten saiatzen da (ustez prozesu analitikoan eragin txikiena izango dutenak). Aldagaien kopuruak mugatuko du diseinu baten edo beste baten erabilera. Lehenengo fase honetan aplikatzeko diseinurik hedatuena diseinu faktoriala da.

Diseinu faktorial osoaren (DFO) bidez konbinazio simetrikoak lortzen dira, aldi berean faktore guztiak maila orotan aldatzen baitira. Diseinu hauetan aldagaiek 2 maila desberdinetan zer nolako eragina duten neurtzen denez (goiko eta beheko mugak -1 eta +1 bezala kodifikatu ohi dira), konbinaketa guztiak  $n$  aldagaietako diseinu baterako  $2^n$  saiakuntzetan laburbiltzen dira. Aldagaien kopurua 4–5etik gorakoa denean eginbeharreko saiakuntzen kopurua gehiegizkoa suertatzen da. Kasu hauetan diseinu faktorial zatikatura (DFZ) jo beharra dago.


DFZa burutu ahal izateko DFOa sinplifikatu beharra dago: saiakuntza kopurua murriztu beharra dago. Murrizpena aldagaien artean ezarri nahi den nahasmen mailaren arabera izango da. Hau arreta handiz egin beharra dago, nahasmen-faktoreek erantzunarekiko eragin mesprezagarria eduki behar dute eta. Diseinu hauetan ere aldagaiak 2 mailatan konbinatzen direnez, konbinaketa guztiak  $n$  aldagaietako diseinu baterako  $2^{n-p}$  saiakuntzatan laburbiltzen dira, non  $p$  aldagaien arteko nahasmen sortaile kopurua den. Nahasmen sortaile hauen erresoluzioa III. (3 nahasmen sortaile) edota IV. (2 nahasmen sortaile) gradutakoa izan daiteke. III. gradutakoa denean, eginbeharreko saiakuntzen kopuruak  $2^{n-3}$  itxura hartzen du, eta IV. gradutakoa denean, aldiz,  $2^{n-2}$ . Argi dago beraz, eredu osoagoa IV. gradutakoa dela, ereduan nahasmen sortaile gutxiago sartzen baitira (DFOren eredura gehiago hurbiltzen da).

*Screening* erako diseinu hauek proposaturiko saiakuntzak laborategian burutu eta emaitza esperimentalei bariantza analisia (*analysis of variance*, ANOVA) aplikatu ondoren, aurreneko ondorioak atera ahal izango dira (azterturiko parametroetatik zeinek duen eragina ikusiko da; eragin hauek positiboak ala negatiboak diren ikusiko da; eta, aldagaien artean elkarrekintzarik ba ote diren jakin ahal izango da).

**Optimizazio diseinuak** Informazio honekin, erantzunetan eragina duten aldagaiak optimizatu beharko lirateke, gehienetan diseinu konposatu zentralen (DKZ) bidez. Eredu honek saiakuntza berri batzuk proposatuko ditu (ikus 1.4 Taula), eta laborategiko saiakuntzetatik lorturiko emaitza esperimentalei aldagai anitzeko erregresio metodo ezberdinak aplikatu beharko zaizkie (MLR, PLS-1, PLS-2, PCR ...). Modu honetan, aldagaiak eta erantzunen arteko korrelazioa ezartzen duten erantzun-gainazalak lortuko dira (ikus 1.2 Irudia). Hemendik erantzun maximoa ematen duten aldagaien balioak ondorioztatu ahal izango dira, hauek minimoak edota maximoak izan daitezkeelarik (ezarritako irizpideen arabera).

Diseinu eredu hauek bi saiakuntza mota desberdinetan oinarritzen dira (ikus 1.3 Irudia) [101]:

- Kuboa eta diseinu faktorial oso baten lagin zentralak.
- Eredu koadratiko bat kalkulatzeko beharrezkoak diren maila gehigarriak ematen dituen izar baten erpinak.




Irudia 1.2: Bi aldagaietako optimizazio batean, eredu koadratiko desberdin batzuren erantzun gainazalen profilak: (a) maximoa; (b) *plateau*; (c) maximoa saiakuntzen eskualdetik kanpo geratzen denean; (d) minimoa; eta (e) zela-gainazalak [99].

Taula 1.4: Diseinu konposatu zentrolean erabilitako aldagaien araberako saiakuntza kopurua.

Aldagai kopurua	Kuboari dagozkion saiakuntzak	Izarrari dagozkion saiakuntzak	Erreplika zentralak	Saiakuntza kopuru totala
2	4	4	3-5	11-13
3	8	6	3-6	17-20
4	16	8	3-7	27-31
5	32	10	3-10	45-52
6	64	12	3-15	79-91

Horrela, aldagai adierazgarri bakoitza 5 maila desberdinetan zer nolako eragina duen aztertu beharko da (-2, -1, 0, 1, 2 bezala kodifikatuta agertu daitezkeenak). DKZ batean egin beharreko saiakuntza kopurua jarraian erakusten da:

Proposaturiko saiakuntzak laborategian egin ondoren, aldagaien eta hauen arteko elkarrekintzen arteko efektuak kalkula litezke. Test estadistiko desberdinak erabiltuta aldagai eta elkarrekintza bakoitzaren esangura-maila ebaluatu liteke. Nolanahi ere, erantzunaren gaineko efektua, efektu errealarari dagokiola egiaztatu beharra dago, eta ez ordea errore esperimentalari<sup>1</sup>. Horregatik, proposaturiko diseinuari zenbait saiakuntzen erreplika gehitzen zaizkio (normalean puntu zentralaren erreplika batzuk burutu ohi dira)<sup>2</sup>.



Irudia 1.3: Diseinu konposatu zentralerako optimizazioa: (a) bi aldagai kontsideratzen direnean; eta (b) hiru aldagai aintzat hartzen direnean. (●) diseinu faktorialari dagozkion puntuak, (○) erpinetako puntuak, eta (□) puntu zentrala [99].

## 1.6 Metodo bioanalitikoaren balidazioa

Farmakoak eta haueetatik erator litezkeen metabolitoak lagin biologikoetan determinatzeko garatzen diren metodo analitikoek erabateko fidagarritasuna erakutsi

<sup>1</sup> Errore esperimentalak, saiakuntza bat errepikatzerakoan lortzen den desbazio estandararekin ebaluatu ohi da [102, 103].

<sup>2</sup> Egun berean saiakuntza guztiak burutzea ezinezkoa denean, saiakuntzak bi egunetan banatu behar dira: aurrenekoan, kuboari dagozkion laginak burutzeaz gain, erreplika zentralen erdia egin beharko litzateke; bigarren egunean berriz, izarrari dagozkion laginak eta erreplika zentralen beste erdia burutu beharko litzateke.

behar dute. Izan ere, analisi hauetatik eskuratuko diren datuetan oinarrituz, bio-disponibilitate, farmakozinetika eta metabolismoaren inguruko interpretazio jakin batzuk egingo baitira. Fidaragarritasunaren inguruko auzia hain da garrantzitsua, ezen farmako berri baten merkaturatzea, terapia farmakologiko baten onarpena edota tratamendu baten diagnostikoa bera baldintzatu ditzakeen. Horrelakorik ez gertatzeko, metodo analitikoak balidatu beharko dira, hau da, kalitate kontrol sistema bat (esperimentala zein estadistikoa) ezarri beharra dago.

Metodo analitikoa balidatzea behar beharrezkoa bada ere, argitu beharra dago ez dagoela helburu hau jasotzen duen behin betiko gida bateraturik. Erakunde desberdinek [104–108] edota esparru bioanalitikoan [109–113] zein eremu farmazeutikoan [114–117] lan egiten duten autore desberdinek prozedura analitikoa balidatzeko gida proposamen interesgarriak kaleratu dituzte.

Nolanahi ere, Metodo bioanalitikoek bete beharreko baldintzei dagokionez eta giza erabilera izango duten farmakoetaz hitz egiterakoan, gehien erabiltzen diren irizpideak *International Conference on Harmonisation* (ICH) eta *Food and Drug Administration* (FDA) erakundeek proposaturikoak dira [118, 119]. Edonola ere, ez litzateke ahaztu behar gai honen inguruan Europako Batzordeak 2002an plazaraturiko gida arautzailea [106].

Orokorrean, matrize biologikoetan analitoen determinazio kuantitatiborako garatutako metodoen balidazioa ziurtatzeko, ondorengo parametro hauek kontuan hartu behar dira: berreskurapena, selektibitatea, linealtasuna, lan-tarte erabilgarria, zehaztasuna, prezisioa, sentikortasuna eta egonkortasuna.

**Berreskurapena** Matrize biologikoan burutzen den analito jakin baten/batzuren erauzketaren eraginkortasuna adieratzen du. Metodo analitikoetan berreskurapena ez da parametro kritiko bat zehaztasuna, prezisioa edo egonkortasuna izan daitezkeen bezala. Halarik ere, metodo analitikoak erauzketa baten beharra duenean berreskurapena faktore garrantzitsu batean bilakatzen da, metodoaren sentsibilitatea eta determinazio-mugarekin zuzenki erlazionatuta dago eta.

Bi berreskurapen mota daude: (a) **erabateko berreskurapena**: lagin biologiko bat hasieratik analito baten kantitate ezagun batekin dopatzerakoan lortzen den seinalea (analitoak prozesu analitiko osotik igaroko da) eta kontzentrazio bereko disoluzio estandarrak (fase mugikorrean prestatua egon daitekeena) ematen duen seinalearen arteko erlazioa [120]; eta (b), **berreskurapen erlatiboa**: lagin biologiko bat hasieratik analito baten kantitate ezagun batekin dopatzerakoan lortzen den seinalearen eta, erauzketa prozesu bera jasan ondoren analito kantitate berarekin dopatutako lagin biologikoak ematen duen seinalearen arteko erlazioa (edota

erauzketa prozesu bera jasan duen disoluzio estandarrak ematen duen seinalearen arteko erlazioa). Orokorrean erabateko berreskurapena erabiltzea gomendatzen da baina deribatizazio prozesurik erabiltzekotan errekupeazio erlatiboa erabili beharra dago.

Edonola ere, berreskurapena, ezarritako lan-tarte baten barnean dauden hiru kontzentrazioetan (baxua/ertaina/altua) aztertu beharra dago.

**Onartze-irizpideak** ... Balidaziorako gida-txostenetan ez da aipatzen erabateko berreskurapenrako muga minimo bat. Nolanahi ere, berreskurapena oso ahula deneko kasuetan metodo analitikoaren birplanteaketa bat egitea komeni da. Determinazio-muga oso baxua behar ez denean edota detekzio sistemaren sentikortasuna oso altua denean onartu daiteke berreskurapen maila baxuagoak. Kasu guztietan, berreskurapen portzentaiak kontzentrazio maila guztietan mantendu behar dira.

**Selektibitatea** Determinatzen diren analitoak eta interferitu dezaketen substantziak banatzeko ahalmena da. Metodo analitiko kromatografiko baten selektibitate maila, banaketa kromatografikoaren kalitatearen eta erabilitako detekzio motaren berezko selektibitatearen arabera da. Modu honetan, arreta handiagoa jarri beharko da selektibitate eskasako detektore bat erabiltzerakoan (UV adibidez, eta are gehiago uhin luzera baxuetan), selektibitate handiagoko bertze batekin aritzerakoan baino (adib. MS). Selektibitate gutxiko detektoreekin, beraz, erauzketa prozesu eta banaketa kromatografiko hobeak beharrezkoak dira alde batetik interferentzia gehiago eliminatzeko eta bestetik, hauek agertzen direnean, analitoetatik bereizteko.

Matrizean egon daitezkeen konposatu endogenoen interferentzia eza, jatorri ezberdineko 6 plasma laginekin (ez dopatuak, hau da, zuriak) egiaztatu beharra dago. Lagin hauen emaeleak ezingo dira analizatu beharreko farmakoaren tratamendupean egon.

**Onartze-irizpideak** ... Analitoen erretentzio-denbora ( $t_r$ ) berean agertzen diren seinale interferenteen magnitudeak, analito horien determinazio-mugaren %20 baino txikiagoak izan beharko dira. Barne estandarraren (BE)  $t_r$  berean agertzen diren seinale interferenteen tamainak, ikerketaren zehar erabiliko den BEren kontzentrazioari dagozkion seinalearen %5 edo txikiagoa ( $\leq$ %5) izan beharko da.

**Erantzun funtzioa. Kalibrazio-kurba. Linealtasuna** Kalibrazio kurba, seinale analitikoaren eta analito kontzentrazioaren arteko erlazioa modu sinpleenean ezartzen duen funtzioa da. Linealtasuna, ezarritako eremu batean, metodoak, kalibrazio ereduaren bitartez, analitoaren kontzentrazioarekiko zuzenki proportzionalak diren seinaleak emateko gaitasuna da.

Laginean kuantifikatu beharreko analito bakoitzeko kalibrazio-kurba bat eraki beharko da. Kalibrazio-kurba hauek osatzeko, kuantifikatu beharreko laginak aurkitzen diren matrize berean prestaturiko estandar disoluzioak erabiliko dira, eta lagin errealetan espero diren kontzentrazio-tarteak barne hartu beharko dituzte. Erregresio funtzio linealeko kasuetan, zuria (BERik gabeko matrize pozosaturia) eta zeroarekin batera (BERekin matrize prozesaturia) gutxienez kontzentrazio-tarte erabilgarriaren barne hartuta dauden 6–8 estandar disoluzio erabiltzea komeni da. Lagin-zuriak eta zero-laginak balizko interferentziak ebaluatzeko bertzerik ez dute balio, erantzun funtzioaren parte izatera ez baitira helduko.

Balidazioa osatu bitartean gutxienez hiru kalibrazio-kurba egin beharko dira. Possible izatekotan, kalibrazio-kurba bakoitza jatorri ezberdineko matrizeekin eraiki behar da. Hiru kalibrazio-kurba hauek elkarren independenteki analizatu beharko dira (fase mugikor, tanpoi, elektrolito . . . ezberdinekin).

Kalibrazio disoluzioen erantzunak (seinaleak), analitoaren kontzentrazio teorikoen aurrean irudikatzerakoan, datuen doiketa hobekien egiten duen erregresio eredu erabilita, kalibrazio-zuzenaren berezko parametroak lortu beharko dira: korrelazio koefizientea, ordenatua jatorrian, erregresioaren malda, kalibrazio-kurbaren estandar bakoitzaren portzentajezko errore erlatiboa (%ER: balio teorikoekiko kurbaren interpolatutako balio esperimentalen portzentajezko desbiazioa).

Erantzun funtziorik egokiena aukeratutakoan, hondarren portaera aztertzea komeni da. Zeroaren inguruan aleatorioki banatuta egon beharko dira tendentziarik ez dagoela bermatzeko (errore sistematikoa).

**Onartze-irizpideak** . . . Kalibrazio estandar bakoitzaren %ER-ak, bere balio absolutuarena baino %15 txikiagoa izan beharko du. Determinazio-mugan, aldiz, %20 baino txikiagoa izan beharko du. Irizpide hau kalibrazio estandarren  $2/3$ -ek bete beharko dute (kalibrazio zuzen bakoitzari aplikatu beharreko irizpidea), kontzentrazio-tarte erabilgarriaren goi/beheko mugak barne.

**Zehaztasuna eta prezisioa** **Zehaztasuna**, kontzentrazio teorikoa eta analisisan lortutako emaitzaren arteko desberdintasun maila da. Honekin erlazioztatuta erro-



re sistematikoa (%ER) agertzen da, %ER-a, kontzentrazio teorikoaren eta neurtutako batzabesteko kontzentrazioen arteko portzentajezko ezberdintasuna baita.

Ausazko erroreekin erlazionatuta dagoen **prezisia**, berriz, prozedura berdinari jarraituz lortu diren datu analitikoaren arteko bat etortze maila (edo errepikakortasuna) da, eta desbiazio estandar erlatiboaren (%DEE) edo bariazio koefizientearen (%BK) bidez adierazten da.

Zehaztasuna eta prezisia bi mailatan ebaluatu beharko dira: saio barnekoa, denbora tarte laburrean (egun bakar batean) eta baldintza berdinetan lortzen den aldakortasunaren adierazlea dena (prezasioaren kasuan, errepikakortasuna); eta saioren artekoa, serie analitiko desberdinen (egun desberdinetan, analista eta erreaktibo ezberdinak . . .) aldakortasunaren adierazlea dena (prezasioaren kasuan, erreproduzibilitatea).

Saio barnekoa zein saioren artekoa, hiru kontzentrazio mailatan aztertu beharra dago. Horrela, matrize biologikoan prestatutako kontzentrazio ezberdineko hiru estandar disoluzio prestatu behar dira: (i), kontzentrazio baxuko estandarraren zenbatekoak, hiru bider determinazio-muga edo txikiagoa izan behar du; (ii), tarteko patroaiaren kontzentrazioa kalibrazio-zuzenaren erdialdean kokatu beharko da; eta (iii), kontzentrazio altuko estandarraren zenbatekoak, kalibrazio-zuzenaren kontzentrazio altueneko estandarraren %90–75 izan beharko du.

**Onartze-irizpideak** . . . %ER eran adierazitako zehaztasunak, kontzentrazio maila bakoitzeko, balio teorikoaren  $\pm 15\%$ -ekoa izan beharko du. Determinazio-mugan desbiazio hau  $\pm 20\%$ -koa izan daiteke askoz jota.

Prezisiolari dagokionean, errepikakortasunak eta erreproduzibilitateak (%RSD) %15-ekoa edo txikiagoa izan beharko dute. Determinazio-mugan %RSDa  $\leq 20$  izan beharko da.

**Detekzio eta determinazio-mugak** Parametro hauek metodoaren sentikortasunarekin lotuta daude. **Detekzio-muga** (*limit of detection*, **LOD**), konfidantza-maila jakin batean detekta daitekeen analitoaren kontzentrazio baxuena da, eta seinale analitikoaren zenbatekoaren eta zuriari dagokion seinalearen ziurgabetasunaren menpe dago.

**Determinazio-muga** edo **kuantifikazio-muga** (*limit of quantification*, **LOQ**), berriz, zehaztasun eta doitasun onargarriekin kuantifikatu daitekeen kantitate minimoena da, eta kalibrazio-zuzenaren kontzentrazio baxueneko estandarrarekin bat dator. Metodo bioanalitikoetan LOQ-a garrantzi handiko parametroa da, eta LOD-a berriz, gutxitan eskatzen den kontzeptua da.

Bide desberdinak erabili daitezke LOQ-a eta LOD-a determinatzeko [118]:

- begibistaz egindako balorazio batean oinarrituta: kontzentrazio ezaguneko estandar disoluzioak erabilia, esperimentalki ikus daiteke zein den lagin-zuriarekiko ezberdindu daitekeen kontzentrazioarik txikiena (LOD). Kuantifikazio hori zehaztasun eta prezisio onargarriarekin egin daitekeenean, LOQ-a lortuko da.
- Seinale/zarata erlazioan oinarrituta: kontzentrazio baxuko disoluzio baten azalera zuzendua kalkulatzen da. Jarraian, lagin-zuri baten zarataren azalera zuzendua determinatzen da. Seinale/zarata azalera zuzenduen erlazioak, LOD-aren kasuan 3, eta LOQ-ean 10 eman behar du (edo gehiago). Seinaleen kontzentrazioekin jolastu beharko da S/N erlazioaren balioa 3 eta 10 lortu arte.
- Erantzunaren desbiazio estandarrean eta maldan oinarrituta: lagin-zurien analisisien bitartez burutzen dira egin beharreko eragiketak.

$$LOD = \frac{3 \cdot s}{m_{\text{kalibrazio-zuzenaren malda}}} \quad (1.1)$$

$$LOQ = \frac{10 \cdot s}{m_{\text{kalibrazio-zuzenaren malda}}} \quad (1.2)$$

non  $s$  erantzunaren desbiazio estandarra den, eta ondoko eratarik kalkula daitekeen:

► zuriaren desbiazio estandarrean oinarrituta: 6 plasma-zurien azalera zuzenduak kalkulatzen dira, dagozkien desbiazio estandarrekin batera. Eskuraturutako zenbatekoa kalibrazio-zuzenean interpolatuz, LOQ<sup>3</sup>-a eta LOD<sup>4</sup>-a lortzen dira.

$$LOD = \frac{(y - O.O.)}{m_{\text{kalibrazio-zuzenaren malda}}} \quad (1.3)$$

$$LOQ = \frac{(y - O.O.)}{m_{\text{kalibrazio-zuzenaren malda}}} \quad (1.4)$$

non O.O. ordenatuak jatorrian duen balioa den.

► kalibrazio kurban oinarrituta: kontzentrazio baxuetan espezifikoki egindako kalibrazio-zuzena hartuta, bi eratarik jokatu daiteke: (a) erregresioaren desbiazio estandarra ( $s_{y/x}$ ) eta ordenatua-jatorria (O.O.) erabilia, kalibrazio-zuzenean interpolatuz (LOQ:  $y = O.O. + 10 \cdot s_{y/x}$  eta LOD:  $y = O.O. + 3 \cdot s_{y/x}$ ); edo (b), (a)-rekiko baliokidea diren adierazpenetan  $s_{y/x}$ -en ordez ordenatuak jatorrian duen desbiazio estandarra ( $s_{O.O.}$ ) erabiliz.

<sup>3</sup> $y = \bar{y}_{\text{zuria}} + 10 \cdot s_{\text{zuria}}$

<sup>4</sup> $y = \bar{y}_{\text{zuria}} + 3 \cdot s_{\text{zuria}}$

**Onartze-irizpideak** ... LOQ-ean, %ER eran adierazitako zehaztasuna gehienez  $\pm\%20$ -koa izan daiteke. Era berean, prezisioa, %RSD eran adierazita  $\%20$  izan daiteke.

**Egonkortasuna** Fluido biologiko baten baitan aurkitzen den analito baten egonkortasuna, hainbat faktoreren menpekoa da. Horien artean kontserbazio egoe-  
ra, analitoaren propietate fisiko-kimikoak, matrize biologiko mota, fluidoa biltzen duen ontzia eta lagin-prestaketa egiterakoan ematen den manipulazioa aipa daitezke.

Analitoaren egonkortasuna prozesu analitiko osoan zehar ziurtatu behar denez, egonkortasun azterketa desberdinak egin behar dira balidazio prozesuan. Azterketa hauek burutzeko kalitaterako kontrol-laginak (*quality control sample*, QC) erabiltzen dira. Matrize biologikoetan prestatutako lagin hauek, analito kontzentrazio ezagunekoak dira. QC laginak hiru kontzentrazio mailatan prestatu behar dira: baxuan, tartekoan eta altuan. Ondorengo egonkortasun parametro hauek aztertu beharko dira:

1. Iozte/desizozketa prozesuaren egonkortasuna: hiru kontzentrazioetan QC laginak prestatu eta prozesatu ondoren ( $QC_{t_0}$ ), hiru izozte/desizozte ziklo osatu beharko dira, ziklo bakoitzeko laginak prozesatuz. Laginak ezegonkorrak balira  $-70^{\circ}\text{C}$ -tan gorde beharko lirarteke.
2. Tratamendu-etaparen egonkortasuna: QC laginak (plasma dopatua) giro tenperaturan utziko dira denbora jakin batez (4–24 h). Epe hori igarota, plasma laginak prozesatu beharko dira ( $QC_{t_0}$  vs.  $QC_t$ ).
3. Epe luzeko egonkortasuna: QC laginak izozkailuan sartuko dira, biltegitarte tarte desberdinak aztertuko direlarik (1, 2 eta 3 hilabete) ( $QC_{t_0}$  vs.  $QC_{1,2,3\text{ hile}}$ ).
4. Estandar disoluzioen egonkortasuna: kasu honetan ez da plasmaren egonkortasuna aztertu beharrean stock disoluzioen egonkortasuna jarraituko da. Stock disoluzioak giro tenperaturan gutxienez 6 h-z mantenduko dira ( $QC_{t_0}$  vs.  $QC_t$ ). Bestalde, stock disoluzioak hozkailuan aste batez egonkorrak direla aztertu beharko da.
5. Lagin prozesatuaren egonkortasuna: QC laginak prozesatu eta injektore automatikoan hauen egonkortasuna aztertu beharko da (laginek injektorean eman dezaketen egonaldi maximoaren adinako denbora, gau oso bat izan daitekeena).

**Sendotasuna** Ohiko analisi bat egiterakoan gerta daitezkeen aldaketa txikien aurrean metodo batek duen suszeptibilitatearen neurketa da sendotasuna [121, 122]. Aldaera txiki hauek pH, temperatura . . . bariazio xume erakoak izan daitezke. Prozedura analitikoa sendoa dela ziurtatu beharra dagoen arren, honen inguruan balidazio gida desberdinek irizpide zehatzegirik ez dute finkatzen.

Metodo analitikoa balidatzeko beharrezkoak diren parametro guztiak betetzen direla ikusitakoan, analito horiek determinatzeko errutinazko metodoa aplikatzeko prest dagoela kontsidera daiteke. Analisi hauetatik eskuratuko diren datuen fidagarritasuna ziurtatuta egongoenez, eskuratuko diren datuetan oinarrituz hausnarketa eta ondorioei erreparatzea baino ez da geldituko.

## 1.7 Aztertuko diren farmakoak eta bere ezugarri kimikoak eta farmakologikoak

Ikerlan oro, testuinguru zehatz batean burutzen da. Honakoa, ikerkuntza-ildo orokorrako baten parte izanik, farmako antihipertentsiboetatik abiatuta, SMet-erako jautsian ulertu beharra dago. Hamarkada luzeko ikerkuntza, terapia antihipertentsiboan erabiltzen diren farmako-talde desberdinen inguruan (diuretikoak,  $\beta$ -blokeatzaileak, AEBI-ak, kaltzio antagonistak eta AHA-IIak), eskarmentu zabala metatzeko baliagarria izan da [123–131]. Farmako antihipertentsiboen terapia konbinatuarekin trebatu ondoren eta asaldura konplexuagoetara jauzia egiteko saiakeran, SMet-aren aurkako terapian erabiltzen den ohiko farmako-konbinazio baten azterketa egitea deliberatu zen.

Antagonisten artean, Kandesartana eta Valsartana dira gehien preskribitzen diren AHA-IIak (bien artean AHA-II guztien %50 [132]). Batak zein besteak metabolito ezagunak erakusten dituzte. Kandesartanaren metabolitoak aktibitate antihipertentsiboa erakusten duen bitartean, Valsartanarenak aktibotasunik erakusten ez duelarik. Hau dela eta, Kandesartana eta bere metabolitoaren inguruan informazio ugari aurki daiteke. Edonola ere, Valsartanaren metabolitoaren garrantzia klinikoa ezin da ezkutatu. Era honetako metabolito ez aktiboek eskaintzen duten informazioa, lehenagai aktiboek ematen dutenarekin uztartuz, tratamendu farmakologikoaren ebaluazio eta jarraipen integrala egiteko oso baliagarria da eta (iraizpen mailen normaltasuna aztertzeko, dosi kantitatearen birebaluaketa egiteko, lehenagai aktiboak subjektuan duen intzidentzia ebaluatzeko, lehenagai aktiboaren aldaketa babesteko . . .). Valsartana eta bere metabolitoa determinatzeko metodorik garrantzekerotan, beraz, hutsune klinikoa zein analitikoa beteko lirateke.

Terapia antihipertentsiboan nola SMet-aren aurkako lehia, AHA-II eta diureti-koen arteko asoziazioek emaitza oso positiboak ematen dituzte. Askotan, Valsartana tiazida batekin konbinatzen da, Hidroklorotiazida delarik Valsartanarekin batera asoziazioan komertzializatzen den konbinazio bakarra. Hau dela eta, hainbat laborategi analitikotan bi farmako hauen arteko konbinazioak sakonki aztertu dira. Bada ordea, Valsartanarekin batera ere askotan preskribitzen den beste tiazida bat: Klortalidona. Sinergia terapeutiko handiko konbinaketa hau, alabaina, jarraipen analitiko askoz txikiagoa ezagutu du. Konbinazio bikote honekiko interesa, beraz, agerikoa da.

Bestalde, dislipemiaren aurka erabiltzen diren agenteen artean, Fluvastatinaren kasua nabarmendu behar dugu, aurreko bi farmakoekin batera SMet-aren aurkako terapian emaitza oso txukunak erakusten baititu. Honenbestez, SMet-aren aurkako terapia farmakologikoari heltzeko aurreneko saiakera izanik, ikerkuntzalan honetan Valsartana, Valsartanaren metabolitoa, Klortalidona eta Fluvastatina farmakoak gertutik jarraituko dira.

Hauek dira farmako hauen ezaugarri kimiko eta farmakologiko esanguratsuenak:

### 1.7.1 Valsartana eta bere metabolitoa

Losartanaren deribatu tetrazol-bifenil-balinikoa izanik, Valsartanak, AHA-IIa den neurrian, edozein bidetatik sintetizaturiko AIIaren eraginak indargabetuz  $AT_1$ -errezeptorearen blokatze espezifikoan parte hartzen du. Blokatze hau Valsartanaren kasuan lehiakorki ematen da, Kandesartana edota Irbesartanaren antzera.

Valsartana, AHA-II gehienak bezala, bere forma aktiboan eraginkorra da. Bere metabolismoa maila murriztu batean gibelean ematen bada ere, hidroxilazio baten bidez eragin hipotentsore gabeko metabolito bat lortzen da, Valeryl-4-hidroxi-valsartana [133]. Proteina plasmatikoei sendoki lotzen den metabolitoaren  $AT_1$ -arekiko afinitatea Valsartanarena baino 200 aldiz txikiagoa da. Hala ere, metabolitoaren kontzentrazio maila ezagutzea baliogarria da Valsartanaren farmakozinetika hobeto ulertzeko eta horrela tratamenduaren unez uneko ebaluazio zehatza izateko.


Oro har, *screening* eta determinazio kuantitatiboak burutzeko teknika analitikorik erabilienak inmunoentseia, espektroskopia eta kromatografia zein elektroforesia bezalako teknikak dira. Baina lagin konposatu anitzen aldi bereko determinazioak monitorizatzeko, bereizmen-ahalmen altuko teknikak aproposenak gertatzen dira [8]. Zentzu honetan, farmakoak eta hauekin erlazionaturiko substantzien determinazio kuantitatiboak burutzeko teknikarik egokiena HPLCa dela kontsideratzen da.

Datuak eskuratzeko prozeduran eta datu hauen ondorengo tratamenduan emandako aurrerapenekin, laginaren prestaketa eta banaketa kromatografikoa dira, erakusten duten moteltasunagatik, prozesu analitikoaren katebegirik ahulenak (ikusi 6.1 Irudia). Lagin kopuru handia analizatu behar denean, behinik behin, *clean-up* prozedura desberdinak paraleloan burutu daitezke. Aldiz, lagin guztiak ekipamendu kromatografiko berean satu behar dira. Azken batean, urrats mugatzailea banaketa kromatografikoa bera da.

HPLCak hainbat konposaturen determinazio kuantitatiboak burutzeko lehen aukerako metodoa izaten jarraituko badu, behar beharrezkoa izango da metodo azkarrak edota ultra-azkarrak garatzea. Zentzu honetan, metodo ultra-azkarren eta azkarren arteko ezberdintasuna finkatze aldera, adituen arabera 1 min-tik beherako analisi-zikloak (zutabearen atonketa barne) erakusten dituzten metodoak azkartasun handikoak edo ultra-azkarrak kontsidera daitezke, eta 5 min-tik beherakoak, aldiz, azkarrak [9].

Analisi azkarrak edota ultra-azkarrak burutu ahal izateko estrategia kromatografiko desberdinak aplikatu daitezke. Nolanahi ere, teknika hauek guztiak HPLCren garapen historikoaren logikaren barruan ulertu behar dira. Zentzu honetan, zutabe kromatografikoen paketatze-materialek duten garrantzia aztertu beharra dago,

ikerlariak analisi azkarrak burutzeko proposatu izan dituzten estrategiekin erlazio estua gordetzen dute eta.



Irudia 6.1: Prozesu analitikoaren urrats ezberdinen ilustrazio eskematikoa [8].

## 6.4 Analisi kromatografiko azkarrak osatzeko partikula txikien eragina

Gur egun, hiru dira HPLCren garapena bultzatzen duten arrazoi-indarrak: batetik, analisiak denbora tarterik txikienean eskuratzeko premia; bigarrenik, bereizmen-ahalmen (erresoluzio) handiagoa lortzeko desioa, soilik modu honetan lagin konplexuetako osagai guztien identifikazioa/kuantifikazioa bermatu edota lagin konplexu ezberdinen arteko edukiak konparatu ahal izango baitira; eta azkenik, sentikortasun handiko instrumentazioaren beharra. Izan ere, ezpurutasun, degradazio produktu, hondakin toxikologiko eta abarren determinazioa ziurtatzeko, traza zein ultra-traza mailetan erantzuteko gai diren tresnak nahitaezkoak dira.

Hiru arrazoi-indar hauek elkarren artean lotura estua gordetzen dute. Izan ere, HPLCren inguruan lan egiten duten ikertzaileen helburua erresoluziorik handienarekin eta denbora tarterik laburrenean sentikortasun handieneko instrumentazioa erdiestea da.

Hiru faktore hauek HPLCren garapena bultzatzen badute ere, bestelako faktore batzuk izan dira teknika honen garapena ahalbidetu dutenak. Aipagarriak dira



zutabe kromatografikoetan erabilitako paketatze-materialek (gehienetan partikuladunak) eta betegarri gisa erabilitako partikula hauen tamainek jokatu duten rola. LCren bilakaera historikoari arreta jarriz gero, nabarmen antzeman daiteke partikularen tamaina etengabe murrizteko joera (ikusi 6.2 Taula).

Taula 6.2: Partikula-tamainaren bilakaera historikoa LCn. [10]-tik egokitua.

Urtea	Partikularen tamaina ( $\mu\text{m}$ )	Platerrak/15 cm
1950. hamarkada	100	200
1967	50	1.000
1972	10	6.000
1985	5	12.000
1992	3–3.5	22.000
1996 <sup>1</sup>	1.5	30.000
2000	2.5	25.000
2004	1.7	30.000

<sup>1</sup> Silika ez-poroduna edo erretxinak

Jatorrizko LC zutabeek 50–100 cm-ko luzera eta 1–2 mm-ko barne diametroa (*Internal Diameter, ID*) ezagun zuten eta 50–200  $\mu\text{m}$  arteko diametrodun partikula irregularrekin paketatuta zeuden. Garai hartako ikerlariak errendimendu hobekortzeko difusio tarteak laburtu behar zirela jakin arren, teknikoki ezinezkoa egin zitzairen.

1970. hamarkadaren hasieran partikula porodun txikiagoetarako trantsizioa eman zen (10  $\mu\text{m}$  ingurukoak). Hobekuntza esanguratsua ezagutu zen partikula mikro-porodun irregularren ordez material esferikoak agertu zirenean [11]. Honekin batera, ikertzaileek <30  $\mu\text{m}$  diametroko partikula erabat porodunak paketatzeko *slurry* teknikak garatu zituzten [12, 13]. Horri esker, ikertzaileek azkar ikasi zuten modu eraginkorrean 10, 5 eta 3  $\mu\text{m}$ -ko partikuladun zutabeak paketatzen. Honela, 10  $\mu\text{m}$ -ko partikula irregularrekin paketaturiko aurreneko zutabeak 1973ean komertzializatu ziren [11].

Partikularen tamaina txikituz zioan heinean, ikertzaileek ikusi zuten abiadura eta presio egokietan lan egiterakoan fase mugikorraren beroketa gertatzen zela, maruskadura efektuen ondorioz [14, 15]. 1980. hamarkadaren bukaera aldean, 5  $\mu\text{m}$

diametroko partikula esferikoen erabilera orokortu zen; 3–3.5  $\mu\text{m}$ -ko partikula esferikoak, aldiz, 1990ean merkaturatu ziren.


1990. hamarkadaren bukaeran, konplexutasun handiko proteina-nahasketak banatzeko ahaleginak bultzatuta, partikula txikiekiko interesa berpiztu egin zen. Ordurako Jorgenson-ek LCaren garapenerako garrantzitsua izango zen CEa garatu zuen. Teknika honetan kapilarraren barruan sortutako beroa eraginkorki kanpora zitekeenez, kapilarretan >30 kV-ko boltai izugarri handiak aplikatu zitezkeen [16]. Printzipio hauxe bera HPLC-ri aplikatu zekiokien. Modu honetan, ohiko diametro estandarrak baino estuagoako HPLC zutabeak erabilia, askoz presio altuagoetan operatzeko aukera zabaldu zen, presio hauek sorrarazitako marruskadura-beroa zutabetik kanpora zitekeen eta [17–19].

Partikula-tamainarekin gertatu den antzera, paketatze-materialek ere garapen iraultzailea ezagutu dute. Hasiera batean, zutabe kromatografikoak orokorrean silikazko partikula porodunekin paketatzen ziren. Makromolekulek egitura porodun hauek zeharkatu eta barrualdeko fase geldikorarekin interakzionatzeko erlatiboki difusio-denbora luzeak behar zituztenez, material porodun hau masa transferentziarako egokiena ez zela ondorioztatu zen [20]. Horrela, 1996ean 1.5  $\mu\text{m}$ -ko betegarri ez-porodunak plazaratu ziren [21]. Euskarri hauek masa transferentzia bultzatu arren (fluxu-abiadura askoz altuagoak bermatuz), masa-gainkargarekin eta erretentzio baxuarekin erlazionaturiko arazoek euren erabilera mugatu zuten. 2004ean, tamaina txikiko aurreneko silikazko partikula porodunak komertzializatu ziren (2  $\mu\text{m}$ -azpikoak). Hainbat parametro kromatografiko hobetzearekin batera, partikula hauek LC teknika berriei bidea zabaldu zieten.

Partikula txikiekiko joera honek printzipio teoriko jakin batzuei erantzuten die, guztien artean oinarri-oinarrian, *van Deemter* ekuazioa bera aurkitzen delarik (ikusi 6.2 Taula). Formulazio enpiriko honek abiadura lineala (fluxu-abiadura) eta plater altuera (zutabe-efizientzia) erlazionatzen ditu. Partikularen tamaina ekuazio honen aldagaietako bat den neurrian, maiz *van Deemter* ekuazioa errendimendu kromatografikoa aztertzeko erabili izan da (ikusi 6.2 Irudia).

## 6.5 Partikula txikien kimika

Partikularen tamainak parametro kromatografiko ezberdinen gainean duen eragina aztertu ahal izateko, partikula txikien kimika berrikustea ezinbestekoa da.



**Irudia 6.2:** *van Deemter* ekuazioan oinarritzen da partikularen tamaina txikitzeko joera. Partikularen diametroa txikitzen den heinean, fluxu-abiadura handiagoetan lan egiteko aukera dago efizientzia galera nabarmenik sentitu gabe (ikusi 6.5 Atala).

#### ZUTABEAREN EFIZIENTZIA ETA PARTIKULAREN TAMAINA:

Lagin jakin batean analito desberdinen arteko erresoluzioa handitzeko selektibitatea edo erretentzioa hobetzea nahikoa izan daitekeen bitartean, bereizmen-ahalmena areagotzeko modurik hoberena efizientzia handiagotzea da (zutabe kromatografikotik barrena analito-banadaren dispertsioa neurtzen duen aldagaia). Zutabearen efizientzia deskribatzeko parametro desberdinak erabiltzen dira. Ohi-koenak plater teoriko kopurua (*theoretical plate number*,  $N$ ) eta plater teorikoaren altuera baliokidea (*height equivalent of theoretical plate*,  $H$  edo *HETP*) dira. *HETP* kalkulatzeko beharrezkoa da, luzera ( $L$ ) ezberdinetako zutabeen arteko konparaketa egin nahi denean,  $N$ -k luzerarekiko menpekotasunik ez baitu. Plater altuera handia izateak zutabe luzera unitateko zutabearen efizientzia handia izatea eragiten du.

$$N = \frac{L}{H} \quad (6.1 \text{ Ekuazioa})$$

Teoria kromatografikoan gehiegi sakondu gabe, *van Deemter* ekuazioak banaketaren efizientzia ( $H$ ) fase mugikorren abiaduraren funtzio gisa deskribatzen du,

6.2 Ekuazioan sinpleki adierazten den bezala:

$$H = A + \frac{B}{u} + C \cdot u = A \cdot d_p + B \cdot \frac{D_{mob.}}{u} + C \cdot \left( \frac{d_p^2}{D_{mob.}} \right) \cdot u \quad (6.2 \text{ Ekuazioa})$$

non  $A$ ,  $B$  eta  $C$  konstanteak zutabearen paketatzearekin, partikulen morfologiarekin eta partikulen tamainarekin erlazionatuta dauden;  $u$ , abiadura lineala (fluxu-abiadurarekiko proportzionala eta  $\text{cm/s}$ -tan neurtuta);  $d_p$ , partikularen tamaina; eta  $D_{mob.}$ , disfusio-koefizientea fase mugikorrean zehar. Helburua bestelakoa izanez gero, hots, gaia sakontasun handiagoarekin aztertu nahi bada, konplexutasun handiagoko beste ekuazio batzuk erabili daitezke [22].


$A$  terminoa, paketatzearen efizientziaren eta partikula-tamainaren funtzioa da (paketaturiko ohe baten zeharreko fluxu-pasabidea bihurria edo okerra dela aintzat hartu beharra dago, hau da, analito molekula orok zutabea zeharkatzeko distantzia bera ez dutela osatzen)<sup>1</sup>.  $B$  terminoa luzerako difusioaren funtzioa da, hots, fase mugikorrean ematen den difusioaren araberakoa da (difusio molekularra zutabe ardatzaren norabidean ematearekin erlazionatuta dago)<sup>2</sup>; eta  $C$  terminoa fase geldikorraren/mugikorraren artean eta fase mugikorraren barrenean ematen den masa transferentziaren funtzioa da (analitoaren masa transferentzia fase mugikorrean eta fase geldikorrean deskribatzen du)<sup>3</sup> [23].  $C$  terminoaren barnean, partikularen diametroaren karratuarekiko menpekotasun proportzionala ere agertzen da. Beraz,  $A$  eta  $C$  terminoek paketatze partikulen tamainarekiko menpekotasuna agertzen dute.  $B$  terminoa fluxu-abiadura motela denean nagusitzen da, hau da,

<sup>1</sup>  $A$  terminoa zurrumbilo-difusioarekin erlazionatuta dago, eta zutabe kromatografikoan zehar fase mugikorraren fluxuan eta analitoen fluxuan ematen diren aldakuntzak deskribatzen ditu. Analitoek zutabea pasabide desberdinetatik zeharkatzerakoan banda-zabalkuntza eragiten dutenez, zutabe-paketatzearen eta partikularen tamainaren homogeneitasun ezak agerian uzten ditu  $A$  terminoak. Hau dela eta,  $A$  terminoak paketatze-kalitatearen berri ematen du.

<sup>2</sup> Analitoek fase mugikorrean injektatzerakoan ematen den kontzentrazio-gradientearen eraginez, norabide guztietan dispersatzeko joera dute.  $X$ -ardatzean ematen den dispersioaren ondorioz analitoen banda-zabalkuntza ematen da. Eragin honen berri  $B$  terminoak ematen du. Luzerako difusio hau HPLC sistemaren barne bolumenaren araberakoa da, eta fluxu-abiadura baxuagoetan areagotu egiten da. Sistemaren bolumena beharrezkoa baino handiagoa denean (*tubing*-a luzeegia edo zabalegia delako, hodian juntak zero bolumen-hilekoak ez direlako edota detektagailuaren detekzio-zelularen bolumena handiegia delako), luzerako dispersio hau areagotzen da.

<sup>3</sup>  $C$  terminoa paketatze materialaren porotasunaren ondorioa da, bertan fase mugikorra aurrera egin beharrean, geldikor mantentzen baita. Geldirik dagoen fase mugikor honetan analitorik aurkitzekotan, difusioz baino ezingo da fase geldikorraren gainazalera iritsi. Analito batzuk poroan sartzen ez diren bitartean, beste batzuk sartu egiten dira (batzuk besteak baino gehiago barneratuz). Gainera, fase geldikorrean analitoek erakusten duten erresidentzia-denbora aldakorra da. Honen guztiaren ondorioz, analitoen banda-zabalkuntza ematen da. Efektu hauek minimizatzeke, paketatze materialaren partikulen tamaina txikitu beharko litzateke, modu honetan poroen tamaina leunagoa izango bailitzateke. Masa transferentziaren eragina fluxu-abiadura altuagoetan areagotzen da.

zutabe barrenean analitoen egonaldia garrantzitsua denean. Temperatura garaie-tan ere, hots, difusibitate molekularrak handiak direnean,  $B$  terminoa nagusitzen da. Eluzio kromatografiko azkarreko baldintzetan, berriz,  $B$  terminoa txikia da. Beraz, baldintza hauetan *van Deemter* ekuazioan  $A$  eta  $C$  terminoak esangura-tsuagoak dira [24, 25].



Irudia 6.3: (a)  $A$ ,  $B$  eta  $C$  *van Deemter* terminoen influentzia-zonaldeak erakusten dituen diagrama HPLC zutabe batentzat. (b) Tamaina desberdineko partikulentzat ( $10\ \mu\text{m}$ ,  $5\ \mu\text{m}$ ,  $3\ \mu\text{m}$ ,  $2\ \mu\text{m}$ ) *van Deemter* kurben irudikapena. [10] eta [26]-tik egokitua.

Gainera, 6.3 Irudian igarri daitekeen moduan, partikularen diametroa txikitze-koan ez da bakarrik plater altuera minimoa ( $H_{min}$ ) murrizten, kurbaren abiadura handiko aldearen malda ( $C$  terminoa nagusi den tartea) ere izugarri erortzen da, kasik horizontaltasuna lortzeraino. Modu honetan efizientzia sakrifikatu gabe fluxu-abiadura altuagoen erabilera ahalbidetu egiten da. *HETP* kurban minimoaren posizioa determinatzeko, hots, abiadura lineal optimoa aurkitzeko, kalkulu diferentzialak erabili badaitezke ere [27], jarraian jasotzen den moduan, ekuazio orokorrago baten bitartez kalkula daiteke [23, 28, 29]:

$$u_{opt.} = \frac{D_{mob.}}{d_p} \cdot \sqrt{\frac{B}{C}} \quad (6.3 \text{ Ekuazioa})$$

6.3 Ekuazioak adierazten du abiadura lineal optimoa partikularen tamainareki-ko alderantziz proportzionala dela, eta zuzenki proportzionala analitoaren difusio

koefizientearekiko. Lan-baldintza optimoak, beraz, erabilitako zutabearen eta analitoaren arabekoak izango dira. Horrela, diametro txikiagoko partikulen erabilerak abiadura lineal handiagoak ahalbidetuko lituzke, eta hortaz, analisi-denbora laburragoak. Analito txikiak (difusio koefiziente handiagokoak) abiadura lineal altuagoetan analiza daitezkeela ondoriozta daiteke [23].

$H$ -ren balioa abiadura lineal optimoan eskuratzeko, aski da 6.3 Ekuazioan adierazitako  $u_{opt.}$ -ren balioa 6.2 Ekuazioan ordezkatzea.

$$H_{min.} = d_p \cdot (A + \sqrt{B \cdot C}) \quad (6.4 \text{ Ekuazioa})$$

Horrela,  $A-C$  terminoen balioak lor daitezkeen heinean, frogatuta geratzen da  $HETP$  balioaren minimoa partikularen diametroarekiko zuzenki proportzionala dela.

HPLCn efizientzia eta abiadura hobetzeko onuragarri gerta litezkeen hurbilketak determinatzeko, 6.2 eta 6.3 Ekuazioak oinarri gisa erabili litezke.

Eztabaidatutakoaren arabera, argi ikus daiteke fase geldikorraren paketatzearen tamaina murriztuz gero onura kromatografikoak nabarmenak liratekeela. Zentzu honetan, partikula txikiagoen erabilerak abiadura lineal optimo handiagoak aplikatzeko aukera eskaintzearekin batera, zutabearen efizientziak abiadura linealarekiko menpekotasun txikiagokoa erakutsiko luke.

Bestalde, banaketa baldintza diferentetan eta tamaina ezberdineko partikulekin paketaturiko zutabe desberdinen arteko efizientziak konparatu ahal izateko, parametro dimentsiogabeak erabili beharko lirateke. Horretarako plater altuera eta abiadura lineala normaliza litezke. Plater altuera murriztua ( $h$ ) eta abiadura murriztua ( $v$ ), hurrenez hurren, jarraian jasotzen den moduan adieraz daitezke:

$$h = \frac{H}{d_p} = \frac{L}{N \cdot d_p} \quad (6.5 \text{ Ekuazioa})$$

$$v = \frac{u \cdot d_p}{D_m} \quad (6.6 \text{ Ekuazioa})$$

Kasu honetan, parametro murriztuak erabilia *van Deemter* Ekuazioa horrela formula daiteke:


$$h = A + \frac{B}{v} + C \cdot v \quad (6.7 \text{ Ekuazioa})$$

6.5 ekuazioa hartuta, plater teoriko kopuru jakin baterako, zutabearen luzera partikula-tamainarekiko proportzionala dela ikus daiteke:

$$L = N \cdot h \cdot d_p \quad (6.8 \text{ Ekuazioa})$$

Korolario gisa, adieraz daiteke banaketa jakin baterako, partikula-tamaina txikiagoko paketatzeek zutabe-efizientzia handiagoa eragiten dutela eta beraz, efizientzia mailari eutsiz luzera txikiagoko zutabeak erabili daitezkeela.

#### GAILUR-EDUKIERA ETA PARTIKULAREN TAMAINA:



**Irudia 6.4:** Gailur-edukiera, sistema kromatografiko batean denbora leiho jakinean erresolbitutako gailur kopuruarekin erlazionatuta dago. 60 minututako leihoa hartuta: goian, HPLC sistemari dagokion erregistroa; behean, UHPLC komertzial bati dagokiona (*ACQUITY UPLC, Waters Corporation, Milford, AEB*).

Kalitate kromatografikoa neurtzeko badira zenbait parametro objektibo, hala nola, gailur-efizientzia, erresoluzioa, eta gailur-edukiera. Gailur-efizientzia, gailur-zabalera eta erretentzio-denboraren ondorio dela esan daiteke, eta LC isokratiakoan lan egiterakoan erabili ohi den kontzeptua da. Aldiz, erresoluzioa eta gailur-edukiera gradientedun sistemetan erabiltzeko kontzeptu aproposagoak dira. Erresoluzioa normalean analito bikote batean zentratzerakoan erabiltzen da, esaterako, bikote kritikoen kasuan. Erresoluzioa zutabe-efizientiaren, banaketa-selektibitatearen, fluxu-abiaduraren eta gradiente-iraupenaren funtzioa da [30]. Lagin konposatu anitzetan, gailur-edukiera sistema analitiko desberdinen banaketa-ahalmenak konparatzeko neurketa erabilgarria da. LC gradientean, gailur-edukiera zutabe-efizientiaren, gradiente-iraupenaren, fluxu-abiaduraren eta analitoen ezaugarrien funtzioa da.

Metodo baten banaketa-eraginkortasuna adierazteko, gailur-edukiera ( $P_c$ ) erabiltzen da, azken honek, denbora-tarte jakin batean bereiztu daitezkeen gailur-kopurua deskribatzen baititu. Horrela, gailur-edukieraren zenbatekoa kalkulatzeko nahikoa da analisi-iraupena eta batazbesteko gailur-zabaleraren arteko erlazioa bilatzea. Gradientearen osaketarekin analisisia bukatutzat ematen denez, analisi eta gradiente-iraupenak baliokidetzat hartzen dira. Aldiz, zutabearen berrorekatzedenbora ez da analisi-iraupenaren barruan kontsideratzen. Horrela, gailur-edukiera kalkulatzeko orduan sarritan 6.9 Ekuazioa erabiltzen da:

$$P_c = 1 + \frac{t_{grad.}}{w_b} \quad (6.9 \text{ Ekuazioa})$$

non  $t_{grad.}$  gradientearen iraupena eta  $w_b$  gailurraren zabaleraren balioa oinlerroan diren, hurrenez hurren. Seinalea gailur bakoitzeko zabalera ezberdinekoa izaten denez, gailur adierazgarria aukeratu beharra dago gailur-edukiera orokorra kalkulatu ahal izateko. Alabaina, ekuazio honek ez du aintzat hartzen zutabearen denbora-hila ( $t_0$ ). Doikuntza hau erantsi ondoren, gailur-edukieraren adierazpena modu honetan jaso daiteke:


$$P_c = \frac{t_{grad.} - t_0}{w_b} \quad (6.10 \text{ Ekuazioa})$$

Ekuazio honek kontutan hartzen du zutabearen bolumen hutsari dagokion denbora baliokidea ( $t_0$ ) baino lehenago inongo konposatuk eluitzerik ez duela. Analisisi oso azkarren kasuan, zutabearen denbora-hila analisisi iraupenaren proportzio



esanguratsua izatera iristen da, eta berau arbuia zekotan kromatograman erresolbitu daitezkeen konposatu-gailurren zenbatekoaren inguruan gain-estimazioa gerta liteke.

Bestalde, 6.10 Ekuazioak erakusten duen moduan, gailurraren zabalera txikia izatea funtsezkoa da banaketa-efizientzia altuko metodo azkarren kasuan. Gailurraren zabalera ( $w_b = 4 \cdot \frac{t_r}{\sqrt{N}}$ ),  $N$  plater teorikoen kopuruarekiko alderantziz proportzionala izanik, zutabearen luzera kontutan hartuz gero, banaketa-eraginkortasuna plater teorikoen altuera baliokidearen ( $H$ ) bidez adieraz daiteke. Modu honetan,  $H$  baxuek  $N$  altuak eragiten dituztenez, gailur-eraginkortasuna altua bermatzen duten gailur-zabalera txikiak eragiten dituzte. Honela, partikularen tamaina zenbat eta txikiagoa izan, gailurraren zabalera hainbat eta estuagoa izango da, eta beraz, gailur-eraginkortasuna handiagoa izango da. Hainbat autorek plazaratutako lanetan, gradiente modua erabilita partikularen tamaina txikitu izan da gailur-eraginkortasuna eta erresoluzio kromatografiko hobekuntza [31–33]. Izan ere, gradiente moduan gailur-eraginkortasuna hobetu ahal izateko, partikularen tamaina murrizteak zutabearen luzera, gradientearen iraupena edo fluxuaren abiadura baino eragin handiagoa du.



Irudia 6.5: Gailur-eraginkortasuna zutabearen luzera eta partikularen tamainaren funtzio gisa: ▲, 5 µm-ko partikulak 1 mL/min-ko fluxu-abiaduran; ■, 3.5 µm-ko partikulak 1.4 mL/min-ko fluxu-abiaduran; ●, 1.7 µm-ko partikulak 3 mL/min-ko fluxu-abiaduran. [34]-tik egokitua.

Azkenik, Wang eta bere lankideek [35] egindako ekarpena aintzat hartu beharra dago. Izan ere, ikerlari hauek ere adierazi zuten gailur-educiera areagotzeko tenperatura altuak erabili daitezkeela. Azken batean, tenperatura altuagoetan (adib.  $>100^{\circ}\text{C}$ ) lan egiterakoan solutuaren difusibitatea handitu, gailur-zabalera murriztu eta gailur-educiera hobetu daitezke eta.

#### SENTIKORTASUNA ETA PARTIKULAREN TAMAINA:

Honezkerok, partikularen tamaina txikiagotuz gailur kromatografikoa ere estuagotzen dela nabarmendu da. Eta gailurraren altuera gailurraren zabalarekiko alderantziz proportzionala denez, tamaina txikiagoko partikulak erabilita altuera handiagoko gailurrak erdietsiko dira, edo bestela esanda, lorturiko gailurrak efizienteagoak izango dira. Detektagailua sentikorra dela onartzen bada (UV detektagailuarekin gertatzen den bezala) eta detektagailuaren zarata konstante mantentzen bada, sentikortasuna,  $S/N$  (Signal/Noise) bezala definitua, ere areagotuko da. Argudiatuikoaren arabera, zutabearen luzera finko baterako, diametro txikiagoko partikulek sentikortasun handiagoa eragiten dute [36].

**Efizientzia, Gailur-educiera eta Sentikortasuna** Hiru aldagai hauek aztertu ondoren, HPLCren garapena sustatu duten hiru faktore nagusien (analisi-denbora, erresoluzioa eta sentikortasuna) eta tamaina txikiagoko partikulen arteko harremana oso estua dela agerian geratzen da. Harreman hau dela eta, hamarkadetan zehar partikulen tamaina murrizteko joera bere horretan mantendu egin da. Nolanahi ere, partikula txikiagok lan egiteak bere desabantailak ere baditu, ondoren ikus daitekeen bezala.

#### PRESIO-ERORKETA ETA PARTIKULAREN TAMAINA:

Partikula txikiagok paketaturiko zutabeak erabiltzerakoan presio-arazo serioak azaleratzen dira, zutabearen ematen den presio-jausia izugarri handia baita. Fase mugikorraren abiadura lineal ( $u$ ) jakin bat lortzeko zutabearen emango den presio-erorketa, *Darcy*-ren legearen bitartez ezagutu daiteke (6.11 Ekuazioa).

$$\Delta P = \frac{\Phi \cdot \eta \cdot L \cdot u}{d_p^2} \quad (6.11 \text{ Ekuazioa})$$

non  $\Delta P$ , presio-erorketa den,  $\phi$ , fluxuaren erresistentzia faktorea,  $L$ , zutabearen luzera,  $\eta$ , fase mugikorraren biskositatea,  $u$ , abiadura lineala eta  $d_p$ , partikularen diametroa. Presio-erorketa hau ordea, faktore mugatzailea da soilik, partikula txikiak abiadura eta efizientzia handiko baldintzetan erabiltzen direnean. Nolanahi ere, egun bizi den lehiakortasun giroak abiadura edota efizientzia maila altuena-ekin lan egitera bultzatzen duenez, arazo hau arbuiaezina bilakatzen da.

$L$  eta  $u$  terminoak kontsideratuz (6.6 eta 6.8 Ekuazioak) eta presio-erorketaren ekuazioan ordezkatuz (6.1.1 Ekuazioa), abiadura lineal optimoa lortzeko beharrezkoa den presioa partikularen diametroaren karratuarekiko alderantzizko proportzionala dela ikusten da:

$$\Delta P = \frac{\phi \cdot \eta \cdot (N \cdot h \cdot d_p)}{d_p^2} \cdot \left( \frac{D_{mob.} \cdot v_{opt.}}{d_p} \right) \propto \frac{1}{d_p^2} \quad (6.12 \text{ Ekuazioa})$$

Beraz, fluxu-abiadura optimoan aritzeko, partikula txikiagoekin paketaturiko zutabeek partikula handiagoko zutabeak baino askoz presio altuagoak eragiten dituzte [37]. Fluxu-abiadura baxuagoak aplikatuko balira zutabearen efizientzia murriztuko litzateke, solutuaren difusio axialaren eraginez banda-zabalkuntza handiagotu egiten da eta.

Partikula txikien eta fluxu-abiadura altuen erabilerak zenbait muga erakusten ditu. Batetik, ponpa sistemak presio nahikoa eragiteko gaitasuna izan behar du, eta bestetik, sistema kromatografikoaren gainerako osagarriek (injektorea, zutabea eta balbulak) ponpek eragindako lan-presioa jasateko ahalmena izan behar dute. Ideia bat egite aldera, HPLC ponpa-sistema konbentzionalen presio-muga maximoa  $\sim 6000$  psi-koa ( $\sim 400$  bar) dela jakinda, instrumentazio hau erabilita  $1.5 \mu\text{m}$ -ko partikulekin paketaturiko zutabea erabiliko balitz  $\sim 3.3$  cm luzerako zutabea baino ezingo litzateke maneiatu. Hortaz, LC sistema konbentzionaletako presio-mugak nahikoak ez direnez, bestelako instrumentazio espezifikogoen erabilera behar-beharrezkoa egiten da.

Dena den, aintzat hartu beharra dago presio-erorketa fase mugikorraren biskositatearekiko proportzionala badela. Horrela, tenperaturak gora egiten duen heinean biskositatea txikitzen denez, tenperatura garaien bitartez lan-presioa murrizteko aukera dago, partikula txikiagoen edota abiadura handiagoen erabilera ahalbide-tuz.

Partikula-diametro eta zutabe-luzera desberdinek presio-erorketaren gainean duten eragina modu grafikoago batean ikusteko, 6.3 Taulako edukiari kasu egitea lagungarri suerta liteke.

**Taula 6.3:** Partikula-tamaina desberdinekin paketaturiko zutabeentzat kalkulaturiko zenbait aldagai kromatografiko. Kasu guztietan fase mugikorraren konposizioa berdina izateaz gain, zutabe guztiek analito jakin baterako erretentzio-faktore bera agertzen dutela kontsideratzen da. [28]-tik egokitua.

$d_p$ ( $\mu\text{m}$ )	$N$ (plater kop.)	$L$ (cm)	$\Delta P$ (psi)
5.0	20.000	25	2.000
3.0	20.000	15	5.555
2.0	20.000	10	12.500
1.7	20.000	8.5	17.300
1.5	20.000	7.5	22.222
1.0	20.000	5.0	50.000

#### MARRUSKADURA-BEROA ETA PARTIKULAREN TAMAINA:

Partikula txikiek oso zutabe iragazkortasun baxua erakusten dute, eta presio eta fluxu-abiadura altuko baldintzetan, fase mugikorraren eta partikula txikien artean ematen den marruskaduraren ondorioz fase mugikorra berotu egiten da [14, 38, 39]. Zutabearen barrualdean ematen den beroketa honek, temperatura-gradiente ezberdinak eragiten ditu. Zutabearen zehar ematen diren temperatura-gradiente axiala (zutabearen pareta metalikoan zeharrekoa) eta erradiala (zutabearen irteera sekzioan zeharrekoa), fase mugikorraren, partikula txikien eta paketaturiko zutabeen bero-barreiadura eskasaren arteko marruskadura-beroaren ondorio izan daitezke [40].

Nolanahi ere, temperatura-gradiente hauek ondorio kezkagarriak dituzte. Temperatura-gradiente erradialak solutuen erretentzioan aldakuntzak eragiteaz gain gailurren banda-zabalkuntza fobaratzen du [26, 41, 42]. Temperatura-gradiente axialak berriz, efizientzia terminoetan garrantzia gutxiago badu ere, analitoen erretentzio faktoreen txikitzea eragin lezake [40, 43].

6.13 Ekuazioak jasotzen duen moduan, disipatu beharreko bero-energia (beroa/denbora) presio-erorketaren ( $\Delta P$ ) eta fluxu-abiaduraren ( $F$ ) arteko biderkadura da [19, 26]:

$$\text{Disipatu beharreko bero} - \text{energia} = F \cdot \Delta P \quad (6.13 \text{ Ekuazioa})$$

Oreka baldintzetan paretetako temperatura konstante denean, paretaren eta zutabearen zentruaren arteko temperatura-gradiente erradialaren anplitude maximoa ( $\Delta T$ ) hurrengo moduan deskriba daiteke [40, 44, 45]:

$$\Delta T = \frac{q \cdot R_c^2}{4 \cdot \lambda} \quad (6.14 \text{ Ekuazioa})$$

non  $q$  bero-fluxua,  $R_c$  zutabearen erradioa, eta  $\lambda$  paketaturiko zutabearen bero-konduktibitate erradiala diren, hurrenez hurren. Azken batean, 6.14 Ekuazioak aditzera ematen du bero-gradiente erradialaren eraginez sorturiko marruskadura-beroaren efektua minimizatu daitekeela baldin eta zutabearen diametroa murrizten bada [46]. Kontzeptu hau agerian jartzen da 6.4 Taula aztertuta.

**Taula 6.4:** ID desberdinetako zutabeak hartuta eta fluxu-abiadura ezberdinak finkatuta sorrarazten diren bero-energiak. Honako balio hauek  $1.0 \mu\text{m}$  partikulekin paketaturiko eta  $25 \text{ cm}$  luze duten zutabeekin lortu dira,  $30.000 \text{ psi}$ -tan ( $2.000 \text{ bar}$ ), molekula txikienez abiadura lineal optimotik gertu [26].

Zutabearen IDa	Fluxuaren abidura	Marruskaduraren ondorioz sorturiko bero-energia
4.6 mm	820 $\mu\text{L}/\text{min}$	2.8 W
1.0 mm	38 $\mu\text{L}/\text{min}$	0.13 W
300 $\mu\text{m}$	3.5 $\mu\text{L}/\text{min}$	12 mW
100 $\mu\text{m}$	380 nL/min	1.3 mW
50 $\mu\text{m}$	96 nL/min	0.33 mW

Kalibre handiko zutabeetan ( $4,6 \text{ mm ID}$ , hots, *large-bore* zutabeetan) bero-disipazioa eskasa denez, gerta daitezkeen kalteak aintzat hartu beharko dira. Erre-tenituriko beroak fase mugikorraren tenperatura modu adierazgarrian igoaraziko

du, beharbada irakite puntura iritsi arte. Temperatura igoera txikiagoen kasuetan ere, solutu molekularak deskonposatzeko arriskua dago. Honi guztiari, tenperatura-gradiente axiala eta erradialarekin erlazionaturiko efizientzia arazoak gehitu behar zaizkio. Gainera, disolbatzailearen biskositatea eta analitoaren edukiera-faktorea tenperaturaren menpekoak direnez, bi gradiente hauek banda-zabalkuntza area-gotuko dute eta ondorioz, zutabearen efizientzia txikiagotuko da [14, 19].

6.4 Taulak erakusten duen moduan, bero-disipazioaren arazoa zutabearen diametroa txikituz (adib. 30–150  $\mu\text{m}$  ID) gainditu daiteke, modu honetan, zutabearen gainazal azalera bolumenarekiko duen erlazioa handitu egiten da eta. Alabaina, zutabe-diametroaren miniaturizazioak ez du banaketa-abiadura edo efizientzia handitzen. Dena den, zutabe kromatografikoak kapilarizatzeko beste hainbat arrazoi daude, hala nola, disolbatzaile kontsumo txikiagoa (ingurugiroarekiko jasangarriagoa dena), masa sentikortasun handiagoa (ID txikiagoko zutabeek zutabe-bolumen txikiagoa dutenez sentikortasun hobeak erakusten dituzte analitoak gailurraren bolumen txikiagoan kontzentratzen baitira [47]), bero-edukiera baxua, eta beste teknika analitiko batzuekin akoplatzeko erraztasuna (adib. CE edo MS) [8].

Nolanahi ere, zutabearen IDa txikitzea ez da nahikoa. Gailurren banda-zabalkuntza ahalik eta txikiena izan dadin, zutabearen IDa txikitzerakoan *extra-column* zabalkuntza-efektuak derrigor minimizatu beharra dago [48]. Injektore, detektagailu eta konexio *tubing*-en kontribuzioek ere banda-zabalkuntzan eragin handia dutenez, moldaketa instrumentalak inplementatzea nahitaezkoa izaten da. Instrumentazio belaunaldi berrien garapena ordea, ez da bat ere lan erraza izan. Aurkitutako zailtasun hauek guztiak (injektore eta detektagailuen errendimenduekin erlazionaturikoak, injektaturiko kantitatea, detektagailuaren denbora-konstantea eta zelularen bolumena kasu), 20–30 urtez 2  $\mu\text{m}$ -azpiko partikulak eta zutabe laburrak garatu ez izanaren arrazoi nagusia izan dira. Zailtasunak zailtasun, partikula txikien potentziala gaur egun LC ultra-azkarraren garapenean erreferentzia izaten jarraitzen dute.

## 6.6 Analisi kromatografiko azkarrak osatzeko estrategia nagusiak

Patikula txikien bilakaera historikoak prozedura kromatografiko azkarragoak erdiesteko norabide eta joera garrantzitsu bat seinalatzen du. Baina ez da bakarria, estrategia honetaz gain bestelako formula batzuk ere existitzen baitira. Edozein

dela aukeraturiko estrategia fluxu-abiadura, zutabearen luzera, erresoluzioa eta lan-presioaren arteko konpromisoa ondo gorde beharko da. Honako hau gogoan hartuta, jarraian, egungo premia eta beharrei aurre egiteko aukeran dauden prozedura kromatografiko likido desberdinen ezaugarriak laburki bildu dira. Bertan, hurbilketa bakoitzak erakusten dituen mugak zein abantailak eztabaidatuko dira.

### **6.6.1 Zutabe laburren eta fluxu-abiadura zein gradiente azkarrenaldi bereko erabilera**

Aurreneko hurbilketa hau estrategia guztien artean sinpleena da. Izan ere, zutabe laburrek (2–5 cm) analisi eta berrorekatze-denbora azkarragoak erakustez gain, lan-presio baxuagoak eragiten dituztenez, fluxu altuagoak onartzen dituzte. Zutabe hauek jeneralean 3.5–5  $\mu\text{m}$ -ko partikula porodunekin paketatuta daude, eta 1990. hamarkada ezkerotik komertzialki eskuragarri daude. Hala ere zutabe hauek errendimendu kromatografiko eskasa erakusten dute, zutaberaren luzera laburtzearekin batera HETPa handitzen baita (efizientiaren galera) [41].

Hortaz, prozedura honen aplikazioa substantzia kopuru mugatua duten matrize sinpleen analisisetara murrizten da (farmakoen formulazioaren kalitate-kontrolak esaterako). Dena den, prozedurari nolabaiteko malgutasuna gehitze aldera, gradiente modua eta masa espektrometria batera erabili ohi dira [49,50], biak ala biak lagin konposatu anitzen kasuan laguntza handikoak dira eta. Konbinaketa honen bitartez ohiko gradienteen iraupena 5 min-koa izatetik 2 min-koa izatera murriztu daiteke (hortik gradiente balistikoaren izendapena).

Metodologia honekin batera sarritan *'quick and dirty'* laginen prestaketa prozedurak erabiltzen dira (esaterako proteinen hauspeaketa, PTT). Alabaina, MS detektagailuan gerta litekeen matrize efektua (analitoaren erantzunaren txikitzea/handitzea) kontsideratu beharra dago. Bestetik, fluxu-abiadura handiak sentikortasunean duen eragina gogoan hartu beharra dago. Fluxu-abiadura altuek electrospray MS iturriaren errendimendu optimoa bermatzen ez dutenez [51], orokorrean isurkiaren zati bat baino ezin da MS detektagailura bideratu (*splitting*). *Splitting*-banaketa honen ondorioz sentikortasunaren galera partziala gerta daiteke [52].

Guztiarekin, teknika honek erakusten dituen mugak nolanhikoak izan ez arren, estrategia hau matrize biologikoekin bateragarria izan daitekeela erakutsi izan da [53–55].

### 6.6.2 Zutabe monolitikoak

HPLC instrumentazio konbentzionalaz baliatuz, banaketa azkarrak lortzeko partikuladunak ez diren zutabe monolitikoak erabili daitezke. Partikuladun zutabeetan, fase mugikorra partikulen artean difusio bidez barreiatzen den bitartean, monolitoen kasuan fluxu-emia fase geldikor solido, porodun eta bakarretik barrena pasatzen da. Egitura monolitikoaren tamaina txikia eta porositate handiari esker zutabe konbentzionalak baino fluxu-erresistentzia eta lan-presio baxuagoak eragiten dituzte [56–58]. Horrela, LC sistema konbentzionaletan zutabe luzeagoak erabilia fluxu-abiadura handiagoen manipulazioa posible egiten da (tipikoki paketaturiko zutabeetan baino 3–10 bider fluxu-abiadura handiagoak).

Monolitoen egitura poroduna aztertzerakoan bi poro mota desberdindu daitezke: makroporoak batetik, eta mesoporoak bestetik. Makroporoak fluxu erresistentzia baxuaren erantzuleak dira, hau da, fluxu-abiadura handiak posible egiten dutenak. Aldi berean, mesoporoek banaketa eraginkorrek lortzeko gainazal azalera nahikoa ziurtatzen dute. Horrela, makroporoen zein mesoporoen tamainak eraldatuz errendimendu kromatografikoak optimiza daitezke [56].



(a) Fluxu-emia zutabe monolitikoetan eta partikuladun zutabeetan.

(b) Monolitoen barne egitura.

**Irudia 6.6:** 6.6a Irudian: zutabe monolitikoaren (ezkerrean) eta partikuladunaren (eskubian) fluxuaren arteko konparaketa grafikoa ([www.phenomenex.com](http://www.phenomenex.com) webgunetik egokitua). 6.6b Irudian: monolitoen mesoporo eta makroporoen ilustrazioa ([www.chromatography.merck.de](http://www.chromatography.merck.de) webgunetik egokitua).

Erabilpen kromatografikoari begira, bi euskarri monolitiko mota nabarmendu behar dira: polimero organikoak (polimetakrilatoak, poliestirenoak edo poliakrilami-



dak) [59, 60], eta polimero ez-organikoak (silika-oinarridunekoak eta garapen berriagoko karbono- [61] eta zirkonio-oinarridunekoak [62]). Bi hauen artean, LCn, normalean silikazko monolitoek polimero organikodunak baino errendimendu hobek erakusten dituzte [63].

Silikazko armazoi monolitikoek dagokienez, 1996ean Kyotoko Teknologia Institutuan Tanaka-k eta Nakanishi-k garaturiko zutabe monolitikoen garrantzia azpimarratu beharra dago [64], izan ere, gaur egun *Merck* (Darmstadt, Alemania) eta *Phenomenex* (Torance, AEB) etxe komertzialek *Chromolith* eta *Onyx* izen markapean merkaturatzen dituzten zutabe monolitikoak euskarri haietan oinarritzen dira. 2  $\mu\text{m}$ -ko makroporoak eta 13 nm-ko mesoporoak erakusten dituzten egitura hauek lan-presio baxuetan errendimendu kromatografiko oso onak eskaintzeaz gain [65], fluxu-abiadura optimotik gorako balioetan ere efizientzia maila altuak erakusten dituzte. Nolanahi ere, patentearen eksklusibotasunak zutabe monolitikoen eskaintza mugatzen du [66].

Monolito polimerikoei dagokienez, berriz, *CIM* (*Bia Separations*, Villach, Austria), *Bio-Monolith* (*Agilent Technologies*, Palo Alto, AEB) eta *ProSwift* (*Dionex*, Sunnyvale, AEB) zutabe-serieak aipa daitezke.


Analisi azkarrak bermatzearekin batera, monolitoen iragazkortasun handiari esker, seriean zutabe bat baino gehiago akopla daitezke ( $L > 1 \text{ m}$ ), efizientzia maila altuak eraginez ( $N > 100.000$  plater teoriko). Ezaugarri hau bereziki interesgarria da proteomika zein metabolomika arloetan, bertan banaketa errendimendu handiak beharrezkoak dira eta.

Dena dela, zutabe monolitikoek ere zenbait desabantaila erakusten dituzte. Esaterako, zutabe komertzialen aniztasuna mugatua denez (elkarrekintza kimikorako posibilitate mugatua), aplikazio eremua ere mugatua da. Aldi berean, barne diametroaren eskaintza ere nahiko mugatua da (4.6 mm, 3.0 mm, edo 100  $\mu\text{m}$  ID). Zentzu honetan, aintzat hartu beharra dago ID handiko zutabeak MSrako desegokiak izateaz gain, disolbatzaile organikoen kontsumo handia eragiten dutela. Azkenik, monolito silikadunen lan-presio maximoa (3.000 psi edo 200 bar) eta erabilgarritasun pH tartea mugatua dela gogora ekarri beharra dago ( $2 < \text{pH} < 8$ ) [41, 66, 67]. Akaso zutabe monolitikoen patentearen eksklusibotasunagatik edota zerrendatu diren beste desabantailleengatik, kontua da, kromatografilarien %1ek baino ez duela zutabe monolitiko silikadunak erabiltzen [66, 68].


LC analisi azkarrak lortzeko teknika gisa, monolitoak erabilia 650 ikerketa artikulutik gora argitaratu dira, arlo oso desberdinetan aplikazioak bilduz. Adibide moduan, farmakoak eta metabolitoak, elikagai gehigarriak, enantiomeroak eta lagin biologikoak aipa daitezke [22, 69–71].

### 6.6.3 Perfusio-kromatografia

1989–1991 bitartean, monolitoen antza zuen teknika kromatografiko berri bat ezagutzera eman zen. Prozedura berri honi perfusio-kromatografia (partikula zeharkako fluxu-kromatografia) deitu zitzaion, fase geldikor gisa erabilitako partikula perfusiboek zeluletara elikagaiak garraiatzen dituen gorputzaren arteria eta kapilar sistemaren antza lan egiten zutelako [72, 73].



(a) Perfusio partikulen funtzionamendua.



(b) SEM mikrografia.

**Irudia 6.7:** Partikula perfusiboen izaera dualeko gigaporoen konfigurazioaren ilustrazioak [74, 75].

Monolitoetan bezala, euskarri hauetan bi poro mota agertzen dira: zeharkako poroak eta difusio poroak. Dena den, teknika batetik bestera poroen diametroa nabarmen aldatzen da (ikusi 6.5 Taula). Euskarri perfusiboetan poro konbektiboaren diametroa haga polimerikoen superporoena baino txikiagoa da, eta poro difusiboaren diametroa silikadun hagetan erabilitakoak baino 5–40 aldiz handiagoak dira [76].

Perfusio-kromatografian masa-transferentzia bi eratarata ematen da: gigaporoetan, konbektio intrapartikularren bidez, eta poro txikiagoetan, garraio difusiboaren bidez. Bertan sorturiko fluxu-konbektibo eta difusiboaren arteko konbinaketari

esker, makromolekulak partikula perfusiboekin modu azkarrean interakzionatze-ko modua errazten da. Izan ere, euskarri hauen errendimendu optimoa fluxu-abiadura handietan lortzen da, baldintza hauetan difusioaren gainean konbektzio intrapartikularrak eragiten duen efektu erakargarria fluxu-abiadura baxuetan baino handiagoa baita [77]. Erabilitako fluxu-abiadura handiak direnez (kromatografia konbentzionalean baino 10–25 aldiz handiagoak), teknika hau fluxu-abiadura baxuagoak erakusten dituzten LC kapilarra edo mikrozutabe formatuetan erabili ohi da [78].

Taula 6.5: Poro difusiboen eta konbektiboen diametroak poro handiko euskarrietan [76].

Euskarria	Poro difusiboak ( $\mu\text{m}$ )	Poro konbektiboak ( $\mu\text{m}$ )
Silikazko monolitoak	0.002–0.03	0.5–8
Monolito polimerikoak	$\approx 0.15$	0.7–7
Partikula perfusiboak	0.08–0.15	0.6–0.8

Barne konposizioari dagokionez perfusio euskarriak aluminazkoak, silikazkoak edota hidroxiapatitazkoak izan daitezkeen arren, nagusiki, elkargurutzapen maila altuko poliestireno-dibinilbentzenozkoak izaten dira. Polimero honek erakusten duen egonkortasun mekanikoa zein kimikoa nabarmentzekoa da, indar ioniko altuetan (0–3 M) eta pH tarte zabalean, 3.000 psi-ko (200 bar) lan-presioak eta 80°C-tik gorako tenperaturak eusteko gai baita [79].

Perfusio-kromatografiak eskaintzen dituen modu desberdinei esker (alderantzizko fasea, ioi trukea, elkarrekintza hidrofobikoa eta afinitatezko kromatografia), analisi-denbora laburretan pisu molekular altuko eta difusio koefiziente baxuko peptidoak, proteinak zein azido nukleikoak analizatzeko teknika baliagarria izan liteke [25, 76, 80, 81].

#### 6.6.4 2 $\mu\text{m}$ -azpiko partikuladun betegarriak

Partikula txikiekin paketaturiko zutabeak erabiltzerakoan presio-arazo larriak azaleratzen dira (ikusi 6.5 Atala). Fluxu-abiadura altuek eragiten dituzten lan-pesioei

aurre egiteko estrategia desberdinak existitzen dira. Jarraian teknika hauen guztien nondik norakoak bildu dira, hurbilketa bakoitzaren abantailak eta nola ez, desabantailak nabarmenduz:


### (1) Temperatura altuko kromatografia likidoa

Temperaturak eragiten dituen fenomeno fisiko-kimikoetan oinarrituz, tenperatura altuko kromatografia likidoak (*high temperature liquid chromatography*, HTLC,  $80^{\circ}\text{C} < T < 200^{\circ}\text{C}$ ) analisi-denborak nabarmen murrizteko aukera eskaintzen du.

Temperaturak aldagai askoren gainean eragin zuzena duen arren, sarritan, parametro bakar batzuren garrantzia baino ez da azpimarratzen. Temperatura igotzerakoan fluxu-abiadura handiagoak erabili daitezkeela nabarmendu ohi da, tenperaturarekin analitoen eta fase mugikorraren difusibitatea handitzearekin batera (masa transferentziaren hobekuntza), fase mugikorraren biskositatea ( $\eta$ ), eta beraz, eragindako lan-presioa, murrizten baitira ( $u_{opt} \propto T/\eta$ ) [66, 82–84]. Alabaina, tenperaturaren eragina askoz zabalagoa da.

Fase geldikorraren eta mugikorraren arteko analitoen oreka-termodinamikoa, konposatu ionizagarrien disoziazio-abiadurak, solutuen ionizazio-entalpiak, fase mugikorraren pHa eta analitoen  $pK_a$ -ak tenperaturarekin aldatzen diren neurrian [82, 85–88], analitoen erretentzioak eta selektibitateak tenperaturarekiko menpekotasuna erakusten dute, modu ez-linealean aldatzen direlarik [82].

Halaber, tenperaturak bestelako parametro kromatografiko batzuri ere nabarmen eragiten die. Esaterako, tenperaturarekin gailurren itxura esanguratsuki hobetu daiteke, gailurren isatsa nabarmen txikituz (gehienbat konposatu basikoetan) [82]. Modu berean, gradientearen berrorekatze-denbora ere murriztu daiteke tenperatura altuagoak erabilita [82]. Bestalde, tenperaturak efizientzian ere eragina badu. Alabaina, ikerlari askok postulaturikoaren kontra, efizientzia ez da tenperaturarekin areagotzen [89, 90]. 6.8 Irudian antzeman daitekeen bezala, batetik, tenperaturarekin  $H_{min}$  optimoa fluxu-abiadura altuagoetara lerrokatzen da; eta bestetik,  $H_{min}$ -tik aurrera, tenperaturarekin abidura kurbek laugune horizontalerantz jotzen dute. Modu honetan, adieraz daiteke tenperaturarekin efizientzia areagotu baino, fluxu-abiadura altuagoak erabili daitezkeela efizientzia galerarik apenas gertatu gabe [91, 92].



Irudia 6.8: Plater altuera teorikoaren kurbak (Knox kurbak bezala ezagunak), tenperaturak plater altueran eta abiadura linealean duen eragina irudikatuz [93]. Grafikoa osatzeko 5 μm-ko partikulak hartu dira.

Bestalde, tenperaturarekin eluitzaileen indar-eluotropikoa, konstante dielektrikoaren balioa (polaritatearen adierazlea dena) eta gainazal tentsioa ere txikitu egiten dira [94]. Esaterako, 225°C-tan uraren konstante dielektrikoaren balioa azetonitriloarenarekin (AZN) konparagarria da [95]. Horrela, tenperatura altuko baldintzetan fase mugikor gisa urak joka lezakeen rola gertutik jarraitu beharrekoa fenomeno da. Bibliografiaren arabera, 5°C-ko igoera AZNaren %1eko gehikuntzarekin konparagarria da [96], 3.75°C-ko igoera metanolaren (MeOH) %1eko gehikuntzarekin konparagarria den bitartean [97–99]. Behaketa honetan oinarrituta, zentzuzkoa da pentsatzea fase mugikorraren parte den disolbatzaile organikoaren proportzio handi bat urarekin ordezkara litekeela [100], eta disolbatzailearen indarra, tenperatura modulatuaz doitu litekeela.

Modu honetan, tenperatura altuak erabilia bi prozedura desberdin planteatu daitezke: alde batetik eluitzaile moduan disolbatzaile organiko kopuru txikiak darabil-tzan kromatografia [101–103]; eta bestetik, fase mugikor gisa ura baino ez duena erabiltzen [95, 104]. Azken prozedura honen izaera ikusita, ez da harritzekoa teknika hau izendatzeko nomenklatura desberdinak erabiltzea, esaterako, tenperatura altuko ur kromatografia (*high temperature water chromatography*, HTWC), ur azpikritikoaren bidezko kromatografia (*subcritical water chromatography*, SBWC), ur superberotuaren bidezko kromatografia (*superheated water chromatography*,

SWC), kromatografia likido gainberotua (*superheated liquid chromatography*, SLC) edo presurizaturiko ur beroaren bidezko kromatografia likidoa (*pressurized hot water liquid chromatography*, PWLC)<sup>4</sup>.

Orain arte deskribaturikoaren ondotik, prozedura kromatografiko hauek ezaugarri erakargarriak erakutsi ditzaketela antzeman daiteke. Fase mugikorrek prestatzeko disolbatzaile organikoen presentzia txikiagoa den aldetik, fase mugikor “ekologikoagoak” erdietsi daitezkeela esan daiteke (zer esanik ez HTWCren kasuan). Gainera, tenperaturarekin disolbatzaileen biskositatea txikitzen denez, fase mugikor gisa kutsakortasun maila txikiagoko disolbatzaile exotikoagoak erabili litezke (adib. etanola, isopropanola, butanola). Edonola ere, fase mugikorren prestateta sinplifikatzeaz gain, kostuak ere nabarmen murrizten dira.

Detekzio moduei dagokionez, HTLCak detektagailu mota askorekiko bateragarritasuna erakusten du, esaterako, UV-Ikus. [105, 106], FLR [107], RI [108], ELS [108, 109], kargaturiko aerosolaren bidezko detekzioa (*charged aerosol detection*, CAD) [110] edota masa espektrometriarekiko (MS) [111]. Zentzu honetan, azpimarratu beharra dago fase mugikor beroek, MS detektagailuekiko bateragarritasun handiagoa agertzen dutela. Izan ere, baldintza hauetan hainbat konposaturentzat ionizazio efizientzia eta S/N seinale handiagoak aurkitu dira [89].

HTWC prozedura erabilita, berriz, HPLC tradizionalen bideraezinak diren bestelako detektagailu batzuk erabili daitezke, hala nola, gar bidezko ionizazioa (*flame ionization detector*, FID) [95, 112–114], induktiboki akoplaturiko plasma-emisio atomikozko espektrometria (*inductively coupled plasma-atomic emission spectrometry*, ICP-AES) [115] edota erresonantzia magnetiko nuklearra (*nuclear magnetic resonance*, NMR) [95, 116–118].

HPLC tradizionalen ez bezala, HTLCan eluzio-gradienteak programatzeaz gain tenperatura-gradienteak ere planteatu daitezke. Horrela, metodoak garatzeko kromatografilariaik aldagai boteretsua eskuratzen du. Aukera berri hau bereziki lagungarria gerta liteke hurrengo kasuetan [82]: (1) mikro-/nano-zutabeen kasuan, fluxu-abiadura oso txikiak izanik eluzio-gradienteak aurrera eramatea zaila denean; (2) fase mugikorra ur superberotua baino ez denean (tenperatura da fase mugikorraren indarra aldarazteko aukera bakarra); (3) bolumen-hil handiko instrumentazioa erabiltzerakoan (eluzio-gradientetan gertatzen diren tarte isokratiko luzeak ekiditzeko alternatiba aproposa izan daiteke tenperatura-gradienteen erabilera).

<sup>4</sup>Kromatografia prozedura bera izendatzeko nomenklatura ezberdinak daudela ikusita, ez litzateke arri-tzekoa izango prozedura honi erreferentzia egiten dion bestelako izendapenik izatea.

Ikuspuntu analitiko hutsetik begiratuta, berriz, abantailak ere nabariak dira. Zutabeen ezarritako tenperaturaren arabera, analisi-denborak nabarmen murrizten direnez (5–20 aldiz laburtu litezke [83, 105]), gailur estuagoak eta altuagoak (sentikortasun altuagoa) erdiestearekin batera erresoluzioaren hobekuntza lortzen da [115]. Tenperaturarekin efizientzia zuzenean handitzen ez bada ere, eragindako lan-presioa txikiagoa denez, zutabe luzeagoen erabilera ahalbidetzen da, modu honetan bai, efizientzia handiagoak eraginez.

HTLCak erakusten dituen mugen artean ere, bada zer aipatu. Batetik, instrumentazio aproposaren beharra nabarmendu beharra dago. Zentzu honetan, instrumentazio espezifiko honek fase mugikorra aurre-berotzeko, zutabe labe eraginkorrrak erdiesteko eta tenperatura-gradienteak programatzeko sistema eraginkorrrak behar ditu desdoikuntza termikoa eta *extra-column* banda-zabalkuntza minimizatzeke bidean [82, 89, 95, 119].

Bestetik, tenperatura altuetan denbora luzez egonkorrrak diren zutabeen auzia dago. Urte luzez arlo honetan hutsunea nabaria izan den arren, gaur egun egonkortasun termiko aproposoeko zutabeak arazorik gabe aurki daitezke [82, 89, 95, 104, 119, 120]. 6.6 Taulan jasotzen den moduan, silika-oinarriduneko paketatzeak, metal oxidun faseak, polimerikoak, hibridoak edota grafitozko fase produneko paketatzeak komertzialki eskura daitezke.

Temperatura altuek erakusten duten beste eragozpenetako bat analitoen balizko deskonposaketa termikoa da [121]. Temperatura gehikuntza moderatu batekin, arazoak apenas gertatzen dira, baina tenperatura haztearekin batera arazoak ager litezke. Gaur egun gai honen inguruan fundamentuzko oso informazio gutxi eskuragarri dago. Fase mugikor urtsuetan, tenperatura altua denean analitoen hidrolisia espero daitekeen zerbait da. Analito sentikorren kasuan, isomerizazioa gerta liteke. Bestalde, tenperatura garaietan isomeroen arteko interkonbertsioa azkartu daiteke, tenperatura altuetan egindako azukre banaketek erakusten duten moduan (azukreen banaketa sarritan 80°C-tan burutzen da banaketa anomerikoan gailurren bikoizketa prebenitu ahal izateko). Dena den, une honetan ez dago argi analitoen egonkortasuna zein tenperaturatan hasten den arazo bilakatzen, baina oso posible da analito eta fase mugikor jakin batzuen arteko konbinaketarekiko oso espezifiko izatea.

Zenbait ikerlarik mantentzen dute molekula organiko txiki gehienak egonkorrrak direla banaketa ultra-azkarrek irauten duten denbora eskaletan, analitoek tenperatura garaietan duten esposizioa mugatua baita [92]. Nolanahi ere, analitoen egonkortasuna metodoa garatuko den zutabe analitiko berdinean egiaztatu behar-ko litzateke, balizko degradazioa fase geldikorren eta fase mugikorren konpo-

sizioaren, pHaren eta tanpoi sistemaren arabera izan baitaiteke [119]. Egonkortasun testak egin arren, ahal den neurrian laginak zutabeen izango duen espozizioa ahalik eta txikiena izaten saiatu beharko litzateke, horretarako ahalik eta analisi laburrenak burutuz [90]. Edonola ere, analitoen egonkortasuna finkatu ahal izateko, kasuz kasu aztertu beharko da.

**Taula 6.6:** HTLCrako egonkortasun termiko aproposak agertzen dituzten zutabe komertzialetako batzuk [89, 95, 120]. Zutabe berdina hartuta, autorearen arabera tenperatura muga desberdinak aurki daitezke.

<b>Zutabegilea</b>	<b>Zutabearen izen komertziala</b>	<b>Fase geldikor mota</b>	<b>Temperatura muga (°C)</b>
Thermo Electron	Hypercarb	karbonoa	200
Selerity Tech.	Blaze	silika	200
Supelco	DiscoveryZR-carbon	zirkoniaz estalizko karbonoa	200
Supelco	DiscoveryZR-carbonC18	zirkoniarekin eraldaturiko karbonoa	200
Thermo Electron	Hypercarb	karbonoa	200
ZirChrom Sep.	ZirChrom-CARB	zirkoniaz estalizko karbonoa	200
ZirChrom Sep.	Diamondbond-C18	zirkoniarekin eraldaturiko karbonoa	200
Jordi	Jordi DVB	polimeroa	150
Hamilton	PRP-1	polimeroa	150
Polymer Lab.	PLRP	polimeroa	150
Shant Lab.	Pathfinder	silika	150
Sachtleben	Sachtopore-RP	titanioz estaliriko polimeroa	150
Supelco	DiscoveryZR-PBD	zirkoniaz estaliriko polimeroa	150
Supelco	DiscoveryZR-PS	zirkoniaz estaliriko polimeroa	150
ZirChrom Sep.	ZirChrom-PS	zirkoniaz estaliriko polimeroa	150
ZirChrom Sep.	ZirChrom-PBD	zirkoniaz estaliriko polimeroa	150
Microsolv Tech.	Cogent	silika	100
Waters Corp.	X-Bridge	silika hibridoa	100
Agilent Tech.	Extend-C18	silika	90
Agilent Tech.	Zorbax StableBond	silika	90

Gainerakoan, HTLCren aplikazio eremua zabal-zabala da. Bibliografian era askotariko aplikazio eremu eta ereduak aurki daitezke. Farmakoak, biomolekulak,



produktu naturalak, herbizidak, elikagaiak, konposatu alifatikoak, aromatikoak edota polimerikoak, proteomika eta metabolomikaren barruan peptidoak eta proteinak adibide modura aipatu daitezke [82, 95, 122].

## **(2) Presio oso altuetan lan egiteko kapaza den instrumentazio berezia**

Tenperatura altuak erabili beharrean, bada beste modurik 2  $\mu\text{m}$ -azpiko partikulek eskaintzen dituzten prestazioei probetxua ateratzeko. Nahikoa da partikula txiki hauek eragiten dituzten lan-presio handiei eusteko kapaza den instrumentazio espezifikoa erabiltzea (>6.000 psi edo >400 bar). Honako prozedura HPLC tradizionaletik desberdintzeko asmoz, ultra presio-handiko kromatografia likidoa (UHPLC), ultra-HPLC edo oso presio handiko kromatografia likidoa (*very high pressure liquid chromatography*, VHPLC) bezalako terminoak proposatu izan dira, instrumentazio berri hauetan HPLCn aurki daitezkeen lan-presioak baino magnitude orden bat edo bi handiagoak izan baitaitezke (esaterako, ikerkuntza laborategi akademikoetan 50.000 psi-tik -3.500 bar- gorako lanak burutu dira, zenbait kasutan 140.000 psi-ko -9.600 bar- mailetara iritsi direlarik) [17-19, 29, 123-131].

Alabaina, UHPLC sistema komertzialak garatzea ez da batere erraza izan, desafio teknologikoa konplexutasun handikoa izan baita. Muturreko presioak jasateko gai eta ohiko disolbatzaile kromatografikoekin bateragarriak diren ihesik gabeko injektoreak, ponpa sistemak, detektagailuak eta zutabeak garatzea buruhauste bat baino gehiago eragin die ikertzaileei.

Garapen honetan, lehendabiziko urratsak 90. hamarkadaren amaieran MacNair eta bere lankideek eman zituzten. Ikerlari hauek 60.000 psi-tik (4.100 bar) gorako fluxu isokratikodun zein gradientedun aurreneko LC sistemak deskribatu zituzten [18, 19]. Laborategiko errutina-lanetarako bideraezinak ziren UHPLC sistema aitzindari haiek, azken hamarkadan hobekuntza sakonak ezagutu dituzte, esanguratsuenak ponpatze-sistema, lagin-barneraketa eta detekzioarekin zer ikusirik dutenak (ikusi 6.10 Atala).

Presio altuetan banaketa arrakastatsua burutu ahal izateko, instrumentazio espezifikoa batekin batera, paketaturiko fase geldikorra egonkorra eta efizientea izatea nahitaezkoa da. Partikulen produkzioan emandako hobekuntzei esker, UHPLC-aplikazio aitzindarietan 1.0-1.5  $\mu\text{m}$ -ko partikula ez-porodunak erabili izatek (gainazal azalera txikikoak, eta beraz, oso lagin-edukiera txikikoak) [17-19, 123, 126, 127, 129-131], homogeneotasun handiko eta tamaina txikiko (1.5-2.0  $\mu\text{m}$ ) silikazko euskarri porodunetarako jauzia burutu ahal izan da (lagina kargatzeko edukiera

handiagokoak; 6.9 Atalera jo). Modu honetan, gaur egun 25 hornitzailetik gora 80 kimika ezberdinetako UHPLC zutabe komertzializatzen dituzte [132–134].

Fluidika, laginketa eta detekzio moduluak, zein  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko zutabe kromatografikoa aldi berean aurkeztu zituen lehendabiziko UHPLC instrumentu komertziala, 2004ean *Waters Corporation* etxeak (Milford, AEB) plazaraturiko *ACQUITY Ultra Performance Liquid Chromatography* sistema (UPLC) izan zen. Harrezkero, beste presio handiko LC sistema asko merkaturatu dira, batetik bestera lan-presiorako ahalmena nabarmen aldatzen delarik (orokorrean 10.000–20.000psi edo 650–1.300 bar artekoak; ikusi 6.11 Atala) [66].

UHPLC sistemen erabilerari dagokinez, ekipamendu hauen malgutasuna azpimarratu beharra dago. Izan ere, UHPLC prozedurak bi erabilera modu nagusi erakusten ditu: (1) analisi ultra-azkarrak erdiesteko, zutabe laburrak eta fluxu-abiadura azkarrak ( $u_{opt}$ -tik gorakoak alegia) konbinatzen direnean; (2) erresoluzio handiko banaketak lortzeko, zutabe luzeagoak eta fluxu-abiadura baxuagoak ( $\sim u_{opt}$ ) finkatzen direnean. Aurreneko kasuan, HPLCn lorturiko banaketa-efizientziak erakutsiz, analisi-denbora askoz azkarragoak lortzen dira (gailur-edukiera eta selektibitateari eutsiz, lagin errendimendua izugarri handitzen da, zenbaitetan hazkunde hori  $\times 17$ -koa izan daitekeelarik [66]) [41, 135]. Bigarren kasuan, aldiz, HPLCn lorturiko analisi-denborak mantenduz, erresoluzio askoz handiagoak erdiesten dira ( $\times 9$  artekoak [41]) [136, 137].

Bi erabilera hauek potentzial handikoak direla aitortuta, bada gutxietsi ezin den hirugarren aukera bat, tartekoa dena nonbait. Oinarrizko ekuazio batzuk erabiltuta [9, 34], HPLC konbentzionaletan garaturiko metodoak UHPLCra geometrikoki transferitzeko modua ere badago (fase geldikor berbera partikula-tamaina ezberdinetan eskuratu daitekeela suposatuz) (ikusi 6.12 Atala). Azken prozedura honek industria farmazeutikoan berebiziko garrantzia du, selektibitatea mantenduz prozeduraren balidazio partziala baino ez baita eskatzen [138].

UHPLC prozedurak eskaintzen dituen abantailak, berriz, instrumentazioaren garapenarekin erlazionatuta daude. Horrela, baldintza hauetan marruskadura-beroarekin ondorioz sor daitezkeen tenperatura-gradienteen eragina minimizatzeke, 4.6 mm ID-ko zutabeak erabili beharrean 2.1 edo 1 mm ID-ko zutabeak erabili ohi dira (ikusi 6.5 Atala) [46]. Halaber, zutabe ID txikiagoek *extra-column* bolumen txikiagoen premia dutenez, bestelako egokitzapen batzuk egin behar izan dira, esaterako, injekzio-bolumen, *tubing* eta detekzio-zelula txikiagoak [41]. Era berean, aldagai hauek minimizatuz, gradientearen atzerapen-bolumena ere minimizatzen da, hain zuzen ere, selektibitate aldaketik ez gertatzeko eta ekipamendu ezberdinen arteko metodo transferentzia ziurtatzeko garrantzia handia duen aldagai.

Halaber, atzerapen-bolumenak eta bolumen-hilak oso txikiak direnez, UHPLC sistemek oso berrerekatze-denbora txikiak erakusten dituzte (HPLCn baino nabarmen txikiagoak [139]). Esaterako, 1 mL/min-ko fluxu-abiadura lan egiten duen 150×4.6 mm-ko HPLC zutabeak 20 bat minutu behar ditu berrerekatzeko, 600 µL/min-tan lan egiten duen 50×2.1 mm-ko UHPLC zutabeak 2 minutu baino behar ez dituelarik.

Gainera, UHPLC sistemak fluxu-abiadura txikiagoak erabiltzen dituenek (zutabearen IDarekin zuzenki erlazionatuta), askoz fase mugikor gutxiago xahutzen du (ingurugiroarekiko jasangarriagoa eta ekonomikoki interesgarria). Aurresturiko kantitatea presente izateko modukoa da, izan ere, Chen eta Kord ikertzaileen esanetan, HPLC sistema konbentzional batekin konparatuz, 2.1 mm IDko UHPLC sistema batek ~%80ko disolbatzaile aurespena eragiten baitu [140].

Bestalde, analisi-denborak oso laburrak direnez, azkartasun handiko injekzio-zikloak erakusten ditu (1 edo 2 minututik beherakoak). Injektaturiko bolumenak, berriz, µL gutxikoak izaten dira (injekzio-bolumena eta zutabearen geometria eskalatu behar baitira). Horrela, lagin bat hartuta, injekzio ugari egin daitezke (errepikakortasun saioak burutzeko, metodoak garatzeko, etab.-erako interesgarria gerta liteke).

Modu berean, UHPLCn erabiltzen diren detektagailu espezifikoek zabalera estuko gailurrei aurre egin behar dietenez (normalean 1–3 s-koak), datuak eskuratzeko ahalmen handiagoa agertzen dute (gailur bakoitzeko 15 puntu jasotzeko gaitasuna izan behar dute, hots, >20 Hz-ko eskuratzeko-abiadurak eta ≤100 ms-ko denbora-konstanteak) [41]. Era berean, S/N seinale altuagoen bitartez (gailurrak estua-goak), sentikortasun maila handiagoak ere lortzen dira [141].

HTLCak bezala, UHPLCak detektagailu mota askorekiko bateragarritasuna erakusten du, esaterako, UV-Ikus. [141–143], PDA [144], FLR [145], ELS [146], CAD [147], MS [148], ICP-MS [149] eta *TopCount* [150]. Eskaintza zabala izan arren, ñabardura txiki bat egin daiteke, izan ere, detekzio modu hauen guztien artean MS modua da laborategiek gehienbat UHPLCekin batera erabiltzen dutena. Datu moduan aipa daiteke 2009ra arte publikatu diren UHPLC lanen %60 MS (edota MS<sup>2</sup>) erabiliz osatu direla [148], UHPLC prozedura eta MS detekzio moduaren arteko bateragarritasuna eta sinergiaren seinale.

Bukatzeko, adierazi beharra dago zerrendatu diren ezaugarri hauek guztiek analitoen egiturekiko edo erabilitako banaketa-metodoekiko independenteak direla, HTLCn gertatzen ez den bezala [151].


Gainerakoan, UHPLCaren aplikazio eremua anitza eta oparoa da. Bibliografian arlo askotariko lan-publikazioak aurki daitezke, hala nola, kalitate-kontrola, dopin-kontrola, elikagai-kontrola, toxikologi analisiak, ingurugiro analisiak, analisi farmazeutikoa, analisi klinikoa, proteomika eta metabolomika, produktu naturalak, eta abar luze batekin zer ikusirik dutenak (ikusi 6.14 Atala) [41, 133, 152].

### **(3) Temperatura altuen eta presio ultra-handiko Kromatografia Likidoaren arteko konbinazioa**

Presio eta temperatura altuek bakoitzak bere aldetik partikula txikiekin konbinatzerakoan erakusten dituzten abantailak ikusita, pentsatzekoa da hiru parametro hauen arteko konbergentziaren bitartez ere emaitza positiboak erdietsiko direla. Modu honetan, HTLCan ematen den masa transferentzia handia, UHPLCaren abiadura eta efizientzia areagotzeko erabili liteke<sup>5</sup>. Horrela, temperatura altuko kromatografia likido ultra-azkarra (*high temperature-ultra high pressure liquid chromatography*, HT-UHPLC, edota *ultra-fast high temperature liquid chromatography*, UFHTLC bezala ere ezaguna), 2  $\mu$ m-azpiko partikulekin paketaturiko eta 150 mm baino luzera handiagoko zutabeak erabilita, analisi-denbora laburretan erresoluzioa hobetzeko irtenbide aproposa izan daiteke [153, 154].

*Waters Corporation* etxeak 2007ko *White Paper* delako txosten teknikoetan argitaratutako gogoeten harira, Neue-k eta Plumb-ek temperatura altuek presio handiei eusteko kapaza den instrumentazioarekin duten harreman estua nabarmendu zuten [90, 137]. Izan ere, *van Deemter* kurbak erakusten duen moduan, temperaturarekin efizientzia handitzen ez den arren,  $H_{min}$ -a abiadura lineal altuagoetara lerratzen da (ikusi 6.8 eta 6.9 Irudiak). Hortaz, temperatura altuak erabilita  $u_{opt}$ -n lan egiteko presio handiagoak erabili beharko dira, edo bestela esanda, *van Deemter* kurbaren minimora iristeko beharrezkoa den presioa, temperaturarekin handitzen da. Zentzu honetan esanguratsua da zutabe batek giro temperaturan *van Deemter* kurbaren minimora iristeko 6.000 psi-ko (400 bar) presioa eskatzen duen bitartean, 90°C-tan zutabe berak 7.000 psi (480 bar) inguruko presioa behar izaten duela [154]. Argi ondorioztatzen da beraz, instrumentazio berezia behar beharrezkoa dela.

Aurreneko HT-UHPLC saiakerak nano edo kapilar eskaletan eman ziren nork bere laborategian diseinaturiko ekipamenduetan [128, 131, 155]. Gaur egun, ordea, komertzializatzen diren UHPLC sistema gehienak goi-tenperaturetan lan egiteko diseinatuta daude (ikusi 6.11 Taula).



Irudia 6.9: Efizientziaren gainean temperaturak duen eragina erakusten duten eredu esperimentalak: (a) efizientzia versus fluxu-abiadura; (b) efizientzia versus presioa. *Waters Corporation*-en aplikazio txostenetatik egokitua.

HTLCan gertatzen den bezala, HT-UHPLCan ere temperatura garaiekin selektibitate aldaketak eman daitezke. Selektibitate aldaketa txiki hauek arazo bilaka litezke instrumentu desberdinen artean metodo bat transferitu behar denean. Izan ere, teknika honekin lortzen diren analisi-denborak hain laburrak dira ezen berogailu batetik bestera egon daitekeen alderik txikiak ere banaketa konprometitu lezakeen.

Presio eta temperatura altuak konbinatzearen beste abantaila bat, fase mugikor gisa disolbatzaile organiko biskosoagoak eta exotikoagoak (etanola, dimetil sulfoxidoa eta isopropanola –IPA–) erabiltzeko aukera da [137, 154]. Ohiko presio eta tenperaturetan disolbatzaile hauen erabilera ezinezkoa gertatzen da, agertzen duten biskositatearen ondorioz lan-presio oso altuak eragiten baitituzte. Alabaina, disolbatzaile exotikoagoen potentzialari probetxua atera nahi izatekotan, presio handiko sistema kromatografikoen beharra dago [137]. Zenbaitetan modifikatzaile organiko gisa IPA erabiltzeak analisi-denbora modu adierazgarrian laburtu lezake, MeOH eta AZNrekin konparatuz, IPAREN indar eluotropikoa handiagoa da eta. Analisi-denborak murriztuta, disolbatzaile organikoaren kontsumoa ere gutxiagotuko da. Halaber IPAREN toxikotasuna disolbatzaile tradizionalena baino txikiagoa dela esan beharra dago [137].

Bestalde, HTLCan bezala, HT-UHPLCan ere temperatura-gradienteak programatzeko aukera dago, metodoak garatzeko oso interesgarria izan daitekeena. Alabaina,

<sup>5</sup>Efizientzia ez da handituko tenperatura altuagoak erabilita, baina bai ordea zutabe luzeagoak erabilita.

gradiente-termikoen erabilerak oraingoz saiakera esperimentaletatik haratago ez du bide komertzialik egin. Adibide modura Gika *et al.*-ek buruturiko analisi metabonomiko/metabolomikoak aipa daitezke. Bertan, UHPLC sistema komertziala eta GC labea akoplatuz 6 min-tako eta 50–180°C arteko gradiente-termikoak osatu zituzten [156].

Analitoen egonkortasun termikoaren inguruan, HTLCarekiko ezberdintasun gutxi dago. Akaso, analisi-denborak laburragoak direnez, analitoen esposizioa tenperatura altuekiko txikiagoa dela. Alabaina, analitoen egonkortasunaren berri izateko, HTLCan bezala kasu bakoitza banaka aztertu beharko da.

Halaber, zutabearen egonkortasuna auzi garrantzitsua da. Hurbilketa honen lehen-dabiziko saiakeretan partikula ez-porodunekin paketaturiko zutabe kapilarrak erabili ziren arren [35, 128, 131, 155, 157], gaur egungo partikula porodun txikiek tenperatura eta presio altuekiko tolerantzia ona erakusten dute [136, 158], egunez egun HT-UHPLCrako zutabe aniztasuna zabalagoa delarik. Egonkortasunaren erakusle gisa, Plumb *et al.*-en lana aipa daiteke, errendimendu galerarik nabaritu gabe, 1.700 plasma injekzio burutu baitzituzten (90°C-UHPLC) [154].

Desabantailak desabantaila, tenperatura altuen, partikula txikiagoen, zutabe luzeagoen eta fluxu-abiadura altuagoen arteko konbinazioaren ondorioz ikaragarriko erresoluzio banaketa handiak eskura daitezke. Konbinazio honek erakutsitako gailur-edukiera handiari esker (adib.: 700ekoa 10 min.-tan edo >1.000ekoa 1 h-tan [154]), lagin konplexuetan ia konposatu guztien erresoluzioa bermatzen du. Errendimendu kromatografikoaren hazkunde honek datuak jasotzeko abiadura izugarri handiak eskatzen ditu. Hortaz, teknika honekin konbinatu ohi diren masa espektrometroek masa zehaztasuna eta datu kalitaterik galdu gabe, gailurra definitzeko abiadura nahikoa izango dutela ziurtatu beharra dago.

Aplikagarritasunari dagokionez, HT-UHPLCa ahalmen handiko teknika den arren, ez du ematen momentuz errutinazko laborategietan onarpen zabalik izan duenik. Teknika honen erabilera ikerketa-laborategietara murrizten dela ematen du. Esparru honetan ordea, konplexutasun handiko banaketak burutu direla esan daiteke, horien artean ondorengo lan hauek aipa daitezkeelarik: ardoan egindako antozianinen determinazioa [159], gernuan eta plasman egindako metabolitoen profila-keta orokorrak (metabolomika/metabonomika) [156], produktu natural eta landare erauzkinen analisiak [160], dopin agente eta farmako-koktelen analisiak [153] edota gernuan egindako metabolito endogenoen analisiak [154]. Nolanahi ere, HT-UHPLCa ez da peptidoen analisisetan edota peptidoen mapaketetan erabili, tenperatura altuek analito hauen desnaturalizazioa eragin lezakete eta. Alta, zenbait


ikerlariren aburuz, konplexutasun handiko metabolito xenobiotikoen identifikazioan, farmakoen ezpurutasunen profil-lanetan, produktu naturaletan, metabonomika/metabolomikan edota proteomikan HT-UHPLC prozedura ere lagungarri gerta liteke [154].

#### **(4) Zorro poroduneko betegarriak**


Presio edota tenperatura altuak erabili beharrean, analisi azkarrak eskuratzeko partzialki poroduna den paketatze material partikuladuna ere erabili daiteke. Zorrodun partikula txiki hauek (*superficially porous particles*, SPP, *fused-core*, *shell*, *shell fused core*, *porous shell*, *porous shell core*, *solid-core shell*, *superficially porous shell* edota *poroshell* partikulak bezala ere ezagunak), erdigune solido ez-poroduna inguratuz, poroduna den geruza edo zorro mehea (adsorbentea) erakusten dute (ikusi 6.10 Irudia).

Gaur egungo SPP partikulek ezagutu duten bilakaera ulertzeko, 1960. hamarkadaren bukaera aldera jo beharra dago [161–164]. Solutu txikiak banatzeko diseinatuta, lehendabiziko partikula “pelikular” haiek oso geruza porodun mehea erakusten zuten. Hau dela eta, makromolekulak banatu ahal izateko lagin-edukiera txikiegia erakusten zuten (zorro-porodunaren zabalera 1–2  $\mu\text{m}$ -koa zen bitartean, partikularen diametro osoa  $\sim 30 \mu\text{m}$ -koa zen, hots, partikula bolumenaren  $\sim 25\%$  baino ez zen poroduna; poroen tamaina 100 nm-koa zen) [165]. Sarritan partikula hauen erabilera aurrezutabeen osagai izatera mugatu zen [166].

Denborarekin, Kirkland-ek makromolekula polarren banaketari begira eta bereziki polipeptido eta proteinei zuzenduta, SPP partikula txikiagoak garatu zituen. Partikula hauek,  $\sim 5 \mu\text{m}$ -ko diametro orokorrekoak, 90 nm-ko poroak eta 1  $\mu\text{m}$ -ko lodierako geruza poroduna erakusten zuten [20]. 2007ean 2.7  $\mu\text{m}$ -ko diametro orokorreko C18 partikulak merkaturatu ziren. Tamaina txikiagokoak izan arren SPP partikula hauek 0.5  $\mu\text{m}$ -ko lodierako geruza poroduna zuten [167]. Ezaugarri hauek partikula hauen izaera eta aplikazio eremua berdimentsionatuko zuten, izan ere, zorro porodunak bolumen osoaren  $75\%$  hartzen zuenez, SPP partikula hauek garai bateko lagin-edukiera txikiarekin erlazonaturiko arazoak erakusteari utzi zioten (nolanahi ere, partikula porodunak baino  $\sim 25\%$ eko lagin-edukiera baxuagoa erakusten dute) [166, 168]. Auzia bideratuta, euskarri mota honen erabilera lan-presio baxuetan banaketa kromatografiko azkarren aplikazioetarantz bideratuko zen, bereziki pisu molekular handiko molekulak tarteko daudenean.



(a)



(b)

Figure 6.10: Zorro poroduneko partikulen konfigurazioa. (a) *HALO™* partikulen SEM mikrofotografiak. (b) Partikula hauen barne egituraren eskema irudia (*Agilent Technologies* eta *Phenomenex* etxeetako adibideak).

Analisi azkarrak osatzeko estrategia gisa, SPP partikulek ezaugarri bereziak ager-tzen dituzte. Antzerako diametroko partikula erabat porodunen aldean, SPP par-tikulek difusio pasabide askoz laburragoak erakusten dituzte (analitoei ezinezkoa zaie barrualdeko erdigune solidoa zeharkatzea, masa transferentziarekiko erresis-tentzia txikiagotuz) (ikusi 6.10 Irudia) [169, 170]. Honek solutuen dispertsio axiala mugatzen du, gailurren zabalkuntza minimizatuz (bereziki abiadura lineal altue-tan) [171]. Ezaugarri hau bereziki garrantzitsua da molekula handien kasuan (adib. peptidoak eta proteinak), partikula porodunetan egindako banaketa azka-rretan masa transferentzia motelak efizientzia galera esanguratsua eragiten bai-tu [172]. Gainera, partikula porodunekin konparatuz, SPP materialak partikula-tamainaren oso distribuzio homogeneoa eta paketatze dentsitate altua erakusten



du (zurrumbilo-difusioa txikituz) [172].

Zenbait ikerlarik iradoki duten moduan, SPP partikulekin gailur-efizientzia altuak ere erdietsi daitezke, besteak beste: (a) difusiorako distantzia txikiagoari eta masa transferentziaren hobekuntzari esker (*van Deemter/Knox* moduko ekuazioen C terminoa ↓); (b) barne porositate baxuagoari esker (B terminoa ↓); eta (d), partikulen tamainaren distribuzio homogeneousari eta kalitate hobeko paketatzei esker (A terminoa ↓) [133, 173]. Zentzu honetan, zenbait autorek SPP partikulentzat  $h^6 < 1.5$ -ko balioak aurkitu izan dituzten bitartean, partikula porodunekin paketaturiko zutabeentzat 2–2.5 artekoak aurkitu dituzte [172]. Honek esan nahi du SPP partikulen bitartez,  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikula porodunekin erdiesten diren abiadura eta efizientzia berdintsuak lor daitezkeela, betiere lan-presio baxuagoak erabili-ta [174, 175]. Modu honetan, lan-presioak txikiagoak izanik, luzera handiagoko zutabeak erabili daitezke bereizmen ahalmena aragotuz [166, 176, 177].

Aipatutakoaren harira, efizientiaren hobekuntza makromolekulen kasuan nabari-agoa dela esan daiteke. Izan ere, fluxu-abiadura altuetan 600 mau-ko pisu molekularretik gorako konposatuentzat, SPP partikulen zutabe-efizientzia partikula erabat porodunena baino hobea izan daitekeen bitartean, 2.000 amu-tik gorako solutuentzat, efizientzia bikoitza izatera iritsi litekeela dokumentatu izan da [171].

Gainerakoan, azken urteetan estrategia honek garapen esanguratsua ezagutu duela adierazi daiteke, besteak beste, errendimendu kromatografikoa hobetzeko UHPLC instrumentazio espezifikoren beharrik ez baitu. Nolanahi ere, muturreko presioetan ez bada ere, paketatze hauek UHPLC instrumentuekiko bateragarriak direla azpimarratu beharra dago [178–180].

Monolitoekin gertatzen den bezala, patenteak direla arrazoi, SPP partikulen hornitzaileen kopurua mugatua da. Gaur egun, gutxienez, era honetako materiala eskuratzeko jatorri ezberdineko lau iturburu daude:  $5\ \mu\text{m}$ -ko *Poroshell* (zorro porodunaren zabalera:  $0.25\ \mu\text{m}$ ; poroen tamaina: 30 nm) eta  $2.7\ \mu\text{m}$ -ko *Poroshell 120* partikulak (zorro porodunaren zabalera:  $0.5\ \mu\text{m}$ ; poroen tamaina: 12 nm; 9.000 psi –600 bar– arteko egonkortasuna; *Agilent Technologies*, Palo Alto, AEB);  $2.7\ \mu\text{m}$ -ko *Halo* partikulak (zorro porodunaren zabalera:  $0.5\ \mu\text{m}$ ; poroen tamaina: 9 nm; 9.000 psi –600 bar– arteko egonkortasuna; *Fused-Core* partikula teknologia-rekin eginda; *Advanced Materials Technology*, Wilmington, AEB);  $2.7\ \mu\text{m}$ -ko *Ascendis Express* partikulak (zorro porodunaren zabalera:  $0.5\ \mu\text{m}$ ; poroen tamaina: 9 nm; 9.000 psi –600 bar– arteko egonkortasuna; *Supelco, Sigma Aldrich*, Bellefonte, AEB); eta  $1.7\ \mu\text{m}$ -ko *Kinetex* (zorro porodunaren zabalera:  $0.23\ \mu\text{m}$ ; poroen

<sup>6</sup>Ikusi 6.5 Ekuazioa, non  $h$ , plater altuera murriztua den.

tamaina: 10 nm; 15.000 psi –1.000 bar– arteko egonkortasuna; *Core-Shell* partikula teknologiarekin eginda) eta 2.6 µm-ko *Kinetex* partikulak (zorrotz porodunaren zabalera: 0.35 µm; poroen tamaina: 10 nm; 9.000 psi –600 bar– arteko egonkortasuna; *Core-Shell* partikula teknologiarekin eginda; *Phenomenex*, Torrance, AEB) [181, 182].

Halaber, gaur egun kimika ezberdinetako SPP zutabe gutxi dagoela esan beharra dago. Akaso, prozedura analitiko honen erabilera hedatuko balitz, zutabeen aniztasuna ere handiagotuko litzateke [68, 183].

Bestalde, sarritan nabarmentzen da SPP partikulek abiadura optimoan aritzeko behar dituzten lan-presioak 2 µm-azpiko partikulek behar dituztenak baino 2 bider txikiagoak direla. Alabaina, UHPLC instrumentazioan erabili badaitezke ere, SPP partikulek presio altuak eusteko erakusten duten ahalmena ere 2 bider baxuagoa da (9.000 psi *vs.* 15.000 psi, edo gauza bera dena, 600 bar *vs.* 1.000 bar) [66].

SPP partikulen prestazioak beste prozedurekin normalizatzeko aldera, literaturan nonahi aurki daitezke SPP partikulen eta partikula konbentzionalen edota monolitoen arteko konparazioak, bai modu isokratikoan bai eta modu gradientean ere [171, 174, 178, 184]. Zalantzarik gabe Guiochon *et al.*-ek buruturiko lanak nabarmendu behar dira, bertan SPP partikulen hainbat ezaugarri espezifiko sakonki aztertu baitituzte, esaterako, masa transferentziaren zinetika [170, 185], kargatze eta gailur-edukierak [176, 186] eta tenperatura altuen eragina [187].

Gainerakoan, partikula zorrodunen aplikazio eremua zabala dela aitortu beharra dago. Teknologia honekin bibliografian lan- publikazio ugari aurki daitezke. Besteak beste, SPP zutabeak farmakoak [179, 188], produktu naturalak [189], antioxidatzaileak [190] edota proteomika saiakerak [191] analizatzeko erabili izan dira. Halaber, alderantzizko fase tradizionalan aplikazioak izatearekin batera, HILIC prozeduretan SPP partikulen bideragarritasuna ere egiaztatu izan da [166, 192].

**LC prozedura vs. Metodo analitikoa azkartzeko teknikak** Orain arte deskribaturiko estrategia bakoitzak, modu batera edo bestera, analisi-denbora txikitzeko joerari aurre egiten dio. Alabaina, banaketa azkarrak erdiesteko prozesua globaltasunez aztertu beharra dago. Perspektibari helduz eta irudika zitekeenaz bestera, orain arteko hurbilketa hauek guztiek alde kromatografikoan baino ez dute intziditzen. Izan ere, orain arteko prozeduretan lagin-prestaketaren tratamendu neketsuari ez zaio aurre egiten. Metodo analitiko osoaren iraupena partzialki baino ez da laburtzen.


Honakoa ez da eragozpen xamurra, izan ere, LC bidez lagin biologikoak (adib. plasma, seruma edota gernua) analizatzerakoan zutabe kromatografikoa butxatu lezaketen proteina eta lipido endogenoetatik analitoen erauzketa burutzea beharrezkoa egiten da eta. Helburu honekin erauzketa teknika desberdinak erabili daitezke, hala nola, likido/likido erauzketa (*liquid/liquid extraction*, LLE), fase solidoan buruturiko erauzketa (SPE) edo proteina hauspeaketa. LLE eta SPEren bidezko lagin-tratamendu aski ezagunek lurrinketa eta errekonstituzio urratsak eskatzen dituztenez, denbora luzea hartzen dute. PPTren bidez eratorritako gainjalkinaren analisi-prozedura, berriz, oso sinplea eta azkarra da. Hala ere erauzkin hauek erlatiboki zikinak direnez, detektatzerako orduan sarritan arazoak ematen dituzte (MS detektagailuen beharra nahitaezkoa izanik ere, sarritan ioi supresioa gertatzen da) eta askotan injekzio-bolumenarekin mugak izaten dira [193]. Lagin-tratamendua prozesu analitikoaren urrats kritikoa izanik, bada zer hobetu, beraz.

Zentzu honetan, lagin-tratamendua eta analisi kromatografikoa bateratuz, bada ordea, prozedura osoa azkartzeko beste modurik. *Switching*-balbula birakari portuanitzak erabilia *clean-up* prozedura eta urrats kromatografikoa *on-line* automatizatu daitezke. Prozedura hauen inguruko eztabaida jasotzea interesgarria dela iritzita, jarraian, bioanalisian erabiltzen diren *switching*-estrategia kromatografiko esanguratsuenen inguruko informazioa jaso da.

### 6.6.5 On-line SPE

Errendimendu altuko *on-column* erauzketak osatzeko, SPE eta HPLC prozedurak *on-line* akoplatu daitezke konfigurazio eta sistema desberdinak erabilia. Hauen guztien artean *column-switching* prozedura nabarmendu beharra dago. *Switching*-balbula birakari portuanitzen bitartez aurre-zutabe bat edo gehiago zutabe analitiko batekin edo gehiagorekin seriean konbina daitezke errendimendu kromatografikoa nabarmen areagotuz. Normalean aurretratamendurik aplikatu gabe edo aurretratamendu oso murriztuarekin (barne estandarraren gehiketa, iragazketa eta batzutan zentrifugazio azkarra) lagina aurre-zutabeen zuzenean injektatzen da, bertan ahul erretenituriko plasma osagaiak eliminatu ondoren fase mugikorren konposizioa aldatuz, analitoak desorbatu eta zutabe analitiko batera bideratzen dira bertan banaketa kromatografikoa osatu dadin.

6 portu erakutsi ohi dituzten *switching*-balbula hauek modu desberdinetan lan egin dezakete, atzerako hustuketa modua (*back flush* edo *straight-flush mode*) delarik gehien erabiltzen dena (ikusi 6.11 Irudia) [194–199]. Aurre-zutabe bat baino gehiago paraleloan erabili nahi denean ordea, 6 portutako bi *switching*-balbula edo 10 portutako *switching*-balbula bat erabili ohi dira.



**Irudia 6.11:** *Switching* erabilera ohikoenaren eskema (*back flush mode*): lagin biologikoak zuzenean erauzketa-zutabeen injektatzen dira. Makromolekulak ondakinetera bidali ondoren, erauzketa-zutabetik analitoak desorbatuz zutabe analitikora berbideratzen dira detektagailura bidali aurretik. Diagramaren ezkerrealdean, sistema "kargatze" moduan; eskubialdean, berriz, "injekzio" moduan. [200]-tik egokitua.

*Switching*-balbulekin laborategian norberak eraiki ditzakeen konfigurazioetaz gain, lagin-tratamendua *on-line* burutzeko unitate komertzialak ere badira, esaterako, *LiChrograph OSP-2* (Merck, Darmstadt, Alemania), *Microlab SPE* (Hamilton, Reno, AEB) eta *ASPEC XL* (*off-line* edota *on-line* modutan lan egin dezake; Gilson, Middleton, AEB) plataformak aipa daitezke. Nolanahi ere, gehien hedatuta dauden *on-line SPE* ekipamenduak *Symbiosis* sistemak dira (*PROSPEKT-I* eta *PROSPEKT-II* sistemen ondorengoak, *Programmable On-line Solid Phase Extraction Technique*, *Spark Holland*, Emmen, Herbeherak), analisi paraleloak ahalbidetzen baitituzte [201,202]. Sistema hauek SPE kartutxo txikiak (tipikoki 3–4×5–10 mm ID-koak) behin erabili ondoren automatikoki aldatzeko gaitasuna dute *carry-over* arazoak ekidituz<sup>7</sup>.

Konfigurazio batean zein bestean, *on-line SPE* prozedurak moldakortasun handia erakusten du, banaketa kromatografikoa burutzeko txertatzen den zutabe analitikoak era askotarikoa izan baitaiteke (HPLC zutabe tradizionala, monolitikoa [203, 205, 206], perfusiozkoa [207], HILIC [208, 209] edota UHPLC instrumentazioarekin ere bateragarria da [210–212]). Aurre-zutabe gisa erabiltzen den sorbentearen arabera, *switching*-prozedura desberdinak aurki daitezke. Horrela, analitoak

<sup>7</sup> *On-line SPE* kartutxo hauek ez dute zertan erabilera bakarrekoak izan behar. Izatez, behin baino gehiagotan inongo arazorik gabe erabili daitezkeela frogatu egin da (analitoen berreskurapena eta kartutxoaren lan-presioa aldaketa esanguratsurik gabe mantentzen direla ikusi izan da [203, 204]).



**Irudia 6.12:** Automatizatu gabeko *on-line SPE* prozeduran konfigurazio desberdinak aurki daitezke. Irudian: (1) erauzketarako kartutxoa eta bere gordailua; (2) *switching*-balbula ala zutabe analitikora zuzenean konekta daitekeen erauzketarako zutabea; (3) erauzketarako zutabea. 2011–2012ko *Waters Quality Parts, Chromatography Columns and Supplies Catalog-etik* egokitua (*Waters Corporation*, Milford, AEB).

erretentzeko interakzio-hidrofobikoa da gehien erabiltzen den mekanismoa [213], eta sorbenterik erabilienak, berriz, elkar-loturiko silikak (adib. C18, C8, C2), kopolimeroak (adib. elkargurutzatutako poliestireno dibinilbentzenoa), hidrofiliiko-lipofiliko orekadun polimeroak eta garapen berriagoko modu mistoko polimeroak (alderantzizko fasedunak eta truke ionikodunak) [214, 215].

Era honetako kartutxoaren egokitasuna aplikazio eremu oso desberdinetan frogatuta geratu da, adibide moduan analisi farmazeutikoa, biologikoa edota ingurugiro aplikazioak aipa daitezkeelarik [203, 204, 213, 216–219].

Edonola ere, elkarrekintza-mekanismo hauetaz gain, *on-line* erauzketak burutzeko bestelako elkarrekintza modu batzuk erabili daitezke, aurre-zutabearen kargatu daitekeen materialen aniztasuna zabala baita. Horien artean, sorbente monolitikoak [194, 196], irismen mugatuko euskarriak (*restricted access media*, RAM) [220, 221], partikula handiko betegarriak [222, 223], molekulekin inprimaturiko polimero sintetikoak (*molecularly imprinted synthetic polymers*, MIP) [224], edota in-munosorbenteak (inmobilizaturiko errezeptoreak edo antigorputzak) aipa daitezke [225, 226]. Euskarri hauen artean, ordea, aurreneko biak nabarmendu behar dira, ikerlarien artean bi prozedura hauek izan baitira garapen eta arrakasta gehien erdietsi dutenak (ikusi 6.6 eta 6.6 Azpi-atalak). Teknika edo aplikazio bakoitzaren inguruan nonahi luze eta zabal irakurri daiteke [133, 197, 201, 202, 227–229].

Aurrera egin aurretik, ordea, *on-line SPE* terminologiaren inguruko ñabardura txiki bat egin beharra dago. Izan ere, terminologia honekin bibliografian nahasmen handia dago, ikerlari batzuk euskarri hauek guztiak *on-line SPE* prozedurak kontsideratzen dituzten bitartean, beste askok prozedura desberdinatzen baitituzte. Teknika bera ala desberdinak ote diren eztabaidatzea zilegi izanda ere, guztiak *switching*-balbulak erabilia laginaren tratamendua eta analisi kromatografikoa bat egiten dutela baieztatu daiteke. Horrela, bioanalisian erabiltzen diren beste bi *switching*-estrategia kromatografiko esanguratsuenen inguruko informazioa jarraian jaso dela adieraziz gero, batzuk eta besteak ados egongo direla adierazi daiteke.

### 6.6.6 RAM euskarriak

RAM materialak sistema kromatografikoan fluido biologikoen injekzio zuzena ahalbidetzen duten euskarriak dira. 1991ean Desilets *et al.*-ek teknika honen berri eman zutenean, [230] RAM izendapena erabiltzearekin batera sorbente hauek material bereziaz osatuta zeudela jabetu ziren. Izan ere, euskarri hauek pisu molekularren arabera bereizketan oinarrituz lagin biologikoa bi frakziotan banatzeko gaitasuna dutela ikusi zuten (proteina-matrizea batetik, eta analito frakzioa bestetik). Banaketa honen ondorioz biomolekula handien adsortzioa minimizatzen da, biomolekula hauek RAM euskarriaren kanpoko gainazalarekin bakarrik elkarekintzak baitituzte. [133]. Analito molekula txikiak, aldiz, partikulen barruko gainazalak zeharkatzeko eta gune adsorbatazailuetan erretentatzeko gai dira. Hori dela eta, proteina molekulak zutabetik barrena azkar pasatzen dira hondakineterako bidean, analito molekulak zutabe analitiko baterantz edo zuzenean detektagailurantz bideratzen diren bitartean.

Teknika honen oinarrian, bi fenomeno konbinatzen dira: batetik, makromolekulen tamainaren arabera bazterketa, eta bestetik, partizio bidez barrualdeko fasean gertatzen den molekula txikien erauzketa/aberastea. Matrize biologikoarekin harremanetan dagoen RAM partikulen kanpoaldeko gainazalak, proteinak eta azido nukleikoak bezalako partikula handien adsortzioa ekiditzeko kimika berezia erakusten du. Horrela, makromolekula hauen bazterketa, RAM partikularren gainazaleko poroen zehar ematen den muga fisikoaren bitartez edo RAM partikularren gainazalean ematen den difusio-muga kimikoaren bitartez eman daiteke.

Proteinak baztertze erabilitako mekanismoaren arabera, bi RAM prozedura desberdinatu daitezke: muga fisikoan oinarrituriko RAMa (alderantzizko fasea, alkyldiol-silikadun materiala edo estekatzaileekin konbinatuta dagoen silika produna) eta

muga kimikoan oinarrituriko RAMa (gainazal erdi-iragazkorra, proteinekin estalitako silika, material misto-funtzionalak edo fase hidrofobiko babestuek)<sup>8</sup> [231].




Figure 6.13: Irismen mugatuko euskarrien egitura eskemizatua. [220]-tik egokitua.

RAM euskarrien erabilerari dagokionez, bi modu nagusi nabarmendu behar dira. Gehienetan, aurre-zutabe gisa funtzionatuz, RAM zutabeak zutabe analitikoaren aurretik kokatzen dira, banaketa kromatografikoa baino lehen material proteini-koak elimintatzeko. Horrela, *clean-up* prozedura ematen denean, *switching*-balbula portuanitzaren bitartez, erretentituta geratzen ez diren makromolekulak hondakinetara bideratzen dira. Ondoren, *switching*-zirkuitoa egokituz, fase mugikorren konposizioa aldatzerakoan erretentituriko analitoak desorbatu eta zutabe analitikoantz bideratzen dira. Nolanahi ere, RAM zutabeak bakarka ere erabil daitezke laginaren *clean up*-a zein banaketa kromatografikoa burutzeko. Kasu batean zein bestean, RAM zutabeek bioanalisian duten eginkizun nagusia, *on-line clean-up* prozeduraren bitartez lagin-tratamendua azkartzea da [197, 220].

Aurrerago aipatu den bezala, teknika hau izendatzerako orduan nolabaiteko terminologia-nahasketa bat eman daiteke. Izan ere, hainbat ikerlarik RAM sorbentek SPE mota berezitat hartzen dutenez, prozedura honi erreferentzia egiteko *RAM-SPE* edota *on-line SPE* nomenklaturak erabiltzen dituzte [232]. Ondorioz, publikaturiko zenbait lanetan ez dago oso garbi zein den erabilitako teknika edo banaketarako elkarrekintza mekanismoa. Kasu hauetan atal esperimentalean zehazturiko zutabe motari kasu egin beharko zaio (fluxu-abiadurak, IDak, partikulen-tamaina eta batez ere, partikulen natura gertutik behatu beharko dira).

Aplikazio esparruari dagokionez, berriz, RAM euskarriak eremu askotan erabili badira ere, nagusiki fluido biologikoekin erabili izan dira. Plasma, seruma, gerrua eta odola dira gehienbat erabili izan diren matrizeak [202, 220, 231]. Nolanahi ere, ingurugiro-monitorizazioak burutzeko edota matrize ezberdinetan (ar-

<sup>8</sup>RAM euskarri mota desberdinen inguruko informazio osagarria Sadilek *et al.*-ek kaleraturiko lanean aurki daiteke [220].

doa, esnea, zukuak, etab.) buruturiko elikagaien analisiak ere nabarmendu daitezke [220, 221]. Halaber, beste teknikekin gertatu den bezala, RAM prozedurak kapilarizatzeke saiakerak ere plazaratu direla aipa daitezke [233, 234].

### 6.6.7 Fluxu-abiadura ultra-handiko kromatografia likidoa

Teorikoki teknika honen oinarriak 1960. hamarkadan postulatzen hasi baziren ere [235], prozedura hau ez zen laginen analisirako metodo azkar gisa erabiliko 1997ean Quinn-ek eta Takarewski-k (*Cohesive Technologies*, Franklin, AEB) fluxu zurrunbilotsuko kromatografia likidoaren berri eman zuten arte (*turbulent flow liquid chromatography*, TFC) [236]. Izenak ondo dioen bezala, HPLC tradizioaletan ematen den ohiko fluxu laminarra erabili beharrean, teknika hau fluxu zurrunbilotsuak eragiten dituen fenomenoetan oinarritzen da.


Baldintza zurrunbilotsuek masa transferentzia hobetzen dute, molekula guztien distribuzio erradiala hobetuz. Dena den, baldintza hauetan ere, fase geldikorraren inguruan baldintza laminarreko zonaldeak agertzen dira, eta bertan, masa transferentzia ematerakoan difusio indarrak nagusitzen dira.

Eskualde hauetan molekularen tamainean oinarrituriko bereizketa ematen da, molekula handiagoek denbora gehiago behar dutelarik gainazal muga hori difusio bidez zeharkatzeko. Fase mugikorraren abiadura linela egokia bada, makromolekulek ez dute denbora nahikorik molekula txikiek zeharkatzen duten gainazal muga hori igarotzeko. Ondorioz, fluxu zurrunbilotsuko baldintzetan plasma laginak zuzenean injektatzerakoan, partizio eta tamaina-exklusio kromatografiak konbinatuz tamaina txikiko molekulak fase geldikorreko partikulen poroetan adsortzioz erretentuta geratzen diren bitartean, tamaina handiko partikulak (adib. proteinak, gluzidoak, lipidoak, gatzak) fluxu-emariarekin batera aurrera egiten dute hondakineterako bidean (ikusi 6.14 Irudia) [223, 237].

Fluxu zurrunbilotsuko baldintzak erdiesteko, ID txikiko eta partikula porodun handiko zutabeak ( $ID \approx 0.5-1.0$  mm eta  $d_p \approx 25-60$   $\mu\text{m}$ ) fluxu-abiadura altuekin (2–6 mL/min) konbinatzen dira<sup>9</sup>. Erauzketa prozesuan fluxu-abiadurak handiak izan arren, partikulen tamaina handiari esker, zutabeen lan-presio moderatuak baino ez dira sorrarazten (tipikoki 700–1200 psi-koak, 50–85 bar). Gauzak horrela, prozedura hau HPLC sistema tradizionalekin erabat bateragarria dela esan daitezke [193, 238].

<sup>9</sup>Barne diametro txiki hauekin teknika honek erabiltzen duen fluxu-abiaduraren dimentsioaz jabetzeko, nahikoa da HPLC tradizioaletan erabiltzen diren ohiko IDEkin baliokidetasunak bilatzea: 3–5 mL/min (1.0 mm ID)  $\approx$  35 mL/min (4.6 mm ID).





Irudia 6.14: TFC euskarrien egitura eskemizatua. [239]-tik egokitua.

Zutabe hauek tamaina molekular handiko eta txikiko konposatuak bereizteko kapazak izan arren, erresoluzio kromatografiko mugatua erakusten dute. Horrela, *switching* teknikaren garapenari esker, gaur egun ohikoena da TFC zutabeari seriean zutabe analitikoa gehitzea, modu honetan erresoluzio altuko banaketak erdiesten baitira (ez da ahaztu behar hasiera batean, teknika hau zutabe bakarreko sistema gisa erabili zela) [223]. Halaber, adierazi beharra dago TFC prozeduretan masa espektrometroaren erabilera nahitaezkoa egiten dela (TFC aplikazio guztietan LC-MS edo LC-MS/MS instrumentazioa aplikatzen da).

Teknika hau azaltzeko erabili den “fluxu zurrumbilotsu” terminoa publikazio gehienetan onartzen den kontzeptua izan arren, bada izendapenarekin ados ez dagoenik, ikerlari batzuren ustez baldintza kromatografiko hauetan zurrumbilotsunik ez baita ematen (batzuen esanetan ematen dena besterik gabe fluxu laminarra da [240–242], besteen esanetan fluxu zurrumbilotsua erabatekoa da [243–252], beste batzuk, aldiz, fluxu zurrumbilotsua izan arren, tarte mixtoak ere badaudela edota bien arteko egoera ematen dela diote [223, 245])<sup>10</sup>.

Zentzu honetan eta interpretazio teorikoaren eraginez, askotan, teknika hau bera izendatzeko bestelako nomenklatura paralelo batzuk aurki daitezkeela aipatu daiteke, esaterako, zurrumbilotsun handiko kromatografia likidoa (*high turbulence liquid chromatography*, HTLC), fluxu zurrumbilotsu-laminarreko kromatografia (*turbulent-laminar flow chromatography*, TLFC), zurrumbilotsun handiko fluxua darabilen kromatografia likidoa (*High-Turbulence Flow Liquid Chromatography*, HTFLC), fluxu-abiadura ultra-handiko kromatografia likidoa (*ultra-high flow rate*

<sup>10</sup>Atal honen helburua analisi kromatografiko azkarrak burutzeko estrategia nagusiei errepaso orokorra egitea denez, teknika honetan ematen den fluxuaren inguruko eztabaidan sartzea gehiegi sakontzea delakoan, eztabaida teorikoa seinlatu bai baina bertan ez sartzea deliberatu da. Nahi izanez gero, seinalatutako lanetan gai honi buruz gehiago sakontzeko aukera dago.


*liquid chromatography*, UHFRLC), oso fluxu-abiadura handiko kromatografia likidoa (*very high flow rate liquid chromatography*, VHFRLC), fluxu handiko/injekzio-zuzeneko kromatografia likidoa (*high-flow direct-injection liquid chromatography*, HFDILC), *on-line* kromatografia likido zuzena (*direct on-line liquid chromatography*, DOLLC), fluxu-altuko bereizmen handiko kromatografia likidoa (*high-flow high performance liquid chromatography*) edota injekzio zuzeneko kromatografia likidoa (*direct-injection liquid chromatography*, DILC).

Zenbaitetan, nahasmena eragin lezaketen terminoak erabili izan dira, prozedura honetan *clean-up* prozedura *on-line* burutzen denez, *on-line SPE* edo *on-line SPE-MS* terminoak erabili izan baitira. Egokiagoa litzateke fluxu zurrumbilotsuko *on-line* erauzketa (*turbulent flow on-line extraction*) edo abiadura handiko *on-line* erauzketa (*fast-flow on-line extraction*) bezalakoak erabiltzea. Nolanahi ere, nomenklatura nahastura handi honen artean, onarpen handieneko izendapenak aurreneko biak liratekeela aipatu beharra dago (TFC eta HTLC, azken hau tenperatura altuko kromatografia likidoaren akronimoarekin bat ere datorrelarik).

TFC prozedura aplikatzeko askotan norberak etxean egindako instrumentazioa erabili izan bada ere, sistema komertzialik ere badela aipatu beharra dago (esaterako, *Thermo Fisher Scientific*-ren parte den *CohesiveTechnologies*-en *Transcend TLX* eta *LX* plataformak). Zutabe komertzialei dagokionez, kimika desberdinetako TFC zutabeak daudela aipa daiteke (silikadunak ala polimerikoak), aplikazio gehienetan *CohesiveTechnologies* (*TurboFlow: Cyclone* eta *Explorer*) edota *Waters Corporation* (*Oasis*) etxeetako produktuak erabiltzen direlarik.

TFC teknikaren aplikazio eremuari dagokionez, batipat biomolekulekin erabili izan dela nabarmendu beharra dago, hain zuzen medikamentuen aurkikuntzan, metabolitoen profila egiterakoan, farmakozinetika lanetan, monitorizazio klinikoan edota pestiziden eta zenbait antibiotikoren analisisetan ere [223, 253–257]. Gehienetan fluido biologikoetan erabili bada ere, uretan, ez-tian edota esnean ere TFC aplikazioak ezagutzen dira [200, 222] (aplikazio gehiago Xu, Mullett eta Souverain-en lan-bildumetan [202, 227, 231]). Zutabe analitiko konbentzionalekin konbinatzeaz gain, TFC zutabeak zutabe monolitikoekin [249, 258] edo 2  $\mu\text{m}$ -azpiko zutabeekin [259, 260] ere konbina daitezke.


Prozeduraren potentziala ikusita, bada sistema paraleloen bitartez dimentsio aniztasuna bilatu duenik. Izan ere, sarritan TFCa errendimendu handiko aplikazioetan ere erabili izan da (2D-TFC) [246, 248, 261–265].



Irudia 6.15: Lagin biologikoen determinazioa burutzeko RAM eta TFC (*large particles supports*, LPS) zutabe komertzial desberdinekin 2004 urtera arte publikaturiko lan kopurua [231].

**Produktibitatea areagotzeko teknikak** LC modu azkar desberdinen inguruko gain-begiratuarekin amaitzeko, errendimendu handiko beste hurbilketa batzuren inguruan aipamen txiki bat egitea komeni da. LC modu azkarrak hertsiki izan ez arren, lagin kopuru handia kolpean analizatzeko gai diren bestelako prozedura batzuk existitzen dira (analisi-denbora orokorra nabarmen murrizteko aproposak, beraz). LC-paraleloen erabilera (2D-LC edo kanal anizkoitzetako HPLC teknologia) hurbilketa hauetako bat da. Robotika mailan eman diren aurrerapausoen ondorioz, prozesu analitikoak azeleratzeko aproposak diren errendimendu handiko LC prozedura automatizatuak garatu dira [266, 267].

Sistema hauek ekipamendu mailan kapital inbertsio garrantzitsuak egitea eskatzen dute, esaterako: aparteko ponpa sistemak, autosanplerrak, software berriak edota MUX ihinztargailu interfaze anizkoitzak [268]. Guztiarekin ere, gaur egun merkatuan hainbat LC sistema paralelo komertzial aurki daitezke. Adibide moduan mikrolitrotako fluxu-abiaduretan diharduen *ExpressLC-800* sistema aipatu daiteke (*Eksigent Technologies*, Dublin, Irlanda). Sistema honek 8 HPLC metodo arteko erregistro paraleloa aldi berean burutzeko gaitasuna du. Elkarren artean erabat independente diren 8 kanalekin, sistema honek 8 gradiente desberdin batera erregistra ditzake. Sistema honen bitartez lagin errendimendua  $\times 10$  handitzen da disolbatzailearen hamarrena baino ez erabilita. Hurbilketa honen beste adibide komertziala *Sepmatix* (*Sepiatec*, Berlin, Alemania) LC sistema paraleloa litzateke. Kasu honetan aldi berean 8 lagin prozesu daitezke kanpoko HPLC-ponpa bat eta 8 kanal dituen diodo lerroen bidezko detektagailua erabilita.






Irudia 6.16: LC sistema paraleloa errendimendu handiko saiakuntzak bideratzeko oso aukera interesgarria da. Goiko irudian *Sepmatix* sistema (*Septeac*, Berlin, Alemania) eta bere barne eskema.

Lagin kopuru oso handiari aurre egin behar zaionean, hurbilketa hau interes handikoa suertatzen da (adib. ikerkuntza farmazeutikoa eta bioteknologikoaren esparru askotan). Kasu hauetan, HPLC sistema automatiko ugari paraleloan konektatzea bideraezina litzateke, oso garesti izateaz gain, espazio handia beharko litzatekeelako. Sistema bakar hauen bitartez, ekipoa erabiltzeko denbora/esfortzu asko eta mantenimendu kostu handiak aurresten dira.

Berrikiago, mikro-analisirako sistemek (*micro total-analysis systems*,  $\mu$ TAS) interes handia piztu dute, miniaturizazioaren bidez prozesuaren errendimendua handitze-ko gaitasunarekin batera, masa sentikortasun bikaina erakusten baitute. 1990ean azaltzen hasi zen kontzeptuak, gaur egun indar handia erdietsi du *lab-on-a-chip* (*LoC*) ikuspegiaren bitartez, miniaturazko dispositibo bakar batean laginketa, aurreprozesamendua eta neurketa aurrera eraman baitaitezke. Era askotako mikrotresna fabrikatu dira. Orokorrean instrumentazio estandarrarekin konparatuz, mikrotresnek lagin kantitate txikiak maneiatzeko bidea eskaintzen dute gehiegizko bolumen-hilak eragiten dituen interferentzia arazorik eman gabe. Edonola ere, mikrofluidika tresna gehienek presio atmosferikoan lan egiten dute. Momentuz, ez dago presio altuei eusteko kapaza den mikrotresnarik.

Assembling Layout of  $\mu$ -TAS



Irudia 6.17: Mikro-analisirako sistemen egituren adibideak.

## 6.7 LC modu ezberdinen arteko konparaketa laburra

Orain arte ikusi bezala, LCren produktibitatea areagotzeko teknika analitiko desberdinen artean hautua egin daiteke (ikusi 6.6 Atala). Hurbilketa bakoitzak ordea, baldintza esperimental jakin batzuk zorrozki errespetatu behar dituenek (adib. LC instrumentazioa, zutabearen geometria, fase geldikorraren izaera, analizatu beharreko nahasturaren konplexutasuna, beharrezkoa den erresoluzio maila, MS detektagailuaren beharra, tenperatura altuetan edo presio handiko baldintzetan zutabearen egonkortasuna edota tenperaturarekin analitoak degradatzeko aukera), inplizituki zenbait abantaila eta desabantaila erakusten ditu. Zentzu honetan, Guillarme *et al.*-ek 2010ean plazaraturiko lana gogora ekarri daiteke, bertan prozesu kromatografikoa azkartzeko teknika erabilien abantailak eta desabantailak oso modu grafikoan taularatu baitzituzten (Guillarmeren taldeak berak 2007an osaturiko taularen gaurkotzea litzateke; ikusi 6.7 Taula).

Taula 6.7: Zenbait hurbilketa kromatografiko azkarren arteko konparaketa kualitatiboa [66,269].

Hurbilketa	Abantailak	Mugak
<b>Monolitoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Lan-presioa ↓ (iragazkortasuna ↑)</li> <li>* Efizientzia ↑ lortzeko aukera (<math>L_{col} &gt; 1</math> m)</li> <li>* HPLC instrumentazioarekin bateragarria</li> <li>* Zenbait monolito eskuragarri: organikoak eta ez-organikoak</li> <li>* Geometria <math>\neq</math>-eko zutabeak eskuragarri (adib. 2.1 mm ID)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Presio (&gt;2.900 psi, &gt;200 bar) eta pH (2 &lt; pH &lt; 8) terminoetan, erresistentzia ↓-ko zutabeak</li> <li>* Metodo transferentzia zuzenik ez HPLC euskarri konbentzionalen eta monolitikoaren artean</li> <li>* Zutabe-kimika (C18, C18 elkargurutzatua, C8) eta hornitzaile ↓</li> <li>* ID handiko zutabeetan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Disolbatzaile kontsumo ↑</li> <li>- MSrekin <i>split</i>-banaketa</li> </ul> </li> </ul>

*Hurrengo orrian jarraitzen du*

Taula 6.7. Jarraipena.

Hurbilketa	Abantailak	Mugak
<b>HTLC</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Efizientzia ↑ lortzeko aukera (<math>L_{col} &gt; 1</math> m)</li> <li>* T: metodo garapenerako aldagai berria</li> <li>* Konposatu basikoen eta molekula handien (adib. proteinak) gailur-itxuraren hobekuntza</li> <li>* Kimika berdea: T altuetan modifikatzaile organikoaren kontsumoa ↓</li> <li>* UHPLCekin akoplatzeko aukera errendimendua hobetzeko (HT-UHPLC)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Instrumentazio bereziaren beharra (aurreberotze eta hozte sistemak + lan-presioaren erreguladorea)</li> <li>* Solutuen eta silikazko fase geldikorren egonkortasuna kritikoa izan daiteke <math>T &gt; 100^{\circ}\text{C}</math>-tan</li> <li>* Analisisien aurretik konposatuen egonkortasuna aztertzeko beharra</li> <li>* Metodo transferentzia zuzenik ez (T-rekin seliktibitate aldagetak)</li> </ul>
<b>&lt;2 <math>\mu\text{m}</math> partikulak (P&lt;4.000 psi)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Analisi-denbora murrizketa esanguratsua</li> <li>* Metodo transferentzia erraza</li> <li>* 2 <math>\mu\text{m}</math>-azpiko partikula komertzial ↑ eskuragarri (10 hornitzailetik gora)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* <math>d_p</math> txikiekin lan-presioa ↑</li> <li>* Efizientzia mugatua (zutabe txikien beharra)</li> <li>* HPLC instrumentuekin bateragarritasun mugatua (<math>\sigma_{ext}^2</math>)</li> </ul>
<b>UHPLC (P&gt;4.000 psi)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Analisi-denbora murrizketa ↑</li> <li>* Metodo transferentzia erraza HPLC eta UHPLC artean</li> <li>* Efizientzia ↑ lortzeko aukera (<math>L_{col} \geq 15</math> cm-rekin)</li> <li>* 2 <math>\mu\text{m}</math>-azpiko partikula komertzial ↑ eskuragarri (10 hornitzailetik gora)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Instrumentazio bereziaren beharra (<math>\sigma_{ext}^2</math> ↓, eskuratzeko abiadura ↑ eta injekzio azkarraren beharra)</li> <li>* Instrumentazioa eta kontsumagarrien kostua HPLC konbentzionalean baino handiagoak</li> <li>* <math>\Delta P = 15.000</math> psi-tan disolbatzailearen konprimagarritasuna eta marruskadura beroa gerta liteke</li> </ul>
<b>Fused-Core (SPP)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Poroetatik barrena molekula handien difusioa mugatzeko hurbilketa interesgarria</li> <li>* Paketatzearen kalitate bikaina (<math>h \approx 1.5</math>) beste material batzuekin konparatuz (<math>h \approx 2-2.5</math>)</li> <li>* HPLC eta UHPLC instrumentazioekin bateragarria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>* Zutabe-kimika (C18, C8 eta HILIC) eta hornitzaile ↓</li> <li>* HPLC konbentzionalean baino erretentzio eta kargatzeko edukiera ↓ (partikularen erdigunea ez-poroduna)</li> <li>* Presio (&lt;8.700 psi, &lt;600 bar) eta pH (2&lt;pH&lt;9) terminoetan, UHPLC baino erresistentzia ↓</li> </ul>

Hurbilketa bakoitzaren funtzionamenduaz eztabaidatu eta abantailak/ desabantailak aipatu ondoren, ahal den neurrian behintzat, interesgarria litzateke prozedura hauen arteko konparazioa jasotzea. Prozedura desberdinen arteko konparaketak egitea ordea, ez da horren sinplea, izan ere, parametro asko aldatzen baita prozedura batetik bestera. Tradizionalki, fase geldikor desberdinen arteko ezaugarri zinetikoak konparatzeko *van Deemter* kurbak ( $H$  vs.  $u$ ) eta *Knox* kurbak ( $h$  vs.  $v$ ) erabili izan dira, baina grafiko hauek zutabearen iragazkortasuna aintzat hartzen ez dutenez (erresistentzia efektuen berri ez dute ematen), gaur egun *Poppe* kurbak ere erabiltzen dira (*kinetic plots* bezala ere ezagunak; formulazio desberdinak garatu diren arren, *Poppe* kurba ohikoenak: modu isokratikorako,  $t_0/N^2$  vs.  $N$ ; eta modu gradienterako,  $t_{\text{grad}}/P_c$  vs.  $P_c$  formak hartzen dituzte), azken hauen bitartez, oso erraz bistaraten baita banaketaren efizientzia eta abiaduraren arteko konpromisoa [181].

Errepresentazio hauetan oinarrituz, prozedura kromatografiko desberdinen arteko konparaketa ugari plazaratu da [166, 168, 171, 174, 175, 181, 184, 270–274]. Dena den, bestelako konparaketa irizpide batzuk ere erabili dira, esaterako, aldagai kromatografikoak (zutabearen dimentsioak, fase mugikorraren izaera, fluxu-abiadura, erretentzio-denborak, analisi-denbora, sistemaren presioa, fase mugikorraren kontsumoa, zutabearen prezioa, zutabearen iraupen-bizitza, etab.) edota balidazio-parametroak (azaleren errepikakortasuna, erretentzio denboren errepikakortasuna, zehaztasuna, kalibratio-tarteak, korrelazio koefizienteak, LOD, LOQ, etab.) [135, 145, 153, 275].

Tamalez, 6.6 Atalean aztertutako metodo guztien arteko konparaketa lanik ez da publikatu, eta plazaraturiko lanen artean, gehienek, LC prozedura azkartzeko gai diren teknikak baino ez dituzte konparatzen, analisi metodo osoa (*clean-up* prozedura barne) azkartzeko teknikak analisi eremutik kanpo utziz. Hutsune hau nabarmena izanik ere, aipagarria da bakarrik LC prozedura azkartzeko gai diren teknikak konparatzen dituzten lan gehienek bi edo hiru metodo baino ez dituztela konparatzen [171, 275–280]. Horrela, orohar, konparaketa sakonak izan arren, lan hauek bere sakontasunean nahiko partzialak direla esan daiteke. Lan bakar batean LC prozedura (ala metodo analitiko osoa) azkartzeko teknika gehiagoren berri izan nahi bada, gainbegiratze-lan orokorragoetara jo beharra dago [8, 22, 133, 197, 201, 202, 220, 227, 228, 231, 281, 282]. Lan hauetan, gehien erabiltzen diren tekniken errepeaso eta eztabaida sakona aurki daiteke, maiz abantailak/desabantailak seinalatzen direlarik. Zoritxarrez, lan orokor hauetan prozedura desberdinen arteko konparaketik ez da egiten.



Azkenaldian ordea, LC prozedura azkartzeko gehien erabiltzen diren teknikak elkar-konparatzen dituzten lan interesgarri gutxi batzuk plazaratu berri dira [66, 269, 283, 284]. Horien artean, Guillarme *et al.*-ek plazaraturikoa nabarmendu beharra dago, bertan eluzio modua (isokratikoa/gradientea), analitoen tamaina (pisu molekular txikia, ertaina eta handia) eta LC prozedura azkartzeko teknika erabilienak (HPLC tradizionala  $>2\ \mu\text{m}$  eta  $<2\ \mu\text{m}$  partikuladun zutabeekin, monolitoak HPLCn, HTLC, UHPLC  $>2\ \mu\text{m}$  eta  $<2\ \mu\text{m}$  partikuladun zutabeekin, SPP zutabeak UHPLCn eta HT-UHPLC) elkar-konparatu baitzituzten [66]. Kasu honetan ere, ikerlari hauek diagrama zinetikoak erabili zituzten iragarpen ereduak proposatu eta konparaketak egiteko.

Ikerlan sakon honetan, aurretik egin diren beste ikerketa batzuetan frogatu den moduan, iragarpen-ereduetan erabilitako analitoen pisu molekularrek diagrama zinetikoen errepresentazioetan eragin handia dutela nabarmen ikusten da. Ondorio hau ez da gutxietsi daitekeen horietakoa, analioten tamainaren arabera teknika analitiko batzuk beste batzuk baino aproposagoak gerta bailitezke. Zentzu honetan beste autore batzuk ere seinlatu izan dute pisu molekular txikiko molekulak banatzeko UHPLC eta SPP teknologiak aproposagoak izan daitezkeen bitartean, pisu molekular handiagoko molekulatarako (adib. peptidoak), HTLC eta HT-UHPLC teknikak aproposagoak gerta daitezkeela [66, 285].

Eluzio moduei erreparatuz, modu isokratikoan eta gradientean atera daitezkeen ondorioak zertxobait desberdinak dira.

**Modu isokratikoa** Baldintza isokratikoetan molekula txikien lagin-errendimendua areagotzeko  $<2\ \mu\text{m}$ -zutabeak, tenperatura altuak edota porotasun handiko materiala (adib. monolitoak) aproposagoak liriateke (ikusi 6.18a Irudia), ondorio hauekin bat datozen lanak nonahi aurki daitezkeelarik [274, 277, 286, 287].

Aipagarria da **analitoen tamainarekin** batera **erretentzio-denborak** ere nabarmen hazten direla (ikusi 6.18b eta 6.18c Irudiak), molekula handiagoen difusio-koefizienteak txikiagoak izanik  $u_{opt}$ -en balioak ere txikiagotzen baitira [66]. Horrela, tamaina ertaineko eta handiko molekulentzat luzeagoak diren analisi-denborak azkartzeko, beste zenbait teknika aproposagoak liriateke de Villiers *et al.*-ek argitaratutakoarekin bat etorritik (UHPLC eta HT-UHPLC tamaina ertainekoentzat, eta tamaina handikoentzat, HTLC eta HT-UHPLC; ikusi 6.18b eta 6.18c Irudiak) [288]. Modu berean, ikerlari hauek ondorioztatu zuten **analitoen tamainarekin** analisisen **efizientzia** ere hazi egiten dela. Horrela, molekula txikiekin ez bezala, tamaina erdiko molekulen efizientzia maximoa erdiesteko UHPLCn HTLC, SPP eta monolitoen

parekoa dela kontsidera litekeen bitartean, tamaina handiko analitoena tenperaturrekin nabarmen areagotuko litzateke.




Figura 6.18: Baldintza isokratikoak erabilia, LC estrategia desberdinen arteko konparaketa, erresoluzio eta analisi-abiadura (lagin kopurua) terminoetan. Erresoluzio ahalmena estimatzeko, X ardatzean, denbora-hila 30 minututan finkatuz ( $k = 5$  den konposaturako, gutxi gora-behera 3 orduko analisi denborarekiko baliokidea dena) teknika bakoitzak erdietsi dezakeen efizientzia maximoa ( $N_{30 \text{ min}}$ ) jaso da. Errendimendua edo analisi-abiadura estimatzeko, berriz, Y ardatzean, 10.000 platerretako efizientzia eragiteko beharrezkoa den denbora-hila ( $t_{10.000}$ ) neurtu da. Analitoen tamainak izan lezakeen eragina baloratzeko, tamaina desberdineko analitoak erabili dira. Irudiotan, tamaina txikiko (Butilparaben, PM=200 amu), ertaineko (Rutin, PM=600 mau) eta handiko (Triptorelina, PM=1.300 mau) analito ereduak jaso dira. Irudi hauek osatzeko, autoreek grafiko-zinetikoen metodologia erabili dute, teknika bakoitzerako presio-muga jakin bat finkatu dutelarik (monolitoentzat 2.900 .psi; >2 µm eta <2 µm partikuladun zutabeak HPLC tradizionala eta HTLCarentzat 3.800 psi; SPP partikulentzat 8.700 psi; eta >2 µm eta <2 µm partikuladun zutabeak UHPLC eta HT-UHPLCarentzat 15.000 psi). [66]-tik egokitua.

Orokortuz, Guillarme *et al.*-ek seinalatu zuten banaketa isokratikoen errendimendua eta efizientzia maximizatzeko, tenperatura eta sistemaren presio maximoa ahal beste igoarazi beharko lirakeela, biak ala biak, plater kopurua, errendimendua eta sentikortasuna areagotzeko onuragarriak baitira [82].


**Modu gradientea** Molekula txikien kasuan, errendimendu kromatografikoa, orokorrean, baldintza isokratikoetan lorturikoaren parekoa dela esan daiteke. Salbuespena UHPLC eta HT-UHPLC prozedurak lirakeke, bi hauek gradiente moduan erresoluzio-maila nabarmen altuagoak erakusten baitituzte. Dena den, molekula txikien analisisen erresoluzioa zein errendimendua maximizatzeko UHPLC eta SPP teknologiak oso erakargarriak direla esan daiteke (ikusi 6.19a Irudia), adierazpen hauekin bat datozen lanak nonahi aurki daitezkeelarik [184,277,286,287,289]. Aukeraturiko teknika edozein dela ere, **tenperatura** altuagoek gradientearen errendimendua hobetuko dutela ondoriozta daiteke.

Temperaturaren eraginaren inguruan ez ezik, ikerlari talde batek baino gehiagok **fluxu-abiaduraren** inguruan ere adierazpen interesgarriak plazaratu izan ditu, izan ere, modu isokratikoan efizientzia maximoa erdiesteko  $u_{opt}$ -tik gertu lan egitea komeni dela dioten bitartean, gradiente moduan gailur-educiera maximoa lortzeko oraindik fluxu-abiadura handiagoetan aritzea komeni dela baitiote [30,66,290,291]. Azken batean, analito handiek difusio-koefiziente txikiagoak agertzen dituztenez eta iraupen luzeko gradienteen kasuan luzera handiko zutabeak erabiltzen direnez (fluxu-abiadura motelagoak), praktikan zutabe luzeago hauek  $u_{opt}$ -tik gertu lan egiten dute. Honi guztiari, analitoen tamainarekin gailur-educiera hazi egiten dela gehitu beharra dago.


Tenperatura eta presio altuagoak konbinatuz, 6.19c Irudian ikus daitekeen bezala, tamaina handiko molekulen analisisirako teknika guztien artean emaitzik txukunena HT-UHPLCaren bitartez erdietsiko lirakeke. Analisi-abiadura eta banaketa terminoetan lagin oso konplexuen azterketarako prozedurarik aproposena dirudien arren, peptidoen analisisetan HT-UHPLCa ez omen da oraindik ere erabili nariadura termikoaren beldur.

**Konparaketaren Ondorioak** Konparaketa hauei guztiei erreparatu ondoren eta LC tekniken aproposena proposatzeko unea iritsita, Guillarme *et al.*-ek bezala beste ikerlari askok ere, antzerako irizpideak mahaigaineratzen dituzte. Izan ere, batzuk eta besteek errendimendu zinetikoaz haratago begiratu beharra dagoela insistitzen dute. Sistema kromatografiko berezia behar ote den aztertu beharko da, zutabearen kimika eta hornitzaile desberdinen eskuragarritasuna nolakoa den ikusi


beharko da, muturreko baldintzetan zutabearen bizitza-iraupena zenbatekoa den ikertu beharko da, narriadura termikorako arriskua ba ote den edota norberak dituen HPLC metodoak teknika berri horretara transferitzeko erraztasuna ere baloratu beharko da.



(a) Pisu molekular txikiko Butilparaben farmakoa (PM=200 mau).



(b) Pisu molekular ertaineko Rutin produktu naturala (PM=600 mau).



(c) Pisu molekular handiko Triptorelina peptidoa (PM=1.300 mau).

Figura 6.19: Gradiente baldintzak erabilia, LC estrategia desberdinen arteko konparaketa, banaketa-ahalmena eta analisi-abiadura (lagin kopurua) terminoetan. Banaketa-ahalmena estimatzeko, X ardatzean, 3 odutako gradiente aplikatzerakoan teknika bakoitzak erdietsi dezakeen gailur-educiera maximoa ( $P_{c_{3h}}$ ) jaso da. Errendimendua edo analisi-abiadura estimatzeko, berriz, Y ardatzean, 100eko gailur-educiera kopurua erdiesteko beharrezkoa den gradiente-denbora ( $t_{100}$ ) neurtu da. Analitoen tamainak izan lezakeen eragina baloratzeko, tamaina desberdineko analitoak erabili dira. Irudiotan, tamaina txikiko (Butilparaben, PM=200 mau), ertaineko (Rutin, PM=600 mau) eta handiko (Triptorelina, PM=1.300 mau) analito ereduak jaso dira. Irudi hauek osatzeko, autoreek grafiko-zinetikoen metodologia erabili dute, teknika bakoitzerako presio-muga jakin bat finkatu dutelarik (monolitoentzat 2.900 psi;  $>2\mu\text{m}$  eta  $<2\mu\text{m}$  partikuladun zutabeak HPLC tradizionala eta HTLCarentzat 3.800 psi; zorrodun partikulentzat 8.700 psi; eta  $>2\mu\text{m}$  eta  $<2\mu\text{m}$  partikuladun zutabeak UHPLC eta HT-UHPLCarentzat 15.000 psi). [66]-tik egokitua.

HT-UHPLCaren potentziala handia den arren, beste estrategien aldean bere erabilera kritikoa izanik (partikula txikiak, presio ultra-handiak eta tenperatura handiak konbinatzen ditu), bere interes erreala kritikoki ikertu beharko litzatekeela seinatzen dute. Halaber, prozedurarik egokiena aukeratzeko orduan, zutabearen luzera eta erabili beharreko fase mugikorraren fluxu-abiadura ere baloratu beharko litzatekeela diote, aldagai garrantzitsuak baitira biak ala biak.

Irizpide hauek guztiak aintzat hartuta, azkenaldian ikerlari batek baino gehiagok ere adierazi izan du <3 µm-ko SPP partikulak UHPLC edo HT-UHPLCaren alternatiba interesgarria izan litekeela [66, 132, 175, 178, 276]. Izan ere, *fused-core* zutabeen errendimendu kromatografikoa oso ona da eta HT-UHPLCaren prestazioak gainditu litzakete etorkizunean era honetako zutabe belaunaldi berri batek tenperatura altuak (90°C arte) eta presio handiak (15.000 psi edo 1.000 bar) eusteko kapazak izango balira.

Zentzu honetan ulertu beharra dago 2010eko 35<sup>th</sup> *International Symposium on High Performance Liquid Phase Separations and Related Techniques* delako nazioarteko kongresuan (*HPLC 2010* bezala ere ezaguna dena) SPP partikulek pizturiko interesa, izan ere, jardunaldietako *hot topic*-etako bat kontsideratu izan baitzen. Printzipioz, UHPLC instrumentazioa jada bereganatu duten laborategiek SPP zutabeek erakusten dituzten presio-muga baxuagoekiko interes berezirik izango ez balute ere, konplexutasun handiko banaketei aurre egiteko zutabe luzeak eta plater teoriko maila oso handiak behar beharrezkoak direla aintzat hartu beharra dago. Ondorioz, presioaren auzia beti presente eduki beharreko kontua da, eta honetan, egun akaso ez, baina etorkizun hurbil batean SPP partikulek zer esan handia izan lezakete [132, 292].

Gogoeta interesgarri hauekin prozedura azkarren arteko konparaketa saiakera honi amaiera eman aurretik, azken nabardura bat gehitu beharra dago. Izan ere, orain artekoan LCren produktibitatea areagotzeko prozeduren arteko konparaketari baino ez baitzaio erreparatu. Ezin ahaztu ordea bioanaliari begira ere, metodo analitiko osoa (*clean-up* prozedura barne) azkartzeko gaitasuna duten estrategia desberdinen arteko konparaketa. Gainbegiratze lanetatik haratago, konparaketan gutxi argitaratu denez, ezin izan da hausnarketa sakonegirik jaso. Plazaturiko lanen artean, Berna *et al.*-ek 2004ean ezagutzera emandako lana gogora ekarri beharra dago (ikusi 6.8 Taula) [197]. Honakoa ekarpen interesgarria izan arren, gaurkotasan gehiagoko lanen beharra agerikoa da, are gehiago 2004ean aurreneko UHPLC komertzialak agertu zirenetik teknika honek, beste askok bezala (SPP, HTLC, HT-UHPLC, etab.) bilakaera teknologiko izugarria ezagutu dutenean. Gabezia hau prozedura hauek laborategietan duten erabileraren adierazle gisa interpreta liteke.

**Taula 6.8:** Prozedura analitiko osoa (*clean-up* prozedura barne) azkartzeko teknika desberdinen arteko konparaketa taula. Errendimendu kromatografikoa aztergai, konparaketa kualitatiboaren terminoak: txarra < eskasa < ona < bikaina. [197]-tik egokitua.

Teknika	Metodoaren garapena	Sendotasuna	Iraupen zikloa	Lagin-prestaketa	Errendimendu orokorra
fluxu-abiadura altuak <sup>1</sup>	ona	bikaina	ona	eskasa	ona
Gradiente azkarrak <sup>1</sup>	bikaina	bikaina	ona	eskasa	ona
<i>on-line SPE</i>	ona	ona	eskasa	ona	ona
TFC	ona	eskasa	bikaina	bikaina	bikaina
Aurre-zutabe monolitikoak <sup>1</sup>	ona	eskasa	bikaina	bikaina	bikaina
RAM	ona	txarra	txarra	bikaina	eskasa

<sup>1</sup>Normalean ez du *switching*-aren beharrik izaten.

## 6.8 LC teknika azkarren arrakasta praktikoa.

### Publikazio-indizeak

Ez da erraza 6.7 Ataleko konparaketaren ondotik 6.6 Atalean deskribaturiko prozedura azkar ezberdinen artean estrategia bat bereziki nabarmentzea, metodo bakoitzak nork bere espezifikazio zein abantaila/desabantaila bereziak eta propioak agertzen baititu. Hala eta guztiz ere, hurbilketa desberdinak gainbegiratu ondoren eta euren arteko konparaketa jaso eta gero, maila praktikoan teknika bakoitzak erdietsi duen arrakastaren inguruan hausnarketa egitea egokia litzateke. Azken batean, laborategi analitikoetan estrategia desberdinek ezagutu duten onespren praktikokoaren berri izateak, etorkizunean prozedura bakoitzak izan dezakeen bilakaera iragartzeko baliagarria izatearekin batera, gaur geroan zein joera analitiko nagusituko den sumatzeko baliagarria gerta bailiteke. Teknika desberdinen inguruko balorazio integrala osatze aldera ekarpen interesgarria litzateke beraz, prozedura bakoitza erabilia plazaratu diren lan zientifikoaren kopuruaren bilakaera jasotzea.


Ikerkuntza laborategietan teknika desberdinek izan duten onespen maila baloratu ahal izateko, nahikoa izan daiteke azken hamarkadako datuei errepasso egitea. 2000–2011 denbora-tartean prozedura bakoitzak izan duen bilakaera jasotzeko ahaleginetan, urtez urte argitalpen indizeen datu estatistikoak 6.20, 6.21, eta 6.22 Irudietan bildu dira.

Bildutako datuak oso esanguratsuak dira. 6.20 eta 6.22 Irudietan ikus daitekeen bezala, 2004ean komertzializatzen hasi zenetik UHPLC sistemaren erabilerak bilakaera esponentziala ezagutu du, etengabe hazi baita urtez urte teknika hau erabilia publikaturiko lan zientifikoaren kopurua. Halaber, SPP partikulen bilakaera hazkorra nabarmendu daiteke, publikaturiko artikuluko kopuruaren aldetik UHPLCaren alde izugarri handia izanda ere. Era berean, indikatzaile honen bitartez teknika batzuren progresioa nabarmen moteldu dela ikus daitekeen bitartean (adib. monolitoak eta LC–paraleloak), beste teknika batzuren arrakasta falta azpimarra daiteke (adib. HTLC, HT-UHPLC, perfusio kromatografia edota TFC).


Argitaratutako artikuluko kopuruaz gain, teknika baten arrakasta neurtzeko beste indikatzaile esanguratsurik ere badago, esaterako, teknika hori bera beste artikuluko batzuetan zitatua izan den kopurua (zitazio-indizea). Zentzu honetan, 6.21 Irudiak datu interesgarriak erakusten ditu. Indikatzaile honen arabera ere, UHPLCaren nagusitasuna agerikoa da (urtean 4.000 zitaziotik gora). SPP partikulek erakusten duten zitazio-indizea oso txikia den arren (urtean 400 zitazio), azken bi urteetan ezagutu duen progresioa oso handia denez, datozen urteetan gertutik jarraitu beharko litzatekeen teknika bat da. Zutabe monolitiko, *on-line* SPE eta sistema paraleloen zitazio-datuak teknika hauen gaurkotasuna erakusten dute, zitazio-maila altua gordetzen dute eta. Adierazgarria da HTLC eta HT-UHPLCaren bilakaera grafikoen mahaigaineratzen duten informazioa, erakusten duten erabileraren praktiko urria izanagatik ere, zitazio ugari agertzen baitituzte.

Aurkezturiko datu hauen inguruan hausnarketa interesgarri ugari egin badaitezke ere, gutzien gainetik UHPLCaren ingurukoak nabarmentzen dira. Bistakoa da 2004tik gaur bitartean teknika honek ezagutu duen progresioa. Ikerkuntza laborategien artean UHPLCaren arrakasta ezberrik gabekoa dela adierazi daiteke. Aurreneko UHPLC instrumentu komertzialak plazaratu zirenetik 7 urte luze igaro direnean, argi esan daiteke teknika hau marketin-produktu bat izatetik errealitate egiaztagarri arrakastatsua izatera iritsi dela.


(a) Zutabe Monolitikoak (652).




(b) Perfusio Kromatografia (47).





(d) HTLC (225).





(e) UHPLC (1898).




(f) HT-UHPLC (42).

(g) SPP (*Fused-Core*) (102).


(h) RAM (202).

(i) *On-line* SPE (896).

(j) TFC (123).




(k) LC-Paraleloak (747).




Irudia 6.20: Azken hamarkadan (2000–2011) analisi azkarrak lortzeko prozedura kromatografiko esanguratsuenen bilakaera bibliografikoa, teknika bakoitzarekin plazaraturiko artikuluko zientifikoko kopurua erreferentzia hartuta. Parentesien artean, teknika bakoitzarentzat aurkituriko bilaketa kopuru orokorra. Iturria: *ISI Web of Knowledge* v.4.10 (Thomson Reuters, New York, AEB); Aintzat hartutako datu-baseak: *Science Citation Index Expanded (SCI-EXPANDED)* eta *Conference Proceedings Citation Index- Science (CPCI-S)*. Informazioaren eskuratze-data: 2011ko apirilaren 4a. Bilaketa-terminoak **3. Eranskinean** bildu dira.




(a) Zutabe Monolitikoak (8.597).




(b) Perfusio Kromatografia (455).





(d) HTLC (2.478).




(e) UHPLC (12.120).




(f) HT-UHPLC (527).

(g) SPP (*Fused-Core*) (955).


(h) RAM (3.839).




(i) On-line SPE (11.730).




(j) TFC (2.237).



(k) LC-Paraleloak (12.098).




Irudia 6.21: Azken hamarkadan (2000–2011) analisi azkarrak lortzeko prozedura kromatografiko esanguratsuenen bilakaera bibliografikoa, teknika bakoitza aldizkari zientifikoetan zitatua izan den maiztasuna erreferentzia hartuta. Parentesien artean, teknika bakoitza erreferentziatua izan den kopuru orokorra. Iturria: *ISI Web of Knowledge* v.4.10 (Thomson Reuters, New York, AEB); Aintzat hartutako datu-baseak: *Science Citation Index Expanded (SCI-EXPANDED)* eta *Conference Proceedings Citation Index- Science (CPCI-S)*. Informazioaren eskuratze-data: 2011ko apirilaren 4a. Bilaketa-terminoak **3. Eranskinean** bildu dira.



(a) 2000–2011.

**Publikaturiko Artikulu Kopurua (2000-2011)**



(b) 2000–2011.

Figura 6.22: Análisi azkarrak lortzeko prozedura kromatografiko esanguratsuenen bilakaera bibliografikoa, azken hamarkadan (2000–2011) teknika hauek erabiltuta argitaratutako artikulu zientzifiko kopurua erreferentzia hartuta. Iturria: ISI Web of Knowledge v.4.10 (Thomson Reuters, New York, AEB); Aintzat hartutako datu-baseak: Science Citation Index Expanded (SCI-EXPANDED) eta Conference Proceedings Citation Index- Science (CPCI-S). Informazioaren eskuratze-data: 2011ko apirilaren 4a. Bilaketa-terminoak **3. Eranskinean** bildu dira.

Teknika asko ezagutzera ematen direnean, instrumentazio horren jabe diren enpresek, eta ondorioz patentearen jabe ere direnak, marketin kanpaina logiko baten barruan teknika hori bera loratzeari ekiten diote, bere egokitasuna goraiatzera-koan praktikotasun erreala desitxuraturaz. Laborategiek agertuko duten interesaren araberakoa izango da teknikaren arrakasta, eta ez egindako marketin kanpainaren araberakoa. UHPLCaren kasuan, marketin kanpaina oso indartsua alde badu ere, irudiotan erakutsitako datuek agerian uzten dute UHPLCa ondo ezarritako teknika bat dela, oinarri sendoak dituela. Aldizkari zientifikoetan argitaraturiko artikulu kopuru izugarri handiak nabarmen erakusten du teknikaren arrakasta erabat erreala eta objektiboa dela.

Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago era honetako interpretazioak nagusiki ikerkuntza laborategietatik ateratako ondorioetan oinarritzen direla. Industria-esparruan era honetako jarraipen zehatzik egitea askoz zailagoa da, normalean sektore honek aldizkari espezializatueta ez baitu erabilitako prozeduren berri ematen. Dena den, esparru honetan joera nagusiak zertan diren antzemateko, teknika kromatografikoen salmenta-merkatuari arreta jarri beharko litzaioke.

Agerkari zientifiko-digitaletan informazio mota honen inguruko berririk aurkitzea ez da batere erraza, izan ere, informazio gehiena, zuzenean UHPLCaren merkatuaren ingurukoa baita, hau omen baita merkatu itxaropen interesgarriena erakusten duen teknika kromatografikoa. Datu hau ez da arritzekoa, 2008ko irailean *Strategic Directions International, Inc.* enpresak (SDI, Los Angeles, AEB) osaturiko “*Global assessment report: The laboratory life science & Analytical instrument industry, 2007-2012*” txosteneko aurreikuspenen arabera 2012rako UHPLCaren merkatua instrumentu analitikoaren salmenten %19ra iristea espero baitzen, mundu mailako krisi ekonomiko bortitzean bete-betean murgilduta aurkitu arren [293].

2010eko irailean berriz, SDI enpresak osaturiko “*Ultra HPLC: Accelerating Technology Diffusion*” txostenean urte bete lehenago egindako iragarpenetan berretsi zen, UHPLC merkatuaren hazkunde azkarra nabarmentzen baitzuen [294]. Hazkunde honen faktore bultzatzaileen artean, besteak beste, zutabeen kimikaren hedapena eta 2 zein 3  $\mu\text{m}$ -azpiko zutabeen eta SPP partikulen hedapena aipatzen zituen. Dena den, bestelako aldagai batzuk ere seinalatzen zituen, esaterako, testuinguru internazionala. Izan ere, nazioarteko krisi ekonomikoarekin batera (2008–2011, gaur arte luzatzen dena), enpresen lehiakortasunean eragin zuzena izan duen produktu kimikoen kostuen igoera ere eman da.

Bereziki aipagarria da AZNaren kasua, arrazoi desberdinengatik 2008–2009ean erreaktibo analitiko honen produkzioa izugarri gutxitu zenean, mundu mailako la-

borategi analitikoaren AZN erreserbak kolokan egon baitziren [295, 296]. AZN krisi nabarmena eman zen. Eskasia honen ondorioz AZNren prezioa ederki igo zen, produktu honen erabiltzaile nagusienak diren laborategi analitikoaren kostuak izugarri hazi zirelarik. Izan ere, zenbait kasutan AZNaren prezioa 2008ko udan ordaindutakoa baino 6–8 bider gehiago garestitu zen.

Egoera honen aurrean, LC hornitzaile ezberdinek estrategia desberdinak proposatu zituzten, nork bere egoera propiotik abiatuz aukerarik egokienaren alde egin zezan. Proposaturiko aterabideen artean hurrengo hauek aipa daitezke: (a) partikula txikiek in pakaturiko zutabe laburrago eta estuagoen erabilera (HPLC konbentzionalekin konparatuz, gastaturiko disolbatzaile kopurua %10 murrizten da); (b) disolbatzaile alternatiboen erabilera (adib. MeOH; eluitzailearen ezaugarriak desberdinak izanik, selektibitate aldaketak gertatuko dira); edo (d), fase mugikor gutxiago kontsumitzen duten UHPLC sistemen inplementazioa HPLC sistema konbentzionalak ordezkatzuz (epe motzean diru-inbertsioa eskatu arren, epe ertain-luzera errentagarri bihurtuko dena). Edozein estrategia aukeratuta ere, bezeroek euren metodoak berbalidatzeko beharra zuten, UHPLC hornitzaileak abagune interesgarri baten aurrean aurkitu ziren. HPLC sistema konbentzionalak baino %95 disolbatzaile gutxiago kontsumitzen duenez eta berbalidazio prozesuak UHPLC bidez ere askoz azkarragoak direnez (estimazioen arabera analisi-denbora 5–7 bider laburtzen da [297]), pentsa liteke teknologia honek hedapen handia ezagutuko zuela.

UHPLCren bilakaera ekonomikoaren abantzia ikusita, ikerkuntza laborategietan ematen ari den joera industria esparruan ere errepika daitekeela pentsa liteke, bilakaera hau modu askoz motelagoan emango bada ere. Zentzu honetan, eta estimazio batzuren arabera, industrian aurki daitezkeen LC sistemen %10 baino ez da UHPLC instrumentazioa [298]. Eta disolbatzaileen kontsumoa murrizte aldera zutabeen IDak txikitze joera areagotuz doan arren, alde nabarmenagatik gainera, hedatuen dauden zutabe tamainak oraindik ere 4 edo 4.6 mm IDkoak dira. Halaber, UHPLCaren garapenean 2  $\mu$ m-azpiko zutabeen eragina lehen ordenekoa den arren, urte luzetako metodo-garapen eta balidazio-eskakizunen ondorioz, partikula-tamainarik ohikoena 5  $\mu$ m-koa dela adierazi beharra dago. Industrian beraz, UHPLCaren hedapena askoz mantsoago ematen ari da.

UHPLCaren inplementazioa analisi kliniko zein elikagai/ingurugiro laborategietan motelagoa izaten ari da, lan-esparru hauek HPLC tradizionalakiko fideltasunari eusten baitiote [295]. Erregulaturiko esparruetan ere UHPLCaren inplementazioa motelagoa izaten ari da, besteak beste, balidaturiko prozedura bat HPLCtik UHPLCra transferentzerakoan, dagokion agentzia arautzaileak prozeduraren berbalidazioa exijitu baitezake parametroren bat ezarritako mugetatik kanpo geratuko

balitz (adib. partikularen tamaina, zutabearen luzera, tenperatura, fluxu-abiadura edota IDa). Zentzu honetan, nabarmendu beharra dago askotan aldagai mugatzailerik zutabearen IDa izan ohi dela, 4.6 mm IDtik (HPLCn erabilitako neurri estandarra) 2.1 mm IDrako (UHPLCn erabili ohi den neurria) neurri aldaketa, maiz agentzia aurautzaileek onartutako mugak gainditzen baititu. Dena den, UHPLC teknologia-aren eboluzioa etengabekoa izanik eta industria esparru zabalagoetara hedatzen ari dela ikusita, pentsatzekoa da HPLC eta UHPLC metodologiak prozedura fisiko-kimiko berdinetan oinarritzen direnez, aldaberatasun geometrikoa kontsideratuz era honetako berbalidazio arazoak bideratuko direla.

Teknologia berri honen alde ez egiteko aurki daitezkeen arrazoen artean, UHPLC instrumentazioaren prezioa nabarmendu daiteke, orohar, HPLCrena baino %20–40 garestiagoa baita. Dena den, produktibitateari begira, HPLC asko dauzkaten laborategientzat UHPLC oso aukera interesgarria izan daiteke, UHPLC bakar batek 2 edo 3 HPLC ere ordezkatu bailitzake. Alabaina, kasu hauetan baloratu beharko litzateke matxura batek eragin litzakeen ondorioak. Edonola ere, UHPLC sistemen prezioa garestiagoa izan arren produktu honek erakusten dituen abantailak erreparatuz (produktibitatearen areagotzea, disolbatzaileen murrizketa, ondakinak kudeaketan ematen den aurrezteak, espazio fisiko gehiago, etab.) arrazoizko prezioa izan dezakeela pentsa liteke, are gehiago kalitate altuko analisi-datuak beharrezkoak direnean (esaterako sentikortasuna, erresoluzioa eta azkartasuna bezalako ezaugarriak exijitzen dituzten produktu farmazeutikoen kalitate-kontrolan, pestiziden neurketa elikagaietan edota krimen eszenatokitako frogan analisisietan).

UHPLCrikiko errezeloak dituzten artean HPLCtik UHPLCrako metodo-transferentziarekin erlazionaturiko arazoak aipatu izan dira, garai batean HPLCn erabilitako 5  $\mu\text{m}$ -ko zutabeen kimikaren baliokiderik ez baitzegoen UHPLCko 2  $\mu\text{m}$ -azpiko zutabeen artean. Gaur egun, berriz, 2  $\mu\text{m}$ -azpiko zutabeen eskaintza zabala izanik, 5  $\mu\text{m}$ -ko zutabeen kimika bereko 2  $\mu\text{m}$ -azpiko zutabeak aurkitzeko ez dago inongo arazorik.

UHPLCra ez pasatzeko nahi beste arrazoi aurki daitezke, are gehiago laborategian jada lanean dabilen HPLC tradizionalarekin lorturiko emaitzak egokiak eta aproposak direnean. Alabaina, etorkizunean laborategian instrumentazio berria inplementatzerako orduan UHPLC-instrumentazioa txertatzea geroz eta normalagoa izango dela ematen du. UHPLCrako trantsizioa beraz, HPLC instrumentazioa matxuratuz edota zaharkitua geratzearekin batera emango da. Izan ere, 2004tik <2  $\mu\text{m}$  aplikazioetara eskusiboki bideratuta dagoen LC instrumentazioa geroz eta ugariagoa da, besteak beste, UHPLCaren hazkundea urtez urte % 10–18koa ari baita izaten [295]. Zentzu honetan oso adierazgarria da LC fabrikatzaile nagusien jarrera, gehien gehienek UHPLC instrumentazio motaren bat eskaintzen baitute,

merkatuak teknologia honen alde egin duelaren seinale garbi gisa (*Waters, Agilent, Thermo Fisher, Jasco, Shimadzu, Hitachi, Scientific Systems, Dionex, Knauer*, edota *Perkin Elmer*; ikusi 6.11 Atala).


Ikerkuntza laborategiek UHPLCren alde egin duten modu berean industriak ere UHPLCaren alde egingo badu, masa espektrometria garatu zenetik LC mailan inoiz eman den aurrerapauso teknologikorik handiena emango da. Iraultza teknologikorako osagaiak mahai gainean daude, horretarako teknologia garatu da. Erabiltzea baino ez da falta, jautzia ematea.

Fenomeno honen garrantziaz jabetuta, interesgarria litzateke UHPLCren inguruko ezaugarriak, bilakaera, eskaintza eta aplikazioak xehetasun handiagoarekin aztertzea. Horrela, datozen ataletan teknika honi jarraipen espezifikoa egingo zaio, UHPLCren inguruko nabardurak baino ez baitira jasoko.

## 6.9 UHPLC zutabe paketatzeen garapena

UHPLC prozedurak erakusten duen etorkizun ekonomiko interesgarriaren aurrean, HPLCren salmenta-munduan lan egiten duten etxe komertzial desberdinek UHPLC industriaren aldeko apustu garbia egin dute, portzentai handi batean euren Ikerketa eta Garapen departamentuak (I+G) teknologia berri honetarantz bideratuz. Aurrerapenak ikusgarriak izan dira. Iraultza teknologiko honek banaketa kromatografikoaren muina den zutabe kromatografikoaren bilakaeran ere islada zuzena izan du.

6.5 Atalean nabarmendu den bezala, 2  $\mu\text{m}$ -azpiko partikulek erakusten duten desabantalarik handiena eragiten duten gainpresio altuarena da. 1997ean arazo hau ikerkuntza laborategietan instrumentazio espezifikoa erabilita gainditzen hasi bazen ere, 2  $\mu\text{m}$ -azpiko paketatze materialekiko interesa ez zen piztuko 2004era arte, hain zuzen UHPLC instrumentazio komertziala plazaratzen hasi zenenan. Harrezkero paketatze materialek aurrerapen teknologiko nabarmena ezagutu dute. Aniztasun aldetik ere, gaur egun era honetako materialaren esakintza zabala izatera iritsi da, 25 zutabegile baino gehiagok UHPLC zutabeak merkaturatzen dituztelarik.



Irudia 6.23:  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikulen garapenak eta UHPLC instrumentazioaren bilakaerak oso erlazio estua gordetzen dute. Azpiko irudian, eskala berdina erabiliz eta gizaki-ilea erreferentziatzat hartuta ( $60\ \mu\text{m}$ ), tamainaren araberako konparaketa: ezkerrean,  $5\ \mu\text{m}$ -ko HPLC partikulak (ilearen diametroa hartuta, 12 ale sartzen dira); eskubialdean,  $1.7\ \mu\text{m}$ -ko UHPLC partikulak (ilearen diametroa hartuta, 33 ale sartzen dira).

### 6.9.1 $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikula ez-porodunak

1997–2004 bitartean laborategietan diseinaturiko aurreneko UHPLC kapilar esperimentaletan erabilitako paketatze material kromatografikoa, gehienbat  $1\text{--}1.5\ \mu\text{m}$  arteko silikazko partikula ez-porodunaz (*reversed-phase nonporous silica support*, RP-NPS) osatuta zegoen [17–19, 123, 126, 127, 129–131]. Izaera honetako materiala, lehen aldiz 80. hamarkadaren erdialdean [299] Unger *et al.*-ek ezagutzera eman bazuten ere ( $<3\ \mu\text{m}$ ),  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko formatuan 1996era arte ez zen plazaratu ( $1.5\ \mu\text{m}$ ) [300, 301]. UHPLC instrumentazio esperimentalaren hasierako urte haietan, garaiko partikula porodunekin konparatuta, RP-NPS partikulek banda-zabalkuntza leuntzeko abantaila zutela uste zen, besteak beste, poro-difusioa eta masa-transferentziarako erresistentzia efektuak minimizatzen dituztelako (fase mugikorra poroen barrenean tratatuta ezin denez geratu masa transferentzia azkaragoak ahalbidetzen dira) [28, 41, 123, 127, 129]. Azken batean ikerlariak uste zuten RP-NPS partikulak erabilia errendimendu kromatografikorik galdu gabe fluxu-abiadura askoz altuagoetan lan egin zitekeela [78]. Halaber, garai hartan, silikazko RP-NPS euskarriak porodunak baino erresistenteagoak eta presio zein temperatura altuetan egonkorragoak ziren [285].

2004ean aurreneko UHPLC komertzialarekin batera  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikula porodun belaunaldi berri bat plazaratu egin zen. Paketatze mota berriarekin ordura arteko RP-NPS partikulen hegemonia zeharo aldatuko zen. Joera aldaketa honen muinean aurkitzen diren arrazoiak 2006ean Wu *et al.*-ek [302] azaldu zituzten, UHPLC batean  $1.5$  eta  $3.0\ \mu\text{m}$ -ko partikula porodunen eta ez-porodunen zutabe-efizientziak konparatu zituztenean. Orokorrean, abiadura lineal altuetan partikula ez-porodunek efizientzia altuagoak eragiten zituztela behatu bazuten ere, partikularen tamaina  $3\ \mu\text{m}$ -tik  $1.5\ \mu\text{m}$ -ra txikitzerakoan efizientzia ezberdintasuna nabarmen txikitzen zela ikusi zuten. Gainera, lagina kargatzeko edukiera-faktorea partikula porodunen ( $1.7\ \mu\text{m}$ , C18) kasuan partikula ez-porodunetan ( $1.5\ \mu\text{m}$ , C18) baino 15 bider handiagoa zela ikusi zuten<sup>11</sup>. Halaber, zutabe porodunen batzbesteko erretentzio faktoreak ez-porodunenak baino nabarmen altuagoak zirela ikusi zuten.

Uste izan denaren kontra, ikerlari hauek ere adierazi zuten partikula ez-porodunekin paketaturiko zutabeek partikula porodunekin paketaturikoak baino presio-erorketa handiagoa eragiten dutela. Izan ere, antzerako erretentzio-denborak lortzeko, partikula ez-porodunek konposizio urtsu altuagoko fase mugikorrek eskatzen dituzte (biskositate handiagokoak izanik presio-maila handiagoak eragiten dituzte) [302]. Azkenik, ikerlari talde honek hausnarketa interesgarria mahagaineratu zuen, izan ere, erretentzio-denbora txikiak erakusten dituzten konposatuek partikula porodunekin banaketa hobeak lortzen zituztela behatu baitzuten; erretentzio-denbora luzeko konposatuek, aldiz, partikula ez-porodunekin emaitza txukunagoak lortzen zituztela ikusi zuten<sup>12</sup>. Horrela, ikerlari hauek iradoki zuten konposatu polarren banaketa azkarretan ( $t_r \downarrow$ ) partikula porodunak aproposagoak izan litezkeen bitartean, pisu molekular handiko analitoen banaketetan (adib. proteinak;  $t_r \uparrow$ )  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikula ez-porodunak egokiagoak izan litezkeela [302].

Gaur egun  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikula ez-porodunen erabilera oso zabalduta ez dagoen arren, era honetako material komertziala lasai asko eskura daiteke. Adibide moduan *Micra NPS* ( $1.5\ \mu\text{m}$ ; *Eprogen*, Darien, AEB), *Proteomix SCX* eta *PolyRP*

<sup>11</sup>Zutabe batek lagin-edukiera nahikorik ez balu, masa gainkarga gertatu eta zutabearen saturazioa eman liteke. Gailurrak zabaldu eta asimetrikoak bilakatuko lirateke, injektaturiko analitoekin behar beste elkarrekintzak izateko fase geldikor nahikorik ez balego. Halaber, masa gainkargak detektagailuen lana baldintza lezake. Gainkarga arazoak ekiditzearen lagin kantitate txikiak injektatuko balira, analito gailurrak detekzio mugara ez iristeko arriskua legoke [303]. Zutabe kapilarretan IDak oso txikiak direnez, litekeena da masa gainkarga arazoak kalibre estandarreko HPLC zutabeetan baino serioagoak izatea.

<sup>12</sup>Zutabe batek analitoak erretentzeko ahalmen eskasa erakutsiko balu, bere erabilera nahiko mugatua agertuko litzateke: banaketak fase mugikor ahulekin baino ezingo lirateke burutu, eta ondorioz, gradienteen erabilera mugatuko litzateke. Fase mugikor ahulen derrigorrezko erabilerarekin, gradientea kasik %100 ur proportzioarekin hasi beharko litzateke. Analitoren bat bereziki ezpolarra izatekotan, gerta liteke analito hauek gradientearen hasierako konposizio horretan ezin disolbatzea. Gainera, konposizio urtsu altuko fase mugikorrek erabilita, fase geldikorra kolapsatu liteke, analitoen erretentzioan bestelako aldaketak eraginez.




(1.0/1.7/1.8  $\mu\text{m}$ ; *Sepax*, Delaware, AEB), *Presto* (2.0  $\mu\text{m}$ ; *Imtakt*, Fidadelfia, AEB), *ProntoPEARL sub2 NPP* (1.5  $\mu\text{m}$ ; *Bischoff*, Leonberg, Alemania) edo *Nonporous Zirconia* (1.0/1.5/2.0  $\mu\text{m}$ ; *ZirChrom Separations*, Anoka, AEB) bezalako zutabeak edota elkarloturiko C18 (1.0  $\mu\text{m}$ ; *Eichrom Scientific, Inc.*, Darien, AEB), *Kovasil* (1.5  $\mu\text{m}$ ; *Chemie Uetikon*, Uetikon, Suitza), edota *Micra C18* (1.5  $\mu\text{m}$ ; *Metrohm-Bischoff*, Herisau, Suitza) moduko partikula betegarriak aipa daitezke.

RP-NPS partikulekin erlazionatuta dauden masa gainkarga eta erretentzio-ahalmen arazoak, partikula hauek erakusten duten gainazal azalera espezifiko baxuarekin erlazionatuta daudela ikusita (*specific surface area*, SSA, tipikoki RP-NPS partikulentzat 3 m<sup>2</sup>/g; porodunentzat aldiz, 150–300 m<sup>2</sup>/g), ikerlari batek baino gehiagok seinalatu du arazo hauek partikula porodunak erabilita arindu litezkeela [29]. Izatez, jarraian erakutsiko den moduan, belaunaldi berriko partikula porodunen garapena funtsezkoa izan da UHPLCren bilakaeran.

### 6.9.2 2 $\mu\text{m}$ -azpiko partikula porodunak

UHPLC sistema komertzialen garapena partikula porodunen eboluzioarekin estuki lotuta dago, izan ere, UHPLCak izan duen erronka nagusienetako bat presioarekiko erresistenteak diren diametro uniformeko partikula porodunak sintetizatzea izan da. UHPLCra monobarreiadura nahikoa duten  $\sim 2 \mu\text{m}$  tamaineko partikula sorta lortzeko prozesua gogaikarria zen hasiera batean. Sintesi prozesutik eskuraturiko partikulak galbahetik igaro beharra zuten, desiraturiko tamaineko partikulak banatu ahal izateko.

Alabaina, emaitzak ez ziren nahi bezain onak, izan ere, UHPLCetan 2  $\mu\text{m}$ -azpiko partikula porodunekin buruturiko saiakera aitzindarietan, partikulen uniformetasun ezaren ondorioz paketatzearekin arazo ugari deskribatu ziren (ikusi 6.24 Irudia) [128]. Zurrumbilo-difusioaren ekarpena handia izanik, banda-zabalkuntza nabarmena gertatzen zen, eta ondorioz, zutabe-efizientzia baxua. Alabaina, tamainaren homogeneitasunaren auzia ez zen izan aurreneko 2  $\mu\text{m}$ -azpiko partikula porodunek erakutsitako desabantaila bakarra. Esaterako, silika-oinarriduneko partikulek egonkortasun mekaniko ona agertu arren, lan egiteko pH tarte mugatua eta buztan-efektua (*tailing*-efektua deritzona eta konposatu basikoetan agertzen dena) erakusten zuten. Zutabe polimeriko porodunek, berriz, pH mugak gainditu zitzaketan arren, efizientzia baxuak, lagina kargatzeko edukiera mugatuak, eta egonkortasun mekaniko eskasak erakusten zituzten [304].



**Irudia 6.24:** 2001ean Wu eta lankideek 2 µm-azpiko partikula porodunekin UHPLC batean buruturiko aurreneko saiakera jaso zutenean, partikulen uniformetasun ezaren ondorioz paketatzearekin arazo larriak jaso zituzten. Irudietan, zutabe kapilarretan paketaturiko µ-partikulen SEM mikrografiak ( $\times 9.000$ ): (a) 1.5 µm-ko partikula ez-porodun eta uniformeak; (b) 1.5 µm-ko partikula porodun ez-uniformeak [128].

Partikulen ekoizpen prozesuetan gehitutako hobekuntzen ondorioz, zutabegileak partikula porodunak prestatzeko prozedura berritzaile eta konpetitiboen bitartez, partikulen poroen tamaina eta mikroegituren tamainaren banaketa kontrolatuz uniformetasun handiko eta tamaina txikiko silikazko euskarri porodunak komertzializatzen hasi ziren. Horrela, 2003ean silika-oinarriduneko lehendabiziko 2 µm-azpiko zutabe porodunak merkaturatu ziren: *Zorbax Rapid Resolution HT* zutabeak (B Motako silika<sup>13</sup>; *Agilent Technologies*, Palo Alto, AEB). Harrezkero, hainbat zutabegilek egonkortasun handiko eraldaturiko silika poroduna oinarri duten 2 µm-azpiko zutabe propioak merkaturatu dituzte (ikusi 6.9 Taula).

UHPLC instrumentazio esperimentalaren dispositibo desberdinak berritzen ziren bitartean (fluidika sistema, injekzio sistema, detektagailuak, etab.), paraleloki, zutabe paketatzeen teknologiak ere aurrera egin zuen. Garapen honetan partikula hibridoen agerpena nabarmendu beharra dago.


1999ean, lankideekin batera Neuek RP-LCrako paketatze material organiko/ez-organiko hibrido esferiko berria (material hibrido deitua) garatu zuen [305]. Par-

<sup>13</sup>Lehenengo belaunaldiko silika (A Motakoa) sol ezorganikoetatik abiatuta sintentizaten da. Bigarren belaunaldiko siliken oinarrian, desaktibatutako silizea aurkitzen da. Hau lortzeko, A Motako silizeari aplikaturiko tratamendu kimikoen bitartez gainazaleko ezpurutasun metalikoak eliminatzen zaizkio. Hirugarren belaunaldiko silizea (B Mota), berriz, sol organikoetatik abiatuta sintetizaten da. B Motako silikak apenas du ezpuratasun metalikorik, hauen kantitatea traza mailakoa baita (ppm mailetakoa). B motako silika honen ezaugarriak desaktibatutako silizearen parekoak dira, baina hauen kasuan, ezpurutasun metalikoak eliminatzeko tratamendu kimikoren beharrik ez dute.

tikula berri hauetan elkartzen ziren elkar-loturiko siliken propietaterik onenak (efizientzia altua eta sekulako egonkortasun mekanikoa) eta polimero organikoen ezaugarriak onenak (pH egonkortasun tarte zabala eta silanol-efektu eza) [304]. Partikula hauen egonkortasun mekaniko/kimiko handia ikusita, ikerlari hauek aditzera eman zuten partikula hauek UHPLC eta SFC bezalako arloetan aukera interesgarriak eskaintzearekin batera, pH tarte zabaletan aritzeko gaitasunaren ondorioz selektibitatearen manipulaziorako aukera zabalak azaltzen zituztela [304, 306].

Partikula hauen patentearen jabe, 1999ean bertan *Waters Corporation* etxeak HPLC aplikazioetarako lehen belaunaldiko kimika hibridoko *XTerra* zutabeak merkaturatu zituen (2.5  $\mu\text{m}$ ) [304, 307, 308]. Zutabe hauetan oinarrituz, teknologia honen 2004ean UHPLC-rako jauzia eman zuen *Waters* taldeko ikerlariak 1.7  $\mu\text{m}$ -ko morfologia esferikodun eta porositate oneko elkarloturiko etilsiloxano/silika partikula hibridoak (*bridged ethyl hybrid*, BEH) garatzeko gai izan zirenean (ikusi 6.25 Irudia) [306, 309, 310]. Bigarren belaunaldiko partikula hibrido hauek erakusten zituzten elkarloturiko etano-silano zubi hibridoaren eraginez, mekanikoki (15.000 psi jasateko gai, 1.000 bar) zein kimikoki oso egonkorak ziren (pH tarte: 1–12) [22, 36]. Halaber, partikula hauen diametroa uniformetasun handikoa izanik, efizientzia handia erakusten zuten [311]. UHPLC aplikazioetarako zutabe hauen egokitasuna primerakoa zen, izan ere, 2004ean komertzializatu zen lehen-dabiziko UHPLC instrumentuarekin batera aurkeztu ziren *BEH* zutabeak. Harrezkero, bestelako zutabegile batzuk ere UHPLC aplikazioetarako 2  $\mu\text{m}$ -azpiko porodun hibridoak merkaturatu dituzte (ikusi 6.9 Taula).

2004ko urte hura 2  $\mu\text{m}$ -azpiko UHPLC partikula porodunentzat funtsezkoa izan zen, harrezkero erabiltzaile eta ikertzaileen aldetik partikula hauekiko interesa izugarri handitu baitzen. Gaur egun merkaturatutako 2  $\mu\text{m}$ -azpiko partikula porodunekin paketatutako zutabeen eskaintza zabal-zabala da (ikusi 6.9 Taula). 5–10 cm luze eta 1.7–2.0  $\mu\text{m}$ -ko partikulekin paketatutako zutabeek sorrarazten dituzten presioak egungo instrumentu komertzialen presio mugekin bateragarriak dira (15.000 psi edo 1.000 bar). Gehienetan gainera, zutabe hauek tenperatura altuetan ere egonkorak dira, baldintza hauetan lan-presio txikiagoetan lan egiteko aukera dagoelarik. Elkarrekintza mekanismoei dagokienez, euskarri hibrido zein silikadun hauek eraldaturiko kimika ugartan aurki daitezke, esaterako C8, C18, fenil, ziano, *shield* eta beste polaritate batzuetan. Modu honetan, UHPLC-ren hastapenetan mugatzaile izan zen auzia, hots, zutabe paketatzeen aniztasun eskasa eta kimika berezien falta, gaur egun gairatu den arazoa da. Egungo RP, HILIC, ioi-truke eta fase normaleko UHPLC zutabeak aurki daitezke [133].



**Irudia 6.25:** BEH zutabean (Waters Corporation, Mildford, AEB) partikula organiko-  
ezorganiko hibridoen sintesi eta egituraren irudi eskematikoa. Bigarren be-  
launaldiko partikula hibrido hauek agertzen duten elkargurutzapen handia  
eta  $Si - CH_2 - CH_2 - Si$  lotura kobalentei esker, egonkortasun kimiko eta  
mekaniko handiak erakusten dituzte [309].

**Taula 6.9:** 2  $\mu\text{m}$ -azpiko zutabe komertzial porodunak (Pittcon 2010) [312, 313]. Partiku-  
la ez-porodunak eta zorro poroduneko SPP partikulak ez dira taulan honetan  
bildu.

### 2 $\mu\text{m}$ -Azpiko partikulak

Zutabegilea	Zutabearen izena	Partikularen tamaina ( $\mu\text{m}$ )	Euskarri Mota	Presio muga (psi)
Agilent Technologies	Zorbax Rapid Resolution HD/HT	1.8	Silika	17.500/8.700
Alltech (Grace Davison)	VisionHT/Platinum	1.5	Silika	12.000/-
Bischoff	ProntoPEARL sub2 TPP Ace-EPS	1.8	-	-
ES Industries	Epic Sub-2	1.8	Silika	19.000

*Hurrengo orrian jarraitzen du*

Taula 6.9. Jarraipena.

<b>Zutabegilea</b>	<b>Zutabearen izena</b>	<b>Partikularen tamaina (<math>\mu\text{m}</math>)</b>	<b>Euskarri Mota</b>	<b>Presio muga (psi)</b>
Fortis Technologies	Fortis 1.7	1.7	Silika	18.000
GL Sciences	Intertsil 3/4 Series	2.0	Silika	12.000
Hitachi	LaChromUltra	2.0	-	8.700
Knauer	BlueOrchid	1.8	Silika	15.000
Macherey-Nagel	Nucleodur	1.8	Silika	11.600
Merck	Purospher STAR UHPLC	2.0	Silika	8.700
Orachem Technologies	Gazelle	1.7	Silika	-
Perkin-Elmer	Brownlee HRes LC	1.9	-	10.000
Phenomenex	Luna	2.0	-	5.800
Restek	Pinnacle DB/Ultra II	1.9	Silika	15.000
SciSep	Microsil	1.8	Silika	15.000
Sepax	GP/BR/HP	1.8	Silika	10.000
Shant Laboratories (Shimadzu)	Pathfinder	1.5	Hibridoa	15.000
Shiseido	Capcell Pack	2.0	Hibridoa	5.800
Thermo Scientific	Synchronis/Hypersil Gold	1.7/1.9	Silika	15.000
Varian (Agilent Technologies)	Pursuit UPS	1.9	Silika	15.000
Waters	Acquity BEH/CSH/HSS	1.7/1.7/1.8	Hibr./Hibr./Silika	15.000
YMC	YMC-UltraHT Pro/Hydrosphere	2.0	Silika	7.300
Zirchrom Separations	ZirChrom	1.7	Zirkonia	5.000


**Bestelako eskakizunak** Ikusten den moduan,  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikula porodunen eskaintza ez-porodunena baino askoz zabalagoa da. Nolanahi ere, kasu batean zein bestean adi egon beharra dago,  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko tamaineko partikula guztiak ez baitira gai presio altuetan operatzeko. Paketatze materialaren egonkortasun mekanikoa ebaluatu beharreko aldagai garrantzitsua da, beraz. Izan ere, presio altuetan LCrao paketatze materialen ezegonkortasun mekanikoak partikulen haustura edo konpresio-deformazioa eragin lezake. Kasu horretan, zutabearen lan-presio altuagoak, zutabearen butxadurak edota zutabetik aurrera detektagailurantz partikulak askatzeko arriskua gerta liteke [306].

Zentzu honetan, nabarmendu beharra dago partikula txiki hauek behar bezala trinkotzeko paketatze-prozedura berriek izan duten garrantzia. Horrela,  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikulekin gertatu den bezala, paketatze-prozeduretan ere garapen teknologiko interesgarria eman da. Paketatzea sendoa eta errepikakorra izan dadin, zutabe-hardwarraren barrualdeko gainazala leunagoak eskuratu behar izan dira. Halaber, amaierako fritatuen berdiseinaketa eman da, barrualdeko partikulak erretenu eta butxadurei aurre egiteko. Paketatze ohearen uniformetasunari ere garrantzia handia eman zaio, aldagai kritikoa baita erresoluzioa mantenduz banaketa azkarragoak burutu ahal izateko.

Parametro hauek guztiak kontrolpean izateko asmoz, zenbait zutabegilek zutabe bakoitzaren informazioa jasotzen duen mikrotxip teknologia garatu dute. Teknologia honen bitartez (adib. *ACQUITY UPLC eCord* teknologia, *Waters Corporation*, Milford, AEB) injekzio kopurua, lan-presioa eta tenperatura bezalako informazioa modu jarraitu batean pilatzen da zutabearen historia osoa uneoro eskura dagoelarik (kalitate kontrolerako testak edota analisisien ziurtagiriak eskuratzeko oso aproposa; ikusi 6.26 Irudia) [307].

Azkenik, azpimarratu beharra dago  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko zutabeen manipulazioak arreta berezia eskatzen duela, zutabe hauek paketatze-prozedura kritikoa erakustez gain oso poro-diametro txikiko fritatuak agertzen baitituzte. Esaterako, HPLC tradizionalen  $3.5\text{--}5\ \mu\text{m}$ -ko partikuladun zutabeen irteeralderako fritatuen porositatea normalean  $2\ \mu\text{m}$ -koa izaten da. Porositate maila hau erabilita fritatua partikulekin butxatzeko arriskua ez da oso handia. Aldiz,  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikuladun zutabeek butxatzen errazak diren  $0.5\ \mu\text{m}$ -ko fritatuak erabiltzen dituzte. Hortaz, irizpide orokor gisa,  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko edozein motako partikulekin lan egiterakoan, analisisa burutu aurretik lagin oro sendoki iragazi beharra dago  $0.2\ \mu\text{m}$ -ko iragazkiak erabilita. Halaber, zutabe kromatografikoak babeste aldera aurre-zutabeen erabilera

behar-beharrezkoa izaten da (adib. *Waters* etxearen *Van-Guard* hardwarraren neurriak: 5.0×2.1 mm ID, 1.7 μm).



Irudia 6.26: *ACQUITY UPLC eCord* (*Waters Corporation*, Milford, AEB) teknologiaren birtartez zutabe kromatografikoen historial osoa erabiltzailearen eskura dago. Injekzio kopurua, lan-presioa eta temperatura bezalako parametroen informazioa modu jarraitu batean erregistratuta geratzen da.


## 6.10 UHPLC instrumentazioaren eraldaketa teknologikoa

Jada hamarkada bat igaro da ikerketa laborategietan UHPLC prototipo esperimentalak erabilia 2 μm-azpiko partikulen potentzial teorikoari probetxua ateratzen hasi zitzaionetik. Teoriak iragarri bezala, kudeatu beharreko presio izugarri handia lehenengo ordeneko arazoa izan zen, baina ez bakarria. Pitzadurak, injektaturiko bolumen kantitateak, seinaleen errepikakortasuna, banda-zabalkuntza edota manipulatzeko orduan zaindu beharreko segurtasuna bezalako konplikazioak pixkanaka-pixkanaka gaindituz joan ziren harik eta 2004ean, aurreneko UHPLC sistema komertzializatu zen arte. UHPLC instrumentazio mailan eman den eraldaketa teknologikoa zabala eta sakona izan den arren (hardware mailan, hardwareak kontrolatzeko softwaretan, laborategi-osagarri mailan –iragazketa produk-

tuak, urrutiko kontrol prozedurak . . . -), honako Atalean hardware mailan inplementatu izan diren berrikuntza adierazgarrienak baino ez dira aztertuko. Honela, orain artean ezagutu diren ekarpenik esanguratsuenak 3 bloke ezberdinetan sailka daitezke: (a) sistema fluidikoa, (b) laginaren barneraketarako sistema eta (d) detektagailuak.

### (a) Ponpa sistemak eta sistema fluidikoaren moldakuntzak

90. hamarkadaren bukaera aldean Jorgenson eta lankideek garatu zituzten aurreneko UHPLC sistema esperimentalek modu isokratikoan 100.000 psi-tan (6.800 bar) eta modu gradientean 75.000 psi-tik (5.100 bar) gorako presioetan lan egiteko ahalmena erakutsi zuten [18, 19]. Ñabardura handiz deskribaturiko sistema haiek, erabilera isokratikorako ponpa pneumatiko anplifikadoreak eta grandienteetarako elektrikoki gidaturiko fluxu konstanteko xiringa ponpak laborategian bertan egokitu zituzten [28]. Dimentsio handiko ponpa sistema hauetatik abiatuta (ikusi 6.27 Irudia), ikerkuntza laborategietan tamaina txikiagoko ponpa sistema desberdinak garatu izan dira [28, 123, 127, 129, 131, 314, 315].



Irudia 6.27: Modu gradientean aritzeko aurreneko UHPLC ponpak tamaina handiegikoak ziren. Irudian, MacNair *et al.*-ek erabilitako fluxu konstanteko xiringa ponparen eskema [18].



Fase mugikorrek ponpatzeko sistema fluidikoari erreparatuz, sistemaren bolumen orokorra minimizatzeko joera erabatekoa izan dela azpimarratu beharra dago (ponpa sistema eta nahasgailu txikiagoak, *tubing* konexio estuagoak, ID laburragoko zutabeak eta detekzio-zelula laburragoko detektagailuak)<sup>14</sup>. Izan ere, eskakizun hau bereziki garrantzitsua da modu gradientean lan egiterakoan, sistemaren bolumen osoa murriztuz, gradientearen atzerapena minimizatzen baita. Honakoa, lagin konplexuen banaketa azkarren kasuan aldagai kritikoa da [316]. Ezaugarri honen eragina hain da esanguratsua ezen gaur egungo UHPLC fabrikatzaile gehienek sistemaren bolumena minimizatu ahal izateko pulsu-motelgailuak sistematik kendu eta nahasgailuaren bolumena nabarmen txikitu dituzten. Ondorioz, gradientearen atzerapena txikiagoa da, eta detekzio-mugak, altuagoak.

Modu berean, sistemaren bolumena eta laginaren dispertsioa txikitzeko, fabrikatzaileek *tubing*-aren IDa ere nabarmen murriztu dute (ikusi 6.10 Taula). Honen eraginez sistemaren presioa areagotzen denez, hoditeri-juntetan ere aurrerapen nabarmenak inplementatu behar izan dira.


Taula 6.10: HPLC eta UHPLC an erabiltzen diren hoditeri, fritatu eta iragazketa neurri tipikoak. [317]-tik egokitua.

Pasabidea	LC	UHPLC
Hoditeria	0.007–0.005 in ID 0.175–0.125 mm ID	0.005–0.0025 in ID 0.125–0.0625 mm ID
Zutabearen fritatuak	5 µm-dun partikuletan: 2.0 µm 3 µm-dun partikuletan: 0.5 µm	<2 µm-dun partikuletan: 0.2 µm
Laginaren iragazketa	3 edo 5 µm-dun partikuletan: 0.5 µm edo zentrifugazioa	<2 µm-dun partikuletan: 0.2 µm

Sistema fluidikoaren barne funtzionamenduan txertatu izan diren berrikuntzen artean, fase mugikorra ponpatzeko moduan emandako aurrera pausuak nabarmendu beharra dago. Izan ere, aurreneko UHPLC sistema komertzialek fluxu-

<sup>14</sup>HPLC sistema bitar eta lautar konbentzionalen bolumena ~600–800 µL eta 1.000 µL-koa den bitartean, UHPLC sistema bitarra <100 µL, eta lautarrena <400 µL-koa izan ohi da.

emaria sistematik barrena bultzatzeko ponpa sistema bitarrak<sup>15</sup> erabiltzen zituzten [307,318,319]. Sistema bitar hauek beste sistema hirutar edo lautarrak baino gradiente errepikakorragoak eragiteaz gain (batipat muturreko fluxu eta gradiente konposizioetan), bolumen txikiagoko nahaste-ganberak erakusten dituztenez erantzun azkarragoak agertzen dituzte (gradienteetan atzerapen-bolumen txikiagoak).



**Irudia 6.28:** Modu desberdinetako HPLC ponpa sistemak aurki daitezke. (a) Ponpa sistema bitarren eskema: (1) nahaste-ganbera, (2) pultsu-motelgailua, (3) bigarren nahaste-ganbera (sistemaren bolumena minimizatze aldera, UHPLC fabrikatzaileek (2) eta (3) gailuak sistematik kendu ohi dituzte). (b) Ponpa sistema hirutar edo lautarren eskema: (1) balbula proportzionatzailea, (2) sarrerako balbula, (3) irteera-balbula, (4) pultsu-motelgailua (arrazoi berdinegatik, UHPLC fabrikatzaileek (4) gailua sistematik kendu ohi dute). HPLC tradizionalerako [www.chromacademy.com](http://www.chromacademy.com)-ek proposaturiko eskemetatik egokitua.

Nolanahi ere, ponpa sistema bitarrek desabantaila esanguratsu batzuk erakusten dituzte. Esaterako, sistema lautarrak edo hirutarrak baino konplexuagoak izanik (osagai kopuru bikoitza dute), dezente garestiagoak izateaz gain mantenimendu kostu altuagoak erakusten dituzte. Halaber, gradienteak diseinatzeke agertzen duten konbinazio ahalmena ponpa hirutar/lautarretan baino eskasagoa da, sistema bitarretan aldi berean bi disolbatzaile baino ezin baitira erabili (lautarretan 4,

<sup>15</sup>Ponpa sistema bitarrak (ikusi 6.28 Irudia): "Presio handiko nahaste-sistema" bezala ezagunak (fase mugikorraren disolbatzaileak presio handiko aldean nahasten dira, hots, ponpek fluidoak konprimatu ondoren), sistema hauek 2 disolbatzaile-kanal erabiltzen dituzte, kanal bakoitzean ponpa individual bana dagoelarik (guztira 2). Bi kanal hauetatik barrena ponpatzen diren disolbatzaileak bolumen oso txikiko nahaste-ganbera batetik igarotzen dira.

eta hirutarretan 3). Modu honetan, konplexutasun handiko banaketei aurre egiteko, ponpa bitarren bitartez bi disolbatzaileez osaturiko gradienteak baino ezin dira diseinatu.


Aipaturiko muga hauek gaintitu nahian, ikertzaileek urte batzuk behar izan dituzte presio ultra-handiko baldintzetan baliagarriak eta aproposak diren ponpa sistema hirutarrak eta lautarrak<sup>16</sup> garatzeko. Hauek ponpa bakarra erakusten dutenez, kostu ekonomiko txikiagokoak izateaz gain, gradienteak diseinatzeko aukera gehiago aurkezten dizkiote kromatografilariari.

Dena den, adierazi beharra dago bestelako ponpa sistema alternatibo batzuk ere garatu izan direla. Esaterako, *Nexera* delako UHPLC komertzialean (*Shimadzu Corporation*, Kioto, Japonia), sistema bitarrak eta lautarrak konbinatuz sistema modular mistoak garatu dituzte (ikusi 6.29 Irudia). Sistema alternatibo hauek errendimendu altuko erabilpenetarako aproposak dira, 2-Dimentsiotako (2D) analisi saio anizkoitzak egiteko gai baitira.

Guztiarekin, edozein dela erabilitako fluidika prozedura, gaur egun merkatuan aurki daitezkeen UHPLC instrumentuek erakusten dituzten ponpa sistemak geroz eta bolumen txikiagokoak izateaz gain, lan-presio muga handiagoei eusteko ahalmena erakusten dute (egun, 6.000–18.000 psi arteko presio tartean lan egiteko gaitasuna duten UHPLC sistemak merkaturatu dira). Horrela, 30.000 psi inguruko presioak jasango dituzten dispositiboak berandu baino lehen merkatura iritsiko direla aurrean daiteke.

---

<sup>16</sup>Ponpa sistema lautarrak: 4 disolbatzaile-kanal erabiltzen dituzte. Kasu honetan, lau kanaletatik datozen disolbatzaileak ponpara iritsi aurretik nahasten dira. 4 ponpa erabili beharrean (prezioz garestiegia litzateke) ponpa bakarra erabiltzen da. Sistema hauek 2 pistoiez osaturiko ponpa bakar batez eta disolbatzaileen nahastura kontrolatzen duen balbula proportzionatzaile portuanitza batez osaturik daude.



Irudia 6.29: UHPLCn ponpa sistema desberdinak aurki daitezke: (a) sistema bitarrak; (b) garapen berriagoko sistema lautarrak; (c) 2D analisi anizkoitzak egiteko gai diren sistema modularrak. [www.ssi.shimadzu.com](http://www.ssi.shimadzu.com)-tik egokitua.


### (b) Laginaren barneraketarako sistemak

UHPLC sistema esperimentaletan erabili ziren lehendabiziko zutabe kapilarrek lagin adizio ikaragarri txikien beharra zuten, injektaturiko lagin bolumenak gailurren zabalkuntzari egin ziezaiokeen ekarpena minimoa izan zedin [48]. Presio ultra-handiko baldintzetan lagina behar bezala barneratzeak erronka berezia suposatu zuen. Presio altuetan zutabera lagin-bolumen txikia zehazki transferitu ahal izateko, zigilu-errekerimenduak asebetetzen zituen injekzio-balbula diseinatu behar izan zen (HPLC konbentzionalen ezugarriak ez ziren nahikoak presio maila hauetarako).


UHPLC kapilarretan lagina barneratu ahal izateko, banaketa-geldikorreko injekzio teknika erabiltzen hasi zen (ikusi 6.30 Irudia) [18, 19, 131, 320]. Laborategian di-

seinaturiko injektore hauek eraginkortasun handia erakusten zuten bitartean (gailurrak simetrikotasun handikoak ziren), 50.000–100.000 psi-ko (3.500–6900 bar) presio tartean inolako pitzadurarik gabe erabili zitezkeen [18, 129]. Alabaina, teknika honek agerikoak ziren zenbait desabantaila erakusten zituen. Batetik, lagin kantitate handiegia eskatzen zuen (100–150  $\mu\text{L}$ ). Bestetik, injektaturiko lagin kantitatea ezin zen ondo kontrolatu, kuantifikaziorako injekzioek errepikakortasun nahikoarik eskaintzen ez zutelarik. Azkenik, injekzio prozesu osoak zenbait minutu hartzen zituen, erabilpen praktikorako desegokia suertatuz (guztira 1–3 min, despresurizazio eta laginaren isurketarako beharrezkoa zen denboragatik).

Arazo hauek hobetze aldera, 2001ean Wu eta lankideek 15.000 psi (1.000 bar) arteko presioak jasateko ahalmena zuen presio orekatuko injekzio sistema alternatiboa garatu zuten. Aurreko sistemarekin konparatuz, injekzio sistema hau azkarragoa (1–2 s) eta errepikakorragoa zen eta lagin eta fase mugikor bolumen txikiagoak eskatzen zituen (2–3  $\mu\text{L}$  vs. 100–150  $\mu\text{L}$  eta <10 mL vs. 650–700 mL, hurrenez hurren) [128]. Harrezkero, ezagutzera eman diren injekzio sistema berriek analisi kuantitatiboak burutzeko erretentzio-denbora, efizientzia eta gailurren azalaren errepikakortasun mailak gerostu eta zehatzagoak eta prezisoagoak erakutsi dituzte [155, 321].



**Irudia 6.30:** Aurreneko UHPLC sistema esperimentalak erakusten zituzten injekzio-blokeen irudi eskematikoak (banaketa-geldikorreko injekzio teknika). (a) MacNair *et al.*-ek erabilitako injekzio-eredua; (b) Lippert *et al.*-ek erabilitakoa. Ulergarriagoa gerta dadin, autoreek portu guztiak planu berean proiektatu dituzte (eskala erreala ez da mantendu). [19] eta [131]-tik egokituta.



**Irudia 6.31:** *Pull to Fill* erako autosanplerrak, lagina injekzio-kiribilerak (*loop*) barneratzen du injektorearen lagin-portuarekin elkar-konektatuta dagoen xiringa bateatik xurgatuz (a). Orratza laginaren bialean sartu ondoren, xiringak tiratu egiten du eta kiribila laginaz betetzen da (b). Lagina kargatzen den bitartean balbula birakariak fase mugikorra ponpatik zutabera zuzenean pasarazten du, kiribilaren nolabaiteko *by-pass*-a osatuz. Balbula birakariak beste behin biratzerakoan kiribilean dagoen lagin-edukia injektatzen da, fase mugikorrek zutaberantz berarekin eramaten baitu (c). Autosanplerraren osagai garrantzitsuenak injekzio-urratsean fase mugikorraren bitartez zuzenean bultzatuak ez direnez, injekzio batetik bestera *carryover* efekturik gerta ez dadin, xiringa eta orratza disolbatzaile batekin garbitzea nahitaezkoa da (d). Disolbatzailearekin garbiturikoa hondakinietara bidaltzen da, besteak beste kargaturiko lagin kantitate bat galtzen delarik. HPLC tradizionalerako [www.chromacademy.com](http://www.chromacademy.com)-ek proposaturiko eskemetatik egokitua.

2004ean plazaraturiko aurreneko UHPLC sistema komertzialak lagina barneratzeko prozedura berritzailea, sendoa, azkarra eta fidagarria erakutsi zuen. HPLC tradizioaletan bezala, injektore berri honek laginak zutabeen automatikoki barneratzeaz gain bestelako funtzio batzuk agertzen zituen, ordura arteko injekzio-sistemen prestazioak nabarmen ondu zituen (bial/plater-karrusel eratako lagin formato desberdinak maneiatzeko gaitasuna, *carryover*-a minimizatzen garbiketaren errutina automatiko integratua, injekzio bolumenarekiko malgutasuna, laginak tenperatura baxuetan mantentzeko gaitasuna eta laginaren biskositatea konpentsatzeko gaitasuna).

*Pull to fill* erako autosanplerrekin muntatu ziren unitate hauek automatizaturiko 6 portutako *switching* balbula birakaria erakustearekin batera (bertan bolumen desberdinetako lagin-kiribilak muntatu zitezkeen), presioz lagunduriko injekzioak burutzeko gaitasuna zuten (3 injekzio modu agertzen zuten: *full loop-pressure assist*, *partial loop-needle-overfill* eta *partial loop-pressure assist*).

UHPLC sistema eraginkorragoak lortzeko sistemaren bolumen osoa minimizatu behar denez, injekzio-sistema berri hauetan kiribilaren tamaina murriztearekin batera<sup>17</sup>, laginaren kiribila bera fluxu-emariaren zirkuitotik kendu zen<sup>18</sup>.

UHPLCa bezalako teknika azkarretan eragiketa kromatografikoaz kanpoko operazioetan ematen den denbora kritikoa izatera iritsi daiteke (injekziorako laginaren posizionamendua, laginaren xurgapena eta injekzioa, garbiketaren errutinak . . .). HPLC tradizioaletan analisi-denborak 20–30 minutukoak izan ohi direnez, injekzioz kanpoko prozedurek hartzen duten denbora ez da batere esanguratsua. UHPLCan berriz, analisi-denborak 2–3 minutukoak izan daitezkeenez, minutu inguruko (edo gehiagoko) injekzio-zikloek eragin kritikoa dute, lagin errendimendua %50 gutxitu litekeelarik [322]. Horrelakoak saihesteko, lagin-kudeatzaile berri hauei orratzaren XYZ injekziorako posizionamendu sistema berritzaileak erantsi zitzaizkien. *Carryover* arazoak ekiditeko, berriz, orratz-bikoitzeko sistema (bata bestearen barruan), eta disolbatzaile sendoen eta ahulen erabilera gehitu zitzaizen (laginketa-hoditeria garbitzeko eluitzaile sendoaren –lagin ondarririk txikiena ere eliminatzeko– eta ahularen –hurrengo injekziorako laginketa sistema prestatzeko–erabileran oinarrituriko garbiketaren sistema). Presio altuak denbora luzez erresistentzarako gai ziren injekzio-sistema hauek, injekzio-zikloen iraupena esanguratsuki

---

<sup>17</sup>Injekzio kiribilaren bolumena murrizterakoan gradientearen atzerapena txikiagotzen bada ere, injekzio-bolumen maximoarekin mugak ager litzake.

<sup>18</sup>Injekzio kiribila fluxu-emariaren zirkuitotik ateratzerakoan gradientearen atzerapena txikiagotzen da, baina kontaminazio gurutzatu handiagotzen da.


murrizteaz gain (25 s garbiketarik ez egitekotan, eta 60 s-koa garbiketa bikoitza eginez gero), gailurren itxura ere nabarmen hobetzea lortu zuten [307].

Harrezkero, beste UHPLC fabrikatzaile askok antzerako ezaugarriak agertzen dituzten injekzio-sistemak plazaratu dituzte. Hauetako batzuk errutinazko analisiak egiteko barne estandarra automatikoki gehitzeko, laginak diluitzeko edota zutabe-aurrean deribatizazio prozedurak osatzeko ahalmena dute [322].


Aipaturiko sistemek oso emaitza txukunak erakutsi dituzten arren, ponpa-sistema komertzialekin gertatu bezala, azken hamarkadan laginketa-sistemek ere berrikuntza esanguratsuak ezagutu dituzte. Izan ere, aurreneko UHPLC sistema komertzialek kiribilean oinarrituriko injekzio-sistemak erakusten zituzten bitartean (*loop-based injectors*), azkenaldian fabrikatzaile gehienek orratzean zeharreko fluxuan oinarritzen diren injekzio-sistemak muntatzen dituzte (*flow-through needle injectors*). Modu honetan injektaturiko lagin kantitate guztia zutabera iristen dela ziurtatzeaz gain, *carryover* arazoak nabarmen minimizatzen dira, fase mugikorak berak lagin arrasto guztiak eluitzen baititu. Lagin-kudeatzaile berri hauek injekzio-sistema oso azkarrak erakustearekin batera (<30 s), sistemaren bolumena txikitze aldera *tubing*-en luzera eta konexioen kopurua murriztu dituzte.

Halaber, errendimendua oraindik gehiago areagotu ahal izateko, zenbait fabrikatzailek sistema emankorrakoak diseinatu dituzte. Lagin barneraketa-sistema seriean planteatu beharrean, injekzio-sistema paraleloak muntatzeko aukera eskaintzen dituzte. *Switching*-balbula portuanitza erabilita, injekzio bat zutabe batean kromatografiatzen den bitartean (A zutabea), beste zutabe paralelo batean (B zutabea) zutabearen atonketa osatzeko aukera eskaintzen dute, A zutabea analisia bukatu orduko B zutabea lanean hasi dadin (%50eko denbora-aurretea suposa lezake).





(a) Orratzean zeharreko fluxuan oinarritzen den injekzio-sistema (*integral loop* edo *flow-through needle injector system*).



(b) Errendimendua areagotzeko diseinu desberdinak.

**Irudia 6.32:** (a) *Integral Loop* erako injekzio-diseinuak kiribilean kargaturiko lagin-bolumen osoa sistema kromatografikora bidaltzen du (ez du laginik hondakineta bidaltzen, beraz ez da laginik galtzen). Lagina injektatu ondoren, injekzio-kiribiletik fase mugikorra etengabea pasatzen denez, *carrier* efektuak minimizatzen dira. Injekta daitekeen laginaren bolumen maximoa kiribil osoaren taminaren arabera den bitartean, arazo praktikorik ez dago bolumen minimo bat injektatzeko (muga hau konpentsatzeko, fabrikatzaileek *multidraw* aukera eskaini ohi dute). HPLC tradizionalerako [www.chromacademy.com](http://www.chromacademy.com)-ek proposaturiko eskemetatik egokituak. (b) Ezkerrean: injekzio-sistema paraleloaren eskema, injekzioak gainjartzen dira. *Nexera* UHPLC sistema komertzialean erabili daitekeen diseinua (*Shimadzu Corporation*, Kioto, Japonia). Eskuinean: 10 portutako *switching*-balbula erabilita, fabrikatzaile batzuk errendimendua areagotzeko UHPLC-erako sistema paraleloak komertzializatzen dituzte. Irudian *1290 Infinity* instrumenturako eskuragai dagoen diseinua (*Agilent Technologies*, Palo Alto, AEB).

**(d) Detektagailuak**

90. hamarkadaren bukaera aldean Jorgenson *et al.*-ek aurreneko UHPLC sistema kapilar esperimentalak diseinatu zituztenean jakin bazekiten  $<2\ \mu\text{m}$ -ko partikulen teoriak aurreikusten dituen intentsitate altuagoko eta zabalera estuagoko gailurrak eskuratu ahal izateko, detektagailuen detekzio-zelulen bolumena minimizatu eta datuak eskuratzeko abiadura maximizatu behar zituztela. Erronka honi aurre egiteko, UHPLC aitzindari haietan *on-column* detekzio anperometrikoa erabili zuten (apenas bolumen hilik duena –kasik zero– eta elektroaktiboak diren konposatuentzat sentikortasun handia erakusten duena) [18, 19]. Modu honetan, detekzio-zelularen bolumena txikituz *extra-column* efektuen ondorioz agertzen den gailurren banda-zabalkuntza ekiditu ahal izan zuten.


Aurreneko saiakerak detektagailu anperometrikoekin egin arren, ikerlarien lana segituan erabilera unibertsalagoko detektagailuetarantz bideratu zen. Horrela, Lippert *et al.*-ek anperometrikoak baino sendagoak diren UV/Ikuskorreko detektagailuen *on-column* erabilera garatu zuten [129, 131]. UHPLC kapilarretan *on-column* detekzioa burutu ahal izateko zutabe kapilarraren bukaera aldeko *tubing* zatia 1 mm zabalera estalki polimerikoa kendu behar izan zioten. Alabaina, detekzio modu honek sentikortasun baxua erakutsi zuen. Izan ere, UV detektziorako pasabide luzera tarte erabilgarria zutabe kapilarraren barne diametroaren adina-koa izanik (30–150  $\mu\text{m}$ ), leiho-optiko edo detekzio-zelula gisa erabilitako egituraren luzera txikiegia zen.

UV/Ikus. detektagailu hauetaz gain, aurreneko UHPLC kapilar esperimentaletan bestelako detektagailu optiko batzuk ere *on-column* erabili izan ziren. Teorian absorbantzia oinarrituriko detektagailuak baino selektiboagoak eta sentikorragoak izan arren, laser bidez induzituriko fluoreszentsiazko detektagailuek ere (*laser-induced fluorescence*, LIF) errendimendu eskasa erakutsi zuten (pasabide optiko laburra eta kitzikapen azalera txikia) [18, 130].

Detektagailu optikoekin egindako saiakera aitzindari haietatik abiatuta, ikerlariak kontraesanaz beteriko erronkari aurre egin behar izan zioten. Izan ere, detekzio-zelularen bolumena minimizatu beharra zegoen *extra-column* bolumena ere minimizatu ahal izateko, baina aldi berean, horrek argizpiaren pasabidea laburtuko luke sentikortasun arazoak eragitearekin batera (*Lambert-Beer* legeak aurreratsen duen moduan), zarataren ekarpena handiagotuz (transmisio-erorketaren ondorioz) [307]. HPLCn erabilitako SS zilindrodun detekzio-zelula konbentzionalak UHPLC prozeduretarako nahikoak ez zirela ondorioztatu zuten [133]. Horrela, ikerlariak ikusi zuten UV detektagailuen garapen egoki bati begira, detektagailuen detekzio-zelularen diseinua hobetu behar izateaz gain, argizpiaren zabalarekin

eta fotozelularen distantziarekin erlazionaturiko parametroak ere hobetu behar ziztuztela, hauek ere detekzio-zelula baten deskribapenaren parte baitziren [48].


Argizpiaren pasabidea areagotze aldera, 2004ean *Waters* etxeko ikerlariak argizpiak gidaturiko detekzio-zelulak aproposak izan zitezkeela ikusi zuten (zuntz optikoaren baliokideak), detekzio-zelularen kapilarraren eta fase mugikorraren arteko errefrakzio-indizeen arteko diferentzian oinarrituz argizpiaren transmisioaren luzera areagotzen baitzuten (ikusi 6.33 Irudia). UHPLC prozeduretarako diseinu aproposa izanik, gaur egun era honetako detekzio-zelula kapilar desberdinak komertzializatzen dira (0.5–2  $\mu\text{L}$ -ko bolumenekoak eta 5–10 mm-ko luzerakoak), batzuk tefloizkoak (adib. *Waters Corporation*) eta beste batzuk silikazkoak (adib. *Agilent Technologies*) [133].



**Irudia 6.33:** UHPLC aplikazioetan detektagailu optikoaren detekzio-zelula bolumen txiki-koa, argizpi-pasabide luze-koa eta presio handie-ko erresistentea izan behar da. Irudietan, detektagailu optikoetan erabiltzen diren argizpiak gidaturiko detekzio-zelulen eskema. (a) Argizpi-pasabidea luze-koa izan dadin zelula hauek erabiltzen duten errefrakzioan oinarrituriko argibideak (*Waters Corporation*, Midford, AEB). (b) PDA detektagailu baten irudi eskematikoa (*Agilent Technologies*, Palo Alto, AEB).

Detektagailu belaunaldi berri honek software berezien garapena behartu zuen. Izan ere, seinaleen detekziorako algoritmoek gailurra zehazteko puntu kopuru minimo bat eskatzen dute (seinalea oinlerroaren zaratatik bereiztu ahal izateko eta gailurraren hasiera zein bukaera modu egokian determinatu ahal izateko). HPLCn bezala, UHPLCn ere kuantifikazio errepikakorra burutu ahal izateko detektagailuak gailur bakoitzeko 15–20 datu eskuratzeko gaitasuna erakutsi behar du. Gailurren zabalera aintzat hartuta, UHPLCn detektagailuak datuak eskuratzeko  $>15\text{--}20 \text{ puntu/s}$ -ko abiadura izan beharko luke ( $>15\text{--}20 \text{ Hz}$ ), kopuru honetatik

beherako gailurren integrazioa zaila izaten baita (errepikakortasun gutxiko azalera eta altuerak)<sup>19</sup>. Gaur egun eskuratze-abiadura desberdinetako detektagailu optikoak komertzializatzen dira, gehienak 20–200 Hz artekoak. Halaber, detektagailu optikoen iragazki-digitalak<sup>20</sup> ezagutu duten eraldaketa teknologiko sakona nabarmendu beharra dago. Izan ere, seinaleen desitxuratzea ekiditu ahal izateko, UHPLCrako detektagailu optikoen denbora-konstanteak <0.1 s-tik beherakoak izan behar dira [133].



Irudia 6.34: (a) Datuak eskuratzeko abiaduraren efektua eta (b), iragazki-digitalaren denbora-konstatearen eragina kritikoak dira UHPLC detektagailu optikoetan. *Waters Corporation* etxeak utzitako irudiak.

Detektagailu optikoetat gain, masa espektrometroek ezagutu duten garapena derri gor aipatu beharra dago. 2000. urtean, Wu *et al.*-ek masa espektrometria UHPLC kapilarretan erabiltzea lortu zuten [129]. Garai hartako ekorketa bidezko masa espektrometroak (kuadrupoloak), motelegiak ziren UHPLCak eragiten zituen gailurren zabalera-tarte estuei aurre egiteko (normalean 1–3 s bitartekoak), trantsizio erakusten zuten eskuratze-abiadura edo *dwell-time* deiturikoa 1–0.05 s-koa baitzen (1–20 espektro/s<sup>21</sup>). *Time-of-Flight* masa espektrometroek (ToF-MS) pul-

<sup>19</sup>HPLCn erabiltzen diren detektagailu optikoek 1–2 puntu/s-ko abiadurak erakutsi ohi dituzte. Gailurren zabalera 10–20 s-koak direnez, gailurrak ondo definituta agertzen dira.

<sup>20</sup>Iragazki digitala (ikus 6.34 Irudia): datu multzo bati aplikatzen zaion algoritmo matematikoa da, zeinaren bitartez frekuentzia altuko zarata atenuatzen den. Iragazki-digitalaren helburua oinlerroaren zarata murriztea da gailurraren intentsitatean eraginik izan gabe, hau da, S/N erlazioa maximizatzea. Iragazketa maila (denbora-konstantea edo *time constant*) erabakiorra da, gehiegizko iragazketak ondorioa tamalgarriak eragin baititzake gailurren azalaretan zein erresoluzioan. Normalean, iragazki-digitalak erakutsi beharko lukeen balioa  $1/\text{eskuratze-abiadura}$  neurrikoa izan beharko litzateke.

<sup>21</sup>Datua hau (1–20 espektro/s) finkoa izanik, jarraitu beharreko masa kopuruaren arabera ez nahikoa izatera iritsi liteke. Masa bakarra jarraitzeko nahikoa izan daitekeen bitartean (20 bat puntu gailurreko eskuratzea nahikoa da neurketa errepikakorra izateko), masa ugariaren aldi bereko jarraipena egiteko erabat ez nahikoa zen. Aintzat hartu beharra dago MS instrumentu gehienek aldi berean hamarnaka masen jarraipena egiten dutela, zenbait esparrutan 150 masen aldi bereko jarraipena egiten duten aplikazioak arruntak eta normalak direlarik.

tso bakoitzeko espektro osoa eskuratzeko gaitasuna dutenez, kuadrupoloak baino zertxobait motelagoak izanik ere (eskuratze-abiadurak:  $\sim 5$  espektro/s), ikerlarietara informazio baliagarriagoa eskaini zieten aurreneko saiakuntza haietan. Modu honetan, hasiera batean UHPLC-MS bidez publikaturiko argitalpen gehienak ToF edo Q-ToF erakoak izan ziren.

Teknologiak aurrera egin ahala, belaunaldi berriko kuadrupolo sistemen agerpenarekin (UHPLC aplikazioetarako baliagarriak<sup>22</sup>) datuak eskuratzeko abiadura azkarragoak dituzten kuadrupolodun MS detektagailuak komertzializatzen hasi dira. Analizatzaile belaunaldi berri honek, trantsizio espezifikoetara jarraipena egiteko *selected ion monitoring* (SIM) moduan 0.003–0.005 s-ko eskuratze-abiadurak erakusten dituzte (gamaren arabera 300–200 espektro/s), eta SCAN moduan  $M/z$  tarte batean masa desberdinen zatikiak eskaneatzeko 10.000  $\text{mu/s}$ -ko eskuratze-abiadurak agertzen dituzte<sup>23</sup>. ESI+/ESI- eta APCI+/APCI- polaritate zein ionizazio aldaketa-abiadurak 20 ms-koak izanik (*inter-scan delay* delakoa), lagin analito-anitzetan molekula edo zatiki desberdinen ionizazio optimoak eskuratzeko azkartasun handiko metodoen optimizazioa ahalbidetzen dituzte [323]. Halaber, ToF detektagailu belaunaldi berrietara ere hobekuntza esanguratsuak erantsi zaizkie, gaur egun 30 espektro/s-ko abiaduran lan egiteko gaitasuna erakusten baitute.


Zentzu honetan, 2009an Guillaume *et al.*-ek UHPLC aplikazioetan MS detektagailuen intzidentzia sakonki aztertu zuten [148]. Lan interesgarri honetan ikerlari hauek ikusi zuten 2009ra arte UHPLC instrumentazioa erabilita aldizkari zientifikoetan plazaraturiko lanen %60 MS detektagailuekin (edo MS<sup>2</sup>) osatu zela (ikusi 6.35 Irudia). Urte berean, Shappler *et al.*-ek zehaztu zuten UHPLC-MS aplikazioetako %30 ToF edo Q-ToF erako detektagailuekin aurrera atera zirela [323]. Datu hauek detektagailu mota honen bideragarritasuna azpimarratzen duten modu berean, esanguratsua da UHPLC fabrikatzaile nagusien salmenta gehienak UHPLC+MS erakoak izatea.

Aipaturiko berrikuntza teknologikoak aintzat hartuta, gaur egun UHPLC aplikazioetarako aurki daitekeen detektagailu komertzialen eskaintza anitza eta zabala da. Besteak beste UV/Ikus., PDA, FLR, ELS, RI, CAD, MS-kuadrupolo bakunak (*single quadrupole-MS*, sQ-MS), MS-kuadrupolo hirukoitzak (*triple quadrupole-MS*, tQ-MS), ToF-MS, Q-ToF-MS, ioi mugikortasuneko espektrometroak (*ion*

<sup>22</sup>Izatez, kuadrupoloak fisikoki lehengo berdinak izan arren, elektronika mailan, elikatze-unitate mailan etab. txertaturiko hobekuntzei esker gaur egungo kuadrupoloei eskuratze-abiadura azkarragoak erakusten dituzte.

<sup>23</sup>SCAN moduan parametro mugatzailea eskaneatze-abiadura izanik, kromatografilariak finkaturiko masa tartearen arabera eskaneatu gehiago edo gutxiago egin ahal izango dira: 0–1.000  $M/z$  masa tarte 10.000  $\text{mu/s}$ -ko abiaduran 0.1 s-tan eskaneatu daitekeen bitartean, masa tarte 0–100  $M/z$ -ra murriztuz gero, eskaneoa 0.01 s-tan burutuko da, hau da, espektrometroak datu gehiago jasotzeko denbora izango du.

*mobility spectrometer*, IMS) edota Maldi-MS (*matrix-assisted laser desorption/ ionization*, MALDI) detektagailuak aipa daitezke. Detektagailu hauetaz gain, zenbait ikerkuntza laborategitan komertzialak ez diren bestelako detektagailu batzurekin buruturiko esperientziak ere eman direla gogora ekarri beharra dago. Hauen artean ICP-MS eta TopCount detekzioak (eszintilazio kontagailuak) aipa daitezke [149, 150].



**Irudia 6.35:** 2003–2009 artean nazioarteko aldizkarietan UHPLC eta UHPLC-MS-rekin zer ikusirik zituzten publikaturiko artikuluen bilakaera. Beltzez koloreztaturiko zutabeak “UHPLC” edo “UHPLC” terminoekin egindako bilaketari dagozkie; zutabe zuriak, berriz, “MS” terminoa gehitzerakoan lorturiko bilaketari. Iturria: *Scifinder Scholar 2007*; Aintzat hartutako datu-basea: *2003–2009 Chemical Abstracts*. Informazioaren eskuratzeko-data: 2010ko maiatza. [148]-tik egokitua.

**UHPLC: bete beharreko gutxieneko ezaugarriak** UHPLC instrumentazioak pairatu duen eraldapen teknologikoarekin amaitzeko, aurreko 6.9 Atalean eta 6.10 Atal honetan bertan esposaturikoa laburbiltze aldera, hauexek lirateke UHPLC sistema batek bete beharko lituzkeen gutxieneko ezaugarriak [41]:

1. Ponpa eta injekzio-sistema sendoak
2. Injekzio-ziklo azkarrak
3. Gradientearen atzerapen-bolumen txikiak
4. Detekzio-konstante azkarrak, datuak eskuratzeko abiadura altuko detektagailuak (eskuratze-abiadura >20 Hz)
5. Bolumen gutxiko *extra-column*, *tubing* eta detekzio-zelulak
6. Zutabe eta fase geldikor aproposak

## 6.11 UHPLC sistema komertzialak. Espezifikazioak

2004ean aurreneko UHPLC sistema komertziala plazaratu zenean inork gutxik espero zuen teknika berri honek hamarkada luzez HPLCak izandako nagusitasuna etorkizun ez oso urrun batean kolokan jartzeko moduan izango zenik.  $2\ \mu\text{m}$ -azpiko partikulak/presio-altuak tandemak arrakasta borobila erdietsi du hamarkada erdi eskas batean (ikustekoa da etorkizun batean tandemari hirugarren aldagaia –temperatura alegia– gehituko zaion ala ez), eta iragarpenak ikusita, joera hau indartu liteke datozen urteotan. Norabidea markatuta dago eta trantsizioa pixkanaka baina modu jarraian eta progresiboan ematen ari den fenomeno da. Ikustea besterik ez dago HPLCaren munduan lehia bizian murgilduta zeuden etxe komertzialek hartutako norabidea. Etxe bakoitzak bere UHPLC sistema propioa garatzeari ekin dio. Horretarako, 2004tik aurrera, LC fabrikatzaile gehienek norabide honetan inbertsio handiak egin dituzte, lan esparru honetan I+G departamentuek lan handia egin dutelarik. Hamarkada bat barru HPLCa zaharkitua geratuko bada, fabrikatzaile ezberdinek UHPLC produktu lehiakorrek aurkeztu beharko dituzte.

Lehia honetan, fabrikatzaile bakoitzak ezaugarri eta espezifikotasun desberdineko produktuak eskaintzen ditu, batetik bestera alde esanguratsua aurkitu daitekeelarik. Edonola ere, UHPLC instrumentazioaren prezioa HPLCarena baino garestiagoa izanik, fabrikatzaile desberdinek UHPLC sistema malguago eta ekonomikoagoen aldeko hautuak egin dituzte.

Kontuak kontu, jarraian etxe komertzial desberdinetako UHPLC instrumentuen espezifikotasun orokor batzuk jaso dira. Instrumentuen arteko konparaketa adierazgarria izan dadin, parametro esanguratsuenak baino ez dira bildu, esaterako: presio-muga ( $P_{max}$ , psi unitateetan emana), fluxu-abiadura tarte (F;  $\mu\text{L}/\text{min}$ -tan), zutabe-labearen berotze-ahalmena ( $T_{max}$ ; °C-tan), sistemaren bolumena ( $V_{hila}$ ;  $\mu\text{L}$ -tan), injekzio-zikloaren iraupena ( $t_{inj}$ ; s-tan), eta detektagailuaren eskuratze-abiadura ( $v_{detekt}$ ; Hz-tan)<sup>24</sup>.

<sup>24</sup>Oharra: Zenbait fabrikatzailek UHPLC-ponpak baino ez dituzte komertzializatzen. Hauek 6.11 Taulan ez dira jaso.

Taula 6.11: 2004–2011 artean merkaturatu diren UHPLC sistema komertzialen ezaugarri esanguratsuenak.

UHPLC sistema komertzialak								
Urtea	UHPLC sistema	Egilea	$P_{max}$ (psi)	F (mL/min)	$T_{max}$ (°C)	$V_{hila}$ ( $\mu$ L)	$t_{inj.}$ (s)	$U_{detekt.}$ (Hz)
2004	Acquity UPLC	<i>Waters Corp.</i>	15.000	<1	<90	<120	15	80
2005	Xtreme-LC	<i>Jasco</i>	15.000	<5	<65	–	30	100
2006	1200 RRLC	<i>Agilent Tech.</i>	8.700	<5	<100	120	<30	80
2006	Accela 1250 High Speed LC	<i>Thermo Fisher Sci.</i>	15.000	<1	<95	90	30	80
2007	LaChrom Ultra	<i>Hitachi High Tech.</i>	8.700	<5	<85	266	30	100
2007	UFFLC	<i>Scientific Systems</i>	18.000	<5	–	–	10	20
2007	VersaGrad HP	<i>Scientific Systems</i>	12.000	<5	–	–	10	80
2007	VersaGrad UHP	<i>Scientific Systems</i>	18.000	<5	–	–	10	80
2008	Ultimate 3000 RSLC	<i>Dionex</i>	15.000	<8	<110	200	15	200
2008	ExpressHT-Ultra	<i>Eksigent Tech.</i>	10.000	<0.2	<80	10 <sup>1</sup>	60	–
2008	Platin Blue	<i>Knauer</i>	15.000	<2	<140	110	15	200
2008	Series 275 HRs LC	<i>Perkin Elmer</i>	10.000	<3	<90	–	8	50
2008	Prominence UFLC-XR	<i>Shimadzu Sci. Instr.</i>	9.600	<3	<85	–	10	100
2009	Infinity 1220	<i>Agilent Tech.</i>	8.700	<5	<60	800	50	80
2009	Infinity 1260	<i>Agilent Tech.</i>	8.700	<5	<80	120	50	80
2009	Infinity 1290	<i>Agilent Tech.</i>	18.000	<2	<100	40	19	160
2009	Flexar FX-10	<i>Perkin Elmer</i>	10.000	<5	<90	–	8	100
2009	Flexar FX-15	<i>Perkin Elmer</i>	18.000	<5	<90	–	8	100
2010	ExpressLC-Ultra	<i>Eksigent Tech.</i>	10.000	<0.05	<80	1.2 <sup>1</sup>	60	100
2010	Nexera	<i>Shimadzu Sci. Instr.</i>	19.000	<3	<150	42	10	100
2010	Accela High Speed LC	<i>Thermo Fisher Sci.</i>	18.000	<2	<95	70	30	80
2010	Acquity UPLC H-Class	<i>Waters Corp.</i>	15.000	<1	<90	<400	30	80

<sup>1</sup>: Gradientearen atzerapen-bolumena



6.11 Taulan antzeman daitekeen moduan, urteek ematen duten eskarmentuaren eraginez, UHPLC sistema komertzialek erakusten dituzten lan-presio maximoak geroz eta handiagoak dira. Ez da bat ere arraroa etxe komertzial batek 10.000 psi-ko UHPLC sistema bat plazaratu ondoren, urte gutxi batzuren buruan askoz presio altuagoetan lan egiteko gai diren sistema berriak kaleratu izana. Taula honetan ikusi daitekeen moduan, gaur egun 19.000 psi-tan lan egiteko gai diren instrumentuak eskura daitezke. Zalantzarik gabe, etorkizunean presio altuagoetan lan egiteko ahalmena izango duten UHPLC sistemak merkaturatuko dira.

Batzuk eta besteek erakusten dituzten fluxu tarte desberdinak ikusita, pentsa liteke aldea batetik bestera handia eta nabarmena dela. Dena den, aldagai hau sisteman sortuko den lan-presio maximoaren menpe dagoenez, praktikan, oso arraroa izango da UHPLC baldintzetan  $1 \text{ mL}/\text{min}$ -tik gora lan egiten duen instrumentaziorik aurkitzea. Edonola ere, sistema batzuk malgutasun handikoak izanik UHPLC moduan lan egiteko gaitasuna erakusteaz gain, HPLC moduan lan egiteko gai ere badira. Kasu hauetan fluxu-tarte zabalagoak erakutsi beharko dituzte. Bestalde, aipagarria da taulaturariko zenbait sistemek erakusten dituzten fluxu-tarte txikiak. Sistema kapilar hauek fluxu-abiadura benetan txikitetan lan egiteko gaitasuna erakusten dute (disolbatzaile mailako aurreste handia eta detekzio-muga txikiagoak).

Sistema hauek zutabe kromatografikoa berotzeko erakusten duten gaitasunari erreparatuta, orohar  $90^\circ\text{C}$  arteko tenperaturetan lan egiteko arazorik ez dutela nabarmendu beharra dago. Beste modu batera esanda, UHPLC sistema gehienak HT-UHPLC moduan lan egiteko aukera ematen dute. Hortaz, teknika hau etorkizun batean zabaldu eta normalizatu liteke, 6.7 Atalean erakutsitako joera irauliz.

Sistema hauek erakusten dituzten bolumen-hilak, berriz, erabiltzen duten ponpa-sistemaren araberakoak izango dira. Hasiara batean, UHPLC instrumentu gehienek ponpa-bitarrak erabiltzen zituzten. Denborarekin, fabrikatzaileek ponpa sistema hirutarrak eta lautarrak garatzea lortu zuten. Merkeagoak eta metodoak garatzeko aukera gehiago erakusten dituztenez, oso harrera ona izan duten sistemak dira, bolumen-hil handiagoak erakutsi arren. Edonola ere, erabilera edo aplikazioaren arabera egin beharko da hautua. Metodo konplexuak garatzeko sistema hirutarrak/lautarrak aproposagoak diren bitartean, gradiente balistikoak behin eta berriz erabiliko dituen erabiltzaileak ponpa sistema bitarren alde egin beharko du.

Injekzio-denborak, berriz, kasu guztietan minututik beherakoak dira. Analisi-denborak horren laburrak izanik, injekzio-zikloak ahalik eta laburrenak izatea komeni da, *carryover* efektuak behin ere ahaztu gabe. Zentzu honetan, azken

urteetan UHPLC sistema gehienek *flow-through needle* erako injektoreak erakusten dituzte. Ziklo azkarrekoak izatearekin batera, *carryover* efektuak minimizatzen dituzte.

Azkenik, detektagailu optikoentzat taularatu diren eskuratzeko-abiadurak kasu guztietan egokiak direla adierazi beharra dago. Kuantifikazioa errepikakorra izateko beharrezkoak diren baino datu gehiago eskuratuz gero, sistemak zarataren ekarpen handiagoa izan lezake. Jakina, oraindik presio altuagoetan lan egingo baltz eta analisi-denborak oraindik gehiago laburtuko balira, eskuratzeko-abiadura handiagoak beharko lirarteke. Bien bitartean, gaur egungo analisi-denborentzat eskuratzeko-abiadura nahikoak direla esan daiteke.

## 6.12 HPLCtik UHPLCrako metodo transferentzia

UHPLC instrumentazioa erabiltzen hasiko den kromatografilariarentzat, HPLCekin aurretik pilaturiko eskarmentua abiapuntu ezinhobea izango da. Normalean ikerlaria ez da zerotik abiatuko, UHPLCrako trantsizioa egiterakoan ordura arte erabilitako HPLC-metodoak ondu nahiko baititu (azkartu edota erresoluzioa eta sentikortasuna irabazi). Hau da, HPLCn dituen metodoak UHPLCra transferitu nahiko ditu. Jarraian erakutsiko den bezala, helburuen arabera trantsizio hau modu desberdinetara egin daiteke.

Orokorrean UHPLCa bi modutara erabili ohi da. Batzutan, lagin errendimendua handitu nahi da. Horretarako, aski da HPLCn erabiltzen den metodo konbentzionala UHPLCra eskalatzea (*scale-down*). Bestetan, metodo berri bat garatu nahi izaten da. Kasu hauetan, garapen-denbora orokorra azkartzea da helburu nagusia. Laborategian dagoen HPLC instrumentazioa mantendu nahi den kasuetan, hasiera batean metodoa UHPLCean garatu daiteke ondoren HPLC konbentzionale-ra eskalatuz (*scale-up*) errutinazko analisisetan erabili ahal izateko (jakina, UHPLCn ere metodoa garatu ondoren errutinazko analisiak ere arazorik gabe burutu daitezke). Kasu batean zein bestean, analisi bat HPLC konbentzionaletik UHPLCra transferitzerakoan, edota UHPLCtik HPLCra pasatzerakoan, parametro konparagarriak erabili behar dira banaketa baliokideak izan daitezen.

Analisi bat eskalatzerakoan selektibitateari eutsi ahal izateko, zenbait operazioaldagai eta zutabe-ezaugarri konstante mantendu behar dira. Zutabe analitikoaren poroaren tamaina, karbonoaren karga eta euskarriaren materiala antzerako

mantendu beharko lirateke. Baliokideak ez diren zutabeak erabiltzekotan selektibitate ezberdintasunak antzeman litezke. Halaber, aldagai hauek konstante mantentzen diren bitartean, zutabearen eta partikulen tamaina murriztu izanaren ondorioz, beste zenbait parametro egokitu beharko dira. Gainera, transferituko den metodoa isokratikoa ala gradientea den ikusi beharko da, desberdina izango baita aplikatu beharreko transferentziarako hurbilketa.

## 1. METODO ISOKRATIKOEN TRANSFERENTZIA

Metodo geometriko bat transferitzerakoan, lehenik eta behin, jatorrizko metodoan zein amaierakoan fase geldikorren natura berbera mantendu beharko litzateke. Bigarren urrats batean, errendimendu kromatografikoari eutsi ahal izateko, nahitaezkoa da zenbait baldintza esperimentalen baitan hainbat moldaketa egitea (injekzio-bolumena, fluxu-abiadura eta gradientearen profila, besteak beste), jakina, arau jakin batzuk jarraituta. Transferentzia isokratikoetarako arau hauek aztertu aurretik, transferentzia mota hauetan bereziki ematen den arazo bat aipatu beharra dago. Izan ere, modu isokratikoan, bolumen handiagoko zutabe batetik bolumen gutxiagoko beste batera transferentzia egiterakoan gerta daitekeen banden zabalkuntza gehigarria (“*extra-column* efektua” edo “*extra-column* banda-zabalkuntza” bezala ezaguna dena) nabarmen azalera daiteke, oso garrantzitsua izatera iritsi daitekeelarik.

### ***Extra-column* banda-zabalkuntza**

Dimentsio txikiko zutabeekin (ID edo  $d_p$  txikikoak), ezinbestekoa da *extra-column* bolumen txikiena ere minimizatzea. Izan ere, behaturiko gailurren bariantza (gailurren dispersio orokorra,  $\sigma_{tot}^2$ ) zutabe kromatografikoarekin ( $\sigma_{col}^2$ ) eta sistema kromatografikoaren *extra-column* bolumenarekin ( $\sigma_{ext}^2$ ) erlazionatuta dago. Modu honetan,  $\sigma_{tot}^2$  jarraian bezala adieraz daiteke:

$$\sigma_{tot}^2 = \sigma_{col}^2 + \sigma_{ext}^2 \quad (6.15 \text{ Ekuazioa})$$

Zutabe kromatografikoarekin erlazionaturiko dispersioa ( $\sigma_{col}^2$ ) 6.16 Ekuazioaren bitartez eman daiteke:

$$\sigma_{col}^2 = \frac{V_r}{\sqrt{N}} = \frac{V_0 \cdot (1+k)}{\sqrt{N}} \quad (6.16 \text{ Ekuazioa})$$

non  $\sigma_{col}^2$ , zutabearen bariantza den ( $\mu L^2$ -etan neurtua);  $N$ , zutabe kromatografi-koak eragindako plater kopurua;  $V_r$ , solutuaren erretentzio-bolumena;  $V_0$ , zutabearen bolumen-hila; eta  $k$ , konposatu jakin batentzat erretentzio-faktorea.

*Extra-column* banda-zabalkuntza delakoa, berriz, hiru dispertsio iturri nagusiren batuketa bezala adieraz daiteke:

$$\sigma_{ext}^2 = \sigma_{inj}^2 + \sigma_{det}^2 + \sigma_{tub}^2 \quad (6.17 \text{ Ekuazioa})$$

non  $\sigma_{ext}^2$  *extra-column* bariantza den; eta  $\sigma_{inj}^2$ ,  $\sigma_{det}^2$  eta  $\sigma_{tub}^2$  injektore, detektagailu eta *tubing*-etik datozen bariantzak, hurrenez hurren. Horrela, jarraian erakusten den moduan,  $\sigma_{ext}^2$ -ren balioa injektaturiko bolumena ( $V_{inj}$ ), *tubing*-aren erradioa ( $r$ ) eta luzera ( $L$ ), detekzio-zelularen bolumena ( $V_{cell}$ ), detektagailuaren denbora-konstantea ( $\tau$ ) eta fluxuaren abiaduraren ( $F$ ) araberakoa izango da:

$$\sigma_{ext}^2 = K_{inj} \cdot \frac{V_{inj}^2}{12} + K_{cell} \cdot \frac{V_{cell}^2}{12} + \tau^2 \cdot F^2 + \frac{r^4 \cdot I_c \cdot F}{7.6 \cdot D_m} \quad (6.18 \text{ Ekuazioa})$$

non  $K_{inj}$  eta  $K_{cell}$  konstanteak diren (normalean 1 eta 3 balio artekoak [324]), injekzio moduarekin erlazionatuta lehenengoa eta UV detekzio-zelularen geometriarekin bigarrena.

Banaketa egoki baterako, hau da, erresoluzioak modu esanguratsuan aldakuntzik izan ez duela kontsideratu ahal izateko,  $\sigma_{ext}^2/\sigma_{tot}^2$  ratioa %10 baino txikiagoa mantendu beharko litzateke.

Metodo bat zutabe jakin batetik bolumen-hil txikiagoko beste batera transferitzekoan (zutabearen luzera edo IDA murriztuz), gertutik zaindu beharko da *extra-column* bolumena, bariantzen arteko ratioa ( $\sigma_{ext}^2/\sigma_{tot}^2$ ) konstante mantendu beharko baita efizientzia galera nabarmenik gerta ez dadin. Horretarako, nahitaezkoa da erabiliko den LC sistema optimizatua egotea, edota erabilera hauetarako propio prest dagoen UHPLC komertzialetako bat erabiltzea. Hau ezinezkoa balitz (adibidez, bolumen txikiko detekzio-zelularik lortzerik ez balego, edo detektagailuaren denbora-konstantea nahikoa izango ez balitz), *extra-column* efektuak konpentsatu ahal izateko, erretentzio faktore altuagoekin lan egin beharko litzateke, nahiz eta

honek zutabearekin erlazonaturiko bariantza handituko lukeen (6.16 Ekuazioa). Halaber, erretentzio faktoreen aldaketaren bat gertatuko balitz, fase mugikorraren konposizioa aldatu beharko litzateke, jatorrizko metodoarekiko selektibitate aldaketaren bat gerta litekeelarik [325].


### Transferentzia arauak modu isokratikoan

Metodo isokratiko bat HPLCtik UHPLCra migratzerakoan, badira doitu beharreko zenbait parametro. Alabaina, ezerren aurretik, erabiliko den zutabe kromatografikoa finkatu beharko litzateke. Migrazio honetan, litekeena da zutabearen kimika, partikularen tamaina edota zutabearen luzera bera ez izatea.

Jatorrizko erresoluzioa mantentze aldera, zutabearen kimika ahalik eta antzera-koena izan beharko litzateke. Tamalez, jatorrizko HPLC eta UHPLC zutabeen kimikak kasu gutxietan berberak izaten dira. Zentzu honetan, *Waters Corporation* etxeak UHPLC zutabearen hautu egokia egiten laguntzen duen *Column Selectivity Chart (v3.0)* aplikazioa garatu zuen [326]. Tresna interesgarri honek etxe desberdinetako zutabe komertzial askoren datuak biltzen ditu. Zutabe hauek guztiak selektibitate eta hidrofobizitatearen arabera sailkatuta agertzen dira, estekatzailer ezberdinen arteko konparaketa erraza ahalbidetuz (ikusi 6.36 Irudia). Horrela, HPLC metodo batetik abiatuta UHPLCra migrazioa egiterakoan, kimika baliokideko zutabearen hautatze prozesua nabarmen errazten da.

UHPLC zutabearen kimika aukeratu ondoren, hurrena, zutabearen dientsioiak finkatzea litzateke. Erresoluzioa mantentze aldera zutabearen luzera ( $L$ ) eta partikularen tamainaren ( $d_p$ ) arteko ratioa konstante mantendu beharko litzateke. Dientsiogabeko ratio hau zutabeen bereizmen-ahalmena konparatzeko erabiltzen da. Zutabearen luzera konstante mantenduta partikularen tamaina txikituko balitz, erresoluzioa areagotuko litzateke. Hortaz, intuitiboki pentsa daitekeena- ren kontra, zutabearen luzera laburtu daiteke erresoluzio galerarik eragin gabe. Banaketa-erresoluzio bera mantendu nahiko balitz, zutabearen luzera egokia determinatzeko 6.19 Ekuazioa erabili daiteke.

$$\frac{L_1}{d_{p1}} \approx \frac{L_2}{d_{p2}} \approx kte. \Rightarrow L_1 \approx \frac{L_2 \cdot d_{p1}}{d_{p2}} \quad (6.19 \text{ Ekuazioa})$$



Irudia 6.36: Waters Corporation etxeak garatutako *Reversed-Phase column Selectivity Chart* aplikazioa (v.3.0, 2009) [326].

Zutabearen luzera egokia behin finkatuta, metodo isokratiko bat fase geldikor berdina baina dimentsio desberdinak dituen zutabe batera transferitu ahal izateko, bi parametro garrantzitsu egokitu beharra dago: injekzioaren bolumena eta fase mugikorraren fluxuaren abiadura.

*Extra-column* banda-zabalkuntza ekiditzearren (6.17 Ekuazioa) eta sentikortasunaren maila bere horretan mantentze aldera, 6.18 Ekuazioan deskribatzen den moduan, injekzioaren bolumena zutabearen dimentsiora egokitzea ezinbestekoa da:

$$V_{inj2} = V_{inj1} \cdot \frac{d_{c2}^2}{d_{c1}^2} \cdot \frac{L_2}{L_1} \quad (6.20 \text{ Ekuazioa})$$

non  $V_{inj}$  injekzio-bolumena den,  $d_c$  zutabearen barne diametroa eta  $L$  zutabearen luzera. 1 eta 2 azpi-indizeak jatorrizko eta transferitutako metodoei dagozkie, hurrenez hurren. Migrazioa egiterakoan zutabearen bolumena murriztukoenez, arreta handia jarri behar da lagina disolbatzerako orduan. Izan ere, lagina disolbatuko duen disolbatzailearen konposizioak fase mugikorraren konposizioarekin bat etorri behar du. Laginaren disolbatzailea gaizki parekatzekotan erretentzio-denbora, efizientzia eta selektibitate aldaketak gerta litezke.

Hurrena, fluxuaren abiadura ( $F$ ) doitu beharko litzateke. Metodo transferentzia geometrikoa arrakastatsua izan dadin (efizientzia mantentzeko), abiadura linealari eutsi beharrean ( $u = \frac{F}{\pi \cdot d_c}$ ), fase mugikorraren abiadura lineal murriztua ( $v$ ) konstante mantendu beharra dago ( $u \cdot d_p \approx kte.$ ), balio hau zutabearen geometriarekiko edo fase mugikorraren fluxu-abiadurarekiko independentea baita (ikusi 6.6 Ekuazioa). Abiadura lineal murriztu bera mantentzeko, zutabearen IDa murriztu ahala fluxu-abiadura ere murriztu beharko da. Kromatografia transferentzia baliokidea gerta dadin, 6.21 Ekuazioa erabili daiteke modu erraz eta sinplean beharrezkoa den fluxu-abiadura egokitzeko:

$$F_2 = F_1 \cdot \frac{d_{c2}^2}{d_{c1}^2} \cdot \frac{d_{p1}}{d_{p2}} \quad (6.21 \text{ Ekuazioa})$$

Azkenik, transferitutako metodoaren analisi-denbora totala, erretentzio-faktoreak konstante mantenduta, modu honetan estimatu daiteke:

$$t_{r2} = t_{r1} \cdot \frac{F_1}{F_2} \cdot \frac{V_{02}}{V_{01}} \quad (6.22 \text{ Ekuazioa})$$

non  $V_0$  zutabearen bolumen-hila den.

## 2. METODO GRADIENTEEN TRANSFERENTZIA

Modu isokratikoan bezala, gradiente moduan metodo bat geometrikoki transferitzeko hainbat baldintza esperimentalen doiketa egitea beharrezkoa da (injekzio-bolumena, fluxu-abiadura eta gradientearen profila). Hemen ere, egiaztatu beharreko aurreneko gauza sistema kromatografikoa eta zutabearen dimentsio berrien arteko bateragarritasuna izango da. Gainerakoan, modu isokratikoan ez bezala, gradiente-moduan gailurren dispersioa (*extra-column* bolumenarekin erlazionatuta) ez da horren parametro kritikoa izango. Parametro honen ordeztu, atzerapen-bolumena gertuagotik zaindu beharko da. Izan ere, zutabearen bolumenarekin konparatuz sistemak agertzen duen atzerapen-bolumena esanguratsua denean selektibitate aldaketaren bat gerta liteke.


### Atzerapen-bolumena

Sistemaren bolumen-hila ( $V_d$ ) eta gradientearen atzerapen-bolumena baliokideak diren parametroak dira. Izan ere,  $V_d$ -k gradiente-nahasgailutik (hau ere barne hariturik) zutabearen sarbideraino doan bolumena hartzen duenez, gradientearen eratzeko

denetik zutabearen sarbidera iristeko fase mugikorrari kostatzen zaion atzerapen-bolumena irudikatzen du [327–329]. UHPLC-an analisiak denbora-tarte oso laburretan burutzen direnez, gradientearen erantzuna berehalakoa izan behar da, hau da, sistemaren  $V_d$ -a minimizatu beharra dago.

Normalean presio gutxiko nahaste-sistemen bolumen-hila (ponpa-sistema hiru-tar edo lautarren kasuan: 600–2.000  $\mu\text{L}$ ) presio handiko nahaste-sistemena baino handiagoa da (ponpa-sistema bitarren kasuan: <200  $\mu\text{L}$ ). Hau dela arrazoi, gradiente ultra-azkarrak diseinatzeko sistema-bitarrak egokiagoak izaten dira.

Bolumen-hilarekin zuzenean erlazionatuta, atzerapen-denbora ( $t_d$ ) aurkitzen da. Parametro honen bitartez, programaturiko gradienteak zutabearen sarbideraino iristeko behar duen denbora irudikatzen da. 6.37 Irudian ikus daitezkeen bezala,  $t_d$  bitarte honetan solutuek gradientean eluitu beharrean, gradientearen hasierako fase mugikorraren konposizioan migrazio isokratikoa pairatzen dute. Sistema desberdinen artean  $V_d$ -ren balioa ezberdina izan ohi denez, gradientearen aurreko segmentu isokratikoaren iraupena ere ezberdina izango da, eta beraz, transferitutako metodoan erretentzio-faktoreak, erresoluzioak eta selektibitateak aldatu daitezke. Arazo hau gainditze aldera, metodo transferentziaren zehar atzerapen-denbora eta zero-erretentzioaren ( $t_0$ ) arteko erlazioa konstante mantendu beharra dago (LC sistema, zutabearen dimentsioak,  $d_p$  edo F-ren aldaketik dagoenean) [34].



Irudia 6.37: Gradiente eluzioa deskribatzeko erabiltzen diren parametro nagusien adierazpen grafikoa. [34]-tik egokitua.



$$\frac{t_d}{t_0} \approx kte. \quad non \begin{cases} t_d : \text{sistemaren atzerapen} - \text{denbora} & t_d = V_d/F \\ t_0 : \text{zutabearen atzerapen} - \text{denbora} & t_0 = V_0/F \end{cases} \quad (6.23 \text{ Ekuazioa})$$

non  $V_0$  zutabearen bolumena den ( $V_0 = \pi \cdot R^2 \cdot L = \pi/4 \cdot d_c^2 \cdot L$ ).  $t_d/t_0$  erlazioa bere horretan mantendu ahal izateko hainbat moldaketa txerta daitezke, guztiak beti bideragarriak ez badira ere. Hauen artean, ondorengo hauek aipa daitezke: nahasgailu kameraren bolumena eta *tubing* konexioen luzeraren murrizketa (LC sistema optimizatuaren erabilera), laginaren injekzioa gradiente hasi ondoren (atzerapen-denboraren murrizketa birtuala injekzioa atzeratuz) edo gradientearen profila baldintza berrietara egokitzea (banaketaren berroptimizazioa) [325].

### Transferentzia arauak gradiente-moduan

Konstante mantendu beharreko  $t_d/t_0$  erlazioaz gain, gradiente moduan metodo transferentzia burutzeko badira egokitu beharreko bestelako parametro batzuk. Jatorrizko eta transferitutako metodoetan erretentzio-faktoreak eta erresoluzioa konstante mantendu daitezzen, injekzio-bolumena ( $V_{inj}$ ), fase mugikorraren fluxua ( $F$ ) eta gradientearen profila moldatu beharko dira jatorrizko eta azkeneko zutabeen geometriak kontutan hartuz.

Injektatu beharreko bolumenaren estimazioa, 6.20 Ekuazioa erabilita egin daiteke. Sentikortasuna handitze aldera ekuazio honek iragarritako injekzio-bolumena baino kantitate handiagoak erabili daitezke. Alabaina, lagina gradiente hasierako fase mugikorraren konposizioa baino indar eluitzaile ahulagoko disolbatzailean disolbatuta egon beharko litzateke. Izan ere, hurbilketa honek (*lagin fokatz*e edota *sample focusing* bezala ezaguna) laginaren nolabaiteko kontzentrazioa bermatzen du (gailurraren konpresioa) [330], zutabearen sarbidean analitoen aberastea ahalbidetuz.

Fluxuaren abiadura ere 6.21 Ekuazioa jarraituta kalkula daiteke. Gradiente profilari erreparatuz, fase mugikorraren hasierako zein amaierako konposizioa konstante mantendu beharko litzateke. Hemendik abiatuta, hurrengo gogoeta hauei kasu egin beharra dago:

Gradiente eluzioa lineala edo multilineala denean, gradientearen profilean bi zati desberdin nabarmendu daitezke: isokratikodun segmentu lauak eta gradientedun

segmentuak. Transferentzia egiterakoan eluzio patroia berberak lortzeko, bi segmentu mota hauetan, gradientearen bolumena zutabearen bolumenarekiko proportzioan eskalatu beharko litzateke. Snyder-ek eta Dolan-ek ezagutzera eman eta berrikiago Carr *et al.*-ek eguneratutako gradiente transferentzia eraginkorrerako arauak hertsiki jarraitu beharko lirateke [327, 328].

Zonalde isokratikoetan (berrorkatze-denbora barne), tarte isokratikoaren iraupena ( $t_{iso}$ ) eta zutabearen denbora-hilaren ( $t_0$ ) arteko ratioa konstante mantendu beharko litzateke, bi metodoen artean zutabetik pasarazitako bolumen-kopurua konstante mantendu dadin. Segmentu isokratiko berriaren iraupena estimatzeko, 6.24 Ekuazioa erabili daiteke:

$$t_{iso2} = t_{iso1} \cdot \frac{F_1}{F_2} \cdot \frac{V_{02}}{V_{01}} = t_{iso1} \cdot \frac{F_1}{F_2} \cdot \frac{d_{c2}^2}{d_{c1}^2} \cdot \frac{L_2}{L_1} \quad (6.24 \text{ Ekuazioa})$$

non  $F$ , fase mugikorraren fluxu-abiadura den,  $V_0$ , zutabearen bolumen-hila,  $d_c$ , zutabearen barne diametroa eta  $L$ , zutabearen luzera. 1 zein 2 azpi-indizeak jatorrizko eta transferituriko metodoei dagozkie, hurrenez hurren.

Malda segmentuetan, berriz, malda eta zutabearen denbora-hilaren arteko biderkadura konstante mantendu beharko litzateke (zutabetik pasarazitako bolumen-kopurua konstante mantentzeko,  $malda \times t_0 \approx kte$ ). Gradiente berriaren malda ( $malda_2$ ) 6.25 Ekuazioak emana dator.

$$malda_2 = malda_1 \cdot \frac{V_{01}}{V_{02}} \cdot \frac{F_2}{F_1} = malda_1 \cdot \frac{d_{c1}^2}{d_{c2}^2} \cdot \frac{L_1}{L_2} \cdot \frac{F_2}{F_1} \quad (6.25 \text{ Ekuazioa})$$

Gradientearen hasierako eta amaierako konposizioa (% $B$ ) konstante mantendu behar dela aintzat hartuta, eta gradientearen malda kontsideratuz, gradiente berriaren iraupena ( $t_{grad_2}$ ) honela adierazi daiteke:

$$t_{grad_2} = \frac{\%B_{final} - \%B_{initial}}{malda_2} \quad (6.26 \text{ Ekuazioa})$$

**Metodoen transferentziarako aplikazio informatikoak** Laborategi analitikoaren artean UHPLC hurbilketak izan duen onarpen zabala ikusita eta HPLCtik UHPLC-rako transferentzia errazteko asmoz, hainbat laborategik eta fabrikatzailek 6.12 Atal honetan jasotako adierazpen guztiak barne biltzen dituzten aplikazio informatiko desberdinak garatu dituzte. Kalkulagailu hauek erabilita modu isokratiko

batean zein gradientean metodoak transferitzeko baldintza optimoak automatikoki ezar daitezke. Jarraian, hauetako aplikazio espezifiko batzuk zerrendatzen dira (batzuk libreki erabili daitezkeen web aplikazioak edota programak dira).

Taula 6.12: HPLC⇒UHPLC transferentzia errazteko fabrikatzaile ezberdinek garatutako software aplikazioak.

Metodoen transferentziarako kalkulagailuak	
Egilea	Aplikazioa
Agilent Technologies	Method Translator and Cost Savings Calculator (v. 2.3)
Dionex	RSLC Method Speed Up Tool
Laboratoire de Chimie Analytique Pharmaceutique, Université de Genève	HPLC Calculator (v. 3.0)
Thermos Scientific	HPLC Method Development Calculator
Waters Corporation	Acquity UPLC Column Calculator

## 6.13 UHPLCren erabilera egokirako orientabide praktikoak

HPLC⇒UHPLC arteko metodo transferentziarako arauak mahaigaineratu ondoren, UHPLCaren erabilera egoki bati begira zenbait aholku praktiko gogoan izatea komeni da. Izan ere, UHPLC instrumentazioa erabiltzen hasiko den esperientziagabeko ikerlariei begira, Guillarmek eta Veuthey-k oso gogoeta interesgarriak proposatu zituzten [331]:

**UHPLC instrumentazioa:** *Extra-column* bolumenak minimizatze aldera, *tubing*-aren bolumena ahal beste txikitu beharra dago. Horretarako, 0.005" I.D.-ko altzairu herdoilgaitzezko *tubing*-a eta zero bolumen-hila duten hodian juntak erabiltzea komeni da. Injekzio-bolumena zutabearen geometriaren arabera egokitu beharra dago. Hurbilketa moduan esan daiteke  $V_{inj}$ -a zutabearen bolumen-hilaren %1-5 artekoa izan behar dela. UHPLC saiakuntza gehienetan  $50 \times 2.1$  mm neurriko zutabeak erabiltzen direnez ( $V_0 = 120 \mu\text{L}$ ), banda-zabalkuntza ekiditeko,  $V_{inj} \approx$

1–5  $\mu\text{L}$  ingurukoa izan beharko litzateke. Halaber, injektoreak 1 minututik beherako injekzio-zikloa erakutsi beharko du. Detektagailuaren ezaugarriak ere garrantzia handikoak dira:  $\leq 2 \mu\text{L}$ -ko detekzio-zelula,  $\tau \leq 100 \text{ ms}$ -ko denbora-konstantea eta datuak eskuratzeko  $> 20 \text{ Hz}$ -ko abiadura izatea beharrezkoak dira.

*Extra-column* bolumenak murriztu eta efizientzian galera nabarmenik eman ez dadin, UHPLCn erretentzio-faktore altuko ( $k \geq 3$ ) baldintza kromatografikoak izatea komeni da ( $\sigma_{col}^2$  balio altuek  $\sigma_{ext}^2$ -ren eragina txikiagoa izatea eragiten dute). Nolanahi ere, UHPLC zutabeen denbora-hila oso txikia denez (adib.  $t_0 = 0.20 \text{ min}$ ;  $50 \times 2.1 \text{ mm}$ ,  $1.9 \mu\text{m}$ -ko zutabe batentzat  $600 \mu\text{L}/\text{min}$ -ko fluxupean), erretentzio-faktorea horren altua ez izateak ez du analisia baldintzatuko (adib.  $k = 5$ -eko balioak, HPLC tradizionalen 10 minutuko analisi-denbora eragiten du, eta UHPLCn, 1 minutukoa).

Azkenik, gradiente-moduan banaketa ultra-azkarrak osatu ahal izateko, sistema-ren atzerapen-bolumena minimizatu beharra dago. Geometria jakineko zutabea eta UHPLC instrumentazioaren arteko bateragarritasuna egiaztatzeke, komenigarria da *extra-column* eta atzerapen-bolumenak determinatzea. Bateragarritasuna erabatekoa izan dadin, *extra-column* bolumena ehundaka mL bakar batzutakoa eta atzerapen-bolumena  $< 20 \mu\text{L}$ -koa izan beharko lirateke.

**Fase mugikorra eta tanpoiaren kalitatea:** UHPLC zutabeetan fritatuen eta partikulen tamaina HPLC paketatzeetan baino askoz txikiagoak direnez, fase mugikorrean ager litezkeen partikula txikien eragina askoz handiagoa da. Hortaz, disolbatzileetan partikula disolbagaitzen presentzia tentuz txekeatu beharra dago. Fase mugikorren prestaketa egoki bati begira, jardunbide egoki baterako honako prozedura zerrenda daiteke:

1. Purutasun altuko disolbatzaile organikoak erabili (eta ahal izanez gero,  $0.22 \mu\text{m}$ -ko iragazkitik pasarazi). Posible bada, UHPLC graduko disolbatzaileak erabili.
2. Fase mugikor urtsuak (tanpoiak) prestatzeko purutasun altuko gatzak erabili.
3. Ur ultra-purua erabili eta  $0.22 \mu\text{m}$ -ko iragazkitik pasarazi (Milli-Q edo purutasun baliokidea eragiten duen beste purifikazio sistemaren bat erabili).
4. Adi hazkunde mikrobiologikoarekin (batez ere fosfato tanpoiak erabiltzerakoan): fase mugikor preparatu berriekin lan egin.

5. Adi beirazko materialaren garbiketarekin. Hazkunde mikrobiologikoa mugatzeko, sistema kromatografikoa eta zutabeak disolbatzaile organiko puruekin atondu (MeOH edo AZN).

Bestalde, UHPLCen erabiliko den fase mugikorraren fluxu-abiadura finkatzeko *van Deemter* kurbari (HPLCen bezala) eta nola ez, lan-presioari kasu egin behar-ko zaio. 100–400 g/mol pisu molekularreko konposatuekin, 2.1 mm ID eta 1.9 μm-ko partikuladun zutabea erabilita, fluxu-abiadura optimoa 400–600 μL/min-koa da. Partikula txikek eragiten duten masa transferentziarako erresistentzia txikia denez (difusio-pasabidea laburra delako), 1.000 μL/min-ko fluxu-abiaduran lan egitea posible da gehiegizko efizientzia-galerarik gertatu gabe (%20 ingurukoa). Anali-to handiagoekin lan egiterakoan, difusio-koefizienteen murrizketa ematen denez, fluxu-abiadura 200–400 μL/min-era murriztu beharko litzateke.

Gradiente-moduan fluxu-abiadura maximoak gailur-dukiera maximizatzen duenez ( $P_c = f(V_0, \text{efizientzia})$ ), fluxu-abiadura igoarazi beharko litzateke instrumentuak jasan dezakeen presio maximoaren %80–90 lortzeraino.

Fase mugikorraren tenperaturari dagokionez, giro-tenperaturan lan egin beharrean 40–50°C-tan lan egitea komenigarria litzateke. Modu honetan, fase mugikorraren biskositatea eta lan-presioa %30 inguru murriztuko litzateke (50°C-tan AZN: H<sub>2</sub>O fase mugikorraren kasuan) errendimendu kromatografikoan eraginik somatu gabe. Azkenik, aski ezaguna da AZN: H<sub>2</sub>O nahastura hidro-organikoaren biskositatea batazbestez MeOH: H<sub>2</sub>O nahasturarena baino 1.5–2 bider baxuagoa dela. Beraz, metodo bat garatzerako orduan, fase mugikorrerako osagai gisa AZNa lehen aukera bezala kontsideratu beharko litzateke, modifikatzaile honekin MeOHarekin baino lan-presio baxuagoak lortzen direnez kromatografilariari metodoa garatzeko aukera gehiago zabaltzen baitzaizkio (zutabearen luzera hautatzerako orduan nagusiki).

**UHPLC zutabeak:** UHPLC zutabeen iraupen-bizitza injekzio-kopurua, pasarazita-ko bolumen-kopurua eta erabilitako iraupen-denboraren arabera da. Orohar, gaur egungo UHPLC zutabeak erresistentzia handikoak dira. Esaterako, azken belaunaldiko 2 μm-azpiko zutabeak erabilita 500–2.000 injekzio (edo gehiago) egin litezke. 5.000–20.000 zutabe-bolumenekiko baliokideak diren balio hauek, HPLC zutabe estandarrek erakusten dituzten balio estandarrekin erabat konparagarriak dira.

Nolanahi ere, UHPLC zutabeek HPLC zutabeak baino iraupen-bizitza dezente txikiagoa erakusten dute. Alegia, gutxiago irauten dute. Hau gertatzen da, besteak


beste, UHPLCaren errendimendua askoz handiagoa delako (adib. errutinazko laborategi batean 1–5 minutuko UHPLC analisiak egiten badira, 1.000 injekzio oso denbora-tarte txikian egin daitezke). Analisisien iraupen-denbora HPLCaren baino nabarmen txikiagoa izan arren ( $\times 10$ ), injekzio kopuru gehiago pairatzen dituzte errendimendua areagotze aldera (erabiltze-denbora  $\uparrow$ ).

Halaber, aipagarria da UHPLC zutabeetatik barrena pasarazten den bolumen-kopuruarekin gertatzen dena. Bolumen txikiko zutabeak direnez, sistema berrorekatzeko beharrezkoa den denbora HPLC zutabeetan baino askoz laburragoa da. Alabaina, UHPLCaren fase mugikorraren abiadura lineala askoz altuagoa denez, zutabeak duen iraupen-bizitza arriskuan jar liteke (zutabe guztiek bolumen-kopuru jakinako iraupen-bizitza dute). Hortaz, analisi bat egiten ez den bitartean UHPLCaren sistema fluidikoak fase mugikorra ponpatzen jarraitzea bat ere komenigarria ez dela esan daiteke, zutabearen bizitza-iraupena nabarmen murriztu daiteke eta (10 minutu besterik ez dira behar zutabetik pasarazitako bolumen-kopurua 50ekoa izateko).

## 6.14 UHPLCren aplikazio eremuak

Partikula txikiek ( $<2 \mu\text{m}$ ) eta presio ultra-handiek banaketa-abiadura azkarrak eta efizientzia-maila altuak eragiten dituztela ikustearekin batera, laborategi analitikoetan UHPLC teknikaren arrakasta zalantzarik gabekoa izaten ari dela erakutsi da (ikusi 6.8 Atala). Mundu mailan UHPLCaren inplantazioa desberdina izaten ari den arren (ikusi 6.38 Irudia), 2004ean merkaturatzen hasi zenetik, UHPLCaren erabilera izugarri hazi da era guztietako eremuetara zabalduz.

Honezkero, UHPLCekin erlazionatuta 1.800 argitalpenetik gora plazaratu dira (ikusi 6.8 Atala). Gauzak horrela, jarraian, UHPLCaren arrakastaren erakusle diren aplikazio eremu nagusiak bildu dira.



Irudia 6.38: (a) UHPLC instrumentazioaren banaketa herrialdeka (2010eko urriko datuak) [332]. (b) 499 UHPLC erabiltzaile hartuta, UHPLC instrumentazioaren aplikazio-banaketa. *Strategic Directions International, Inc.* enpresak (SDI, Los Angeles, AEB) 2010ean osaturiko “*Ultra HPLC: Accelerating Technology Diffusion. A Worldwide Survey of UHPLC Users*” txostenetik egokitua [294]. (DMPK: Drug Metabolism/Pharmacokinetics).

### Bioteknologia: proteomika, metabolomika, metabonomika (OMICS)

Metabolomikaren<sup>25</sup> erronken artean, eritasun nagusienak garatzeko arriskua (adib. minbizia, diabetesa, artritisa, etab.) eta genoma, proteoma eta metabolito endogenoen arteko erlazioa aurkitzea dago. Helburu hau ordea ez da bat ere erraza. Lan esparru honetan erabiltzen diren laginak konplexutasun maila handikoak izanik (adib. zelulak, ehunak, gernua, plasma edo landare erauzkinak), zutabe-efizientzia eta gailur-edukiera handiko banaketak eskatzen dira. Gainera, metabolitoen kontzentrazioak askotan oso baxuak izaten direnez, sentikortasun maila oso altuak beharrezkoak dira.

Hainbat ikerlarik erakutsi dute egitasmo hauei aurre egiteko UHPLC–ToF–MS eta UHPLC–Q–ToF–MS plataformak oso aproposak direla. Zentzu honetan, ezin da ahaztu UHPLC sistemekin buruturiko lehenengo aplikazioak metabonomika eta genomika alorretan eman zirela [124, 333–336]. Plataforma hauen bitartez erresoluzio maila oso handiak iraupen laburreko zikloetan lortu daitezkeenez, milaka proteina eta metabolitotako lagin biologikoen banaketak prozesa daitezke.

<sup>25</sup>Metabolomika: genomika, transkriptomika eta proteomika barnebiltzen dituen zientzia nahiz teknika-sistema izanik, bere helburu nagusia, bitartekari metabolikoen azterketaren bitartez (metabolitoak, hormonak, seinale-molekulak, etab.) sistema biologiko osoa karakterizatzea da.

UHPLC aplikazioaren adibide gisa, ondorengo matritzetan osatu diren profil metabolikoak aipa daitezke [148]:

- Giza eta animalien fluido biologikoetan: arratoiaren gernuan [156,336], giza-gernuan [337,338], plasman [339] edo serumean [340,341];
- Landare erauzkintan [160,342].

### Auzitegi-analisiak

Abusuzko drogen analisiak, analisi toxikologikoak, *post-mortem* autopsia-analisiak eta orohar, auzitegi-analisiak, ondorio legalak (administratiboak zein penalak) izan ditzaketen analisiak dira. Hortaz, bertan erabiltzen diren teknikek erabateko fidagarritasuna erakustearekin batera, erresoluzioa, sentikortasuna eta azkartasuna nahitaez erakutsi behar dute.

Abusuzko drogen analisisa tipikoki bi urratsetako prozesua izaten da: hasierako *screening* testari normalean *screening*-ean ustez emaitza positiboak izandakoen berrespen-analisiak jarraitzen dio. Urte luzez, *screening* aplikazio askotarako gehien erabili izan den teknika immunoentseiuarena izan den bitartean, berrespenarako GC-MS erabili izan da [343]. Bi teknika hauen fidagarritasuna eta sendotasuna aski ezaguna den arren, toxikologikoki garrantzitsuak diren konposatu askorekin sentikortasun mugak erakusten dituzte. Gainera, toxikologi laborategietan aurkitzen diren substantzia asko ez-hegazkorak, polarrak edo termolabilak direnez, ezin dira GC-MSean zuzenean neurtu. Konposatu hauek analizatu aurretik normalean deribatizatu behar izaten dira, horrek suposatzen duen denbora kontsumoarekin.

Era honetako analitoak analizatzeko LC-MS/MSren egokitasuna erabatekoa da. Nolanahi ere, eskakizun analitikoak zorrotzu diren heinean teknika azkar, zehatz eta sendoagoen beharra nabarmendu da. Zentzu honetan, aplikazio eremu honetarako UHPLCaren ekarpena garrantzia hadikoa izan da [344]. UHPLC-MS/MS sentikortasun eta erresoluzio hobekuntza nabarmenak ekarri ditu, analisi-denbora murrizketa garrantzitsuarekin batera. Oso kontzentrazio txikietan agertu arren, UHPLC-a erabilia legez kanpoko drogen (adib. anfetaminak, opiazeoak, bentzodiazepinak, GHB . . .) identifikazio eta banaketa azkarra odola, plasma edota gernuaz gain erasokorrek ez diren matrize alternatiboetan (adib. ilea, izerdia edo aho-fluidoak) modu arrakastatsuan burutu daiteke. Honela, UHPLC-MS/MS berrespen analisiak burutzeko teknika bezala onartzeaz gain, bere erabilera *screening* aplikazioetan ere nagusitzen hasi da [343].



Teknika honen arrakasta praktikoa oso garrantzitsua izan da auzitegi/toxikologi laborategietan, aldizkari espezializatuetan kaleratutako publikazio andanak argi erakusten duen moduan [343, 345–351].

### **Dopin analisia kirolean**


Kirolari baten kirol-bizitza laborategiak aurkeztutako emaitza positibo batekin amaitu daitekeen heinean, errutinazko dopin-kontroletan *screening* eta berrespen-metodoak azkarrak, zehatzak eta ezbairik gabekoak izan behar dira. Hau nahikoa ez balitz, dela dopin-kontrolen izaera progresiboagatik, dela merkatu farmazeutikoaren etengabeko eskaintza aldakorragatik, dela kirolarien errendimendua ustez hobetzen duten hurbilketa ilegal berriengatik, edota autoritate erregulatzailleek debekaturiko zerrendetan egindako moldaketengatik<sup>26</sup>, analizatu beharreko analitoen kopurua azken urteotan nabarmen hazi da<sup>27</sup>. Aldi berean, azkenaldian buruturiko anti-dopin analisisien kopurua ere handitu denez, analizatu beharreko lagin kopurua nabarmenki areagotu da. Gauzak honela, analisisien emaitzak erabateko fidegarritasunarekin denbora labur batean jakinarazi behar izateak, instrumentazio berrien garapena edota dagoena hobetzea eskatzen du.

Teknologia berrien sarrerak, UHPLCa kasu, analizatutako lagin kopurua handitzea eta lortutako emaitzen kalitatea hobetzea eragin du. MSrekin batera konbinatuta UHPLCak hainbat dopin agente monitorizatzeko prozedurak azkartzeko aukera aurkezten du. GC–MS teknika konbentzionalen bitartez ozta-ozta detektatu edo detektatu ezin daitezkeen agente terapeutiko debekatuentzat, determinazioa posible egiten duten aplikazio ugari garatu dira. Horren erakusle dira publikatutako dopin kontroletan normalean erabiltzen diren metodoen laburpen zehatzak [152, 212, 352–358].

---

<sup>26</sup>Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren (*World Anti-Doping Agency*, WADA) Munduko Anti-Dopin Kodeak, lehiaketan edota lehiaketatik kanpo dauden kirolarientzat debekaturiko substantzien zerrenda jasotzen du (kirol disziplina jakin batzutarako zenbait erregulazio espezifiko ere agertzen dira). Debekaturiko zerrenda hau urtero eguneratzen denez, urteekin moldaketa asko ezagutu ditu, geroz eta zerrenda zabalago batean bilakatuz.

<sup>27</sup>Dopin kontroletan munduan urtero analizatzen diren gernu laginak 150.000etik gorakoak direla estimatzen da.



Irudia 6.39: Elite mailako dopin aferek zalaparta mediatiko oso handiak eragiten dituzte. Irudian, 1988eko Seuleko Joko Olinpikoetan stanzol metabolitoen presentzia erakutsi zituen laginaren berrespen emaitza eta Ben Johnson kasua jasotzen zuen aldizkari sensazionalista baten portada. [359]-tik egokitua.

### Albaitaritza-farmakoen analisiak

Albaitaritza-farmakoen erabilera desegokiaren ondorioz gerora merkaturatuko diren animalia-jakietan farmako hauen arrastoak ager litezke. Hormona nahiz konposatu hauek kontsumitzaileengan ondorio toxiko larriak eragin ditzaketenez, Europar Batasuneko Europako Batzordeak 470/2009 eta 37/2010 Kontseilu Arautzaileen bitartez farmakologikoki aktiboak diren eta jatorri animaliko elikagaie-tan ager daitezkeen konposatuen zerrenda luzea argitaratu du, jakietan egon daitezkeen kontzentrazio-muga maximoak zehaztuz (*maximum residue levels*, MRL) (ikusi Europar Batasuneko "*Residues of Veterinary Medicinal Products*", "*Maximum Residue Limits Reports (EPMAR)*" eta "*Medicinal Products for Veterinary Use*" webguneak) [360, 361].

Animali ehunetan era honetako hondakin-arrastoak detektatzeko, *screening* metodo gisa gehien erabili izan diren aplikazioak teknika mikrobiologikoak edo bioentseiu teknikak izan dira [362]. Orokorrean, metodo hauek ez dute ezberdintzen antibiotiko klase baten kideen artean, baina detektaturiko hondakin guztien estimazio erdikuantitatiboa emateko gai dira. Teknika kromatografikoen garapenarekin, era honetako analisisiek aldaketa sakona ezagutu dute, *screening* eta berrespen-

metodoak zehaztasun eta sentikortasun handiz burutu baitaitezke.

Alabaina, monitorizatu beharreko analitoen kopurua oso handia denean (adib. 100–120tik gorakoa), LC instrumentazio tradizionalaren mugak agerikoak dira. Erresoluzioarekin eta MS detektagailuen polaritate zein ionizazio modu aldake- tekin mugak agertu ohi direnez, lagin berdina behin baino gehiagotan injektatu beharra dago erretentzio-denbora leiho berdinean trantsizio espezifikoko desberdi- nak monitorizatu ahal izateko. Gainera, gaur egun MRL-mugen urraketak kontro- latu eta arriskuaren ebaluazioa egin ahal izateko, geroz eta metodo sentikor eta fidagarriagoak behar dira. Era honetako eskakizunei aurre egiteko, UHPLCaren erabilera ezinbestekoa bihurtzen ari da.

Instrumentazio honek erakusten dituen ezaugarriak aintzat hartuta eta aplikazio eremu honek eskatzen dituen baldintza zorrotzak ikusita, UHPLC prozedurak izan duen arrakasta erabatekoa dela esan daiteke. Izan ere, albaitzaritza-farmakoen analisiak egiten dituzten laborategiek UHPLC erabilera-tasa altua erakusten dute.

Adibide gisa, matrize desberdinetan (adib. animalia haragia, gernua, plasma, ilea, esnea edota ezitia) argitaratu diren aztarna mailako albaitaritza-farmako ugariren aldebereko *screening* nahiz berrespen-analisi lanak aipa daitezke [363–370].

### **Elikagai segurtasuna eta ingurugiro analisiak**

Nekazal-produktuen elaborazioan bertan edota uzta hauek jazo eta biltzerakoan, gehiago ala gutxiago, produkzioa areagotzeko oso garrantzitsuak diren pestizidak erabili ohi dira. Kalteak eragin ditzaketen intsektuak, ondoak, nematodoak edota moluskuen aurka nekazal laborantzan normalean erabiltzen diren 800etik gorako pestizidek osasun arazo larriak eragin litzakete [371].

Pestizidak ez ezik, pestiziden metabolitoak ere kezka iturri badira, agertzen dituz- ten propietateak euren jatorrizko konposatuen antzerakoak baitira (antzerako akti- bitate biologikoa eta zenbait propietate toxikologiko). Beraz, metabolitoen kontrola elikagaietan zein uretan ere zorrozki mantendu beharra dago. Pestiziden azpipro- duktuak zein metabolitoak giza osasunerako estrategikoak diren hainbat lekutan ager daitezke, esaterako, ingurugiro esparru askotan (bereziki zoru, lurgaineko ur, lurpeko ur eta airean), animalien pentsuetan edota gizakion kontsumorako jakie- tan [372].

Halaber, ingurugiroan nahiz kate-trofikoan ondorio kaltegarriak eragin ditzake- ten giza kontsumorako konposatu ugari, maiz ingurune akuatikokoan barreiatuta

agertzen da (adib. abusuzko drogak, farmakoak, polutzaileak –dispertsailleak eta surfaktanteak bezalakoak–). Hauetako asko hondakin-uren tratamendurako udal planten (*wastewater treatment plants*, WWTPs) efluentetatik barrena iristen dira, modu eraldatugabea zein metabolito forma nagusietan. Planta hauek era honetako produktuak eliminatzeko agertzen duten eraginkortasunaren arabera, konposatu hauek hondakin-uretako tratamenduak eraldatu gabe igaro eta kontsumorako uretan detekta daitezke [373].

Gizartearen osasunean eta ongizatean ingurugiro-analisiek duten garrantzia ikusita, legedia geroz eta zorrotzagoa da [374]. Horrela, Europar Batasuneko Europako Batzordeak 396/2005 Kontseilu Arautzailearen bitartez animalia eta landare jatorriko janari zein animalia-pentsuetan pestizida-hondarren MRLak zehazteaz gain (ikusitako Europar Batasuneko "*Plant Protection-Pesticide Residues*" eta "*EU Pesticides Database*" webguneak), 2008/105/EC Direktiba eta 2455/2001/CE Erabakiaren bidez ur politika-eremuan ingurugiro kalitaterako arauak zehazten ditu (ikusitako Europar Batasuneko "*Priority substances under the Water Framework Directive*" webgunea) [375–377].

Exijentzia maila hauei erantzun ahal izateko, ingurugiro-laborategietan sentikortasun, erresoluzio eta analisi-denbora puntakoenak eskainiko dituen instrumentazioa izatea nahitaezkoa da. Halaber, ingurugiroa errespetarazteko bidean instituzio publikoek analisi hauek burutzeko geroz eta jasangarriagoak diren prozedurak eskatzen dituzte, horretarako disolbatzaile organikoen erabilera ahalik eta gehien murriztu behar delarik. Eskakizun hauei aurre egiteko, UHPLC instrumentazioaren bideragarritasuna erabatekoa da. Izan ere, ingurugiro-laborategietan UHPLC teknikaren erabilera geroz eta zabaldugoa dago, horren adierazle lan eremu honetan UHPLC erabilia publikatu diren lan zientifikoaren kopuru zabala delarik.

Garatu diren UHPLC metodo analitikoaren bitartez droga psikoaktibo adierazgarriak [373, 378, 379], konposatu farmazeutikoak [380, 381] eta albutari drogak zein pestizidak [382] bezalako hondakin analito-anitzak influenteetan eta efluyenteetan nanogramo litroko detekzio mailetan modu arrakastatsuetan burutu izan dira. Surfaktanteak bezalako polutzaileak ehungintza hondakin-uretan [383], ondotoxinak esnean, zerealean eta edarrietan [384–388], lehegailu hondakinak zoru edo uretan [389], hegazkorak ez diren konposatuak (birziklaturiko PET materialak) elikagaiekin kontaktuan dauden ontzi-materialetan [390] edota pestizidak elikagaietan, frutetan eta fruta-zukuetan [391–397] ere UHPLC bidez determinatu izan dira. Adibide hauek guztiak teknika honen bideragarritasuna frogatzen dute.

## Analisi farmazeutikoa

Medikamentuen aurkikuntzatik hasita [333, 335, 336, 398, 399] medikamentuen garapenaraino [297, 400, 401], industria farmazeutikoan ere UHPLCaren erabilera geroz eta zabalduagoa dago [297, 402]. Lagin farmazeutikoak konplexuak izan daitezkeenez eta lagin kopurua handia analizatu ohi denez, esparru honetan ere erresoluzio eta sentikortasun handiko banaketa azkarren premia handia da.

UHPLCa, medikamentu berrien aurkikuntza prozesuan arrakasta maila hobetzeko erabiltzen da. Izan ere, prozesu honek molekula hautagaien eragin metabolikoaren iragarpen goiztiarrarekiko menpekotasun handia du. Hautagai ustelek aurkikuntza prozesuan aurrera egin ez dezaten, hautagai guztien egonkortasun metabolikoa eta metabolito toxikoen ekoizpena bezalako faktoreak monitorizatu ohi dira. Garapen prozesuan nahastuta agertzen diren konposatuen dibertsitatea eta kopurua etengabea hazten ari denez eta hauen analisiak izaera konplexuko matrize biologikoetan burutu behar direla aintzat hartuta, prozedura eta teknologia analitiko berriak beharrezkoak dira existitzen den test eskakizun mailari behar bezala aurre egin ahal izateko. Ustekabekoak, erreaktiboak edota toxikoak diren metabolitoak ahalik eta azkarren identifikatu behar dira oso garestia diren alboratze klinikoak murrizteko. Datu zehatzagoak eskuratzeko joera honek, erresoluzio kromatografikoa hobetu behar izatearekin batera (gailur-edukiera handiagotzeko eta metabolitoen aldi bereko eluzioa ekiditzeko), sentikortasuna handitu eta MS ioi supresioa txikitzea eskatzen du [307].

UHPLCaren agerpenarekin eta MS detektagailuetan inplementatu diren hobekuntzen ondorioz, ioi iturrian elkarren artean lehiatzen duten konposatuen artean ioi supresioa txikiagoa denez analitoen ionizazioa konstanteagoa da [148, 403]. Sentikortasun erantsi honek izugarritzko garrantzia du MS-MS esperimentuak burutu behar direnean, espektroak interpretaezinak izatetik interpretagarriak izatera iritsi bailitezke [307, 318, 402].

Modu honetan, gaur egungo UHPLC-MSekin LC-MSekin baino askoz banaketa eraginkorragoak erdiesten dira. UHPLCak eskaintzen duen erresoluzio mailarik gabe, metabolito bati egitura okerra esleitu lekioketo edo potentzialki toxikoa den zatiki bat identifikatzerakoan huts egin liteke. UHPLCaren bitartez lortzen den sentikortasun gehigarriari esker ere, kontzentrazio maila baxuagoko metabolitoak detekta litezke. Horrela, potentzialki toxikoak diren konposatuak medikamentuen aurkikuntza prozesutik azkarrago baztertu litezke, modu honetan esfortzu eta diru asko aurrestuz.

Industria farmazeutikoan UHPLCaren erabilera oso zabalduta dagoen bezala, farmako horien dosi terapeutikoak ere jarraitzeko instrumentazio hau laguntza handikoa da [210, 212, 404–406].

### **Analisi klinikoa eta medikamentu kardiobaskularren analisia**

Diagnostiko bat konfirmatu ala baztertzeko orduan, mediku taldeek normalean analisi klinikoak bezalako azterketa gehigarriak eskatzen dituzte. Hematologia, hemoterapia, biokimika klinikoa, mikrobiologia eta parasitologia, immunologia eta genetika bezalako arloak, analisi klinikoaren lan eremuaren parte dira. Zenbait konposaturen presentzia eta neurketa garrantzia kliniko handikoak dira sindrome edo gaixotasun ezberdinak diagnostikatzerako orduan (adib. minbizi markatzaileen edo antigorputzen identifikazioa, hormonon dosifikazioak . . .). Beraz, instrumentazio sentikorra eta zehatzaren beharra agerikoa da.

Zentzu honetan, arlo klinikoan ere UHPLCaren ekarpena handia izaten ari da. Teknika honen erabileraren adibide gisa medikamentu terapeutikoen monitorizazioa [407–409], farmakozinetika ikerketak [410–413] edo hormonon eta bere metabolitoen kuantifikazio lanak [414–416] aipa daitezke.

Esparru klinikoaren barruan, jakina, gaixotasun kardiobaskularren aurkako terapiari arreta berezia jarri behar zaio. Izan ere, eritasun hauek mundu mailan gertatzen diren heriotz guztien %30 inguru eragiten dute [417, 418]. Hipertentsioa, kolesterol maila altuak edo diabetesa bezalako arrisku faktoreak barne biltzen dituen fenomeno klinikoari (Sindrome metabolikoa) aurre egiterako orduan ere, UHPLCak onarpen maila altua ezagutu du.

Horren adibide dira giza plasman terapia kardiobaskularrean nahastuta agertzen diren estatina [419–422], antihipertentsibo (diuretiko, ACEI, AHA-II, kaltzioaren kanalen antagonista, alfa adrenergiko hartzaileen antagonista) [143, 404, 423–430] eta antikoagulatzaileak [405] determinatzeko garatu izan diren metodoak. Zalan-tzarik gabe, UHPLCak esparru kardiobaskularrari ekarpen handia egin dio, teknika honek eskaintzen dituen sentikortasun eta erresoluzio maila altuak laguntza handikoak dira eta.

**Aplikazio esparru gehiago** Aipatutako lan eremu nagusi hauetaz gain, literaturan UHPLC teknologia erabilita bestelako aplikazio asko aurki daitezke. Horren adibide dira produktu kosmetikoak [149], bolalumetarako koloratzaileak [431] eta

hainbat produktu naturalen determinazioak [396, 432–436]. Nolanahi ere, teknika honen aplikazioen berri ematen dituzten lan-bilduma zabalak urtero publikatzen dira (esaterako *Waters Corporation* konpainiak bere zientzilari, kolaboratzaile eta bezeroek argitaratutako lan guztien berri ematen dituzten lan teorikoak nahiz praktikoak) [437]. Progresioa etengabekoa denez, datozen urteetan zalantzarik gabe UHPLCren aplikazio eremuak hedatu eta ugartuko direla aurrean daiteke.

## 6.15 UHPLC: etorkizunean eta etorkizuna

Orain arte ikusitakoaren arabera, UHPLCa etengabe zabaltzen ari den teknika bat dela esan daiteke. Kostu txikiagoarekin lagin kopuru gehiago prozesatu ahal izateko, laborategi ugari euren lan-metodoak UHPLCra transferitu dituzte (edo transferitzeko bidean daude). Laborategi analitikoaren artean hedapen eta ezarpen azkarrak izaten ari bada ere, oraindik enpresa askok HPLCari eusten diote, dela UHPLCaren mesfidati direlako, dela “betiko” HPLCaren emaitzak nahikoak izan eta zalantza beteriko abenturetan murgildu nahi ez dutelako. Hortaz, teknika berri honen erronka nagusia industrian integratzea eta optimizatzea izango da.

Bide batez, I+G garatzaile taldeek UHPLC instrumentazioa hobetzen jarraitu beharko dute. Baina, zein ote da teknika honek etorkizunean hartuko duen bidea? Bada zer hobetu, hala nola zer garatu. Esate baterako, presio eta tenperatura altuagoetan banaketak bermatu ahal izateko, hardwaregile eta zutabegileek nabarmen hobetu beharko dituzte eskaintzen dituzten produktuen sendotasuna. Bide haueetatik abiadura, sentikortasuna eta erresoluzioa hobetzeko aukerak etorriko baitira.

**Partikularen tamaina** Hobekuntzak orokorrak izan beharko dira, I+G departamentuak fronte desberdinetan sakonki inplikatu beharko direlarik. Horrela, zutabeen teknologiaren garapenak garrantzia erabakigarria izango du. Zutabeen paketatzeak txikiagoak eta sendoagoak balira, zutabe laburrak erabiltzerakoan saiakuntzen arteko errepikakortasuna handiagoa litzateke. Orokorrean, tamaina txikiagoekiko partikulen joera bere horretan mantenduko da (bai erabat porodunak diren partikuletan zein SPP partikuletan). Partikulen tamaina muga praktikoa 1.0 eta 1.5  $\mu\text{m}$  artean egon daitekeela estimatzen da, beraz, litekeena da zutabe eta paketatze materialen fabrikatzaileek teknologia muga hauetarantz bideratzea. Erabiltzaileen eskaintza zalantzarik gabe ugartuko da. 2.2–2.7  $\mu\text{m}$  arteko partikula saltzaileek ere merkatu horretan agertu nahiko dute. Horretarako UHPLC erako instrumentu berri baten erosketaren beharrik ez dela aldarrikatuko dute.

Bien bitartean,  $<2 \mu\text{m}$  partikulekiko alternatiba gisa, zutabe monolitikoak eta SPP partikulen loratzea emango dela iragar daiteke. Fase geldikorren aniztasuna ugaritu beharko da horretarako. Zentzu honetan, azkenaldian SPP partikulek atentzio handia erakarri dutela esan beharra dago. Izan ere, SPP partikulek  $<2 \mu\text{m}$ -ko muga behin hautsita, presio garaiagoak eusteko erronka zain dute. Hala gertatuko balitz, interes handiko zutabeak erdietsiko lirateke. Hortaz, datozen urteotan gertutik zaindu beharko da SPP zutabeen garapena. Bukatzeko, zutabe laburrago eta estuagoen aldeko joera mantenduko da, partikula-tamaina txikiagoko paketatze materialen erabilerarekin bat dator eta.

**Hardware-hobekuntzak** Hardware mailako teknologiak ere eboluzionatu beharko du. Batetik, UHPLC fabrikatzaileek kanpoko presioari eutsi beharko diote. UHPLC-ak erakutsi duen bultzadaren aurrean, sistema konbentzionalen fabrikatzaileen preioa handituko da, HPLC sistema optimizatuekin etorriko dira eta. Ponpetako bolumen-hila eta sistemaren dispersioa murriztuz eta partikula-tamaina txikiko zutabeak aukeratuz, HPLC sistema konbentzionalak ere erresoluzio, abiadura eta sentikortasun maila hobekak eskaini ditzakete (ez ahaztu zutabe monolitikoekin eta SPP partikulekin bateragarriak direla). Hortaz, UHPLC fabrikatzaileak eboluzionatzen jarraitu beharko dute.

Bestetik, UHPLC fabrikatzaile desberdinen arteko barne presioari aurre egin beharko zaio. Etxe komertzial bakoitzak bere ahalmenaren araberako apostua egingo du. Batzuk, beste fabrikatzaileek eskaintzen ez dituzten ezaugarri propioak garatzen saiatuko dira (presio altuagoak eusteko gai diren injekzio-sistemak, zutabeak, ponpa-sistemak; detektagailu azkarragoak, sentikorragoak, zehatzagoak; injekzio-sistema azkarragoak, aproposagoak, biobateragarriagoak; gradiente zehatzagoak eragiteko bolumen-hil txikiagoko ponpa-sistemak, nahasgailuak, detektagailuak ...). Zentzu honetan, zenbait ikerketa laborategik 100.000 psi-tik gorako presioetan banaketa egokiak lortu dituztela ikusita, etorkizun hurbil batean UHPLC belaunaldi berriek 50.000 psi inguruko presioetan lasai asko lan egiteko ahalmena erakutsi lezakete. Aurrera pausu komertzialak etengabe ematen ari dira. Adibide moduan Valco Instruments Company Inc. etxea (VICI, Houston, AEB) aipa daiteke. Izan ere, etxe komertzial honek egungo UHPLC sistema estandarrek jasan ditzaketen presio-mugetatik gora lan egin dezaketen moduluak jada merkaturatzen ditu (40.000 psi artekoak).

Beste fabrikatzaile batzuk, berriz, erabilera-modu desberdinak eskaintzen dituen instrumentazio merkeagoak garatzen saiatuko dira. Norabide honetan uler daitezke azkenaldian merkaturatzen hasi diren ponpa-sistema lautarrak edo hirutarak (merkeagoak eta manipulaziorako aukera gehiago eskaintzen dutenak baina



gradiente ultra-laburrak osatzeko hain aproposak ez direnak). Zentzu honetan, esanguratsua da HPLC/UHPLC sistema hibridoekiko nabarmentzen ari den joera. “All-in-one” delako sistema hibrido hauek UHPLC tradizionalak baino lehiakorragoak dira, abiadura eta prezisio maila antzerakoak eskainiz HPLC konbentzionala bezala lan egiteko aukera eskaintzen baitute. Zenbait adituren arabera, etorkizunean HPLC eta UHPLCaren arteko muga desagertuko da, HPLC berriek presio ultra handiak eusteko gai izanik *extra-column* bolumenak murriztuko baitituzte [438]. UHPLC erabilera dedikatuko instrumentazioak, ekipamendu malguagoei (HPLC+UHPLC) bidea utziko diela ematen du beraz.

Egungo UHPLC sistema komertzialek erakusten dituzten hainbat ahultasun hobetu beharko dira, esaterako, zutabearen labea, ponpak, nahasgailuak eta autosanplerraren diseinua.

Hasiera batean, zutabe-labeek diseinu txiki samarrak erakusten zituzten, bertan gehienetan zutabe bakarra baino ezin zelarik finkatu (ikusi 6.40 Irudia). Gainera, *Peltier* efektuan oinarrituriko berogailu hauek oso eraginkortasun txikikoak dira. Nolanahi ere, zutabearen ematen den bero banaketa eskasa, nolabait konpentsatu egiten da zutabearen bertan ematen den marruskadura efektuarekin (fase mugikorra berotu egiten da; ikusi 6.5 Atala). Modu honetan, azkenean zutabe tenperatura erlatiboki uniformeak eskuratzen dira. Hortaz, beroketa sistema nabarmen hobetu beharko da. Beroketa eraginkorragoa eta tenperatura altuagoak ahalbidetuko dituzten kontaktuzko berogailuak gehitu beharko dira.

Fluidika sistemari dagokionez, ponpa lautarren erabilera nagusituko dela pentsa daiteke (azken urteotan jada ematen ari den fenomeno da). Halaber, nahasgailuen diseinua hobetu beharko da. Izan ere, UV uhin luzera txikietan lan egiterakoan, gaur egungo nahasgailu gehienek (50–100  $\mu$ L artekoak) nahasketa desegokia eskaintzen dute (nahasgailuak eragiten duen zarata detektagailuaren seinalean antzematen da). Zentzu honetan, geruza-anitzetako mikrofluidika teknologiaren bitartez (*multi-layer microfluidics technology*), <40  $\mu$ L-ko nahasgailuak erabilia detektagailuen zarata murriztea lortu da (ikusi 6.41 Irudia). Argi dago bide beretik etorriko direla etorkizuneko nahasgailu diseinu berriak.


Autosanplerrei dagokionez, berriz, adierazi beharra dago zenbait hornitzailearen kasuan, *xyz* diseinuak hobetu behar izateaz gain, *carryover* arazoak ekiditeko neurriak hartu beharko direla.




(a) Zutabe bakarrerako labea.



(b) Lau zutabeetarako labea.



**Irudia 6.40:** UHPLC labe kontrolagailuek garapen esanguratsua ezagutu dute. Hasiera batean, zutabe bakarrerako ahalmena baino ez zuten. Denborarekin, zutabe bat baino gehiagorako labe-dispositiboak garatu dira. Irudian: (a) zutabe bakar baterako *ACQUITY UPLC Column Manager* (Waters Corporation, Milford, AEB) gailua (diseinu zaharra); (b) lau zutabeetarako *ACQUITY UPLC Column Manager* (Waters Corporation) gailua (diseinu berria).



**Irudia 6.41:** Mikrofluidikaren bitartez UHPLC sistemek geroz eta bolumen txikiagoko nahasgailuak erabiltzen dituzte. Irudietan, *multi-layer microfluidics* teknologia erabiltuta *Agilent Technologies* (Palo Alto, AEB) etxeak komertzializatzen dituen *JetWeaver* nahasgailuen irudi desberdinak. Beheko lerroko irudian, absorbantzia handia duen azido trifluoroazetikoa monitorizatu da *JetWeaver* nahasgailua erabiltuta eta gabe ( $\lambda_{abs}=254$  nm, 80 Hz) (ikusi [www.chem.agilent.com](http://www.chem.agilent.com) web orrialdea).

**Detektagailuak** Etorkizuneko joerak orain artekoari eutsiko dio, hots, UHPLC sistemek sortarazitako gailur azkarrak jasotzeko ekorketa ahalmen azkarragoko detektagailuak errekerituko dira. Emaizta kromatografiko txukunak lortze aldera, detektagailu hauek azkarrago eskaneatu beharko dute gailurraren zehar puntu nahikoak jaso ahal izateko. Dena den, aintzat hartu beharra dago gailur bat irudikatze beharrezkoak diren puntuak baino gehiago eskuratzen badira (integrazioa errepikakorra izateko gailur bakoitzeko 15 puntu behar dira, eta kuantifikazioa errepikakorra izateko 25–50 puntu), zarataren ekarpena esanguratsuki haziko dela (ikusi 6.13 Taula). Beraz, datuak eskuratzeko abiadura gailurren zabaleraren arabera izan beharko da. Esaterako, 1–3 segundutako gailur batentzat 500 Hz-ko eskuratzeko-abiadurak erabiltzea zentzugabea da. Zarata handiegia jasoko litzateke.

Taula 6.13: Zarata tipikoki datuak eskuratzeko abiadurarekin hazten da.

Eskuratzeko-abiadura	1 Hz	2 Hz	5 Hz	10 Hz	20 Hz	40 Hz	80 Hz
Zarataren batzbesteko hazkundera	×1	×1.43	×1.55	×1.76	×1.95	×2.04	×2.50

Bestalde, analito-gailurren dispersioa minimizatu ahal izateko, bolumen txikiago-ko detekzio-zelulak diseinatu beharko dira. Nolanahi ere, aurrerapenik esanguratsuenak MS detektagailuetan zentratuko direla ematen du. Nahikoa da aldizkari espezializatuetan UHPLCaren inguruan publikaturiko lanak aztertu eta MS determinazioei dagozkien portzentaiei erreparatzea. Dena den, zoritxarrez, laborategi askorentzat MS detektagailuak arrazoi ekonomikoengatik eskurazinak dira. Hor-taz, bestelako detekzio moduek ere hobekuntza nabarmenak ezagutuko dituztela esan daiteke.

Azkenik, detektagailuen inguruan hausnarketatxo bat egin beharko litzateke. Izan ere, zenbait fabrikatzailek bezeroak engainatzen dituzte analisi azkarrak eskuratzeko partikularen tamaina horrenbeste murriztea beharrezkoa ez dela ziurtatzen dutenean, presio altuetan lan egiteko beharrik ez dagoela diotenean. Kromatograma azkarrak eskuratzeko UHPLC sistemen beharrik ez dagoela aldarrikatzen dute. HPLC tradizionalen alde egin eta partikula handiagoeekin eskuraturiko emaitzak antzerakoak direla aldarrikatzen duten fabrikatzaile hauek ez litzukete horrelako emaitzik lortuko euren detektagailuen denbora konstanteak motelagoak balira. UHPLC detektagailuen abiadurarik gabe, nekez lortuko litzukete horrelako emaitzik ez-optimizaturiko sistema horietan. Eta sistemaren bolumena txikiagotuko

balute, emaitza oraindik ere hobeak lortuko lituzkete. Hain zuzen ere UHPLCren logika da hori bera.

Azkenik, detektagailuen inguruan hausnarketatxo bat egin beharko litzateke. Izan ere, zenbait fabrikatzailek bezeroak engainatzen dituzte analisi azkarrak eskuratzeko UHPLC teknologiaren beharrik ez dela adierazten dutenean. Partikularren tamaina horrenbeste murriztea beharrezkoa ez dela ziurtatzen dute, presio altuetan lan egiteko beharrik ez dagoela diote. Eta egia da. Baina UHPLC teknologia, hori baino gehiago bada. Egungo detektagailuek erakusten dituzten abiadurak UHPLCaren garapenaren parte direla ez da ahaztu behar. HPLC tradizionalen alde egin eta partikula handiagoei eskuraturiko emaitzak antzerakoak direla adarrikatzen duten fabrikatzaile hauek ez lituzkete horrelako emaitzik lortuko euren detektagailuen denbora konstanteak motelagoak balira. UHPLC detektagailuen abiadurarik gabe, nekez lortuko lituzkete horrelako emaitzik sistema horietan.

The optimized UPLC method has proved to be sensitive, selective and rapid for the simultaneous determination of CLTD and VAL in human plasma samples.

The UPLC technology has widely improved the method optimization process (method development) since lower re-equilibration times (2 min vs. 5–8 min in HPLC) and shorter chromatograms allow a greater number of experimental testing conditions than with a conventional HPLC. The sample volume required is also much lower than in HPLC (2.5 µL vs. 10 µL), enabling larger number of injections per sample. Shorter analysis times together with slower flow rates reduce the organic solvent consumption. Taking into account the shortage of acetonitrile worldwide, the UPLC achieves a remarkable 73% acetonitrile saving in comparison with the previous HPLC method.

Shorter analysis times require higher data-acquisition rates (80 Hz vs. 1 Hz), resulting in sharper and higher chromatographic peaks and thus, improving the peak capacity. In terms of efficiency

UPLC has notorious advantages in comparison with conventional HPLC. Nevertheless, less tedious extraction methods should be developed to couple with the fastness of UPLC.

The sensitivity has found to be analyte dependent, since that improvement has not been proportional for all the analytes. Even so, this fact does not affect the viability of the method, since the concentrations ranges expected for the four analytes are widely covered.

The analysis of the FLUV should be carried out immediately after the clean-up process, since a significant loss in concentration has been observed between the HPLC analysis and the UPLC analysis.

As reported for HPLC, samples obtained from patients under treatment with valsartan showed the splitting of the VAL-M1 chromatographic peak. Even if different gradient conditions were assayed, the complete resolution of both peaks by UPLC-tunable UV-vis (TUV) resulted impossible. This fact could be explained on the assumption that both peaks matched two metabolites of valsartan presenting major structural similarities. This hypothesis should be validated with a further mass spectrometry (MS) study of both peaks.

#### Acknowledgments

The authors thank the University of Basque Country and Ministry of Science and Ministry of Education for financial support (GIU07/02, CTQ2006-11285) and the pharmaceutical companies for the kind supply of studied drugs. Oskar Gonzalez thanks the University of Basque Country for his predoctoral grant. Nerea Ferreirós thanks the Basque Government for her postdoctoral grant. The authors also thank the Health Centre of Vitoria-Gasteiz's old town, belonging to the Basque Health Service-Osakidetza (Basque Government), and specially María Mercedes Saez Etxarri, Ana M. Iturri, Javier Nafarrate and Angel Elorriaga for supplying blood samples from patients under cardiovascular treatment.

#### References

- [1] G.M. Reaven, *Diabetes* 37 (12) (1988) 1595.
- [2] S.M. Haffner, R.A. Valdez, H.P. Hazuda, B.D. Mitchell, P.A. Morales, M.P. Stern, *Diabetes* 41 (6) (1992) 715.
- [3] J.A. Whitworth, *J. Hypertens.* 21 (11) (2003) 1983.
- [4] Third Report of the National Cholesterol Education Program (NCEP). Expert Panel on Detection, Evaluation, and Treatment of High Blood Cholesterol in Adults (Adult Treatment Panel III) Final Report, *Circulation* 106 (25) (2002) 3143.
- [5] B. Isomaa, M. Henricsson, P. Almgren, T. Tuomi, M.-R. Taskinen, L. Groop, *Diabetologia* 44 (9) (2001) 1148.
- [6] H.-M. Lakka, D.E. Laaksonen, T.A. Lakka, L.K. Niskanen, E. Kumppusalo, J. Tuomilehto, J.T. Salonen, *JAMA* 288 (21) (2002) 2709.
- [7] B. Balkau, M. Vernay, L. Mhamdi, M. Novak, D. Arondel, S. Vol, J. Tichet, E. Eschwege, *Diab. Metab.* 29 (5) (2003) 526.
- [8] N. Sattar, A. Gaw, O. Scherbakova, I. Ford, D.St.J. O'Reilly, S.M. Haffner, C. Isles, P.W. MacFarlane, C.J. Packard, S.M. Cobbe, J. Shepherd, *Circulation* 108 (4) (2003) 414.
- [9] S.M. Grundy, J.I. Cleeman, S.R. Daniels, K.A. Donato, R.H. Eckel, B.A. Franklin, D.J. Gordon, R.M. Krauss, P.J. Savage, S.C.J. Smith, J.A. Spertus, F. Costa, *Circulation* 112 (17) (2005) 2735.
- [10] E.S. Ford, W.H. Giles, *Diabetes Care* 26 (3) (2003) 575.
- [11] U. Kintscher, P. Bramlage, W.D. Paar, M. Thoenes, T. Unger, *Cardiovasc. Diabetol.* 6 (2007) 1.
- [12] W.T. Cefalu, *Diab. Metab. Syndr. Clin. Res. Rev.* 2 (2008) 208.
- [13] A. Marcus, *Diab. Technol. Ther.* 2 (1) (2000) 101.
- [14] M. Lu, P. Tong, H. Xiao, S. Xia, X. Zheng, W. Liu, L. Zhang, G. Chen, *Electrophoresis* 28 (9) (2007) 1461.
- [15] M.L. Riekkola, J.H. Jumppanen, *J. Chromatogr. A* 735 (1–2) (1996) 151.
- [16] T. Perez, C. Martinez, R. Galera, *Electrophoresis* 27 (12) (2006) 2310.
- [17] C. Goebel, G.J. Trout, R. Kazlauskas, *Anal. Chim. Acta* 502 (1) (2004) 65.
- [18] K. Deventer, P. Van Eenoo, F.T. Delbeke, *Rapid Commun. Mass Spectrom.* 19 (2) (2005) 90.
- [19] L. Politi, L. Morini, A. Poletti, *Clin. Chim. Acta* 386 (1–2) (2007) 46.
- [20] D. Liu, P. Hu, N. Matsushima, X. Li, L. Li, J. Jiang, J. Chromatogr. B 856 (1–2) (2007) 190.
- [21] M. Polinko, K. Riffel, H. Song, M.-W. Lo Man-Wai, *J. Pharm. Biomed. Anal.* 33 (1) (2003) 73.

- [22] V. Morra, P. Davit, P. Capra, M. Vincenti, A. Di Stilo, F. Botre, J. Chromatogr. A 1135 (2) (2006) 219.
- [23] L. Amendola, C. Colamonic, M. Mazzarino, F. Botre, Anal. Chim. Acta 475 (1–2) (2003) 125.
- [24] J. Beyer, A. Bierl, F.T. Peters, H.H. Maurer, Ther. Drug Monit. 27 (4) (2005) 509.
- [25] V. Moreira, R.L.M. Moreau, J. Liq. Chromatogr. Relat. Technol. 28 (17) (2005) 2753.
- [26] T. Goto, E. Mikami, T. Ohno, H. Matsumoto, Shokuhin Eiseigaku Zasshi 43 (2) (2002) 95.
- [27] H.-J. Guchelaar, L. Chandli, O. Schouten, W.A. Van den Brand, Fresenius' J. Anal. Chem. 363 (7) (1999) 700.
- [28] N. Ferreiros, G. Iriarte, R.M. Alonso, R.M. Jimenez, E. Ortiz, J. Sep. Sci. 31 (4) (2008) 667.
- [29] M. Song, T. Hang, H. Zhao, L. Wang, P. Ge, P. Ma, Rapid Commun. Mass Spectrom. 21 (21) (2007) 3427.
- [30] F. Liu, Y. Xu, S. Gao, J. Zhang, Q. Guo, J. Pharm. Biomed. Anal. 44 (5) (2007) 1187.
- [31] P.S. Selvan, K.V. Gowda, U. Mandal, W.D.S. Solomon, T.K. Pal, J. Chromatogr. B 858 (1–2) (2007) 143.
- [32] G. Iriarte, N. Ferreiros, I. Ibarrodo, R.M. Alonso, M.I. Maguregui, R.M. Jimenez, J. Sep. Sci. 30 (14) (2007) 2231.
- [33] D. Zendelovska, T. Stafilov, Acta Pharm. 56 (2) (2006) 115.
- [34] J.M. Sandall, J.S. Millership, P.S. Collier, J.C. McElnay, J. Chromatogr. B 839 (1–2) (2006) 36.
- [35] L. Gonzalez, J.A. Lopez, R.M. Alonso, R.M. Jimenez, J. Chromatogr. A 949 (1–2) (2002) 49.
- [36] E. Caudron, S. Laurent, E.M. Billaud, P. Prognon, J. Chromatogr. B 801 (2) (2004) 339.
- [37] B.N. Patel, N. Sharma, M. Sanyal, P.S. Shrivastav, J. Sep. Sci. 31 (2) (2008) 301.
- [38] S. Erturk, A. Onal, S. Muge Cetin, J. Chromatogr. B 793 (2) (2003) 193.
- [39] P.R. Oliveira, L. Brum, M. Fronza, L.S. Bernardi, S.M.K. Masiero, S.L. Dalmora, Chromatographia 63 (7–8) (2006) 315.
- [40] S. Li, G. Liu, J. Jia, X. Li, C. Yu, J. Pharm. Biomed. Anal. 40 (4) (2006) 987.
- [41] J.-W. Deng, K.-B. Kim, I.S. Song, J.-H. Shon, H.-H. Zhou, Biomed. Chromatogr. 22 (2) (2008) 131.
- [42] K. Cai, W. Zheng, Y. Zhou, G. Lin, X. Zhao, Fenxi Huaxue 27 (11) (1999) 1254.
- [43] M.J. Morris, J.D. Gilbert, J.Y.K. Hsieh, B.K. Matuszewski, H.G. Ramjit, W.F. Bayne, Biol. Mass Spectrom. 22 (1) (1993) 1.
- [44] P.T. Funke, E. Ivashkiv, M.E. Arnold, A.I. Cohen, Biomed. Environ. Mass Spectrom. 18 (10) (1989) 904.
- [45] S. Al-Rawithi, R.F. Hussein, A. Alzahrani, Ther. Drug Monit. 25 (1) (2003) 88.
- [46] S. Sigurbjoernsson, T. Kjartansdottir, M. Johannsson, J. Kristinnsson, G. Sigurdsson, Eur. J. Drug Metab. Pharm. 23 (1) (1998) 13.
- [47] J.D. Cahill, E.T. Furlong, M.R. Burkhardt, D. Kolpin, L.G. Anderson, J. Chromatogr. 104 (1–2) (2004) 171.
- [48] S. Castiglioni, R. Bagnati, D. Calamari, R. Fanelli, E. Zuccato Ettore, J. Chromatogr. A 1092 (2) (2005) 206.
- [49] M. Gros, M. Petrovic, D. Mira, Talanta 70 (4) (2006) 678.
- [50] A.A.M. Stolker, W. Niesing, E.A. Hogendoorn, J.F.M. Versteegh, R. Fuchs, U.A.Th. Brinkman, Anal. Bioanal. Chem. 378 (4) (2004) 955.
- [51] F. Sacher, F.T. Lange, H.-J. Brauch, I. Blankenhorn, J. Chromatogr. A 938 (1–2) (2001) 199.
- [52] M. Gros, M. Petrovic, D. Barcelo, Anal. Bioanal. Chem. 386 (4) (2006) 941.
- [53] M. Petrovic, M.D. Hernandez, M.S. Diaz, D. Barcelo, J. Chromatogr. A 1067 (1–2) (2005) 1.
- [54] B. Kasprzyk-Hordern, R.M. Dinsdale, A.J. Guwy, Talanta 74 (5) (2008) 1299.
- [55] B. Kasprzyk-Hordern, R.M. Dinsdale, A.J. Guwy, J. Chromatogr. A 1161 (1–2) (2007) 132.
- [56] B. Kasprzyk-Hordern, R.M. Dinsdale, A.J. Guwy, Anal. Bioanal. Chem. 391 (4) (2008) 1293.
- [57] M. Petrovic, M. Gros, D. Barcelo, J. Chromatogr. A 1124 (1–2) (2006) 68.
- [58] O. Gonzalez, G. Iriarte, N. Ferreiros, M.I. Maguregui, R.M. Alonso, R.M. Jimenez, J. Pharm. Biomed. Anal., doi:10.1016/j.jpba.2008.10.037, in press.
- [59] K. Kawabata, N. Samata, Y. Urasaki, I. Fukazawa, N. Uchida, E. Uchida, H. Yasuhara, J. Chromatogr. B 852 (1–2) (2007) 389.
- [60] N.V.S. Ramakrishna, K.N. Vishwottam, M. Koteswara, S. Manoj, M. Santosh, D.P. Varma, J. Pharm. Biomed. Anal. 39 (5) (2005) 1006.
- [61] Guidance for Industry, Bioanalytical Method Validation, U.S. Department of Health and Human Services, Food and Drug Administration, Center for Drug Evaluation and Research (CDER), Center for Veterinary Medicine (CVM), Rockville, MD, May, 2001.
- [62] ICH Harmonised Tripartite Guideline: Validation of Analytical Procedures: Methodology, Q2(R1), International Conference on Harmonisation of Technical Requirements for Registrations of Pharmaceuticals for Human Use (ICH), Geneva, Switzerland, November, 2005.
- [63] A. Markham, K.L. Goa, Drugs 54 (2) (1997) 299.
- [64] B.L. Carter, M.E. Ernst, J.D. Cohen, Hypertension 43 (1) (2004) 4.
- [65] C.D. Scripture, J.A. Pieper, Clin. Pharmacokinet. 40 (4) (2001) 263.
- [66] F.L. Tse, J.M. Jaffe, A. Troendle, J. Clin. Pharmacol. 32 (7) (1992) 630.
- [67] J. Mielcarek, M. Kula, R. Zych, P. Grobelny, React. Kinet. Catal. Lett. 86 (1) (2005) 119.



---

**ONDORIOAK**

**ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEKO PERSPEKTIBAK**

**8**



---

## 8.1 Ondorioak

Ikerkuntza-lanaren hasierako helburuak gogoan hartuta, eta ondoren jasotako emaitzen aurrean, ondorio gisa hurrengo hausnarketa hauek zerrendatu daitezke:

I ICH eta FDA erakundeek ezarritako irizpideen arabera balidatu den SPE-HPLC-UV/FLR metodo analitikoak, plasmatik erauzitako Valsartana eta bere metabolitoa den Valeryl-4-hidroxi-valsartanaren aldibereko determinazioa bermatzen du. Balidaturiko prozedura Valsartanaren tratamendupean dauden pazienteei hartutako odol laginak analizatzeko aproposa dela erakutsi da. Inongo interferentziarik gabe, lagin errealetan Valsartana eta bere metabolitoa kuantifikatzeko baliagarria da.

II Gure laborategietan balidaturiko SPE-HPLC-UV/FLR metodo analitikoak, plasmatik erauzitako Valsartana, Valeryl-4-hidroxi-valsartana, Klortalidona eta Fluvastatinaren aldibereko determinazioa bermatzen du, eta ICH eta FDA erakundeek biobalidaziorako ezartzen dituzten kriterio guztiekin bat dator. Metodo honek Fluvastatina, Klortalidona eta Valsartana terapia kardiobaskular konbinatuean dauden gaixoen plasmatan determinatzea bermatzen du. Dopaturiko laginetan balidazio kriterio guztiak bete arren, Valsartanaren metabolitoa lagin errealetan ez dago kuantifikatzerik. Izan ere, baldintza hauetan, metabolitoaren gailurraren bikoizketa gertatzen dela behatu da (soilik lagin errealetan agertzen diren gailur bikoiztu hauek, PDAREN bitartez eskuraturiko espektrio fotometrikoetan absortzio ezaugarri antzerakoak erakusten dituzte).

III 5 Kapituluaren Valsartana, Valeryl-4-hidroxi-valsartana, Klortalidona eta Fluvastatina determinatzeko garatu berri den SPE-HPLC-UV/FLR prozedura, UHPLC-ra modu arrakastatsu batean transferitu da.

UHPLC sistema optimizatuarekin, banaketa bera analisi-denbora askoz laburragoan burutu daiteke (8 min *vs.* 17 min). Gradiente-moduan hain garrantzitsua den berrerekatze-denbora ere UHPLCn askoz txikiagoa denez (2 min *vs.* 5–8 min), gradiente hasierako baldintzetan orekara iristeko askoz denbora gutxiago behar da. Hortaz, denbora bera hartuta, UHPLCa erabilia, HPLCa baino askoz injekzio gehiago burutu daitezke.



Transferitutako UHPLC metodoak HPLC metodoarekiko beste zenbait abantaila erakusten ditu. Horien artean injekzio-bolumen txikiagoa eta disolbatzaile kontsumo txikiagoa aipa daitezke. Halaber, disolbatzaileen kontsumoa ere nabarmen baxuagoa denez, hondakin gutxiago eragiten ditu, hondakinen tratamendurako kostuak ere minimizatuz.

**IV** Optimizaturiko SPE–UHPLC–UV metodoa, plasmatik erauzitako Valsartana, Valeryl-4-hidroxi-valsartana, Klortalidona eta Fluvastatinaren aldibereko determinazioa bermatzen du, ICH eta FDA erakunde internazionalak biobalidaziorako ezartzen dituzten kriterio guztiekin bat baitator.

5 Kapituluaren optimizaturiko SPE prozedura bera erabilita, UHPLC prozeduran lorturiko berreskurapen mailak HPLCn lorturikoekin bat datoz (%77–91 *vs.* %78–91).

UHPLC metodoan erabilitako UV detektagailuaren sentikortasuna, maila terapeutikoan plasman aurki daitezkeen kontzentrazioak jarraitzeko aproposa da ( $\lambda=220$  nm-tan konpromisozko uhin luzera finkatuta, lorturiko LOQak: 20, 110, 67 eta  $48\mu\text{g/L}$  KLTD, VAL-M1, VAL eta FLUV-arentzat, hurrenez hurren).

Balidaturiko SPE–UHPLC–UV metodoak terapia kardiobaskular konbinatuean dauden gaixoen plasmatan Klortalidona, Valsartana eta Fluvastatinaren determinazioa bermatzen du. Nolanahi ere, Fluvastatinari arreta berezia jarri beharko zaio. Fluvastatina laginaren aurretratamendua burutu eta jarraian analizatu egin beharko da degradazioaren ondorioz eman daitezkeen kontzentrazio galerak ekiditzeko. Erauzkina argitik zein baldintza azidoetatik babestu beharko da uneoro.

Valsartanaren metabolitoa, berriz, lagin errealetan ezin izan da kuantifikatu, lagin dopatuetan ez bezala, baldintza kromatografiko hauetan metabolitoaren gailurra bikoiztuta agertzen baita. Metabolitoarekin dopaturiko plasman bikoizketarik eman ez denez, lagin terapeutikoekin erlazionatuta dagoen fenomeno delat ondoriozta daiteke. Efektu hau bera HPLCean ere Valsartanadun laginetan bakarrik begiztatu izanak, aditzera eman lezake gailur bikoizketa hori Valsartanaren metabolitoarekin zuzenean erlazionatuta legokeela (bi metabolito, edota isomero desberdinak). Hipotesi hau ordea, ezinezkoa da instrumentazio analitiko honekin konfirmatu. Zentzu honetan, ustezko metabolitoak prestaketa-kromatografiaren bitartez isolatu beharko lirarteke, jarraian eluzidazio estrukturala bermatuko duen karakterizazio teknikaren bat aplikatu ahal izateko (Q-ToF, NMR ...).

---

**V** Kromatografia likidoaren garapena etengabekoa da. Analisi azkarrak esku-  
ratzeko teknika desberdinak badaude ere, azken urteotan UHPLCak bereganatu  
duen nagusitasuna azpimarratu beharra dago. 2004ean merkaturatu zenetik,  
teknika honek munduko laborategi analitikoetan benetazko iraultza teknologikoa  
eragin du. Analisi-denbora nabarmen laburragoak, erresoluzio eta sentikortasun  
maila handiagoak, erraztasun handiko erabilera, segurtasun maila handia . . . tek-  
nika berri honek erakusten dituen ezaugarrietako batzuk baino ez dira.

Partikula tamaina txikiak (<2.0  $\mu\text{m}$ ) eta presio ultra handiak (>6.000 psi edo >400  
bar) uztartuz, kromatografia likidoak dimentsio berri batera jauzia egin du. UHPLC  
teknikarekin publikatutako artikuluen zenbatekoak hori erakusten du, izan ere,  
urte urte ematen ari den hazkundera izugarria izaten ari baita.

UHPLCaren inplantazioa etengabekoa da. Aplikazio eremu askotan UHPLCaren  
erabilerak aurrera pauso nabarmena suposatu du. Eta jakina, lan-esparru kli-  
nikoan ere. Txosten honetan jasota geratu den moduan, terapia kardiobaskular  
konbinatuaren jarraipena egiteko teknika honen bideragarritasuna erabatekoa da.



---

## 8.2 Etorkizuneko perspektibak. Iradokizunak

Nabarmena da lan honek terapia kardiobaskular konbinatuari egiten dion ekarpena bide onetik doala. Alabaina, aurreneko urratsa baino ez da. Etorkizunean, familia desberdinetako farmako antihipertentsioboak zein dislipemiaren aurkako farmakoak determinatzeko metodo analitikoak garatu beharko dira. Prozedura konposatu anitz hauei, jakina, diabetesaren aurkako farmakoak, antiagregatzaileak . . . ere gehitu beharko lirateke.

Zentzu honetan, UHPLCaren erabilera laguntza handikoa izango da. Prozedura analitiko berriak garatzeko, urte oso gutxitan merkatuan eskuragai dauden UHPLC zutabeen aniztasuna izugarri areagotu izana, laguntza handikoa izango da.

Detektagailuen auzia ere gogora ekarri beharko litzateke. Ikerkuntza-lan honetan erabilitako UV detektagailuek emaitza onak eman dituzte, baina detektagailu sentikorragoak eta espezifikagoak erabili beharko dira terapia kardiobaskular konbinatuari aurre egiteko. Farmako konbinazio zabalak aldi berean analizatu ahal izateko, argi dago etorkizuna, UHPLC-MS/MSren eskutik etorriko dela. Aurretratamendu etapa sinpleagoak eta azkarragoak eskuratzeko MS/MS detektagailuen partehartzea nahitaezkoa izango da. Konbinazio talde zehatzagoak aztertzeke ordea, PDA edota FLR erako detektagailuen erabilera nahikoa izan daiteke.

Amaitzeko, bada aipatu beharreko azken puntu bat. Lan-ildo honek etorkizunik izango badu, interdisziplinaritatearen bidetik etorriko da. Disziplina desberdinen partehartzea nahitaezkoa izango da. Ikerkuntza-lan hau, mediku talde baten laguntza eta babesarekin egin bada ere, esparru terapeutikoen inguruan atera litezkeen ondorioen gabezia agerikoa da. Datu terapeutikoetatik balorazioak, hausnarketak, konparaketak eta azken batean ondorioak ateratzeko, ikerlana eskala handiago batean diseinatu beharko litzateke. Mediku talde batekin batera egin beharko da lan hori.

Gorka Iriarte Saenz de Ojer,  
*Leioan, 2011eko Ekainean*

**ERANSKINAK:**

**9**

---



---

**+**

**ERANSKINAK:**

**]**

**SINDROME METABOLIKOAREN AURKAKO  
TERAPIA FARMAKOLOGIKOA**





---

## Farmako antihipertentsiboak

Monoterapian eta terapia konbinatuan erabiltzen diren farmako antihipertentsiboen zerrenda (Osakidetzak kaleraturiko HTAren aurkako Gida) [1].

## Farmako hipolipemiatzaileak

Dislipemiaren aurka erabiltzen diren farmako hipolipemiatzaile komertzialen zerrenda (Osakidetzak kaleraturiko Lipidoen erabilerari buruzko Gida) [2].

[1] R. Rotaeche-del Campo, J. Aguirrezabala-Jaca, L. Balagué-Gea, A. Gorroñagoitia-Iturbe, I. Idarreta-Mendiola, E. Mariñelarena-Mañeru, Mozo-Avellaneda C., E. Ruiz de Velasco-Artaza, and J. Torcal-Laguna. Hipertentsio arterialari buruzko Praktika Gida (2007ko eguneratzea). Osakidetza eta Osasun Saila, and Eusko Jaurlaritza, 2008.

[2] R. San Vicente-Blanco, I. Pérez-Irazusta, J. Ibarra-Amarica, I. Berraondo-Zabalegui, F. Uribe-Oyarbide, R. Urraca-García de Madinabeitia, J. and Samper-Otxotorena, I. Aizpurua-Imaz, J. Andrés-Novales, F. Almagro-Mugica, and R. Ugarte-Libano. Lipidoen erabilerari buruzko Praktika Klinikoko Gidaliburua arrisku kardiobaskularreko faktore bezala. Osakidetza eta Osasun Saila, and Eusko Jaurlaritza, 2008.

Lehengai aktiboa	Lerruna dosia/ eguna (mg)	Eguneko hartualdien /kopurua	Izen komertzialak eta aurkezpenak
<b>AEBI</b>			
BENAZEPRIL	10-40	1-2	Cibacen, Labopal: 10 mg 28 konp, 20 mg 28 konp
<b>CAPTOPRIL</b>	25-150	2-3	Captopril EFG, Capoten, Captoprina, Cesplon, Dilabar, Garanil, Tensoprel: 25 mg 60 konp, 50 mg 30 konp, 100 mg 15 konp; Captopril EFG, Capoten Cor, Cesplon Cor: 12,5 mg 20 konp
<b>CILAZAPRIL</b>	1,25-5	1	Inhibace, Inocar: 1 mg 30 konp, 2,5 mg 28 konp, 5 mg 28 konp
<b>ENALAPRIL</b>	5-40	1-2	Inhibace, Inocar: 1 mg 30 comp, 2,5 mg 28 comp, 5 mg 28 comp Enalapril EFG, Acetensil, Baripril, Bitensil, Clipto, Controlvas, Crinoren, Dabonal, Ditenso, Herten, Hipoartel, Iecatec, Insup, Naprilene, Neotensin, Pressitan, Recca, Renitec: 5 mg 10 eta 60 konp, 20 mg 28 konp; Enalapril Davur, Enalapril Belmac: 2,5 mg 10 konp, 10 mg 28 eta 56 konp, Renormax, Renpress: 6 mg 28 konp
ESPIRAPRIL	3-6	1	Fosinopril EFG, Fositens, Hiperlex, Tenso-stop: 20 mg 28 konp;
FOSINOPRIL	10-40	1	Hipertene 5 mg 28 konp, 10 mg 28 konp eta 20 mg 28 konp
IMIDAPRIL	5-20	1	Lisinopril EFG, Doneka, Likenil, Prinivil, Tensikey, Zestril: 5 mg 60 konp, 20 mg 28 konp
<b>LISINOPRIL</b>	5-40	1-2	Coversyl 4 mg 30 konp
<b>PERINDOPRIL</b>	2-8	1	Quinapril EFG, Acuprel, Ectren, Lidaltrin: 5 mg 60 konp, 20 mg eta 40 mg 28 konp
<b>QUINAPRIL</b>	5-80	1	Ramipril EFG, Acovil, Carasel: 2,5 mg 28 konp, 5 mg 28 konp eta 10 mg 28 konp; Acovil, Carasel: 1,25 mg 28 konp
<b>RAMIPRIL</b>	1,25-20	1-2	Gopten, Odrik: 0,5 mg 28 konp, 2 mg 28 konp eta 4 mg 28 konp
TRANDOLAPRIL	1-4	1	
<b>AHA-II</b>			
<b>CANDESARTAN</b>	4-16	1	Atacand, Parapres: 4 mg 14 konp, 8 mg 28 konp, 16 mg 28 konp
EPROSARTAN	600-800	1	Futuran, Navixen, Regulaten, Tevetens: 600 mg 28 konp; Eprosartan SmithKline 300 eta 400 mg 56 konp
<b>IRBESARTAN</b>	75-300	1	Aprovel, Karvea: 75 mg, 150 mg 300 mg 28 konp
<b>LOSARTAN</b>	25-100	1-2	Losartan EFG, Cozaar 12,5 mg 7 konp, 50 mg 28 konp, 100 mg
OLMESARTAN	10-40	1	Ixia, Olmetec, Openvas: 10 mg, 20 mg eta 40 mg 28 konp
<b>TELMISARTAN</b>	20-80	1	Micardis, Pritor: 20 mg, 40 mg, 80 mg 28 konp
<b>VALSARTAN</b>	80-160	1	Diovan, Kalpress, Miten, Vals: 40 mg (Kardio), 80 mg; 160 mg 28 kapsula
<b>Kaltzioren antagonistak</b>			
<b>Dihidropiridinak</b>			
<b>AMLODIPINO</b>	2,5-10	1	Amlodipino EFG, Astudal, Novvas: 5 mg 30 konp, 10 mg 30 konp
BARNIDIPINO	10-20	1	Libradin 10 mg 28 kaps askap kontr, 20 mg 28 kaps askap kontr
<b>FELODIPINO</b>	2,5-20	1	Felodipino Sandoz, Perfudal, Plendil: 5 mg 30 konp
LAZIDIPINO	2-6	1	Lacimen, Lacipil, Motens: 4 mg 28 konp
LERKANIDIPINO	10-20	1	Lercadip, Lerzam, Zandip: 10 mg 28 konp, 20 mg 28 konp
MANIDIPINO	10-20	1	Artedil: 10 mg 28 konp, 20 mg 28 konp
NIFEDIPINO RETARD	40-120	2	Nifedipino EFG, Adalat retard: 20 mg 40 eta 60 konp
<b>NIFEDIPINO GITS</b>	60-120	1	Adalat oros, Pertensal: 30 eta 60 mg 28 konp;
NISOLDIPINO	10-40	1-2	Syscor: 10 mg 30 konp; Sular: 10 eta 20 mg askap sost 30 konp
<b>NITRENDIPINO</b>	10-20	1-2	Nitrendipino EFG., Balmiril, Baypresol, Gericin, Niprina, Sub tensin, Tensogradal, Trendinol: 10 eta 20 mg 30 konp

(Jarraitu)

## MONOFARMAKOAK

Lehengai aktiboa	Lerruna dosia/ eguna (mg)	Eguneko hartualdien/ kopurua	Izen komertzialak eta aurkezpenak
------------------	---------------------------	------------------------------	-----------------------------------

### Kaltzioren antagonistak

#### Ez dihidropiridinak

<b>DILTIAZEM LIB RETARD</b>	120-360	1-2	Angiodrox R: 90 mg 30 eta 60 kaps, 120 mg 30 eta 60 kaps, 180 mg 30 eta 60 kaps, 300 mg 30 kaps; Cardiser R: 120 mg 60 kaps, 300 mg 28 kaps, 240 mg 30 konp; Carreldon: 120 mg 40 kaps, 240 mg 20 eta 30 konp; Corolater R: 60 mg 30 eta 60 kaps, 90 mg 30 eta 60 kaps, 120 mg 40 kaps; Cronodine: 120 mg 30 eta 60 kaps, 240 mg 30 kaps; Dilaclan HTA: 90 mg 30 eta 60 kaps, 120 mg 60 kaps, 180 mg 60 kaps, HTA 300 mg 30 kaps; Diltiwas R: 120 mg 40 kaps, Dinisor R: 120 mg 40 konp, 180 mg 30 konp, 240 mg 30 kaps; Doclis R: 120 mg 60 kaps, 240 mg 30 kaps; Lacerol R: 120 mg 40 kaps, 300 mg 20 eta 30 kaps; Lacerol HTA 240 mg 20 eta 30 kaps; Masdil R: 120 mg 60 konp, 300 mg 28 kaps; Tilker R: 120 mg 40 konp, askap sost 200 eta 300 mg 28 kaps; Uni masdil R: 200 mg 28 kaps
<b>VERAPAMILO RETARD HTA</b>	120-480 240-480	1-2 1	Manidon R 120 eta 180 mg 60 konp Manidon HTA 240 mg 30 konp retard

### Alfablokeatzaileak

DOXAZOSINA	2-16	1	Doxazosina EFG, Carduran, Doxatensa, Propangol: 2 mg 28 konp eta 4 mg 28 konp Carduran Neo, Propandol Neo: 4 mg eta 8 mg 28 konp askap kontrolatukoak
PRAZOSINA	2-30	2-3	Minipres 1 mg 60 konp, 2 mg 60 konp, 5 mg 30 konp

R: retard

### Beltzean agertzen diren lehengai aktiboak dira taldeak hautatutakoak

## ASOZIAZIOAK

Asoziazioa	Dosia (mg)	Aurkezpen komertzialak
------------	------------	------------------------

### Diuretikoak elkarren artean

Amilorida/hidroklorotiazida	5/50	Ameride, Diuzine 20 eta 60 konp
Espironolaktona/altizida	25/15	Aldactacine 40 konp
Espironolaktona/bendroflumetiazida	50/2,5	Spirometon 20 eta 60 konp
Espironolaktona/klortalidona	50/50	Aldoleo 20 konp
Triamtereno/furosemida xantinol	25/40	Salidur 20 eta 60 konp

**ASOZIAZIOAK**

Asoziazioa	Dosia (mg)	Aurkezpen komertzialak
<b>Betablokeatzaileak diuretikoeekin</b>		
Atenolol/bendroflumetiazida	100/5	Neatenol Diu 28 konp
Atenolol/klorotalidona	100/25	Blokium Diu, Normopresil, Tenoretic 28 eta 56 konp
Atenolol/hidroklorotiazida/amilorida	50/25/2,5	Kalten 28 kaps
Bisoprolol/hidroklorotiazida	10/25	Emcoretic 28 eta 56 konp
Oxprenolol/klorotalidona	160/20	Trasitensin Retard 28 grag
<b>AEBlak diuretikoeekin</b>		
Benazepril/ hidroklorotiazida	10/12,5	Cibadrex, Labodrex 28 konp
Kaptopril/hidroklorotiazida	20/25 50/25	Cibadrex, Labodrex 28 konp Captopril/HCTZ EFG, Cesplon Plus, Dilabar Diu, Ecadiu, Ecazide 30 konp
Zilazapril/hidroklorotiazida	5/12,5	Inhibace Plus, Inocar Plus 28 konp
Enalapril/hidroklorotiazida	20/12,5	Enalapril/HCTZ EFG, Acediur, Acetensil Plus, Baripril Diu, Bitensil Diu, Co-Renitec, Orinoretic, Dabonal Plus, Ditenside, Harten Plus, Hipoartel Plus, Neotensin Diu, Pressitan Plus 28 konp
Fosinopril/hidroklorotiazida	20/6 20/12,5	Renitecmax 28 konp Fositens Plus, Hiberlex Plus, Tenso Stop Plus 28 konp
Lisinopril/hidroklorotiazida	20/12,5	Doneka Plus, Irilic Plus, Prinvil Plus, Secubar Diu, Tensikey Complex, Zestoretic 28 konp
Perindopril/indapamida	2/0,625 4/1,25	Preterax 30 konp Bipreterax 30 konp
Quinapril/hidroklorotiazida	20/12,5	Acuretic, Bicetil, Lidaltrin Diu 28 konp
<b>AHA-II diuretikoeekin</b>		
Kandesartan/hidroklorotiazida	16/12,5	Atacand Plus, Parapres Plus 28 konp
Eprosartan/hidroklorotiazida	600/12,5	Eprosartan/hidroclorotiazida Tora, Futuran Plus, Navixen Plus, Regulaten Plus, Tevetens Plus
Irbesartan/hidroklorotiazida	150/12,5 300/12,5	Coaprovel, Karvezide 28 konp Coaprovel, Karvezide 28 konp
Losartan/hidroklorotiazida	50/12,5 100/25	Cozaar Plus 28 konp Fortzaar 28 konp
Telmisartan/hidroklorotiazida	40/12,5 80/12,5	Micardis Plus, Pritor Plus Micardis Plus, Pritor Plus
Valsartan/hidroklorotiazida	80/12,5 160/12,5 160/25	Co Diovan, Co Vals, Kalpress Plus, Miten Plus Co Diovan, Co Vals, Kalpress Plus, Miten Plus Co Diovan Forte, Co Vals Forte, Kalpres Plus Forte, Miten Plus Forte
<b>Kaltzio-antagonistak betablokeatzaileekin</b>		
Metoprolol/felodipino	50/5	Logimax 50/5 mg 30 konp
<b>Kaltzio-antagonistak AEBlakin</b>		
Verapamilo/trandolapril	180/2	Tarka, Tricen 28 kaps retard
Nitrendipino/enalapril	10/20	Eneas, Enit, Vipres 30 konp
<b>Kaltzio-antagonistak AHA llekin</b>		
Amlodipino/valsartan	5/160 10/160	Exforge 28 konp Exforge 28 konp
<b>Beste asoziazio batzuk</b>		
Atenolol/hidralazina/bendroflumetiazida	100/50/5	Neatenol diuvas 30 eta 60 konp

# 15. Botika hipolipemiatzaileak. Aurkezpen komertzialak

LEHENGAI AKTIBOA	TARTEA DOSIA/EGUNA (MG)	EGUNEKO HARTUALDI KOPURUA	IZEN KOMERTZIALAK ETA AURKEZPENAK
<b>ESTATINAK</b>			
<b>Atorvastatina</b>	10-80	1	Cardyl, Prevencor, Zarator: 10 mg, 28 konp.; 20 mg, 28 konp.; 40 mg, 28 konp.; 80 mg, 28 konp.
<b>Fluvastatina</b>	20-80	1	Digaril, Lescol, Liposit, Lymetel, Vaditon: 20 mg, 28 kaps.; 40 mg, 28 kaps. Digaril Prolib, Lescol Prolib, Liposit Prolib, Lymetel Prolib, Vaditon Prolib: 80 mg, 28 konp. askapen luzekoak
<b>Lovastatina</b>	10-80	1-2	Aterkey, Colesvir, Liposcler, Lovastatina EFG, Mevacor, Mevastrol, Nergadan: 20 mg, 28 konp.; 40 mg, 28 konp. Taucor: 20 mg, 30 konp.; 40 mg, 30konp.
<b>Pravastatina</b>	10-40	1	Bristacol, Lipemol, Liplat, Prareduct, Pravastatina EFG, Pritadol: 10 mg, 28 konp.; 20 mg, 28 konp.; 40 mg, 28 konp.
<b>Simvastatina</b>	5-80	1	Alcosin, Arudel, Belmalip, Colemin, Glutasey, Histop, Lipociden, Pantok, Simvastatina EFG, Zocor: 10 mg, 28 konp.; 20 mg, 28 konp.; 40 mg, 28 konp.
<b>FIBRATOAK</b>			
<b>Bezafibratoa</b>	200-600 400	1-3 1	Eulitop: 200 mg, 60 konp. Difaterol Retard, Eulitop Retard: 400 mg, 30 konp.
<b>Fenofibratoa</b>	100-300  160 250	1-3  1 1	Liparison: 100 mg, 50 kaps.; 100 mg, 100 kaps. Secalip: 145 mg, 30 konp.; 200 mg, 30 kaps. Secalip Supra: 160 mg, 30 konp. Liparison Retard, Secalip Retard: 250 mg, cap
<b>Gemfibroziloa</b>	900-1.200	1-2	Gemfibrozilo EFG, Lopid, Pilder, Trialmin: 600 mg, 60 konp.; 900 mg, 30 konp.
<b>IOIEN ELKARTRUKEKO ERRETXINAK</b>			
<b>Kolestipola</b>	5.000-30.000	1-3	Colestid: 5 g, 30 sobre
<b>Kolestiramina</b>	12.000-36.000	1-4	Resincolestiramina: 4 g, 50 sobre Efenso: 3 g, 40 sobre
<b>KOLESTEROLAREN HESTEETAKO XURGAPENAREN INHIBITZAILEAK</b>			
<b>Ezetimiba</b>	10	1	Ezetrol: 28 konp.
<b>BESTELAKO HIPOLIPEMIATZAILEAK ETA HIPOTRIGLIZERIDEMIATZAILEAK</b>			
<b>Kolextrana</b>	2.000-4.000	2	Dexide: 500 mg, 50 kaps.
<b>Ikosapento/ Dokonexento</b>	1.680-3.360	1	Omacor: 840 mg, 28 kaps.; 840 mg, 100 kaps.
<b>Sulodexina</b>	36-72  30	3  1	Aterina: 15 mg, 60 kaps. Luzone: 6 mg, 60 kaps.; 12 mg, 60 kaps. Aterina: 30 mg, 6 anp.
<b>Piperazina sultosilatoa</b>	1.500	3	Mimedran: 500 mg, 45 konpr.



---

**+2**

**ERANSKINAK:**

**FARMAKOEN IKASKETA FOTOMETRIKOA**





---

Farmakoen determinazioa teknika espektroskopikoen bidez aurrera eraman ahal izateko, konposatu hauen propietate espektrofotometrikoak buruzko informazioa izatea ezinbestekoa da. Molekula organiko hauek handiak eta talde aromatikodunak direnez, oso aproposak dira absortzioz analizatzeko, UV-ikuskor eskualdean absorbatzen baitute. Gainera, hauetariko batzuren egiturek fluoreszentiaren bidezko determinazioa baimentzen dute, metodo sentikorrek eta selektiboak garatzeko aukera eskainiz.

Konposatuen ezugarri espektrofotometrikoak, beren portaera kromatografikoak bezala, ionizazio konstantearen menpekoak dira. Horrela azido-base bikote baten propietate espektrofotometrikoak desberdinak izan daitezkeenez, ingurune ko pHaren eragina kontrolatu beharko da. Era berean, disolbatzailea garrantzia handikoa da, molekularekin duen interakzioaren arabera absortzio intentsitatea eta uhin luzeera aldatu baitaiteke. Ondorioz, azterketa espektroskopiko egokia egiteko pHak eta disolbatzaileak molekuletan eragiten duten efektua aztertu beharko da.


Jarraian, ikerkuntza-lan honetan aztergai diren konposatuen oinarriko ezaugarri fotometrikoen nahiz fluorimetrikoen inguruko informazioa erantsi da.

## Valsartana eta bere metabolitoa:

**Azterketa fotometrikoa** Espektro fotometrikoetan disolbatzailearen eragina aztertzeko,  $5 \mu\text{g/mL}$  Valsartan eta  $9 \mu\text{g/mL}$  Valeryl-4-hidroxi-valsartan disoluzioak AZN eta MeOHn prestatu ziren. pHren eragina aztertzeko Valsartanaren kasurako soilik egindako ikerketan, KCl (0.5 M) ingurune ionikoan prestatuta zeuden  $5 \mu\text{g/mL}$ -ko Valsartan disoluzioak (%10 MeOHn prestatuta), pH=2, 4, 6, 8 eta 10tan tanponatu ziren Britton-Robinson (0.02 M) tanpoia erabilita. Hauek ateratako ondorioak:

- Valsartanaren kasuan, nola bere metabolitoarenean ere, disolbatzailearen eragina (AZN, MeOH eta  $H_2O$ ) arbuiagarria da, AZNk banda zabalagoak eta handiagoak eragiten baditu ere.
- pHren eragina ere arbuiagarria da.
- Valsartana eta bere metabolitoaren determinazio fotometrikoa 229 nm edota 254 nm-ko uhin luzeretan egin daiteke.  $\lambda_{abs(max)}=229 \text{ nm}$  sentikorra goa

izan arren, uhin luzera altuagoko lan baldintzak selektiboagoak izaten direnez, determinazio fotometrikoa  $\lambda_{abs}=254$  nm-tan egiteko aukera kontsideratu beharko litzateke.




**Irudia 0.1:** Valsartana eta bere metabolitoaren ikasketa fotometrikoa: (a) Valsartanaren espektro fotometrikoa; (b) Valeryl-4- hidroxi-valsartanaren espektro fotometrikoa. Erabilitako disoluzioek MeOH-ean  $10.0 \mu\text{g/mL}$ -ko kontzentrazioa zuten.

Neurketa espektrofotometriko hauek Varian etxeko (Palo Alto, AEB) Cary 5000 Uv-Vis-Nir espektrofotometroan egin ziren. Aparatu hau kontrolatzeko Cary WinUV softwarea erabili zen.

**Azterketa fluorimetrikoa** Kitzikapen/emisio espektroetan disolbatzailearen eragina aztertzeko,  $5 \mu\text{g/mL}$  Valsartan eta  $9 \mu\text{g/mL}$  Valeryl-4-hidroxi-valsartan disoluzioak AZN eta MeOHn prestatu ziren. pHren eragina aztertzeko, azterketa fotometrikoan erabilitako disoluzio berdinak erabili ziren. Hauek ateratako ondorioak:

- Ez da disolbatzailearen eragin aipagarririk antzematen.
- Valsartanaren eta bere metabolitoaren fluoreszentzia propietateek pHrekiko menpekotasun handia erakusten dute (Ikusi **0.2** Irudia). Izan ere,  $\text{pH} > \text{p}K_a$  denean ( $\text{p}K_a \sim 3.69$ ) molekulen fluoreszentzia kolpean jaisten da base konjokatua fluoreszentea ez delako ( $\text{pH} < \text{p}K_a$  zonaldeko fluoreszentzia,  $\text{pH} > \text{p}K_a$  zonaldekoa baino 40–80 aldiz handiagoa da).
- Intentsitate fluoreszente maximoa  $2 < \text{pH} < 4$  denean ematen da.



**Irudia 0.2:** Valsartana eta bere metabolitoaren azterketa fluorimetrikoa. Irudietan, (a) Valsartanari dagozkion kitzikapen eta igorpen espektroak ( $5 \mu\text{g}/\text{mL}$ ); eta (b) Valeryl-4-hidroxiValsartanari dagozkion kitzikapen eta igorpen espektroak ( $9 \mu\text{g}/\text{mL}$ ). Espektroak lortzeko bi konposatuaren disoluzioak %5 AZN eta 0.5 M KCl ingurune ionikoan prestatu ziren. pH-aren eragina ondorengo pHetan aztertu zen:  $\blacktriangleright$  pH= 2,  $\blacktriangleright$  pH= 4,  $\blacktriangleright$  pH= 6,  $\blacktriangleright$  pH= 8,  $\blacktriangleright$  pH= 10.

Kitzikapen eta igorpen espektroen neurketak Jobin Yvon Horiba etxeko FluoroMax-3 (Tokio, Japonia) espektrofluorimetroarekin egin ziren. Aparatu hau kontrolatzeko Instrument Controler softwarea erabili zen. Neurketak  $25^\circ\text{C}$ eko temperatura konstantean egitearren Thermo Nel SAB bainu termostatikoa erabili zen.

## Fluvastatina:

**Azterketa fotometrikoa** Disolbatzailearen eragina aztertzeko, Fluvastatinaren  $10 \mu\text{g}/\text{mL}$  disoluzioak AZN, MeOH eta  $\text{H}_2\text{O}$ -n prestatu ziren. **0.3** Irudian ikusten den bezala, Fluvastatinak bi maximo erakusten ditu 234 eta 305 nm inguruan. Disolbatzailearen efektua handiegia izan ez arren, lehenengo maximoan nabari daiteke uretan intentsitatea AZN-n eta MeOH-n baino handiagoa dela. Bigarren maximoan ordea, kontrakoa gertatzen da.

pHaren eragina ikertzerakoan, pH azidoetan espektro ez errepikakorrek jaso ziren, Fluvastatina giro horretan nabarmen degradatzen delaren seinale. Laginen tratamendua eta banaketa kromatografiko egokia garatzeko funtsezkoa da degradazio honen inguruan informazio zehatza jasotzea. Horretarako, espektrofotometroa erabiliz baldintza desberdinetan Fluvastatinaren erreakzioaren zinetika jarraitu zen. Hauek egonkortasun ikerketetatik ateratako ondorioak<sup>1</sup>:

- pH faktorea: pHa txikitzearekin batera degradazio erreakzioa azkartzen da. Ordubeteko epea utzita, pH 2an degradazio erreakzioak oraindik jarraitu egi-

<sup>1</sup>Fluvastatinaren egonkortasun falta ikusita, ikerketa talde honek konposatu honen degradazioa sakontasun handiagoarekin aztertu du. Ikerlan horren berri izateko, Gonzalez-Mendia-k egindako lanera jotzea gomendatzen da [2].

---


ten du, pH 3an oreka batera iristen den bitartean. pH 4ean Fluvastatina egonkorra dela ematen du, bere espektroaren forman aldaketa berezirik ez baita behatzen.

- Disolbatzaile motaren efektua: %100 ingurune urtsuko disoluzioan baino degradazio geldoagoak ematen diren arren, pH 2an AZN edota MeOH disolbatzaileetan ere degradazioa ematen da. Degradazioa MeOH disoluzioan AZNan baino askoz azkarrago ematen da. Fluvastatinaren egonkortasuna pH baxuetan disolbatzaile organikoaren proportzioarekin handitzen da.
- Argiaren efektua: argiaren presentzian, Fluvastatina fotodegradatzen da. Mielcarek *et al.*-ek aurkitu zuten bezala Fluvastatinaren jatorrizko absortzio espektroa aldatzen da [1]; argiaren eraginpean, denborarekin absortzio ezaugarri propioak dituzten fotoproduktu desberdinak agertzen dira. 24 h iagrotakoan 243 eta 276 nm-tan absortzio maximoa agertzen duen espektroa jasotzen da. Fluvastatinaren fotodegradazioa ekiditu nahi bada, argipean ahalik eta denbora laburrean mantenduko beharko da. Esposizio hau minimizatze-ko topaziozko bialak eta flaskoak erabili beharko dira.


**Azterketa fluorimetrikoa** Fluvastatinaren propietate fluoreszenteen ikerketa lan zaila da fluorimetroaren lanpararen intentsitate handiaren ondorioz molekula degradatzen baita. Arazo hau sahiesteko disoluzio desberdinak prestatu behar izan ziren kitzikapen ekorketa eta igorpen ekorketa egiteko.

Kitzikapen/emisio espektroetan disolbatzailearen eragina aztertzeko, Fluvastatinaren  $4 \mu\text{g}/\text{mL}$ -ko disoluzioak AZN eta MeOHn prestatu ziren. Hauek ateratako ondorioak:


- Absortzio fotometrikoan gertatu bezala, kitzikapen eta igorpen espektroak zertxobait intentsoagoak dira AZNren kasuan. Nolanahi ere, espektruen itxurak batetik bestera ez dira apenas aldatzen.
- Kitzikapen espektroak bi maximo erakusten ditu ( $\lambda_{kitz. (max)} = 250 \text{ nm}$  eta  $\lambda_{kitz. (max)} = 310 \text{ nm}$  inguruan), eta igorpen espektroak, aldiz, bakarra ( $\lambda_{ig. (max)} = 400 \text{ nm}$ -tan).



(a)




(b)



(c)

**Irudia 0.3:** Fluvastatinaren ikasketa fotometrikoa: (a) Disolbatzailearen eragina (AZN, MeOH eta  $H_2O$ ); (b) pH-aren eragina (pH 2, 3 eta 4, disoluzio urtsuak erabilita); (c) argipean Fluvastatinak pairatzen duen fotodegradazioa. Erabilitako disoluzioak  $10.0 \mu\text{g}/\text{mL}$  Fluvastatinarekin prestatu ziren.

Neurketa espektrofotometriko hauek Varian etxeko (Palo Alto, AEB) Cary 5000 Uv-Vis-Nir espektrofotometroan egin ziren. Aparatu hau kontrolatzeko Cary WinUV softwarea erabili zen.



**Iru dia 0.4:** Fluvastatinaren ikasketa fluorimetrikoa: (a) Kitzikapen espektroa; (b) Igorpen espektroa; (c) argipean Fluvastatinak pairatzen duen fotodegradazioa. Fluvastatinaren  $4 \mu\text{g}/\text{mL}$ -ko disoluzioak AZN-n prestatu ziren.


Neurketa espektrofluorimetriko hauek Horiba etxeko (Kyoto, Japonia) Flurolog3, FL3-22 modeloan egin ziren (monokromadore bikoitzeko espektrofluorimetroa eta 450 W-ko lanpara zuen). 1 cm-ko kuartzozko kubeta erabili zen eta zirrikituen zabalera 2 nm-koa izan zen.

## Klortalidona:

**Azterketa fotometrikoa** Disolbatzailearen eragina aztertzeko, Klortalidonaren  $10 \mu\text{g}/\text{mL}$ -ko disoluzioak AZN, MeOH eta  $\text{H}_2\text{O}$ -n prestatu ziren. pHren eragina aztertzeko KCl (0.5 M) ingurune ionikoan prestatuta zeuden  $10 \mu\text{g}/\text{mL}$ -ko disoluzioak (%30 MeOHn prestatuta), pH=2, 4, 6, 8 eta 10tan tanponatu ziren Britton-Robinson (0.02 M) tanpoia erabilita. Hauek ateratako ondorioak:

- Ez da disolbatzailearen eragin aipagarririk antzematen.
- pHaren eraginari dagokionez, pH 8–10 inguruan espektroaren forma aldatzen hasten da,  $pK_a$ -ren inguruan hain zuzen ere ( $pK_a = 9.36$ ) (ikusi 0.5 Iru dia). Honek forma azidoak eta basikoak absortzio propietate desberdinak dituztela adierazten du.

**Azterketa fluorimetrikoa** Klortalidonak berezko fluoreszentziarik ez duenez, deribatizazio prozeduraren bat erabili ezean, ezinezkoa izango da detektagailu fluoreszente baten bitartez determinatu.



**Irudia 0.5:** Klortalidonaren ikasketa fotometrikoa: (a) Disolbatzailearen eragina (AZN, MeOH eta  $H_2O$ ); (b) pH-aren eragina (pH 2, 4, 6, 8, 10, 11.7). Erabilitako disoluzioak  $10.0 \mu\text{g}/\text{mL}$  Klortalidonarekin prestatu ziren, (b) saiakuntzetako disoluzioak 70:30 tanpoi:MeOH proportzioan prestatu zirelarik.

Neurketa espektrofotometriko hauek Varian etxeko (Palo Alto, AEB) Cary 5000 Uv-Vis-Nir espektrofotometroan egin ziren. Aparatu hau kontrolatzeko Cary WinUV softwarea erabili zen.

[1] J. Mielcarek, M. Kula, R. Zych and P. Grobelny. Kinetic studies on Fluvastatin photodegradation in solutions. 2005, React.Kinet.Catal.Lett. 86(1): 119-126.  
 [2] O. Gonzalez-Mendia. Determination of drugs used in combined cardiovascular therapy. Doktorego tesia, Zientzia eta Teknologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa (Bizkaia), Ekaina 2011.





---

**+3**

**ERANSKINAK:**

**KROMATOGRAFIA LIKIDO ULTRA - AZKARRA**



---

Analisi azkarrak lortzeko, azken hamarkadan (2000–2011) prozedura kromatografiko esanguratsuenen bilakaera bibliografikoa osatzeko erabili diren bilaketa terminoak (ikusi 6.20, 6.21 eta 6.22 Irudiak):

- (a) Zutabe monolitikoak: Topic=("Monolith\*" AND ("High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC")) NOT Topic=("Monolith\* Enzym\*" OR "Enzym\* Reactor\*" OR "Imprinted Polymer\*" OR "in-tube SPME" OR "Trapping Column\*" OR "Microextraction Phase\*" OR "Micro Solid Phase Extract\*" OR "Electrochromatograph\*" OR "Monolith\* Microextraction" OR "Monolith\* SPE" OR "Monolith\* Extract\*" OR "Monolith\* Cartridge" OR "Monolith\* Disk\*" OR "On line SPE" OR "On line Solid Phase Extraction" OR "Column Switching");
- (b) Perfusio Kromatografia: Topic(("Perfus\* Chromatograph\*" OR "Perfus\* Column" OR "Perfus\* Support\*" OR "Perfusion Liquid Chromatograph\*" OR "Perfusion Reversed Phase") AND ("High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC")) NOT Topic=("Immunoaffinity Chromatograph\*" OR "Membrane Chromatograph\*" OR "Affinity Chromatograph\*" OR "Monolith\*" OR "Solid Phase Microextract\*");
- (d) HTLC: Topic=("High Temperature Liquid Chromatograph\*" OR "High Temperature LC" OR "HTLC" OR "High Temperature Water Chromatograph\*" OR "Superheated Water Chromatograph\*" OR "Subcritical Water Chromatograph\*") NOT Topic=("turbulen\*");
- (e) UHPLC: Topic=("UHPLC" OR "U-HPLC" OR "Ultra HPLC" OR "Ultra Fast HPLC" OR "Ultra High Pressure Liquid Chromatograph\*" OR "Ultra High Pressure LC" OR "Ultra High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "UPLC" OR "Ultra Performance Liquid Chromatograph\*" OR "Ultra Performance LC" OR "Rapid Separation Liquid Chromatograph\*" OR "Rapid Separation LC" OR "Ultra Fast Liquid Chromatograph\*" OR "Rapid Resolution Liquid Chromatograph\*" OR "VHPLC") NOT Topic=("Unified Power Line Conditioner" OR "Universal Active Power Line Conditioner" OR "Ultra High Pressure Extract\*") OR Topic=("Ultra High Pressure" AND ("High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC"));
- (f) HT-UHPLC: Topic(("HT-UHPLC" OR "HT-UPLC")) OR Topic(("UHPLC" OR "U-HPLC" OR "Ultra HPLC" OR "Ultra Fast HPLC" OR "Ultra High Pressure Liquid Chromatograph\*" OR "Ultra High Pressure LC" OR "Ultra High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "UPLC" OR "Ultra Performance Liquid Chromatograph\*" OR "Ultra Performance LC" OR "Rapid Separation Liquid Chromatograph\*" OR "Rapid Separation LC" OR "Ultra Fast Liquid Chromatograph\*" OR "Rapid Resolution Liquid Chromatograph\*" OR "VHPLC") AND ("High Temperature" OR "Elevated Temperature"));
- (g) SPP (*Fused-Core*): Topic=("Superficially Porous Particles" OR "SPP" OR "Fused Core Particles" OR "Porous Shell Particles" OR "Shell Particles" OR "Poroshell Particles")

---

OR "Kinetex" OR ("Halo" AND ("Column" OR "Fused Core" OR "Core Shell" OR "Porous Shell" OR "Superficially Porous")) OR "Ascentis Express" OR "Fused Core C18") AND Topic=("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC");

- (h) RAM: Topic=("Restricted Access Media" OR "Restricted Access Material" OR "Restricted Access") AND Topic=("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC") NOT Topic=("Electrophores\*" OR "Micellar Liquid Chromatograph\*" OR "Thin Layer Chromatograph\*");
- (i) *On-line* SPE: Topic=("On line SPE" OR "On line Solid Phase Extraction" OR "Column Switching") AND ("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC") NOT Topic=("Restricted Access Media" OR "Restricted Access Material" OR "Restricted Access" OR "RAM" OR "Turbulent Flow Chromatograph\*" OR "High Turbulence Liquid Chromatograph\*" OR "Turbulent Flow LC" OR "High Turbulence LC" OR "TurboFlow LC") NOT Topic=("Electrophores\*" OR "Micellar Liquid Chromatograph\*" OR "Thin Layer Chromatograph\*");
- (j) TFC: Topic=("Turbulent Flow Chromatograph\*" OR "High Turbulence Liquid Chromatograph\*" OR "High Flow Direct Injection Liquid Chromatograph\*" OR "Very High Flow Rate Liquid Chromatograph\*" OR "Turbulent Flow LC" OR "High Turbulence LC" OR "TurboFlow LC") OR Topic=("Turbu\*" AND "High Flow" AND "Large Particle\*" AND ("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC")) OR Topic=("Turbu\*" AND "On Line" AND ("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC"));
- (k) LC-Paraleloak: Topic=("Parallel Liquid Chromatograph\*" OR "Parallel HPLC" OR "2D LC" OR "2D HPLC" OR "Two Dimension\* LC" OR "Two Dimension\* HPLC" OR "Multi Dimension\* LC" OR "Multi Dimension\* HPLC" OR "Multidimensional Liquid Chromatogr\*" OR "Multidimensional HPLC" OR "LC x LC" OR "LCxLC" OR "LC/LC" OR "LC-LC") OR Topic(("lab-on-a-chip" AND ("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC")) OR ("micro total-analysis system\*" AND ("Liquid Chromatograph\*" OR "LC" OR "High Performance Liquid Chromatograph\*" OR "HPLC" OR "Reversed Phase Liquid Chromatogr\*" OR "RPLC"))) NOT Topic=("Electrochromatograph" OR "Electrophores\*");







eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



ZTF-FCT

Zientzia eta Teknologia Fakultatea  
Facultad de Ciencia y Tecnología